



Soziolinguistika

aldizkaria



HIZTUN
BERRIAK

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA





bat Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

HIZTUN BERRIAK





● **HELBURUA**

Aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hautzat bere jarduerak esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.

● **EDUKIA**

Aldizkari honek hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko lanak biltzen ditu. Bi dira bere erreferentzia esparru nagusiak, Euskal Herria eta Europa. Batean nahiz bestean plazaratzen diren iritzi, esperientzia edo ikerketen agertoki izan nahi du aldizkariak. Argitaratzen diren lanen hautaketa egiterakoan argitalpen batzordeak ahalegin berezia egiten du alor honi berezkoa zaien disziplinartekotasuna gordetzen eta honela bertan biltzen diren lanek hizkuntza normalkuntza eta glotopolitikarekin loturiko ahalik eta alderdi desberdin gehien erakus dezaten.

● **ARGITARATZAILEA**

Aldizkaria Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du

● **ZUZENDARIA**

Iñaki Martínez de Luna Soziologoa

● **ARGITALPEN BATZORDEA**
Bartzordekideak

Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
eamorrortu@fil.deusto.es

Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHUko katedraduna)
ehu-azurmendi@telefonica.net

Jone Miren Hernández (UPV/EHUko irakaslea)
jm.hernandez@ehu.es

Lionel Joly (Euskaltzaindia)
ljolyeuskaltzaindia@gmail.com

Inma Muñoz (Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak)
inmunoa@ehi.ikastola.net

● **Koordinatzailea**

Belen Urange (Soziolinguistika Klusterra)
b.urang@soziolinguistika.eus

● **HARPIDETZA ETA SALMENTA**

ARDURADUNA
Isabel Godinez
i.godinez@soziolinguistika.eus
943 592 556

● **ALDIZKARIAREN**

DISEINATZAILEA
Txema Gartzia Urbina
zabalur@gmail.com

● **HARPIDETZAK**

Aldizkariaren harpidetza urteko 40 euro dira. Harpidetza egiteko edo bertan behera uzteko jar zaitez harpidetza eta salmenta arduradunarekin (Isabel Godinez)

● **WEBGUNEAK**

Aldizkariaren aurreko aleak on-line dituzu **www.soziolinguistika.eus helbidean**
Gune berean, halaber, argitaratu diren lan guztiei buruzko datu basea eta bilatzailea ere badituzu edozein kontsulta erraz eta bizkor egin ahal izateko. Aldizkariaren aurreko aleak eskuratu nahi izanez gero, halaber, gune horretan bertan egin dezakezu eskaera.



● **HARREMANETARAKO**

Belen Urange (Soziolinguistika Klusterra)
Martin Ugalde Kultur parkea
20140 ANDOAIN

b.urang@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus
943 592 556

ISSN: 1130-8435 — LEGE GORDAILUA:
SS120/90

INPRIMAKETA: Leitzaran Grafikak S.L.

BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie zenbaki hau argitaratzen lagundu duten guztiei:

Iñaki Alegria, Jaime Altuna, Estibaliz Amorrortu, Eduardo Apodaka, Ander Corral, Jone Goirigolzarri, Jordi Morales, Ane Ortega, Joan Pujolar, Larraitx Uría, John Walsh.

Aldizkari honek urtean lau zenbaki argitaratuko ditu.

BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratzen diren artikulua bi artikulua-ebaluatzailek aztertzen dituzte; horietako bat, gutxienez, aldizkaritik kanpokoa da.

BAT Soziolinguistika Aldizkariaren edukiak honako sareetan daude:

— Dialnet

— EBSCO International Research Databases

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du.

idatzi baldizkarian



Asko gara gaur egun soziolinguistikaren esparruren bat lantzen dugunak. Batzuetan egindako lana eta horrek emandako uzta zein den erakusteko, bestetan bizi izandako erasoak ekarri duena ezagutzeko... Euskara bizi den eremu orotan bada zer ikusi eta zer ikasia.

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, Bat aldizkariko irakurleontzat ekarpen mamitsuren bat duzula uste baldin baduzu zabalik duzu aldizkariko atea.

Dei hau euskararen soziolinguistika kezka eta arretagune duen orori zuzendurik dago, euskaltzale, tesigile, ikerlari, normalkuntza teknikari, irakasle...

Oharra: Lanak aldizkariaren egoitzara bidali behar dira. Idatzi aurretik irakurri aldizkariaren lanak argitaratzeko irizpedea.



Harremanetarako: Belen Uranga
BAT aldizkaria
Martin Ugalde KP
20140 Andoain

Telefonia: 943 592 556

Helbide elektronikoa: b.uranga@soziolinguistika.eus

Deskontu Sarea, abian!

bl



Orain,
BERRIAlagunek
deskontuak tokiko
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
berria.eus/berrialaguna/deskontusarea

**Deskontu kupoi bat
baliatu nahi duzu?**

1. Sortu kontua
BERRIAlagunaren
webgunean
2. Inprimatu kupoia
Deskontu Sarea ataletik
edo deskargatu
telefonoan
3. Aurkeztu dendan
BERRIAlagun
txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen
bidez berreskuratuko duzu:

- › Dendak
- › Jatetxeak
- › Museoak
- › Landetxeak
- › Ikuskizunak
- › Aisialdi guneak



Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!

berria
mundua-euskarari-eman

104

HIZTUN BERRIAK

> **HITZAURRE GISA**

Belen Uranga **007**

01 Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak.

Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega eta Jone Goirigolzarri **011**

02 Gazte katalanen muda linguistikoak.

Joan Pujolar, Isaac González eta Roger Martínez **051**

03 Irlandaradun berriak: jatorria, motibazioa, erabilera eta ideologia.

John Walsh **071**

■ **GUREAN ATALA**

Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila.

Eduardo Apodaka eta Jordi Morales **095**

Genero-identitatearen hizkuntza jokoa. Hurbiltze etnografikoa nerabeen hizkuntza-praktiketara.

Jaime Altuna Ramírez **139**

Kode-alternantzia aztertzeko hizkuntza-teknologien ekarpena

Larraitx Uria, Iñaki Alegria eta Ander Corral **159**

Aldizkarian lanak argitaratzeko bidea

Zure jarduera esparrua edozein dela ere, BAT aldizkariko irakurleontzat ekarpena izango dela uste baldin baduzu, zabalik duzu aldizkariko atea. Lanak idatzi eta aurkezteko irizpideak honakoak dira:

Luzera. Aldizkarian bi motatako testuak argitaratzen dira: artikuluko akademikoak eta liburu-aipamenak. Artikuluen kasuan 30.000 karaktere inguruko luzera izango dute eta erreseinen kasuan, aldiz, 10.000 karaktere inguru.

Laburpena. Artikuluen kasuan, testuarekin batera, bere edukiaren laburpen bat erantsi behar da (gehienez 1000 karaktere, 10 lerro mekanografiatu gutxi gora-behera). Aldizkariak ingelesera itzuliko du laburpena eta bi hizkuntzotan emango du artikuluen hasieran, eta baita interneten ere. Liburu-aipamenei kasuan ez da laburpenik argitaratuko.

Hitz gakoak. Artikuluen kasuan, hari lotzen zaizkion lau/sei hitz gako emango ditu egileak sailkatze eta bilaketa automatikoak errazteko asmoarekin.

Erreferentziak eta oharra. Ahal izanez gero, erreferentzia guztiak testu barnean txertatuko dira, artikuluen bukaerako bibliografiarekin lotuz. Oharra, izatekotan, zenbaturikoak izango dira, eta zerrenda osoa artikuluen amaieran emango da.

Aipamen bibliografikoak. Testuaren baitan egilearen deitura eta lanaren argitaratze urtea adieraziko da parentesi artean; demagun: "(Odriozola 1998)".

Lanaren amaieran, bibliografia erantsiko da, oinarritzko eredu honi jarraituz:

Odriozola, J. M. (1998). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Bilbo, Euskaltzaindia.

Zalbide, M. (2007). "Pedagogoa Batzar Nagusietan", *Euskera*, 52: 61-157.

Zuazo, K. (2000). Mendebaldeko euskara, in Zuazo, K. (2000): *Euskararen senda belarrak*. Irun, Alberdania (63-126).

Irudiak. Lanak irudi, taula, edo grafikorik balu, artikuluan txertatzeaz gain, irudi bakoitza jatorrizko formatuan atxikita bidaliko da.

Kolorea. Lan guztiak zuri-beltzean izango dira: bai taulak, grafikoak, eta baita irudiak ere.

Zuzenketa. Komenigarria da lana aldizkarira igorri aurretik behar diren zuzenketa ortografiko eta estilistikoak egitea. Arazo berezirik balego aldizkariaren koordinatzaileak horren berri emango dizu eta lanerako metodologia bat proposatuko.

Epea. Aldizkariaren koordinatzailearen eta egilearen artean lana eskuratu eta argitaratzeko epea adostuko da.

Egilearen erreferentzia. Lana egin duenaren izen-deituraz gain bere jarduera profesionala eta helbide elektronikoa adieraziko dira.

Lanak bidaltzeko helbidea. Egileak BAT Aldizkariko Argitalpen Batzordearen esku jarriko ditu artikulua zein erreseinak, Soziolinguistika Klusterraren helbide postala zein elektronikoa erabiliz.

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.eus



Badira urte batzuk BAT Aldizkariak *hiztun berrien* gaiaren inguruan zenbaki monografi-koa egin nahi izan duena. Sarri aipatzen da euskararen biziberritze-prozesu malkartsu honetan, oso kontuan hartzeko bi elementu nagusi daudela: alde batekik, globalizazioak komunikazio- eta pentsamendu-moldeetan eragindako gizarte-aldaketa, eta, bestetik, euskal hiztun-populazioa modu esanguratsu hazi izanaren ondoriozko euskaldun profilaren aldaketa. Bigarren honi dagokio, jakina, zenbaki honetako *hiztun berrien* gaia.

Argitaratutako azken ikerketa kuantitati-boek ondo agerian jarri dute euskaldunen artean euskaradun izateko bideak dibertsifikatu direla, eta, beraz, bide horiek erabakigarriak direla euskaldun/euskaradun izateko moduetan. Ebidentzia horren jakitun

izanik, interesgarri da espresuki biltzea gaia aztertzen ari diren ikertzaileen lanak. Eta horretara dator hemen aurkezten dugun zenbaki monografikoa.

Izenburuak dionez, ez ditugu soilik euskararen hiztun berrien inguruko lanak bildu. Hiztun berrien gaia, hizkuntzen biziberritze-prozesuetan garatzen den gertakaria da, ezinbesteko prozesu komuna. Baina hizkuntza-komunitate bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, eta ez da beti samurra izaten orokortasunetara heltzea. Edozein kasutan, esan daiteke zalantarik gabe, *hiztun berriak* estrategikoak direla bai euskararentzat eta baita gainerako biziberritzen ari diren hizkuntzentzat ere.

Monografikoaren hasieran **Estibaliz Amorrortuk**, **Ane Ortegak** eta **Jone Goirigolzarrik** idatzitako “Euskararen hiztun aktibo

bihurtzeko gakoak” artikulua ikus daiteke. Talde horretako kideak urteak daramatzate gaia alderdi desberdinetatik aztertzen, lehenik, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (Eusko Jaurlaritza, 2009) liburuan aurkezturiko lanarekin, eta, ondoren, *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* (Deustuko Unibertsitatea, 2016) liburukoarekin. Oraingo artikuluekin, pausu bat aurrera eman dute euren ikerketan, izan ere, euskal hiztun berrien aktibazioa dute ikergai, aktibo bihurtzeko baldintza esanguratsuenak zein diren ikusiz.

Artikulan, *muda* kontzeptua erabiliz, aktibaziorako prozesuak deskribatzen dira, kasu arrakastatsuak eta arrakastatsuak izan ez direnak erakutsiz, eta prozesuan gertatzen diren gako mesedegarriak eta oztopatzaileak seinalatuz. Horrez gain, hizkuntza-politikarako hainbat proposamen ere egin dute, bereziki, hiztun berrien profil desberdinak kontuan hartuz.

Amorrortuk, Ortegak eta Goirigolazarrik Jacqueline Urlarekin osatzen duten taldea Europako COST Sarearen kide da, besteak beste, hizkuntza-komunitate desberdinetako hiztun berrien azterketarako sortu dena. Zenbaki honetan, talde horretako katalanaren eta Irlandako gaelikoaren ikertzaileen berri emateko aukera izan dugu.

Joan Pujolar-ek, Isaak Gonzalez-ek eta Roger Martinezek “Gazte katalanen muda linguistikoa” artikulua idatzi dute. Euren aztergaiaren gune nagusia hiztunen ibilbide linguistikoa dira, arreta jarritz ibilbide horietan hizkuntza-jarrerak duten eragina. Jakina, jarrera horietan aldaketak gertatuz gero, hizkuntza-erabileraren bilakaeran gerta ohi diren aldaketak dira bereziki inte-

resgune; alegia, bizitzan gertatzen diren *muda linguistikoa*. Joan Pujolarrek proposatutako termino hori (*muda linguistikoa*) euskal soziolinguistikan ere ondo zabaldu da, eta hori da, hain zuzen, artikulua honen gai nagusia. 16 eta 35 urte bitarteko gazteei eginiko inkesten, elkarrizketen eta eztabaidaldeen bitartez bildutako datuekin egin dute ikerketa, eta, artikulua honetan jasotako emaitza nagusiak aurkeztu dituzte.

John Walsh da hurrengo artikuluaaren egilea. Kasu horretan, Irlandako gaelikoaren hiztun berriak hartzen dira ikergaitzat “Irlandera-dun berriak: jatorria, motibazioa, erabilera eta ideologia” izenburuko artikuluan. Egilearen hitzetan, hiztun berriak “hizkuntza hori lehen sozializazioko hasierako hizkuntzat izan ez duten horiek” dira. Ikerketa tradizioz Irlandako gaelikoa hitz egiten den Gaeltacht eremuan kokatzen da. Gainera, azpimarratu behar da hiztun berriek ezaugarri desberdinak dituztela, bai jatorrizko familien ezaugarriei dagokienean, eta, baita izan duten hezkuntza-ibilbideak askotarikoak izan direlako. Artikulu honetan nabarmentzen da, badirela hiztun aktibo bihurtzeko garrantzi handia duten hainbat gako, aipatu ditugun beste bi artikuluetan ikusi den bezala, Irlandako gaelikoaren kasuan ere. Esate baterako, soziolinguistikoki hiztun-dentsitate handiko eremu geografikoe-tan edo unibertsitateko esparru mesedegarrietan egotea.

Aldizkariaren GUREAN atalera hiru artikulu ekarri ditugu oraingoan. Lehenengo honetan, **Eduardo Apodakak** eta **Jordi Morales**-ek “Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila” artikulua idatzi dute. Bertan, euskal soziolinguistikaren esparruan ohikoak diren teknika metodologiko hainbaten azterketa kritikoa egin dute, batez ere, hiztun kategorietan eta hiztunen aitopenetan oinarritzen direnei eginikoak. Izan ere, planteatu nahi du azterketa-modu horiek errealitate soziolinguistikoa bera sortzen dutela, edo gutxienez, sortzen laguntzen duten elementuak izan daitezkeela. Bere iritzian, ikerketa metodologikoetan aldaketa formala gertatu beharko litzateke, besteak beste, praktika linguistikoak lehenesteko kategoria identitarioen gainetik.

Atal honetako bigarren artikulua **Jaime Altuna Ramírezek** idatzi du gazteen euskararen erabilera generoaren aldagaiaren arabera aztertzeko. Ikerketa etnografikoa Lezoko eta Pasai-Donibaneko 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin egin du, eta ondorioztatu du, batetik, euskararen erabileran genero desberdintasuna badagoela, euskara gehiago erabiltzeko nesken joera berretsiz. Eta, bestetik, baieztatu du, hizkuntza erabiltzeko moduak ere ez direla berdinak. Bere ikuspegitik, generoa eraikitzeko sozialiazio sexistak, berak, indartzen du sexuen arteko hizkuntzen erabileraren banaketarako joera hori.

BAT 104 zenbaki honi amaiera emateko oso bestelako gaia duen artikulua aurkezten dugu: **Larraitx Uriak**, **Iñaki Alegriak** eta **Ander Corralek** idatziriko “Kode-alternantzia aztertzeko hizkuntza-teknologiaren ekarpena”. Kode-alternantzia (code-switching)

elkarrizketa berean hiztunek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeari deitzen zaio. Eta, esan behar da fenomeno oso ohikoa dela hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten diren komunitate linguistikoetan. Arazoa da, nolana ere, ukipen-egoeran dauden hizkuntzen sendotasuna ez dela berdina izaten, eta, beraz, alternantzia horretan, ordezkatzeko-prozesuaren zantzuak detektatu ohi direla sarritan. Baina, izatez, aukera modura ere ikus daiteke fenomenoak, esate baterako, alternantzia hori ahuldutako hizkuntzan hitz egiten hasteko modu bat denean. Beraz, interes apartekoa duen gaia da, baita, ikuspegi sozioinguintistikotik begiratuta ere.

Kasu honetan, fenomenoaren azterketarako baliabide teknologikoak aritzen da artikulua. Izan ere, jakinik fenomenoaren ezaugarri nagusia bat-batekotasuna dela, eta ahozko hizkuntzan ez ezik hizkuntza idatzian ere agertzen dela, sare sozialetako kode-alternantzia aztertzeko modua erakusten dute. Hau da, hizkuntzaren prozesamenduaren (HP) alorrean garatutako metodologia, eta hizkuntza-teknologiaren bitartez *corpusa* biltzeko eta etiketatzeko baliatuko den metodoaren berri eman dute.

Irakurle guztion interesekoak izango direlakoan. •



bat dossierak

Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak

Estibaliz Amorrortu
Deustuko Unibertsitatea
esti.amorrortu@deusto.es

Ane Ortega
Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola
aortega@bam.edu.es

Jone Goirigolzarri
Deustuko Unibertsitatea
jone.goirigolzarri@deusto.es

Sarrera-data: 2017-09-03 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. Euskara familiatik kanpo ikasi duten euskaldunek talde estrategikoa osatzen dute normalizazioari begira. Hiztun horiek hiztun aktibo bihurtzen diren ala ez berebiziko garrantzia dauka euskara gero eta gehiago erabili dadin. Artikulu honetan, muda kontzeptua (Pujolar eta beste 2010) erabilia, euskararen hiztun berrien hiztun aktibo bihurtzeko prozesuak aztertzen dira, kasu arrakastatsuak eta ez arrakastatsuak erakutsiz eta prozesuan gertatzen diren gako mesedegarriak eta oztopoak seinalatuz. Datuak, gehien bat kualitatiboak eta Edukiaren Analisiaren bidez aztertuta daudenak, Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak izeneko ikerketatik hartu dira. Hizkuntza-politikarako ildo batzuk proposatzen dira, bereziki zein hiztun-profiletan eta ze norabideetan esku hartu beharko litzatekeen. • **Hitz gakoak:** euskal hiztun berriak, muda, erabilera aktiboa, hizkuntza-identitatea, hiztun legitimoa.

Abstract. Basque speakers who have learnt Basque outside the home constitute a strategic sector from the viewpoint of language normalization. Whether or not they become active speakers of Basque is of crucial importance to increase the use of Basque in society. Using the concept of muda (Pujolar et al 2010), this article examines the processes by which new speakers become active speakers of Basque, showing successful and unsuccessful cases and identifying some positive factors for mudas, as well as obstacles. The data, mostly qualitative using Content Analysis, belong to the study *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* [New speakers of Basque: experiences, attitudes and identities]. The article makes some proposals for language policy, especially with regards to the speaker profiles where action would be taken. • **Key words:** Basque new speakers, muda, active use, language identity, legitimate speaker.

1. SARRERA

I

XX. mendean euskara biziberritzeko prozesua hasi zenean arreta hiztunak irabaztean ipini zen eta horrek emaitza ukaezinak ekarri zituen, bereziki, Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Azken Mapa Soziolinguistikokoaren arabera 2013 urtean, 5 urtetik gorako herritarren artean, 318.000 euskaldun gehiago dago EAEn 1981ean egin zen neurketan baino (Eusko Jaurlaritza 2014); biztanleria osoaren %22 izatetik %36,4 izatera pasatu da. Eta 2036an euskaldunak %49,5 izango direla aurreikusten da, EUSTATen aurreikuspenen arabera (Baztarrika eta Erize 2016).

Baina XXI. mendeko erronka erabilera da. Hiztun kopurua nabarmen hazi bada ere, erabilera ez da handitu espero zen kopuruan: 1991tik 2011ra behera egin du etxean euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak bigarren, hirugarren eta laugarren gunen soziolinguistikotik (euskaldunak biztanle guztien %20 baino gehiago direnetan, hain zuzen) eta gora etxean gaztelania egiten dutenenak; euskaldunak %20 baino gutxiago diren gunetan ezer gutxi aldatu da etxeko erabilera (Eusko Jaurlaritza 2014: 87, V Mapa Soziolinguistikoa). Behatutako kaleko erabilerari dagokionez, 1989tik aurrera bakarrik handitu da nabarmen Gipuzkoan, azken bost urtean apur bat jaitsi bada ere; gainerako lurraldeetan edo gutxi igo da edo igo eta berriz ere jeitsi da azken 10 urteotan, Bizkaian bezala (Soziolinguistika Klusterra 2017, VII. Kale neurketa).

Beste hizkuntza gutxitu batzuetan gertatzen den bezala (ikus zenbaki honetan bertan Walsh 2017; Walsh eta O'Rourke 2014; Walsh, O'Rourke eta Rowland 2016 Irlandako gaelikorako; McLeod eta O'Rourke 2017 Eskoziako gaelikorako) neurri handi batean hiztun berriei esker, hizkuntza gutxitua familiatik kanpo ikasi dutenei esker, gertatu da hiztun-kopuru handitze nabarmena eta, hortaz, hizkuntza horietako normalizazioari begira talde hau estrategikoa da. Euskararen kasura itzulita, are estrategikoago ageri da hiztun berrien taldea adinari erreparatzen badiogu: belaunaldi gazteagoetan, 16-24koen artean, euskaldun guztien gehiengoa (%53,9) hiztun berria da (Eusko Jaurlaritza eta beste 2016, VI inkesta Soziolinguistikoa). Beraz, etorkizun laburrean euskaldun guztien gehienak ez dira izango familia-bidez hizkuntza jasotakoak baizik eta familiatik kanpo, gehienak oso adin goiztiarrean murgiltze-programako hezkuntzari esker, jaso dutenak baino.

Arestian esanda bezala, egunotako erronka erabilera da. Eta erabilera handitzeko hiztun mota guztiek areagotu behar dute erabilera, ez ba-

318.000
euskaldun
gehiago dago
EAEn 1981ean
egin zen
neurketan baino.

**Neurri handi
batean hiztun
berriei esker,
hizkuntza
gutxitua
familiaratik kanpo
ikasi dutenei
esker, gertatu da
hiztun-kopuru
handitze
nabarmena eta,
hortaz, hizkuntza
horietako
normalizazioari
begira talde hau
estrategikoa da.**

karrik hiztun berriek. Baina euskara moduko hizkuntza gutxitu baten etorkizunari begira (arestian aipatutako hizkuntza gutxituetako etorkizunerako bezala), ezinbestekoa da hiztun berri horiek erabiltzaile aktibo bihurtuko direla bermatzea. Aitzitik, badirudi hiztun berri askok zailtasunak dituztela. Euskararen hiztun berrien inguruko ikerketa batek (Ortega eta beste 2016) erakutsi duenez, hiztun berri askok zailtasun handiak dituzte euskara modu aktiboan erabiltzeko. EAEko 18-55 urteko euskara gaitasun-maila aurreratua duten hiztun berrien artean ia %18ak beti edo ia beti erdaraz egiten du egunerokoan (ibid: 218), hau da, euskara gutxi erabiltzen du, euskararen maila aurreratua izan arren. Erabilera oztopatzen duten gakoien artean hiztunek euskara erabiltzeko aukera murriztuak (testuinguru soziolinguistiko erdaldunagatik edota sare-faltagatik), gaztelaniaren presioa, norberaren gaitasunaren nola-kotasuna eta hizkuntza-ohitura aldatzeko zailtasunak daude, ikerketa beraren arabera.

Hau dena kontuan izanik, ezinbestekoa da talde estrategikoa hau hobeto ezagutzea, eta zehazki hiztun aktibo bihurtzeko prozesuan sakontzea eta honako galderak erantzutea:

- Hiztun berriak hiztun aktibo bihurtzen dira? Zein hizkuntza-praktika egiten dituzte?
- Zein dira hiztun aktibo bihurtzeko gako mesedegarriak? Eta oztopoak?
- Bizitzaren zein une dira egokiak aurrera pausuak egiteko?
- Zein ondorio dakar hiztunarentzat erabiltzaile aktibo bihurtzeak?
- Zerk mogiarazten du baldintza oztopotzaileetan bizi den hiztuna erabiltzaile aktibo bihurtzeko? Zergatik ez da hiztun aktibo egiten baldintza egokietan bizi dena?
- Zelan bizi dute prozesua? Zelan sentitzen dira eskuratutako gaitasunarekiko? Eta hizkuntza-identitateari begira?
- Normalizazioari begira, zein dira hiztun aktibo bihurtzeko eragile eta bizitza-une poteretsuenak? Hiztun aktibo bihurtzeari begira profil ezberdinak daude? Hizkuntza-politikak edo plangintzak ezarri daitezke hiztun batzuentzat behintzat, prozesua arrakastatsua izan dadin?

Galdera horiek erantzuteko datu kualitatiboek baliatuko gara, hiztun aktibo bihurtzeko prozesua konplexua, dinamikoa, hiztun bakoitzean berea, suertatzen delako. Horretarako, arestian aipaturiko ikerketaren (Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak¹) azterketa kualitatiboa egiteko batu ziren datuak erabiliko ditugu nagusiki. Datu horiek eztabaida-talde eta bakarkako elkarrizketa erdi gidatuen bidez

batu eta *Edukien analisi inductiboaren* bidez (Mayring 2000) aztertu ziren. Guztira 9 eztabaida-talde eta 9 bakarkako elkarrizketa egin ziren, 63 hiztun berriren datuak jasoz. Horrezaz gain, azterketa kualitatiboan, bereziki garrantzitsu edo pertinente suertatu ziren auziak berariaz diseinatutako galdesorta baten bidez modu kuantitatiboan neurtu ziren eta EAEko hiztun berrien biztanleriarekiko estatistikoki adierazgarria den lagin batean (18-55 adin tarteko 612 pertsona) aztertu ziren.

2. HIZTUN AKTIBO BIHURTZEA: MUDA-PROZESUAK ULERTU NAHIAN

I Aurreko atalean aipatuta bezala, bigarren hizkuntza bat ikastetik hizkuntza horretako hiztun aktibo izatera alde handia dago. Mapa eta Inkesta soziolinguistikoetan neurtzen den gaitasun aitortuak (“euskara ondo dakizun”) ezin du aurreikusi egunerokoan hizkuntza hori erabiliko den eta argazki finko bat ematen digu, hiztunak bere bizitzan zehar bizi ditzakeen aldaketei, zailtasunei eta abarri jaramonik egin barik. Baina hiztun aktibo bihurtzeko prozesua konplexua da eta pertsona bakoitzak berea du. Horregatik, prozesuaren konplexutasunaz jabetzeko komeni da ikerketa kualitatiboak egitea, hiztun bakanen esperientzian sakontzea, *hizkuntza-ibilbidea* (hiztunak bere bizitzan zehar hizkuntzei dagokienez bizi duen ibilbidea, bizi dituen aldaketak) aztergai hartuta. Horrela, prozesu arrakastatsua izateko gakoak (eragile eta une garrantzitsuak) azalaratu daitezke eta euskara erabiltzeko eta ez erabiltzeko arrazoietan argia eman.

Hiztun aktibo bihurtzeko prozesua *muda* edo *mudantza* kontzeptuaren bidez (Pujolar eta beste 2010, eta BAT Soziolinguistika Aldizkari honetan bertan) azalduko dugu. Katalanezko *muda* adierak “aldaketa” esan gura du eta bizitza-zikloan ohiko gertaera den izaki baten itxura fisiko edo ezaugarrietan aldaketa izateari egiten dio erreferentzia. *Hizkuntza-mudantza* gertatzen da hiztun batek bere hizkuntza-praktikak aldatzen dituenean: lehen hitz egiten ez zuen hizkuntza bat bere hizkuntza-errepertorioan sartzen duenean, edo lehen pertsona edo egoera jakin batzuetan erabiltzen zuen hizkuntza aldatzen duenean. Hiztun jakinen hizkuntza-praktiketako aldaketek gizartean hiztun horrek bere burua aurkezteko eran ere aldaketak sor litzake, nahiz eta ez duen derrigorrez zertan ekarri adskribatze soziokultural edo etniko berririk (Pujolar eta González 2012; Pujolar eta Puidgevall 2015).

Hiztunek euren hizkuntza-biografiaren berri ematerakoan ohiko bizitza-une batzuk seinalatzen dituzte hiztun aktibo bizitzeko prozesuan aldaketa

EAEko 18-55 urteko euskara gaitasun-maila aurreratua duten hiztun berrien artean ia %18ak beti edo ia beti erdaraz egiten du egunerokoan, hau da, euskara gutxi erabiltzen du, euskararen maila aurreratua izan arren. Erabilera oztopatzen duten gakoen artean hiztunek euskara erabiltzeko aukera murriztuak, gaztelaniaren presioa, norberaren gaitasunaren nolakotasuna eta hizkuntza-ohitura aldatzeko zailtasunak daude.

**Hizkuntza-
mudantza
gertatzen da
hiztun batek bere
hizkuntza-
praktikak
aldatzen
dituenean: lehen
hitz egiten ez
zuen hizkuntza
bat bere
hizkuntza-
errepertorioan
sartzen duenean,
edo lehen
pertsona edo
egoera jakin
batzuetan
erabiltzen zuen
hizkuntza
aldatzen
duenean.**

edo mudantza egiteko garrantzitsuak izan direnak. Normalean eguneroko bizitzan bizi ditugun aldaketekin bat etortzen dira, lekuz aldatzearekin, jarduera berriak egiteari ekitearekin edota harreman berriak egitearekin. Baina, geroago azalduko den bezala, *muda* gertatu daiteke, baita, ez bizitza-une jakin bati lotua baizik eta edozein momentutan, arrazoi ideologikoak eraginda, zehazki euskararen egoeraz kontzientzia hartzen eta hizkuntza hori modu aktiboan erabiltzeko erabakia hartzen denean.

González eta bestek (2009) *muda* egiteko bizitzaren sei une identifikatu zituzten: (1) lehen hezkuntzako eskolan, (2) bigarren hezkuntzako ikas-tetxean, (3) unibertsitatean, (4) laneratzean, (5) bikotekidearekin harremana hasterakoan eta (6) guraso bihurtzerakoan. Bizitza-une jakin horiek egokiak suertatu dira hizkuntza-erabileran aldaketak egiteko eta hizkuntza berriko hiztun aktibo bihurtzeko.

Euskararen testuinguruan, gure ikerketan aipatutako une horiek denak hiztun batzuentzat garrantzitsuak badira ere, honako hauek agertu dira hiztun aktibo bihurtzeko erabakigarrien (Ortega eta beste 2016: 103-107, Puidgevall eta beste agertzeko):

- 1) Testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatean.
- 2) Bikote euskaldun batekin hasterakoan.
- 3) Guraso bihurtzerakoan.
- 4) Sare berrietan edo jarduera berrietan sartzerakoan, hala nola lagun berriak, lankideak, familia politikoa egiterakoan edota aisialdiko jarduera berrietan hasterakoan
- 5) Eta bereziki garrantzitsua, kontzientzia hartzea, euskara erabiltzea norberaren erantzukizuna dela barneratzea. Arestian esanda bezala, azken hau bizitzaren edozein momentutan gertatu daiteke.

Ikus ditzagun *muda* egiteko prozesuan gure laginean erabakiorrak izan diren une horietako adibide batzuk.

Lehen adibidean 41 urteko emakume bat bere hizkuntza-ibilbidea kon-tatzen ari da. Bilbon jaio eta hazitakoa da eta euskara heldutan, uniber-tsitate-ikaslea zela, ikasi zuen. Baina “benetan berbetan” noiz hasi zen azaltzerakoan honako uneak seinlatu zituen: herri oso euskaldun batera ezkondu zenean, familia euskaldun batera, eta giro euskaldun horretan erabat integratzea erabaki zuenean.

1. Gero ezagutu nauen gaur egun nire gizona dana, orduan **etor nintzen hona [Bermeora] bizitzera**, eta orduan **bai hasi nintzen berbetan [...]** Bai, berbetan, eta entzuten eta haulan atrapatzen kaleko zera / Ta orduan nire erabakia izan zen Bermion bizitzea, Bermion **familia eukitzea**, ta

holan izan da. Orduan erabaki pertsonala izan zan, mundu hau edo nik aukeratuta izan da, ez da izan txikitatik ezagutu dodana. [...] Baina momentu hortan bai izan zan gogorra nobiotan edo aukeratzea “ba bai Bermiora noe, biziko nai(z) herri baten, holako herri baten, holako gizarte baten, **eta ni be sartu ingo nai(z) eta beste bat izango nai(z)**”². (BE-C, 14/415/)

Herri euskaldun batera bizitzen joatean, familia berriak euskara bidezko sare askotan parte izateko ateak zabaldu zizkion hiztun honi. Gainera, emakume honek bere seme-alabak euskaraz bakarrik haztea erabaki zuen, zentzu baten, “euskaraz bizitzea” eta erabat integratzea (“beste bat izango nai(z)”). Bizitzaren zirkulantzia berriek aukera eman zioten *muda* nahiko modu errazean egiteko.

Beste hiztun berri askok, berriz, aldeko baldintza gutxiago izan dituzte, adibidez, bikotekide euskaldunaren aukeraz eta seme-alabak izateko uneaz baliatu dira baina ez dute aukerarik izan testuinguru oso euskaldunera bizitzen joateko. Ikus dezagun zelan kontatzen duen bere ibilbidea 46 urteko Bilbokoa den eta beti Bilbon bizi izan den hiztun honek:

2. Nik euskara ikasi nuen, alde batetik, nahi nuelako, baña gero beste aldetik, baita ere, beno, kondizino laboralagatik, ni irakaslea naiz eta derrigorrezkoa nuen euskara ikastea. (...) Gero euskara ikasi ondoren, familia, **suerte eduki nuen**, familia euskalduna, osea bueno, **andrie euskalduna**, eta horren aldetik euskalduna, (...) semearekin (...) egiten dot (...). Eta gero, bueno, hurrengo saltoa izango zen hori, lan profesionallean. (BI-E, 9)

Testuinguru soziolinguistikoa alde ez izanda ere, hiztun aktibo bihurtu da hiztun hori eta oso erraz seinalatu ditu bere *muda*-prozesuan zein izan ziren une giltzarriak: bikotekide euskalduna izatea, guraso bihurtu zenean semearekin harremana euskaraz ezarri izana eta gero, beranduago, lan-eremua ere giltzarri izan ziren bere kasuan.

Muda arrakastatsua egin duen testuinguru erdalduneko beste hiztun batek ere erraz identifikatu ditu bere hiztun aktibo bihurtzeko prozesuan une erabakiorrak: lagun berriak egiterakoan, bikotekide euskalduna eta laneratzerakoan:

3. Orduan bada, bueno, eta banituen nire lagunak eta nire korroak edo koadrilak ez, hainbat, Durangokoa, edo Gipuzkoakoa, edo..., Gasteizen ere, baina Gasteizen **euskaltegikoak**, ze nire betiko lagunak izan banituen, baina erdaldunak ziren, orduan banenbilen batetik bestera (...) Zortea izan nuen ze orduan **mutila** izan nuen, (...) **euskalduna**, eta horrek ere asko laguntzen du. Nik esaten det, ligatzeak edo harremanetan, harremanek asko laguntzen dutela horretarako. (...) Eta jakina, **lana**. (GA-E, 39)

**Muda
arrakastatsua
egin duen
testuinguru
erdalduneko
beste hiztun
batek ere erraz
identifikatu ditu
bere hiztun
aktibo bihurtzeko
prozesuan une
erabakiorrak:
lagun berriak
egiterakoan,
bikotekide
euskalduna eta
laneratzerakoan.**

**Hiztun berrien
inguruko
ikerketa
kuantitatiboak
erakutsi zuen
egunerokoan
euskara gutxi edo
oso gutxi
erabiltzen
dutenen artean
%92,5ek arrazoi
bezala
“gaztelaniaz hitz
egiteko ohitura”.**

Orain arte aztertu ditugun hiru kasuetan hiztunari euskara erabiltzeko aukerak zabaldu zaizkio herri euskaldun batera bizitzen joatean, biko-tekide eta familia politiko euskalduna izaterakoan, guraso bihurtzera-koan edota, irakasleen kasuan, lanean hasterakoan. Baina beste hiztun berrien kasuan *muda* ez egiteko arrazoia ez da, berez, aukera gutxi dutela baizik eta, testuinguru euskaldunean bizi izanda, ez dutela ohi-turirik euskaraz egiteko, hau da, inguruko euskaldunekin gaztelaniaz egiteko ohitura dutela. Holakoentzat jarduera berriak eta lagun berriak egiteko unea oso garrantzitsua izan da saltoa emateko eta hiztun aktibo bihurtzeko. Ikus dezagun euskaldunak %71 diren eskualde baten (To-losan hain zuzen) bizi den 19 urteko gazte batek zelan kontatzen duen zein izan zen euskara benetan erabiltzen hasteko unea:

4. Hor [aisialdi talde baten begirale sartu zenean] hartu nun nik ohitura, osea, sartu nintzenean, ja sartu nintzen oain dela hiru urte edo hola, **hartu nun ohitura euskeraz gehiau hitz egiteko**. Osea, lehenau banekin euskeraz ze txikitatik ikasi nun zea eskolan, baino **ez neukan ohitura** hori hitz egiteko beste, lagunekin eta. Eta igual **sartu nintzenean mo-nitoreekin**, nola beti erabiltzen genun euskera, ez dakit zer, ba igual **ohitura gehiau hartu nun** ja monitore taldetik **atera ta besteekin hitz egiteko euskeraz**, ba **lagunekin edo edozeinekin, euskeraz hitz egi-teko ohitura gehiau hartu nun** eta oain, ba nik uste det euskera lehen baino askoz gehiau erabiltzen detela. (TO-C, 71)

Hiztun berri gazte askoren arazoa da eskolatik kanpo erdararako joera izatea eta lagunekin ezarritako harreman-hizkuntza gaztelania izatea. Izan ere, hiztun berrien inguruko ikerketa kuantitatiboak (Ortega eta beste 2016: 220) erakutsi zuen egunerokoan euskara gutxi edo oso gutxi erabiltzen dutenen artean %92,5ek arrazoi bezala “gaztelaniaz hitz egi-teko ohitura dudalako” erantzuna eman zuela. Gainera, *harreman-hiz-kuntza aldatzea oso zaila da* ideologia (Amorrortu eta beste 2017) oso za-balduta dago gure gizartean eta horrek egiten du errazagoa izatea harreman berrietan euskara harreman-hizkuntza ezartzea betiko lagun edo senideekin harreman-hizkuntza aldatzea baino. Hiztun askorentzat, jarduera berrietan hasteak harreman berriak egitea dakar eta harreman horiek euskaraz ezartzen badira une hori oso eraginkorra izan daiteke gaztelaniarekiko joerari betiko lagunekin ere kontra egiteko, azken ai-puko gazteari gertatu bezala, eta *muda* egonkorra burutzeko.

Baina aipatu ditugun bizitza-uneez gain badago hiztunek sarri aipatu duten *mudarako* beste eragile oso garrantzitsu bat, bizitza-zikloan une jakin batean gertatu ordez, edozein momentutan gerta daitekeena: euskararen egoeraz jabetzea eta kontzientzia hartzea. Ikus dezagun hu-

rrengo partaideak zelan azaltzen duen berak noiz eta zerk eraginda egin zuen muda. Oiarzungoa (euskaldunak %74) da 19 urteko gazte hau eta euskara murgiltzean ikasi zuen, eskolan. Bere eskolako lagunak “bere moduko hiztun berriak” ziren eta euren artean beti gaztelania erabiltzen zuten. Lehen hezkuntzan seigarren mailan zeudela, irakasle batek euskara oraindik ere arriskuan dagoen hizkuntza dela azaldu ostean, berak eta bere lagunak *muda* egitea eta handik aurrera euskaraz egitea erabaki zuten. Irakasleak emandako hitzaldiak kontzientzia hartzea eta euskararekiko jarrera proaktiboz jokatzea eragin zuen:

5. Seigarren maila arte edo gazteleraz hitz egiteko tendentzia nakan, baina seigarren mailatikan aurrera hasi nintzen euskera, euskera, euskera eta oain gaztelera apenas ez dut ikutzen, osea, beti euskera hitz egiten dut, familiaz aparte. [...] Seigarren maila arte, ba tendentzia genuen guk ere bai haiekin ginenean gazteleraz hitz egiteko. Baina geo ikastolan ta hasi ginen, “benga pues...”, hasi ziguten txarla ematen euskarari buruz eta, “**zergatikan ez dugu guk euskeraz hitz egiten?** Eta hasi ginen horrela **eta geroztikan beti pertsona haiekin eta beste lagun guztiekin euskeraz dena.** (Gazte-DO-E, 52).

Azken partaide horrek azaldu duen bezala, *muda* bat-batekoa izan daiteke, bizitza-une jakin baten gertatutakoa edo kontzientzia hartzen den momentuan bat-batean sorturikoa. Baina beste kasu askotan pausuz pausukoa da, *muda* txiki kateatuak batzen dira behin betiko *muda* egonkorra burutu arte.

Hurrengo partaideak euskara gehiago erabiltzeko urrats txikiak ematearen ideia oso ondo deskribatzen du. Berak urrats txikiak eman zituen sare berrietara sartuz (“zirkulu berrietan sartu”). Eskualde oso euskaldunean, Tolosaldean (euskaldunak %71), jaio eta bizi da hiztun hau eta euskararekin harremana betidanik izan bazuen ere, ez zuen “saltoa ematen”, apurka-apurka ematen hasi zen arte: gaztetan jarduera berri baten sartuta lagun berriak egiterakoan, euskaltegira joaterakoan (“arrankatzeko”), emazte euskaldunarekin ezkontzerakoan, eta lanean hasterakoan (bera ere irakaslea da). Bere *muda*-prozesua ez da izan bat-batean egun batean erabakitakoaren ondorio, ez bizitza-une bateko ondorio, baizik eta une kateatu askoren ondorio:

6. **Baina inoiz ez nun salto hori ematen, ez?** Bizitzako zean, bueno, erabiltzea, ez? Pausu hori ematea, ba bueno, niretzat izan zen, bueno, **bertigoko** pausu bat, ez? Bai, ze azken finean, (...) beti erderaz, erderaz, erderaz (...) / Eta hamalau, hamabost urtekin hasi nintzala koru baten kantatzen, eta ordun ba ezagutu **jende berria**, eta ordun jende berri hoietan, ba **beste zirkulo batekoak**, ba euskaldunak bazeuden, eta ordun, ba, ba “zuk badakizu, ba animatu, eta ez dakit zer”, eta azken,

**Muda
bat-batekoa izan
daiteke,
bizitza-une jakin
baten
gertatutakoa edo
kontzientzia
hartzen den
momentuan
bat-batean
sorturikoa. Baina
beste kasu
askotan pausuz
pausukoa da,
muda txiki
kateatuak batzen
dira behin betiko
muda egonkorra
burutu arte.**

bueno, ba, aditzak eta ja menperatzen nitun, baina ohiturik ez neukan / azken finean **ohitura bat da, gimnasia bat da, ez, eta bueno euki behar dezu zirkulo bat ba hasteko beldurrik gabe hitz egiten**, eta azkenen, gero, ba irakurtzen, euskaltegitik ere pasa nitzan / ikastaro trinko bat egitera, bueno, da modu bat **ja arrankatzeko eta beldur hori kentzeko**, eta bueno, hori izan zen. Gero nere **emaztegaz**, nere emaztegaz oain, ba euskeraz hitz egin zun betidanik, **bere familian** ere, **ordun beste zirkulu baten sartzen zea** (TO-A, 8/9/13/14/15)

Partaide horrek erakusten digunez, testuinguru euskaldunean bizi eta euskara erabiltzeko aukerak dituzten hiztun berriek ere “leku seguruak” behar dituzte euren konfidantza handitzeko: babestuko eta animatuko dituzten sareak behar dituzte hiztun aktibo bihurtzeko prozesuan aurrera pausuak eman ditzaten.

Beste partaide batzuk, ostera, zailtasun eta oztopo gehiago aurkitzen dituzte euren prozesuan eta aurrera pausuak eta atzera pausuak egiten dituzte euren bizitza-zirkustantzien arabera. Sestaon (euskaldunak %18,5) bizi den kataluniar honek hamazazpi urteko ikaste prozesu luan bizi izan dituen *atzera-aurrerako* muda *-uneak* zerrendatzen ditu:

7. Hasi nintzen **oso motibatua**, motibatuta hasi nintzen, eta asko ikasi nuen lehen urtean / **euskaltegi** batean. Eta ikastaro trinko bat egin nuen, lau ordu egunero, eta, bueno, **oso ondo** pasatu nintzen, gainera, oso talde majoa zen, eta asko ikasi genuen. / Eta bueno gero saiatu nintzen bigarren perfila ateratzea, baina, ba, bueno, ahozkoan geratu nintzen, ez nuen gainditu. / Gero, ba, bueno, **desanimatu** nintzen, baina aldi berean **haurdun** geratu nintzen eta, bueno, ja **gauzak konplikatzen** hasi ziren, ja benetan. / Orduan, bueno ja han **euskera utzi nuen**, utzi nion denboraldi luze batez, eta honela egon zen, osea, gauza bera errepikatu zen bi aldiz. Ba ni(k) hiru ume dauzkat eta gauza bera gertatu da. Osea, hartu... bueno, (...), **hartu, utzi, hartu, utzi**... Ba, bueno, gauza bera gertatu da, Guadiana bezala, **hartu, utzi eta hartu, utzi**, eta honela pasatu dira hamazazpi urte / Momentu honetan (...) hemen, Sestaon ja, pues hori, bakarrik umeekin etxerako lanekin erabiltzen dut euskara. Nire aldetik, ba irakurtzen dut, eta bueno, saiatzen naiz mantentzea, baina eguneroko bizitzan ia-ia ez da agertzen, bakarrik, ba, hori, etxerako lanekin.. (SE-B, 102/104/105/106/109/125)

Hiztun horrentzat oztopoak gaindiezinak izan dira eta bere bizitzaren une batzuetan aurrera pausuak eman bazituen ere momentu honetan, testuinguru soziolinguistikoko oso erdaldunean bizi izanda, euskara-bidezko sarerik ez daukala, oso gutxi erabiltzen du euskara eta gaitasuna ere asko galdu duela konturatzen da. Izan ere, arestian esanda bezala, hiztun berrien azterketa kualitatiboak (Ortega eta beste 2016) erabilera-patroi ezberdinak azaltzen dituzten gakorik garrantzitsuenak euskara erabiltzeko aukeren arabera direla erakutsi zuen, zehazki, testuin-

guru soziolinguistikoa eta sareak. Horrezaz gain, gaztelaniaren presioa, gaitasuna eta ohitura ere erabilera azaltzeko gako nabarmen bezala agertu ziren.

3. MUDA-EGILE ETA EZ-EGILEEN PROFIL EZBERDINAK

I Gure partaideen artean batzuk hiztun aktibo bihurtu dira, aipatutako uneez baliatu dira erabileran salto kualitatiboa emateko. Beste hiztun askok, alabaina, ez du lortu hiztun aktibo bihurtzea, mesedegarri diren bizitza-zirkustantziak ez direlako egon, edo, bizitza-unean baldintza egokiak egonda ere, ez dutelako une hori baliatu. Horien artean, batzuk ez daude bereziki arduratuta eta beste batzuk euskara gutxi erabiltzea frustrazioz, penaz, errudun sentimenduaz bizi dute. Honako bost profilak bereizi ditugu:

1. *Muda* egonkorra egin dute, baldintza mesedegarrietan
2. *Muda* egonkorra egin dute, baldintza oztopatzaileetan
3. *Muda* egin dute baina neurri handi batean kanpoko presioarengatik
4. Ez dute *muda* egin baina nahi lukete
5. Ez dute *muda* egin (ez dute nahiaren berri ematen: testuinguru oztopotzaileetan bizi diren gazte askoren kasua)

Ondorenean *muda*-egile 5 profil ezberdin azalduko dira, profil bakoitzeko gakoak zein diren zehaztuz.

3.1. *Muda* egonkorra egin dute, baldintza mesedegarrietan

Baldintza mesedegarrietan bizi diren hiztun berrien artean askok *muda* argi eta egonkorra egin dute. Partaide horiek testuinguru mesedegarrian (euskaldunak %60 baino gehiago diren testuinguruan) bizi dira eta sare asko eta esanguratsuak dituzte, familia, lagunak, lankide/ikaskideak eta askotan bikotea eta seme-alabak barne. Momentu honetan euskara asko erabiltzen dute egunerokoan, batzuk “euskaraz bizi direla” esateraino. *Muda* egiteko prozesua azaldu dutenean askok herri euskaldunera bizitzen joatea eta horrek dakartzan sare berriak, lagun berriak egitea aipatu dituzte *muda* egiteko bizitza-une gako moduan.

Baina beste ezaugarri oso garrantzitsu bat konpartitzen dute profil honetan daudenak: euskararekiko kontzientzia handia, konpromisoa eta jarrera proaktiboa erakutsi dute hartu dituzten erabakietan. Denek, gazte zein heldu, euskararen barneko balioa edota balio integratzailea azpimarratu dute eta euren egintzetan konpromiso handia erakutsi dute.

Askok herri euskaldunera bizitzen joatea eta horrek dakartzan sare berriak, lagun berriak egitea aipatu dituzte muda egiteko bizitza-une gako moduan.

Testuinguru oso euskaldunean bizi izanda, *euskaldun zahar*ekin harreman asko eta estuak dituzte. Horren ondorioz, euren herriko aldaerara asko edo nahikotxo hurbiltzen dira³. Izan ere, batzuk (bai gazteak bai helduak) *euskaldun zahar* ematen dute (ikus. Piller 2002 eta Ortega eta beste 2016:188-190) eta horrek harrotasun handia ematen die.

Profil honen inguruan bildu diren hiztun gehienen gaitasuna ona da, jarria dute eta eroso sentitzen dira⁴; ez dute erabili legitimazio-eza adierazten duen diskurtsorik. Euren burua zein hiztun motatzat daukaten azaltzerakoan, hizkuntza identitate ezberdinak hartuta ere, euren burua legitimotzat dutela ikusten da. “Euskaldun zahar” / “euskaldunberri” etiketak auzitan ipintzea eta euren bururako “euskaldun” identitatea aldarrikatzen dute sarri; helduen kasuan gehienek “euskaldunberri” hizkuntza-identitatea aukeratu badute ere legitimazio arazorik ez da antzematen: euskaldunberriak dira “heldutan ikasi dutelako”, ez dago beste arrazoirik.

Mudantza testuinguru mesedegarrian egin dutenen artean, adin eta ikaste-prozesu ezberdinetako hiztunak daude. Alde batetik, 40 urtetik gorakoek heldutan ikasi eta saltoa eman dute. Bestetik, 40 urtetik beherakoak daude, ume edo nerabe zirela hiztun aktibo bihurtu direnak. Azken horien artean batzuk gai dira *muda* egiteko eragilea zein izan zen eta euren bizitzaren zein momentuan gertatu zen identifikatzeko, baina beste batzuek prozesu inkontzienteagoa bizi izan dute eta guraso ez euskaldunik ez izatean baizik ez dute alderik ikusten euren eta euren herriko lagunen artean (ikus adibidez Eunateren kasua Ortega eta beste 2016: 240).

Ondorenean, hiru partaideen hizkuntza-biografia azalduko dira, profil honetako *muda*-ibilbidearen erakusle.

• **Miguel: testuinguru mesedegarrian *muda* egin duen heldua**

Miguel 54 urte ditu. Bere familia Andaluziatik Bizkaiko Arratia hara-nera etorri zen bizitzera. Bere hizkuntza-biografia kontatzerakoan Mikelek garrantzi handia eman dio testuinguru soziolinguistikoa eta lagun-sareari: bere ume-garaian kalean euskara gutxi egiten zen Arratiako herri batetik euskaldunak %68 diren ondoko beste batera bizitzen joaterakoan eta han lagun euskaldunak egiterakoan sortu zitzaion euskara ikasteko nahia, motibazio integratzaile barnekoa dela eta:

8. Nik gustora hartzen dot edozein hizkuntza ikastea, baina momentu hartan nik beharrezko ikusten nuen euskera ikastea. Osea, nik, eta orain be, edozein lekutara bazoaz ni bertako hizkuntza ikusten dot, gustora zein ez, ikasi behar dala. Eta orduan ni, alde batetik bai, oso

gustora eta pozik, baina bestela be, ikasi beharrezkoa ikusten nuen, ikastea bertako hizkuntza nik uste dot hori dala ezinbesteko gauza bat. / O sea, **jendeagaz egoteko eta hemen bizi nazelako**. Eta Galiziara joango banintz, ba gailegoz ikasiko nuen, edo Kataluniara, ba bertakoa. Hori logikoa da, ez? (ZEA-D, 133/135).

Euskara ikasi nahi zuela erabakita hemeretzi urtegaraz euskaltegi ezberdinetara joan zen. Ikaste prozesuan Miguelek izan zuen jarrera proaktiboa azpimarratu behar da. Ondo erakusten du “ikasi ahala erabili eta erabili ahala ikasi” estrategia: lotsarik gabe, zituen aukera guztiak aprobetxatu eta apurka-apurka lagunekin eta bere emaztearekin hizkuntza-harremana aldatu zuen. Izan ere, bere lagunak eta emazte *euskaldun zaharren* bera-ekin erdaraz egiteko joeraren kontra, oso jarrera proaktiboa erakutsiz, Miguelek berak egiten zituen ahaleginak euskaraz egiteko eta oso ondo erakusten du ohiturak aldatzea gogorra baina ekinez posible dela:

9. Hori da beste detalle bat, eta **jendea ohitute dau zugaz** hizkuntza baten berba iten, eta, niri pasa jat, esate baterako, neuk ez nekien euskeraz eta erderaz iten nuen, orduen ikasi nuenean, edo ikasten ibili be bai, nik gogoratzen dot igual tabernara sartu eta ba euskeraz sartu eta hanka sartzeak itzelak, ez, eta jendea barreka hasten zan, baina horrek ez zozten niri emon ezer, baina kamareroek, esate baterako, nik eskatu euskeraz eta berak erantzuten zoztan erderaz, diot “joer baina zuk euskeraz istozu niri”, “nik ezin dotzut zuri euskera egin”, eta holan pasaten jatan jende askogaz, baina “aber, mesedez, **ni euskeraz nabil** iten, ez dakitelako eta ikasi nahi dot, eta **zuek** erantzuna **erderaz iten dostozue, jolin**, baina mesedez”, eta holan ibili behar izan nintzen, jendeari “aber, mesedez, in...”, “joe, eske nik zuri urteetan erderaz egin dotzut eta orain ez doste urtetan zuri euskeraz berba iten”. Eta hori izan da urteetan. (ZEA-D, 110)

Azkenean, esanda bezala, hizkuntza-ohiturak aldatzeko bere ahaleginak arrakastatsuak izan ziren. Gaur egun euskara asko erabiltzen du: lagun, lankide eta alabekin euskara da harreman-hizkuntza eta emaztearekin, harreman-hizkuntza erabat aldatu ez badu ere, askotan erabiltzen du euskara:

10. Bai, batzutan egiten dogu euskeraz, beste batzutan igual erderaz, ba segun, igual telebisiñoa ikusten zabiz eta, klaro, ba programak erdaldunak direnez, ba zuk be ja, ba inkozientemente, eta gero kontura igual iten zara, baina bueno, ez dot, ez zaoz pentsetan, urten iten dotzu hizkuntza batean edo bestean, egoeraren arabera edo segun. (ZEA-D, 120)

Eskuratu duen gaitasunari dagokionez, gaur egun oso ona da (gaitasun eta jarioetasun objektiboan 4.a atara du) eta askotan *euskaldun zahartzat* hartzen dute. Azpimarratzekoa da Miguelek, testuinguru mesedegarrian

**Euskara asko
erabiltzen du:
etxean, kalean,
lagun askorekin
eta lanean ere
bai. Daukan
jarrera
proaktiboak
atzera muda ez
lukeela egingo
pentsarazten
digu. Hala ere,
profil honetako
hiztunengandik
bereiztuz,
partaide hau ez
da eroso
sentitzen bere
gaitasunarekin,
bere ikaste
prozesua geld
dagoela eta
gainditu ezin
duen “muga” bat
dagoela sentitzen
du.**

bizi diren eta euskara heldutan ikasi duten beste askok bezala, garrantzi handia eman ziola tokian tokiko hizkera ikasteari eta euskaltegian batua ikasita (“akademikoa”) “kalekoa” ikasteari eman ziola, lagun eta emaztearen bidez:

11. Hainbat euskaltegitara joan nintzen eta ba han ikasi nuen akademi-koa zana, noski. / Bueno, gero ba kalekoa ikasi behar, klaro, ze hango euskeragaz hemen Arratien, ba, bueno, txokantea da, ezta? Egia da, ikasten dozuna euskaltegietan gero erabiltzeko, ba bueno, esparru hau ez da igual egokiena, beraz, ba bueno, kalekoa, eta bueno, ba horretarako be nahiko laguntza nuen ba lagunengandik, ez? Esan nahi dot, nire koadrilan danak ziren euskaldunak eta, bueno, ba baserriko jendea. (ZEA-D, 9/10)

Laburbilduta, Miguelen muda -prozesua erabatekoa eta egonkorra da: euskara asko erabiltzen du, gaitasun oso ona eskuratu du, Arratiako euskara erabiltzen du ahoz eta, irakaslea izanik, batua ere menperatzen du. *Benetako hiztuna* edo *hiztun legitimo* (Ortega eta beste 2016: 180-183) sentitzeko inolako arazorik ez dauka. Euskaldun identitatea aldarrikatzen du berarentzat eta badaki askotan *euskaldun zahartzat* hartua dela. Hasieratik izan zuen jarrera proaktiboa berriro azpimarratu behar da, lagun eta emazte *euskaldun zaharrek* berari gaztelaniaz zuzentzerakoan euskaraz egin ziezaioten Miguel bera behin eta berriro ibili izana arrastaren gako garrantzitsua izan da.

Hala ere, arestiko oin-oharrean adierazita bezala, gure laginean egon da testuinguru euskaldunean *muda* egonkorra egin baina gaitasunarekin oso eroso sentitzen ez denik, profil honetako gainontzeko ezaugarriak beteta ere. Ikus Amaiaren lekukotza.

- **Amaia: testuinguru mesedegarrian muda egin duen hiztuna, profilaren ezaugarri denak bete ez arren.**

Amaia testuinguru oso erdaldunetakoa izanik (Bilbokoa hain zuzen), euskara heldutan euskaltegian ikasi eta gero, herri oso euskaldun batera bizitzen joan zen 32 urterekin, eta horrek aukera eman zion herriko sare euskaldunetan sartzeko. Gainera, euskarari atxikimendu handia izanda eta jarrera proaktiboa erakutsita, seme-alabei familian euskara transmititzea erabaki zuten berak eta bere bikote hiztun berriak. Ondorioz, euskara asko erabiltzen du: etxean, kalean, lagun askorekin eta lanean ere bai. Daukan jarrera proaktiboak *atzera muda* ez lukeela egingo *pentsarazten* digu. Hala ere, *profil honetako hiztunengandik bereiztuz*, *partaide hau ez da eroso sentitzen bere gaitasunarekin*, *bere ikaste prozesua geld*i dagoela eta *gainditu ezin duen “muga” bat dagoela sentitzen* du.

12. Eta, pues konturatzen zara, ikasi ahal dozu, eukin al dozuz elkar-
rizketak, egunero erabiltzen dogu, lan egiteko, etxean, tal, **baina dago
han punto bat que nik pentsetan dot inoiz ez dodala lortuko**, osea
da, hori, gauzak sakon-sakona esateko, edo esaerak, edo hori, ikasi
edo bai mila bider zenbat hori, pero behar danean, osea, hori ez da ir-
tetzen ez bada zure ama hizkuntza. (ZEA-F, 268)

Hiztun honen kasuan, jario ona izan arren, gaitasunaren autopertzepzio
eskasak eta *ama hizkuntzaren ideologiaren* eraginak⁵ (Skutnabb-Kangas eta
Phillipson 1989)) ondorio negatiboak ditu bere autopertzepzioan baina,
hala ere, horrek ez du eragozten erabilera, jarrera proaktibo handia due-
lako. Holako esperientzia emozionalki gogorra duten hiztunak kontuan
hartu beharko lirateke hizkuntza-politika egiterakoan, euren ahalegina
balioetsi eta tresnak helarazi esperientzia pertsonal hobea izan dezaten.

Ikus dezagun orain *muda* testuinguru mesedegarrian egin duen gazte
baten ibilbidea.

• **Jon: baldintza mesedegarrietan *muda* egin duen gaztea**

Jon Tolosan (euskaldunak %66 dira) bizi da eta bere aitita-amamak eus-
kaldunak izan arren bere gurasoek ez zuten ikasi euskara eta ez zioten
transmititu. Euskara ikastolan eta lagunekin ikasi du eta bere *muda* -
prozesua nahiko inkontzientea, erraza izan da; ezin du bizitza-une jakin
bat identifikatu, txikitatik euskaraz egunerokoan eta modu aktiboan
egiten hasi baitzen, lagun eta ikaskideekin.

Jonentzat euskarak bere identitate kulturean oso balio handia dauka
("Euskal Herriko hizkuntza da, hemendik aurrera bultzatu behar dugun
hizkuntza") eta euskararekiko kontzientzia eta jarrera proaktiboa era-
kutsi du, adibidez "lehen hitza euskaraz" estrategia erabiltzen du:

13. Nik uste det hori, Euskal Herri mailan lehenengo hitzak o norbaitei,
norbaitegana jo behar baldin bazu, **lehenengo hitza euskeraz** izan
behar duela. Nik behintzat hola egiten dut, lehenengo hitza euskeraz,
gero berak ez badu ulertzen edo, ordun txipa aldatzen det, baina lehe-
nengo hitza edo lehenengo esana beti euskeraz egiten diot. (TO-D, 182)

Tolosan bere bizia euskara barik irudikatu dezaken galdetuta, gazteen
artean integratzeko euskaraz hitz egitea beharrezko ikusten duela eran-
tzun du. Izan ere, arestian aipatuta bezala, neurri handi batean (ez da
ikastola ahaztu behar) lagunek osatutako euskara-bidezko sareari esker
egin du berak *muda* txikitatik.

14 Posible, posible da, baina nik uste det txikitatik erderaz eta, hemen
Tolosan euskeraz jakinda, ba oain nabilen jendeakin **ezinezko** izango

**Holako
esperientzia
emozionalki
gogorra duten
hiztunak kontuan
hartu beharko
lirateke
hizkuntza-
politika
egiterakoan,
euren ahalegina
balioetsi eta
tresnak helarazi
esperientzia
pertsonal hobea
izan dezaten.**

**Jon gaztearentzat
muda ez da
gertatu bizitza-
une jakin baten,
konturatu gabeko
prozesu erraz bat
izan da, txiki-
txikitan
hasitakoa; baina
bere jarrera
proaktiboa
kontuan izanik
muda egonkorra
egin duela
aurreikus
dezakegu,
baldintza ez hain
onetan egonik
ere, ez lukeela
atzera egingo.**

litzateke eotea, eta izango zan, ba, adibidez, ba igual kanpotar gehia-
gokin harreman gehiau izatea hemengo jendiakin baino, **dena euskera
ez jakiteagatik.** / Nik uste det **asko galduko zala.** / Ba adibidez, zuk
ikusten badituzu gazte taldeak eta gerturatzen zaenean euskeraz hitz
egiten daudela eta zuk ez duzula tutik ere ulertzen, ba **ez zinake hain
errez sartuko hitz egitera.** (TO-D, 137/139/140)

Eskuratu duen gaitasunari dagokionez, oso ona da eta bera ere eroso
sentitzen da. Bere herriko gazte euskaldun zaharrek bezala (ikus. Ortega
eta beste 2016:27), Batua “aspergarri”, “formal” antzematen du eta he-
rriko euskara egiten du egoera kolokialetan. Jonek *euskaldun zaharra*
ematen du eta ez da ezberdintzen ez erabiltzen duen euskararen ez bere
praktiketan bere herriko bere adineko gazte etxeko euskaldunetarik.

Amaitzeko, Miguel moduko helduentzat ez bezala, Jon gaztearentzat
muda ez da gertatu bizitza-une jakin baten, konturatu gabeko prozesu
erraz bat izan da, txiki-txikitan hasitakoa; baina bere jarrera proaktiboa
kontuan izanik *muda* egonkorra egin duela aurreikus dezakegu, bal-
dintza ez hain onetan egonik ere, ez lukeela atzera egingo.

3.2 Muda egonkorra egin dute, baldintza oztopatzaileetan

Baldintza ez hain mesedegarrietan bizi direnen artean ere egin daiteke
eta egiten da behin betiko *muda* egonkorra. Kasu honetan bi hizkuntzak
erabiltzen dira egunerokoan baina hiztunak gai dira euskarari leku ga-
rrantzitsua egiteko sare intimo esanguratsu indartsuak dituztelako: fa-
milia, lagunak edota lankideak. Gaztelaniak ere egunerokoan leku na-
barmena badu ere, euskara-bidezko sare horiek ahalbidetzen dute
eguneroko euskara-erabilera.

Baina, baldintza mesedegarrietan euskararekiko atxikimendua eta jarrera
proaktiboa beharrezko ikusi baditugu, testuinguru oztopatzailean bizi
direnen artean ezinbestekoa da. Gure partaideek erakutsi digute bakarrik
euskara-bidezko sare esanguratsuak eta jarrera proaktiboa, konpromisoa
eta aparteko ahalegina eginda lortu daitekeela euskaldunekin topo
egitea ohikoa ez den testuinguruetan *muda* egitea. Jarrera proaktibo
hori euskararekiko dituzten balioetan oinarrituta dago: beti izan diote
atxikimendu handia euskarari; helduen kasuan, euskara ikastea erabaki
zuten, barneko motibazio identitario argiagatik; batzuentzat arbasoen
hizkuntza berreskuratzea motibazio garrantzitsu izan da; konpromisoa
erakusten duten hautuen berri eman digute, adibidez, euskararen era-
bilera bermatzeko estrategiak, hala nola, “euskaldunekin beti euskaraz,
besteak gaztelaniaz eginda ere”, edo familiako kide erdaldunak “kanpo

utzi” euskarazko elkarrizketetan seme-alabekiko harremana euskara hutsez babesteko.

Muda-prozesuari begira azpimarratu behar da aurkitu ditugun kasu gehienetan hezkuntza-eremuan egiten dutela lan eta laneko hizkuntza nagusia euskara dela, eta kasu gehienetan familiako kide esanguratsuekin harreman-hizkuntza aldatu egin dutela, hala nola, bikotekidearekin edota neba-arrebekin. Gure lagineko partaideen artean familia eta lana sare-mota oso garrantzitsu bezala agertu dira, eta baliteke testuinguru honetan ezinbesteko izatea bi horiek euskaldun gutxi dauden testuinguruan *muda* egiteko.

Profil honetako gure partaideek gaitasun ona eskuratu dute: objetiboki neurtu dugun gaitasun eta jario ona edo oso ona dute eta haiek ere oso eroso sentitzen dira euskaraz. Askok *euskaldun zahar /euskaldun berri* kategorია dikotomikoak auzitan ipintzen dituzte, gaur egun ez dutela zentzurik aldarrikatzen dute eta euren bururako “euskaldun” (edo gutxiago agertu den “euskaldunberri zahar”) aukeratu dute.

Azkenik, helduen artean ohikoa bada ere, testuinguru oztopatzailean (euskaldunak %30 baino gutxiago diren testuinguruan) umetan edo nerabea zela *muda* egin duen gazterik ez dugu aurkitu. Ezin dezakegu esan holakorik ez dagoenik eta pentsatu ere pentsatzen dugu egon badagoela baina gure datubasean ez da agertu. Ostera, aurkitu dugu tar-teko testuinguruan (euskaldunak %30-60 dira) *muda* egonkorra egin duenik eta testuinguru oztopatzailean bizi izanda *muda* erabatekoa ez baina lehen urratsak eman dituenik, eta apurka-apurka hiztun aktibo bihurtzen lortuko duela pentsatzeko zantzuak ematen dituenik. Ikus ditzagun orain profil honetako heldu baten adibidea eta aipatutako gazte biren ibilbidea.

- **Iñaki: baldintza mesedegarrietan egon gabe *muda* egin duen heldua**

Iñaki 42 urteko Gasteiztarra da, pausuz pausu behin betiko *muda* egonkorra burutu duena. Ikus dezagun mahai-inguruaren hasieran zelan deskribatzen duen bere ikaste- eta *muda* -prozesua:

15. Bueno, nire kasuan amama [herriaren izena]koa da, hemengoa da, Arabakoa, Legutio aldekoa, eta orduan berak bazekien euskaraz, eta nik txikitan entzuten nion eta, bueno, txikitan berarekin denbora asko ematen nuen eta euskara etzan arrotza niretzako. (...) A eremuan bukatu nuen COU arte. Baina larogeian, uste det, hamaika urte nituela, ikasgai bezala sartu zen euskara ikastetxean, eta bueno, ba, **etzen arrotza**, oso

Gure partaideek erakutsi digute bakarrik euskara-bidezko sare esanguratsuak eta jarrera proaktiboa, konpromisoa eta aparteko ahalegina eginda lortu daitekeela euskaldunekin topo egitea ohikoa ez den testuinguruetan muda egitea.

**Aurkitu dugu
tarteko
testuinguruan
(euskaldunak
%30-60 dira)
muda egonkorra
egin duenik eta
testuinguru
oztopatzailean
bizi izanda muda
erabatekoa ez
baina lehen
urratsak eman
dituenik.**

erraza egiten zitzaidan eta orduan COU bukatu nuenean, errepikatu nuen COU eta esan nuen, “ba bueno, orain daukat aukera ikasteko”. Urtebete egon nintzan euskaltegian, eta **hortik aurrera, ba ez dut gehiago euskara ikasi, bai erabili**. Izan nintzen pixkat Kamikazea. Hasi nintzen unibertsitatean euskaraz, karrera euskaraz egin nuen. Gero, ba **bikoteak**, edo bikoteek bazekiten euskaraz eta euskaraz egiten genun, hala nola, parrandaz, zen gehien bat Mintzalaguna, ba, gure kabuz, ez? (...) / Eta hortik aurrera ba, **bikotearekin ezkondu**, bikoteak nik baino gutxiago zekien, baina hala ere ahalegindu zan, **eta azkenean gure arteko hizkuntza euskara bihurtu zan**, seme-alabak izan, haiek ere ama-hizkuntza bezala euskara, eta hortik aurrera ba, bueno, gehien bat gurean hitz egiten da euskara familian. Ez bakarrik gure etxean, ba, arreba batek ere badaki, semeak ere, eta orduan, ba bueno, ba **etxeko hainbat lagunekin euskaraz egiten degu guztia**. (GA-A, 9/10)

Iñakik egin duen *muda*-prozesua ez da izan bat-batekoa baizik eta urrats kateatuen bidez, bere bizitza-une asko aprobeztatuta, apurka-apurkakoa. Unibertsitate aurreko ikasturtean euskara ondo ikasteko erabakia hartuta, unibertsitate-momentua oso eraginkorra izan zen berarentzat: batetik, gaitasun erabatekoa ez izan arren, kazetaritza ikasketak euskaraz egitea erabaki zuen; bestetik, garai berean bikote “euskaldun zaharra” izan zuen eta hark ikasketa prozesuan eta erabilera handitzen asko lagundu zion.

Bere *muda*-prozesuarekin jarraituz, eta berak aurreko aipuan bertan kontatzen duenez, orain den bere bikotearekin, bera ere hiztun berria eta garai hartan gaitasun ez oso onekoa, harreman-hizkuntza euskara ezartzea erabaki zuten eta gerora etorri ziren seme-alabek euskara H1 bezala jaso zuten etxean. Azken gai honi, seme-alabak “euskaldun zaharrak izan daitezen” gaiari, Iñakik garrantzi handia ematen dio eta harrotasun handiz ematen digu horren berri:

16. “eso sí que es una cosa de la que estoy orgulloso. Porque si la amama, que era alavesa, era **vasco parlante de lengua materna**, pues se puede decir que dos generaciones después mis hijos han vuelto a serlo” (ELK-H, 124^o).

Prozesu arrakastatsuaren ondorioz, gaur Iñakik euskara bere hizkuntza-errepertorioan erabat integratuta dauka eta sare esanguratsuetan, familia txikia zein zabalagoa (neba-arreba batzuekin ere hizkuntza-harremana aldatu eta kide gazteekin euskara ezarri du), lankide ta lagun askorekin harreman-hizkuntza euskara da.

Bestalde, eskuratu duen gaitasuna dela eta, maila ona lortu du eta egoera guztietan, eta “euskaldun zaharrekin ere”, eroso sentitzen da. Ikaste prozesuaren hasieran ere izan zuen jarrera proaktiboak eragin

zuzena izan zuen gaitasunean: oraindik gaitasun erabatekoa ez zuela, Mikelek bezala, Iñakik ere “ikasi ahala erabili eta erabili ahala ikasi” estrategia sutsu erabili zuen eta, horrekin batera, kaleko erabilerari, ahozko erregistroari, ahozko komunikazioari, garrantzi handia eman zion hasieratik. Horregatik esan du lehen aipuan “ikasi ez, bai praktikatu” zuela ikaste prozesuaren hasiera-hasieratik. Iñaki euskaldun legitimatua sentitzen da, “euskaldun” bere hitzetan, eta ez zaio gustatzen “euskaldunberri” deitzea.

Baina zelan da posible Iñakik hain testuinguru oztopotzailean horren *muda*-prozesu arrakastatsua eta itxuraz “erraza” egin izana? Erakutsi duen jarrera proaktiboa eta horren oinarrian dauden euskararekiko atxikimendua, kontzientzia, euskarari ematen dion barneko balio identitarioa aipatu behar dira batetik eta bestetik familia osoaren babesa. Iñakiren familian euskarak beti izan du zelanbaiteko presentzia eta aldeko jarrera. Bere amama euskaldunak eragin handia izan zuen euskararekiko harreman emozional handia garatzeko orduan. 18 urterekin euskararen aldeko “lehen pausu” bezala euskaltegira joatea erabaki zuenean bi motibazio nagusi izan zituen: a) arbasoek zuten hizkuntza berreskuratzea (“nolabait amamak zuen hizkuntza hori eta nire amak etzuen, ba, guk errekuiperatzea”), eta b) euskal herritar sentitzen zelako, amamaren bidez, identitate berezi bat zeukala, euskal identitatea, ikusi zuelako. Izan ere, Iñakik “espainiarra ez dela sentitzen” esaten du, “euskal herritar” sentitzen dela. Eta bere identitatearen funtsezko lekua hartzen du euskarak. Ikus banakako elkarrizketan euskara ikasteari ekin zioneko garaiaz hitz egiten duenean zer esaten duen:

17. Yo entendía que **para estar mucho mejor respecto a mí mismo y respecto a la identidad vasca** que yo sentía tenía que hablar euskera, de todas, todas. (ELK-H, 229).

Bestetik, izan zituen aukera guztiak aprobetxatu zituen harreman-hizkuntza euskara ezartzeko edo aldatzeko, baita zailen gertatzen den familiarterekin ere (bere emazte orduan gaitasun mugatuarekin eta bere neba-arrebekin, hurrenez hurren).

Hiztun honek erakusten du Gasteiz moduko hiri ez oso euskalduneari ere posible dela benetako *muda* egitea. Baina familia ez ezik, beste esparru garrantzitsu bat ere badago berarentzat: lana. Komunikabide batean lan egiten du eta lankideekin harreman-hizkuntza euskara da. Familian eta lanean euskarak oso leku handia izanda, egunerokoan euskara asko erabiltzen du.

**Zelan da posible
Iñakik hain
testuinguru
oztopotzailean
horren muda-
prozesu
arrakastatsua eta
itxuraz “erraza”
egin izana?
Erakutsi duen
jarrera
proaktiboa eta
horren oinarrian
dauden
euskararekiko
atxikimendua,
kontzientzia,
euskarari ematen
dion barneko
balio identitarioa
aipatu behar dira
batetik eta
bestetik familia
osoaren babesa.**

**Izarok ere bere
muda egiteko
unea eta eragilea
oso ondo
identifikatzen
ditu: 15
urterekin eman
zuen saltoa,
irakasleen
eraginez
kontzientzia
hartu zuelako.**

Laburbiltzeko, Iñakik *muda* egonkorra burutu du. Nahiz eta Gasteizen bizi eta Gasteizen euskaldunak oso sakabanatuta daudela azpimarratu, lortu du harreman-sare esanguratsu eta sendoak euskara-bidezkoak izatea: familian eta lanean euskara da nagusi. Iñakik eta bere familiak proaktibitate handia erakutsi dute euskararen aldeko erabakietan eta horrek ahalbidetu du Gasteiz moduko testuinguru oztopotzaile batean *muda* arrakastatsua egin ahal izatea.

• **Izaro: testuinguru hain mesedegarrian bizi izan gabe *muda* egin duen gaztea**

Izaro Errenteriako (%37,8 euskaldunak, tarteko testuingurua, beraz) 20 urteko gaztea da. Euskaldunak hirutik bat baino ez diren herrian bizi izanda ere, euskara asko erabiltzen du egunerokoan. Euskara bidezko sare intimo esanguratsuak ditu (lagunak eta bikotekidea) eta aisialdian ere asko erabiltzen du. Gainera, jarrera proaktibo handia erakutsi du bere erabakietan. Ikus dezagun bere ibilbidea zelan aurkezten duen berak:

18. Ba ni Oriretakua naiz eta euskera eskolan ikasi nun. Beti D ereduan egon naiz ta bueno, eta hemen, unibertsitatetan, ba **al deten dana euskeraz iten det** (...). Eta bueno, lagunekin, ba, no sé, hamalau, hamabost urtekin ba kuadrila in genun ta hasi ginen euskera hitz egiten eta gaur egun arte. Hombre, lagun danakin ez det euskeraz iten porque batzukin ya erderaz itxeko ohitura dakat, baino bestela, iten du(gu). Gero, horixe, hemen, unian, ba (?) Euskal Kultur Mintegian sartu nintzan eta bueno, bertako batzuk, pues, uniko batzuk elkartu ginen eta euskera itxen de(g)u, euskal kulturari buruzko pues gauzak antolatuz ta holan. Ta gero, ba hori, etxen erderaz, mutilakin euskeraz ta, ta horixe. (Gazte-Do-F, 56)

Beste nerabe batzuei gertatzen zaien bezala, Izarok ere bere *muda* egiteko una eta eragilea oso ondo identifikatzen ditu: 15 urterekin eman zuen saltoa, irakasleen eraginez kontzientzia hartu zuelako.

19. Gehiau igual ikusi nuen DBHn porkee jo DBHn hasi ginenen, batez ere hirugarren eta laugarren mailan, jende gutxi hitz iten zuten euskeraz eta (...) euskerako irakasleek ematen zizkiguten mitinak, “ke si es bagenun hitz iten galduko zala, gu ginala esperantza, eta...” Bai, holako gauzak. Azkenian hasten zinen pentsatzen, joe, aber, hizkuntza batek bizi eoteko hiztunak behar ditu, eta gu ez bagea, zer gertauko’a? Ordun ja, pues horren inguruan, nik behintzat **pentsatzen hasi nintzen** ta hortik aurrera nabaritzen dira gehiau, pues, nere lagunekin, ta **danakin euskeraz** hitz egiten nula. Pero bueno, ordura arte, gero batxilergoan ja hola segitu nun. (Gazte-Do-F, 141)

Izarok gaitasun ona eskuratu du eta eroso sentitzen da, bai Batuaz zein gipuzkeraz. Erabilerari garrantzi handia ematen dio “euskalduna” (euskal hiztuna) izateko gakoak zeintzuk diren azaltzerakoan:

20. Euskera erabiltzea, ba jakitea, baina baita ere **erabiltzea**, euskeraz erabiltzen dezunen ba zure hizkuntza bihurtzen da. (Gazte-Do-F, 486)

Testuinguru soziolinguistikoa hain aldekoa ez izanda ere, sareak eta jarrera proaktiboa izanez gero, posible da euskara asko erabiltzea eta *muda* egonkorra egitea. Pentsatu nahi dugu Izaro moduko gazte gehiago badaudela testuinguru nahiko edo oso erdaldunetan (euskaldunak %60 baino gutxiago direnetan), nahiz eta gure laginean ez diren agertu.

Gazteekin jarraituz, *muda* burutzeko bidean dagoen eta prozesu arrakastatsua burutu dezakeen beste hiztun berri gazte baten kasua aurkeztu nahi dugu orain.

- **Idoia: aribidean dagoen eta babestu beharreko hiztun berria**

Idoia 27 urteko Getxoztarra (%27 euskaldunak) da. Bere familian euskararen transmisioa bere gurasoen belaunaldian eten egin zen eta berean, eskolako murgiltzeari esker, berreskuratu da, hurrengo aipuan erakusten duenez.

21. Ba nere kasuan, bai nere aitona-amonak aman aldetik eta bai aitaren aldetik euskaldunak ziren, edo dira, eta justu haien belaunaldian ba, ez dakit, **euskerak salto** bat eman zuen eta haiek erdaldunak. Ordun, lehengusu-lehengusinak eta denok euskeraz ikasi dogu eta uste dut izan dala **familiaren erabaki bat** ba hori, ba pixka bat **berreskuratze**ko galdu dana, ez? (Gazte-GE-C, 10)

Baina Getxoko hiztun berri gazte asko bezala, eta Jon ez bezala, Idoiak ez zuen garatu umetan lagun eta ikaskideekin euskaraz egiteko ohitura eta lagunartean asko kostatzen zaie euskaraz egitea. Egun batean euskaraz egiteko erabakia hartu zuen eta pentsatu zuen sare berrietan sartu behar zela, lagun berriak egiteko momentuaz baliatuta harreman-hizkuntza euskara ezartzeko. *Harreman-hizkuntza aldatzea zaila da* ideologia erabaki horren oinarrian egon daiteke. Lagun sare euskaldunen bila kontziente joaten hasi zen: lagun berriak egiten saiatzen da, euskaraz egiten diren jardueretara hurbilduz. Bere bizitzaren momentu batean herri administrazioan egin zuen lan eta hor aukera izan zuen lankideekin euskara erabiltzeko. Lanak euskara bidezko beste sare bat eman zion. Eta apurka-apurka, ahalegin handiak eginda, ari da sare berriak egiten eta gero eta euskara gehiago erabiltzen. Ondoko aipuan erakusten duenez, oso argi dauka zein diren gakoak euskara gehiago erabiltzeko: aukera izatea eta ahalegina egitea, eta are gehiago, ahalegina egitea aukerak sortu daitezten.

22. Nik uste dut dala, bueno, edozein hizkuntza minorizatuan izango da, ez? baina euskararen kontuan ahalegina dala, eta aukera dala, eta

**Testuinguru
soziolinguistikoa
hain aldekoa ez
izanda ere,
sareak eta
jarrera
proaktiboa
izanez gero,
posible da
euskara asko
erabiltzea eta
muda egonkorra
egitea.**

**Hortik datorkio
jarrera
proaktiboa:
euskara moduko
hizkuntza gutxitu
batean euskaraz
egiteko aukera
gutxi egonik,
aukerak “bilatu”
behar dira eta
hori da bere
estrategia.**

egin behar dozuna **esfortzu handia** hortik ateratzeko eta **aukerak egiteko**, ez?, ze ez da bat ere erraza. Ordun, ba, badago eremu bat, oraindik lagunak ditut gazteleraz egiten doguna, baina beste batzuk, eta berriak batez ere, euskaraz egiten doguna, orduan, bueno, **poliki-poliki**. (Gazte-GE-C, 105)

Idoiak euskarari barneko balio handia ematen dio, euskara bere identitatearen zati garrantzitsua dela dio eta hizkuntza gutxitua izatearen kontzientzia argia dauka. Hortik datorkio jarrera proaktiboa: euskara moduko hizkuntza gutxitu batean euskaraz egiteko aukera gutxi egonik, aukerak “bilatu” behar dira eta hori da bere estrategia. Eta pozik dago, ari da lortzen nahiz eta onartu emozio-egoeretan gaztelania irteten zaiola oraindik:

23. Eta gero haserretzen garenean, edo pozik gaudenean, edo..., aspaldi niri ateratzen zitzaidan gazteleraz egitea, kabreatuta nagoenean gazteleraz hitz egiten dut oraindik, oso kabreatuta banau, edo ez dakit, edo beste esparru batzuetan, ez dakit, ligatzeko, edo... O sea, **akademikoa ez dan guztia, bizitza dan guztia**, ez? Eta orduan hor bai ikusten dituzula **mugak**, eta nik uste dut muga horiek gainditu egiten direla, denborarekin eta praktikarekin e bai, eta inguruaren arabera gainditu egiten direla. (Gazte-GE-C, 345)

Gaitasun eta jario oneko hiztuna da eta eroso sentitzen da bere gaitasunarekin, nahiz eta oraindik ere emozioak pil-pilean dauden egoeretan gaztelania nagusitzen den. Izan ere, Idoiak eskolan emozioekin lotutako hizkuntza irakatsi beharko litzatekeela uste du. Bestela, euskara normalizatuta ez dagoenez, hiztun batzuk sekula ez dute ikasiko. Ikus bere aipua:

24. [Entzun zuen hitzaldi baten] esaten zuten nola haur eskoletan eta ba hori, ba **akademikoki erakutsi dutela euskeraz** egiten eta, eta hori egoera normal baten ondo legoke, ez?, baina nola euskararen egoera anormala den, igual gure eskolak bihurtu behar ditugula anormalak bezala. Eta zentzu horretan da, ba hori, ba ez irakastea bakarrik akademikoa dana baizik eta **bizitzako esparrutan ematen dan euskara irakastea**, ba **lagunari nola pikatu**, ez dakit, **albokoari esan zenbat gus-tatzen zaizun**... Holako gauzak ez digutenak erakutsi eta, osea, bizitza egiten dabenak. Eta ordun, horregatik esaten nuen euskararen egoera anormala da, ba **bihurtu dezagun eskola anormala**. (Gazte-GE-D, 481)

Laburbiltzeko, Idoiaren erronka bere *muda*-prozesuan urratsak ematen jarraitzea da, eta etorkizunean, agian, bere ingurukoek nahi badute, hizkuntza-ohiturak aldatu daitezke, baina hori ez dago bere esku bakarrik. Baldintzak hobeak balira, adibidez herri euskaldun batera bizitzen joango balitz, edo bikote euskaldun batekin hasiko balitz, behin betiko *muda* egonkorra egingo lukeela aurreikusten dugu, jarrera proaktibo handia duelako.

Euskararen sustapenari begira, Idoiak erakusten duen profilari lehen-tasuna eman behar zaio: bizi diren testuinguruan euskara erabiltzeko aukerak aurkitzen, ezagutzen dituzten lagun euskaldunekin harreman-hizkuntza aldatzeko estrategiak garatzen eta sare euskaldun berrietara sarbidea errazten laguntzea komeni da.

3.3 Muda egin dute baina neurri handi baten kanpoko presioarengatik

Orain arte aurkeztutako kasuetan garbi lotu da zeinen garrantzitsuak diren, *muda* egonkorra egon dadin, jarrera proaktiboa, kontzientzia eta barneko motibazioa. Hala ere, gure partaideen artean badago, baita, neurri baten, funtzio edo egoera batzuetan, euskara asko erabiltzen duenik, nahiz eta kontzientzia epela izan eta jarrera erreaktibo handia erakutsi. Kasu horretan kanpoko presioak eraginda eman dutela pausua ikusi dugu, edo testuinguru mesedegarrian bizi direlako eta testuinguru euskaldunari erantzuten diotelako, edo lana dela-eta behartuta, edo eraginda, sentitzen direlako. Zalantza dago partaide horiek behin betiko benetako *muda* egin duten eta beldur gara kanpoko presiorik gabe *alderantzizko muda* egingo ote luketen eta funtzio eta egoera horietan erdararako joera hartu berriro.

- **Asun: lanerako eskakizunak eraginda *muda* egin duen hiztuna**

Asun 42 urteko Bizkaiko Meatzaldean jaiotako emakumea da. “Lan-helburuek behartu” zuten euskara ikasten. Prozesu hori oso frustrazio handiarekin bizi izan zuen, inposaketa bezala, euskara gorrotatzeraino. Onartzen du euskarak bide eman diola nahi zuen lanpostua lortzeko, hizkuntza eskakizun elebiduna duen unibertsitate-irakasle izateko, eta horrek asebetetze pertsonala eta aurrerapen ekonomikoa ekarri diola. Ia ia euskara laneko eremuan baino erabiltzen ez badu ere, bere irakasgaiak emateaz gain lankideekin eta unibertsitatean ohikoak diren jardueretan euskara asko erabiltzen du. Gainera, bere semea jaio zenean berarekin euskara ere erabiltzea erabaki zuen, ez euskara bakarrik baina bai harreman-hizkuntzetako bat bezala, hain zuzen bere semeak erdal-duna den familian eta testuinguruan zelanbait “modu naturalean” ikas zezan euskara. Batuaren gaitasun-maila ona dauka, horixe da bere xedeetarako balio dion eta eroso sentitzeko identitatea ematen dion aldaera: “euskaldunberri” sentitzen da. Ez dauka euskalki bat ikasteko asmorik, horrek ekarriko luke “ez den pertsona bezala” ematea eta berea ez den identitatea hartzea. Meatzaldeko identitate sendoa dauka, eta euskara ikasteak ez dio ekarri euskal herritarrago sentitzea: “ez gehiago ez gutxiago, berdin; baina orain euskara daukat, hori baino ez”.

Baldintzak
hobeak balira,
adibidez herri
euskaldun batera
bizitzen joango
balitz, edo bikote
euskaldun
batekin hasiko
balitz, behin
betiko muda
egonkorra egingo
lukeela
aurreikusten
dugu, jarrera
proaktibo handia
duelako.

**Batzuetan ikusi
dugu “behartuta”
gertatzen den
mudak euskara
bidezko mundua
ezagutzea eta
euskaldunekin
harremanak
egitea ekarri
duela, eta
ondorioz
hizkuntzarekiko
jarrera
positiboagoa.**

25. Mi entorno es castellano, entonces no tengo que pensar. [...] Yo no tengo que elegir nada, hablamos castellano, clarísimamente. Y luego cuando voy a trabajar tengo que hablar euskera, clarísimamente. Y con mi hijo, los dos vemos cuándo es el momento. Igual el espacio más creativo, el que yo elijo o él elije, porque no es que yo quiera o él quiera, tenemos que querer a la vez, pues... / Cuando conozco una persona nueva me comunico, si ella habla en euskera, yo hablo en euskera. (ELK-A, 204 / 206)

Oso frustrantea izan den eta inposaketa-sentsazioak sortu dizkion sentipen negatiboak ekarri dituen prozesua bizi eta gero, egoerarekin adiskidetzeko estrategiak garatu ditu.

26. Ahora ya el euskera. estoy cómoda, lo uso, ¿no?, y estoy intentando hacer un cambio mental porque si no, voy a ser desgraciada. Claro, es que voy a dar todo [todas las asignaturas] en euskera, entonces, **más vale que lo viva en positivo**. Entonces, bueno, pues ahora ya escribo cosas en euskera también, como en mi diario, yo escribo diario, reflexiones... / En euskera, **como para acercarlo a mi vida** porque si no, es como raro, si me ha pasado en euskera, pues lo escribo en euskera. (ELK-A, 252 / 256)

Asunen kasuan ikusi dugunez, kanpoko presioak eraginda gertatu da *muda*. Egia da prozesuak hausnarketa eta adiskidetzea ekarri duela, bere bizitzan hainbeste pisu daukan euskara hain modu negatiboan ez bizitzea, baina litekeena da, behin presio hori desagertuta, Asunek euskara albo batera uztea. Ala ez? Lortzeko egin duen ahaleginagatik, edo euskarak gizartean daukan balioaz konstzientea delako, edo funtsean azkenean euskararekiko atxikimendua garatzen duelako? Beste kasu batzuetan ikusi dugu “behartuta” gertatzen den *mudak* euskara bidezko mundua ezagutzea eta euskaldunekin harremanak egitea ekarri duela, eta ondorioz hizkuntzarekiko jarrera positiboagoa, hain zuzen euskararekin emozionalki lotu direlako sare sozialei eta kulturara izan duten sarbideari esker.

Motibazio instrumentala dagoenean kanpoko presioa egon daitekeela erraz antzematen da, eta sarri ageri da euskara lanean eskatzen zaien pertsonen artean. Baina kanpoko presioa integratzailea ere izan daiteke, gizarteak edo komunitateak eraginda. Gure subjektuen artean badaude Tolosaldea edo Gernikaldea moduko testuinguru oso mesedegarrian bizitze hutsagatik euskararen erabiltzaile aktiboak direnak. Gure laginekoeen kasuan hiztun horiek euskararekiko diskurtso, kontzientzia eta atxikimendu nahikoa epela erakutsi dute baina testuinguruak “eramaten ditu” euskara erabiltzera. Testuinguru horietan jarrera erreaktiboa nahikoa da euskara asko erabiltzeko.

• **Iker: testuinguru euskaldunari erantzunez muda egin duen gaztea**

Ikerrek 19 urte ditu eta Jonekin batera (3.1.ean ikusia) parte hartu zuen eztabaida-talde berean baina oso jarrera ezberdina erakutsi zuen hare-narekin konparatuta. Ikerren euskararekiko diskurtsoa ez da oso gara-tua: gurasoek murgiltze-eredura bidali izanagatik pozik dago, baina atxikimendu epela eta kontzientzia-maila baxua erakusten du. Alabaina, euskara neurri handi batean nomalizatuta dagoen inguruan bizi izateak, eta jarduera berriak (umeen begirale hastea) eta lagun berriak egiteak, ondorio bezala egunerokoan euskara asko erabiltzea ekarri dute. Hala ere, ez dugu antzeman zirkustantziala den *muda* hau egonkor bihurtzeko beharrezkoa den gogoeta-maila nahikorik; horretarako oraindik gertatu ez den kontzientzia hartzea ezinbestekoa da.

Bere prozesua azaltzerakoan jarrera erreaktiboa deitu duguna oso argi agertzen da.

27. Baina eskolan apuntatu ginan eta D ereduan, azkenean emoten ge-nun dena euskeraz, ordun eskolan hasi nintzen entzuten, ja oso txikitatik, hasi nintzen ba euskeraz, baina hor problema zan geo ikasleekin..., osea, andereñoakin ta bai beti euskeraz, ta beti euskeraz hitz egin behar zan, baino gero sortu zan ohitura bat edo, behintzat gure eskolan, zea erderaz hitz egiteko ikasleen arten. **Ordun hainbeste ba ez nun hitz egiten, bakarrik eskolan**, ja eskolatik kanpo erlazionatzen nun, erdera-rekin, Ordun, ez nun hainbeste euskera hitz egiten. / Gero ja pixkat ur-teak pasata ta hola **zeozer gehiau** hasi naiz euskeraz hitz egiten, ba sar-tuta nago **monitore** bezela eta monitore taldeakin eta umeekin euskeraz hitz egite deu. Geo gure koadrilan, besteek, ni ez, **baina besteek dira familiakin euskeraz** eta beti, ordun gehienetan euskeraz hitz egite deu, batzutan erderaz, baino..., klaro, lehenau esaten dizunagatik, zeagatik, ohituragatik hasi ginan erderaz ez dakit zer gure artean, baina bueno, oain **gure talden sartu da gehiau euskera**, eta orduan, eta ordun ba euskeraz ba gehiau erabiltzen deu, ba azkenean, ba hori, gauza, kaletikan oin gehiau erabiltzen detela euskera, eta batez ere, batez ere gure moni-tore talden, ze azken hoi beti euskeraz da, ze..., ta umeekin, ta dena, baina beti hoi, esaten dizut, etxian beti erderaz, ta anaiakin, nahiz ta nie anaia jakin euskeraz, beti anaiakin erderaz, azkenean etxean ohitura hoi sortu zaigu, eta ja aldatzeko zaila. (TO-C, 64 / 65)

Eta bere *muda*-unea:

28. Hor hartu nun nik ohitura, osea, sartu nintzenean, ja sartu nintzen oain dela hiru urte edo hola, hartu nun ohitura euskeraz gehiau hitz egiteko. Osea, lehenau banekin euskeraz ze txikitatik ikasi nun zea es-kolan, baino ez neukan ohitura hori hitz egiteko beste, lagunekin eta. Eta igual **sartu nintzenean monitoreekin**, nola beti erabiltzen genun euskera, ez dakit zer, ba igual ohitura gehiau hartu nun ja monitore tal-

**Ikerren
diskurtsoan ez
dugu antzematen
euskararen
erabilerarekiko
kontzientzia
argirik; horrekin
ez dugu esan
nahi, inolaz ere,
euskararen
kontrako
jarrerarik
daukanik, baina
argi dago bere
kasuan
testuinguruak eta
esperientzia
berriek
bermatzen dutela
erabilera ugaria.
Zer egingo luke
Ikerrek euskara
gutxi hitz egiten
den
testuingurura
bizitzen joango
balitz?**

**Euskara
erabiltzeko
aukera gutxiren
ondorioz,
batzuetan pena
eta frustrazio
sentimenduak
sortzen dira, eta
zenbaitetan
errudun-
sentimenduak ere
bai, “gehiago egin
nezakeen”
motatakoak.**

detik atera ta besteekin hitz egiteko euskeraz, ba lagunekin edo edozei-
nekin, euskeraz hitz egiteko ohitura gehiau hartu nun eta oain, ba nik
uste de euskera lehen baino askoz gehiau erabiltzen detela. (TO-C, 71)

Ikerren diskurtsoan ez dugu antzematen euskararen erabilerarekiko
kontzientzia argirik; horrekin ez dugu esan nahi, inolaz ere, euskararen
kontrako jarrerarik daukanik, baina argi dago bere kasuan testuinguruak
eta esperientzia berriek bermatzen dutela erabilera ugaria. Zer egingo
luke Ikerrek euskara gutxi hitz egiten den testuingurura bizitzen joango
balitz? Ez dago jakiterik, baina zalantzan gaude erakusten duen jarrera
erreaktiboak ez ote lukeen egingo euskara ez erabiltzearen alde.

3.4 Ez dute *muda* egin baina nahi lukete

Gure lagineko beste partaide batzuek euskara heldutan ikasi dute, bar-
neko motibazioagatik eta testuinguru oso erdaldunetan. Aurreko pro-
filekoei gertatu ez bezala, ez dute lortu *muda*-prozesuan pausu argiren
bat ematea ere, jarrera proaktiboa erakutsi arren.

Oso aukera gutxi dute euskara erabiltzeko. Gasteiz edo Sestao moduko
hirietan bizi dira eta ez daukate sare euskaldunik: familian umeek ba-
dakite euskaraz baina heldu gehien-gehienek ez, lanak ez die ematen
euskara erabiltzeko aukera handirik eta lagunak edo ez dakite euskaraz
edo “haiek bezalako” hiztun berriak dira eta lagun-taldean gaztelaniaz
egiten dute. Gure partaideek esplizitu esan ez badute ere, *euskaldun za-*
harrekin ez dute harreman esturik eta, seguruenik, euren inguruan dau-
den hiztun berri aktibo askorekin ere ez.

Baina profil honetan dauden gure lagineko partaideek beste ezaugarri
bat konpartitzen dute: denek ematen diote euskarari barneko balioa,
eta batzuetan, ez beti, euskal identitatearekin lotzen dute.

Gutxiengoko euskararen erabilera bermatzen saiatu direla erakusten
dute erabili dituzten estrategia batzuek: seme-alabekin euskaraz ere egi-
ten saiatu, euskal kultura talderen batera hurbildu, administrazioan
lehen hitza euskaraz egiten, seme-alaben andereñoarekin euskaraz egin,
euskarazko produktu kulturalak kontsumitu, ezagutzen duten euskaldun
bakanen batekin euskaraz egin eta abar. Baina momentu horiek oso pun-
tualak dira, ez dute lortu sare esanguratsu baten ere euskarak lehentasuna
izatea, eta, ondorioz, egunerokoan oso gutxi erabiltzen dute.

Argi daukate zeintzuk diren oztopoak. Alde batetik, testuingurua eta
gaztelaniaren presioa: oso euskaldun gutxi daude euren inguruan eta
beste euskaldun batekin egotekotan gehienetan erdaldunak egoten dira

eta horrek gaztelaniara bultzatzen ditu; gainera, erosotasunarekin lotzen dute gaztelaniaren erabilera. Beste alde batetik, haien euskara-gaitasunari ere leporatzen diote oztopoa izatea. Ikus dezagun hurrengo partaideak zelan azaltzen dituen berak dituen oztopo eta zailtasunak:

29. Hemen, Sestaon, nik uste dut ez dagoela giro euskalduna. **Oso zaila da hitz egitea.** Alde batetik, bueno, ba alfertasunagatik, guztion **alfertasunagatik.** Hemen, Sestaon, badago jende asko euskara hitz egiten duena, baina ez dute, ez dugu erabiltzen. / Ni saiatzen naz ba andereñoekin bati euskaraz hitz egiten. Bueno, haiek badakite ba nik euskara dakidala, baina bueno, **niretzat, hori, ahalegin handia da,** zeren, bueno, **ez dut erreztasunik,** eta **beldur** naz akatsaren bat sartzeaz, eta hori. / Gero, ba, **koadrilan,** ba, (...) lagun batzuek badakite euskara, baina gero beste batzuek ez dakite. Ordun, **azkenean, ba erderaz.** / Eta gero askotan gertatu zait, bai lanean, bai kalean, **hasten zarela euskaraz** hitz egiten, **baina amaitzen erdaraz.** / **Erosotasunagatik,** badago beti zerbait nahiko zaila egiten zaigula, hori, ba euskeraz esatea, eta, bueno, azkenean hasten zara euskararekin eta amaitzen zara erdararekin. / nire inguruan oso jende gutxi dago euskaldun giroan bizi dena. Ba, adibidez nire koinatuak badaki euskara, ba berarengatik etorri naz hona, eta ni haiekin ba saiatzen naz euskaraz hitz egiten, baina azkenean **oso zaila da,** badaude hortik, ba nire ahizta, nire senarra, nire ama, edo, ba... (SE-C, 82-84/86/88).

Euskara erabiltzeko aukera gutxiren ondorioz, batzuetan pena eta frustrazio sentimenduak sortzen dira, eta zenbaitetan errudun-sentimenduak ere bai, “gehiago egin nezakeen” motatakoak.

30. Euskal giroan ez nagoenez, ez dakit, zailtasun gehiago daukat nere barruko sentimendu euskaldun hori ba azaltzeko. Adibidez, ez dut, bueno, ez dut ia-ia ezer euskeraz irakurtzen, irratia bai, entzuten dut, egunkarietako, ba artikulua bai irakurtzen ditut, erosten dut Berria eta irakurtzen dut, baina orokorrean nere **bizitza erdalduna da, zoritxarrez.** Nahiz eta arlo batzuetan euskara eta euskal kultura bultzatu, baina orokorrean, batez ere giro honetan, ezker aldeko alde honetan, ez dakit..., horrek bultzatzen zaitu ba erdara egitera. Eta hori da nere **kezka, nere burua txarto jotzen** dudana gauzaren bat. (SE-A, 25)

Gainera, erabilera urriaren ondorioz partaide hauek duten gaitasuna eta jariora ez da nahi luketena eta batzuk azken urteetan galdu dutela uste dute. Partaide horiek erabiltzen duten diskurtsoa kontuan hartuta, ez du ematen oso hiztun legítimo sentitzen direla, baten batek bere burua “trebetasun gabeko euskaldun berri” definitzeraino.

Profil honetan bai helduak bai gazteak daude eta baldintza hobeagoetan egonda *muda* egingo luketela uste dugu, kontzientzia eta jarrera proaktiboa dutelako. Hizkuntza politikari begira, profil honek arretra merezi du. Hel-

**Erabilera
urriaren
ondorioz
partaide hauek
duten gaitasuna
eta jariora ez da
nahi luketena eta
batzuk azken
urteetan galdu
dutela uste dute.**

**Gazteen kasuan,
esku hartze
zuzena sustatu
beharko
litzateke,
oraindik bizitza
bideratuta ez
duten gazte
horiek baldintza
mesedegileagoak
izan ditzaten,
hiztun aktiboen
komunitatera
ekartzeko.**

duen kasuan bizitza-zirkustantziak aldatzea oso zaila izanda ere, sentitzen duten frustrazioa gutxitu dadin eta esperientzia positiboagoa bizi dezaten ahaleginak egin beharko lirateke. Eta gazteen kasuan, esku hartze zuzena sustatu beharko litzateke, oraindik bizitza bideratuta ez duten gazte horiek baldintza mesedegileagoak izan ditzaten, hiztun aktiboen komunitatera ekartzeko. Ikus dezagun orain profil honetako partaide biren ibilbidea.

• **Ana: muda egin nahiko lukeen heldua**

Ana Gasteiztarra da (euskaldunak %22,5) eta 35 urte ditu. Bere familian euskarak ez du izan presentziarik baina hamasei urte zituela garai hartan zegoen giro sozial eta politikoak ikasteko gogoia piztu zion eta euskaltegi baten hasi zen. Bere ikaste prozesua (euskaltegiko esperientzia, alde ludikoarekin erabat lotua egon zena) oso positibo gogoratzen du: batetik, erraz ikasi zuen eta, bestetik, euskal mundura sartzeko aukera eman zion eta hori, hurrengo aipuak erakusten duenez, oso ondo baloratzen du berak:

31. Hizkuntzari begira **gero eta gustorago** nengoen, eta ba ikusi nuen beste, nire, ez dakit, nire lagunak, nire koadrilakoak, nire familia erdaldunak dira eta modu horretan beste pertsonak ezagutzen nituen, edo ezagutu ahal nituen garai horretan (GA-C, 5)

Hirugarren hizkuntza eskakizuna lortuta, euskaltegia utzi zuen eta horrekin egonkorra ez zen sare hori (euskaltegi inguruan egindako lagun euskaldunek osatutakoa) desagertu zen: euskara bere bizitzatik ia-ia desagertu zen, oso aukera gutxi aurkitzen zituen euskara erabiltzeko, ez familian ez betiko lagunaren artean ez lanean euskara ez zelako erabiltzen. Eta berriro ikaste formalari ekin arte ez zuen lortu gutxiengo erabilera bermatzea:

32. **Gero igual abandonatu, utxi nuen** ez, baina gero eta gutxiago erabili dut, baina orain dela sei urte (...) eskaini zidaten laugarren hizkuntza-eskakizuna ikastea, eta egon nintzen bi urtez ikasten, eta atera nuen. Eta bueno, nik uste dut hori izan da nire bigarren eskaintza, edo **nire bigarren aukera** euskarari begira. (GA-C, 5)

Izan ere, Ana aukerak sortzeko estrategia asko erabiltzen saiatu da: euskarazko kultura-ekitaldietara joan, lanean telefonoa euskaraz erantzun, iloba txikiarekin euskaraz egin, Berbalagun programan parte hartzen saiatzen da urte batean bai eta bestean ere bai. Baina hala ere, hori dena ez da nahikoa eta gaur oso gutxi erabiltzen du. Erabili ez izanak frustrazioa eta errudun-sentimendua sortarazten dio eta konturatzen da hizkuntza-gaitasuna galtzen ari dela.

33. Eta oraingo egoera da, edo, ba, **nire giroa erdalduna da**. Lanari begira ni saiatzen naiz baina jendea(k) paso egiten du. Hemen nire lankideek, **zaila da, zaila da**, egia esanda, XXX erderaz erabiltzen dugu, orduan, txostenak, aktak, bilerak, dena erderaz egiten dugu, orduan **euskarara pasatzea da, da plus eskatzea, eta jendea ez dago prest**. Orduan, bueno... Ez dakit, **damutzen naiz, gaizki sentitzen naiz**, (...) nire buruarekin ez nago oso gustora, **uste dut gehiago egin dezakedala euskarari begira, baina ez daukat aukera handirik**. / Eta lankideek daude jo ta ke hor, euskaltegietan hirugarren hizkuntza prestatzen, eta gure artean erderaz hitz egiten dugu. Hori da nire, ez dakit nola esaten den euskaraz baina, **caballo de batalla, dakigunok ez dugula bultzatzen**. (GA-C, 5/8)

Holako partaideentzat benetako *muda* egitea, dauden egoeran daudela, ezinezkoa izan da. Testuinguru soziolinguistikoa lagun ez izanik gaztelaniaren presioa ikaragarria da. Gainera, bizitzako zirkustantziek ez diete utzi euskara bidezko sare esanguratsu eta trinkoetako parte izaten: ez dute bikotekide euskalduna, euren familian euskara oso gutxi dakite, kasu gehienetan umeek bakarrik, eta euren lagunak eta lankideen artean ere eredia eta sustatzaile izan daitekeen euskaldun gutxi edo bat ere ez dago. Pertsona horiek beste zirkustantzia mesedegarriago batzuetan bizi izanda (herri euskaldun baten bizi, familia euskalduna izanda, edo euskara lan-hizkuntza den enpresa baten egonda) seguruenik *muda* egingo lukete euskararekiko kontzientzia, atxikimendua eta jarrera proaktiboa dutelako.

• **Urko: muda egin nahiko lukeen gaztea**

Urkok 22 urte ditu eta Lehen Hezkuntzako Gradua ari da ikasten. Ezkerraldean bizi da eta unibertsitate aurreko ikasketa guzitik B ereduan egin zituen. Iritzi eskasa du bere euskaraz. Orain, unibertsitatean, baditu euskara etxean ikasi eta oso herri euskaldunetan bizi diren ikaskideak; haiekin konparatzen da eta aitortzen du batzuetan ez diela ulertzen. Baina ez horiekin bakarrik, euskara etxetik kanpo ikasi baina testuinguru euskaldunetan bizi diren ikaskideekin ere konparatzen da eta argi dauka bere eta besteen euskara oso “ezberdina” dela, haiek euskara kalean, lagunekin, erabiltzen baitute, eta berak ez.

34. **Nire euskara** adibidez, berarekin konparatuz [Busturiakoa den beste partaide hiztun berri batenarekin], ba **oso ezberdina** da. **Nik herrian ez dut inolako lagunekin euskeraz** harremanak izan, ba bakarrik, ba, ikastetxean B eredia ikasi dut, eta gero ba euskaltegira joan nintzen eta hor bi maila egin nuen eta kitto. Adibidez ni kalean eta gurasoekin, inoiz ez dut euskera erabili. Oso desberdina da berarekin konparatuz. / Klaro, eta igual niretzat, nik esaten dut “ba, beraiek egon dira betidanik ba euskeraz hitz egiten, ba igual lagunekin, hau [guraso erdal-

Benetako muda egitea, dauden egoeran daudela, ezinezkoa izan da. Testuinguru soziolinguistikoa lagun ez izanik gaztelaniaren presioa ikaragarria da. Gainera, bizitzako zirkustantziek ez diete utzi euskara bidezko sare esanguratsu eta trinkoetako parte izaten.

**Bere herriko
eskolako lagun
guztiek dakite
euskaraz, baina
inoiz ez dute egin
haien artean;
bere herrian
euskaraz egitea
oso arraroa
litzateke eta
harreman-
hizkuntza
aldatzea ez dute
planteatu ere
egiten.**

dunak dituen eta Busturiakoa den bere ikaskidea] ere bai lagunekin”, eta ba niretzat igual beraiek izango ziren euskaldun zaharrak eta ni euskaldun berria, osea, nik ez dut inoiz ia-ia euskeraz hitz egiten, bakarrik unibertsitatean. (Gazte-BI, 5/11)

Lagunekin euskaraz beti aritu diren bere lagun hiztun berri horiek “euskaldun zahar” kontsideratzeraino heltzen da, eurek berak falta dituen gako garrantzitsuak dituztelako: leku bateko euskara, erraztasuna eta lagunaren arteko erabilera. “Lekuren bateko” euskaraz berba egin gura luke Urkok, berdin dio nongoaz, kontua da “hain batuo” ez ematea, batez ere lagunarteko elkarrizketetan; eta egunerokoan euskara lagunekin erabiltzea; eta hori egiten duenean ondo, eroso sentitzea. Bere hitzetan:

35. Leku bateko euskeraz egitea, lagunekin egunero euskeraz egitea, ba lotsarik gabe euskeraz egitea (Gazte-BI-E, 317)

Badaki asko falta duela. Bere herriko eskolako lagun guztiek dakite euskaraz, baina inoiz ez dute egin haien artean; bere herrian euskaraz egitea oso arraroa litzateke eta harreman-hizkuntza aldatzea ez dute planteatu ere egiten. Baina unibertsitate-uneaz baliatuta lagun berri batzuekin euskaraz egiten saiatzen da eta, hutsen bat egiten duenean modu onean barre egin arren, asko laguntzen diotela esaten du. Urkorentzat une hau, unibertsitate-garaia, oso erabakiorra izan daiteke *muda*-prozesuan aurrerapausu bat emateko, erabilera handitzeko eta horren ondorioz gaitasuna ere hobetzeko. Beste gazte batzuek ez bezala, Urkok erakutsi du euskararekiko atxikimendua eta kontzientzia eta unibertsitatean dauzkan aukerez baliatu daiteke. Eta, gainera, etorkizunean lana ere alde izango du, lehen hezkuntzako irakaslea izango baita. Bere bizitzaren zirkulantziak lagun, *muda*-prozesu arrakastatsua burutuko lukeela uste dugu. Horretarako, kanpoko baldintza hobeak behar ditu, barneko motibazioa badauka-eta.

3.5 Muda egin ez dutenak: testuinguru oztopotzaileetan bizi diren gazte asko

Koadroa osatzeko, partaide gazteen artean oso esanguratsua izan den profil baten gainean arreta berezia jartzeak merezi du; alegia, 35 urte baino gutxiago duten eta testuinguru oztopotzailean bizi diren gazteak, eskolan txikitan euskaldundu arren, beraien egunerokoan euskararik erabiltzen ez dutenak. Gazte hauek muda egiteko dituzten aukeren eta zailtasunen gainean hausnartuko dugu.

Aurreko ataletan ikusi dugun moduan, badira gazte zein helduak honako bi baldintzetako bat edo biak betetzerakoan muda arrakastatsua burutu

dituztenak: jarrera proaktiboa izatea edota testuinguru oso euskaldunean bizitzea. Halaber, testuingurua horren mesedegarria ez den tokietan muda egiteko zailtasunak handiagoak dira eta euskaraz bizitzea, osotasunean, behinik behin, ia ezinezko bilakatzen da. Dena dela, izan da partaideen artean testuinguru oztopotzailean bizita ere, euskara bizitzako esparru edo egoera batzuetan egonkortu eta euskal hiztun aktibo bilakatzea lortu duenik. Hala ere, testuinguru oztopotzaileetako gazteen artean gehiengoak ez dute euskara beraien egunerokoan barneratu. Profil honen baitan Bilbo Handiko, Gasteizeko zein Getxoko gazteak ditugu hizpide, baina baita erdibideko testuinguru soziolinguistikoetako gazteak ere; esaterako, Donostia, Lasarte-Oria zein Gadakaokoak. Zenbaitek penaz bizi dute egoera, baina beste askok euskararekiko jarrera epela agertzen dute. Hurrengo lerroetan, profil honen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Bigarren atalean identifikatu ditugun zenbait muda momentu ez dira errelebanteak profil honetako gazte askorentzat, hain zuzen, beraien adina dela eta (adibidez, ezkondu zein seme-alabak izatea). Ostera, euskarazko hezkuntzaren orokortzeak eta unibertsitateko ikasketen euskarazko eskaintzak, aurreko belaunaldiek izan ez zuten edota askoz neurri txikiagoan izan zuten muda aukerak eskaintzen dizkie gazte hauei. Eskola eta unibertsitatea izango dira, hain zuzen, muda aukera moduan aztertuko ditugun esparruak.

Eskola euskara modu aktiboan erabiltzen hasteko lehen momentu gisa identifikatu dute; izan ere, gehienek ikasketak euskaraz burutu dituzte. Egitez, gure ikerketan egindako galdetegian %53,4 izan dira eskola euskara erabiltzen hasteko espazio moduan identifikatu dutenak. Dena dela, euskararen erabilera akademiko hori ezin daiteke gazte guztientzako benetako muda moduan hartu. Izan ere, muda moduan jotzeko, eskola barruko lagunen arteko elkarrekintzak ere euskaraz izan beharko lirarteke, erabat edo partzialki, bai eskolan eta bai eskolatik kanpo. Gure ikerketak erakutsi du hori ez dela horrela; alegia, gazteak lagunartean beti edo gehienetan gaztelaniaz harremantzen direla (gure azterketa kuantitatiboko 18 eta 26 urte bitarteko gazteen %74,3k baieztatu du hori; eta pentsatzekoa da eremu oztopotzaileko gazteen artean ehunekoa are handiagoa izango dela).

Ikus dezagun gazteek ideia horiek zelan islatzen dituzten:

36. Bai, erdalduna da baña guztiok ikasi dogu euskeraz beti, beti, beti, beti. Eta halanda be, juntatzen ginenean...[...] Eta ez dakit moda bat den, edo moda bat zen, ez dakit, hamar urte genitunean, eta hamasei urte genitunean baita, baña ohitura, nire ohitura beti izan da gazteleraz

Testuinguru oztopotzaileetako gazteen artean gehiengoak ez dute euskara beraien egunerokoan barneratu.

**Ohitura
linguistikoak
umetan ezartzen
dira eskolan.
Horren zergatiak
bilatzerakoan
gaztelaniak
gizartean
eragiten duen
presioa aipatu
daiteke; izan ere,
gazteek gizartean
nagusi den
eredua birsortzen
dute eskolan.**

**Euskara
gaitasuna
eskolan soilik
bereganatzen
badute, gerta
daiteke ikasleek
euskaraz
komunikatzeko
zailtasun
handiagoak
izatea, batez ere
umetan eta
hortaz, lehenengo
unetik bertatik
gaztelaniaz hitz
egiteko ohitura
ezartzea.**

hitz egitea. Ordun, nik klasean euskaraz egiten nun, azterketak, klaseak, dana, dana, dana, [...] Eta bueno, gero, ikastolatik irten eta gaur egun ere beti hitz egin dugu gazteleraz. Eta ez da euskararekiko, ez dakit, zailtasuna daukagulako, [...] Baña ez daukagu ohiturarik, ez daukagu. Osea, geure arteko hizkuntza kulturala eta harremanetarakoa gaztelera da. / Unibertsitatean egin nituen lagunekaz euskaraz egiten dut, ba Markinako bat, Azpeitiko bat, Azkoitiko bat, Zarautzeko bat, eta normaltasunez hartzen duzu. Baña, ez dakit, bost urte, sei urte dituzunean, horrelako, ez dakit, horrelako jarrerak edo jokabideak ez dituzu barneratzen eta ez dakizu benetan zelako papera jokatu duen hizkuntzak zure bizitzan. Eta hartzen duzu, ez dakit, **horrelako rol bat**, eta gazteleraz hasten zara erlazioa izaten eta gero hori aldatzea.. (BI-A, 23 / 32)

Ohitura linguistikoa apurtzea zaila dirudi goiko partaidearentzat. Gazteak eurak ere ohartzen dira horretaz:

37. Eske ni adibidez, nere kuadrila txikitatik daukat, ez?, eta ohitura dakagu erderaz hitz egitea, eta nik kuadrilarekin jarraitzen det, eta ordun ba, **ohituragatik jarraitzen deu erderaz hitz egiten**, eta **oain hogeita bat urtekin derrepente esatea «benga, denak euskeraz hitz eitea»**, ba **arraro** izango zen, ez? Eta ordun ba, ez det planteatu baino, ez dakit. (Gazte-DO-B, 245)

Hein handi batean, ohitura linguistikoak umetan ezartzen dira eskolan. Horren zergatiak bilatzerakoan gaztelaniak gizartean eragiten duen presioa aipatu daiteke; izan ere, gazteek gizartean nagusi den eredua birsortzen dute eskolan. Aldi berean, euskara gaitasuna eskolan soilik bereganatzen badute, gerta daiteke ikasleek euskaraz komunikatzeko zailtasun handiagoak izatea, batez ere umetan eta hortaz, lehenengo unetik bertatik gaztelaniaz hitz egiteko ohitura ezartzea. Behin Lehen Hezkuntza amaituta, institutuan hastea jende berria ezagutzeko eta harreman berriak egiteko aukera ona izan daiteke; baina gazte askok klase-kide eta lagunak mantendu egiten dituzte institutuan. Gainera, pentsatu daiteke, lagun zehatzekin ezarritako ohiturez harago, garai horretarako ezarria dagoela zera da: gazteen arteko harreman hizkuntza gaztelania dela.

Azterketa kuantitatiboak erakutsi zuen gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dela euskara erabiltzeko oztopo nagusia (%92,5ek baieztatu zuen hori galdetegian); eta are modu nabarmenagoan gazteentzako (%97,2k adierazi zuten ohitura oztopo moduan).

Ohitura linguistikoari **Euskara-Eskola elkarketa** gehitu behar zaio, testuinguru oztopotzaileetan oso orokortua dagoena. Elkarketa hori euskararentzako oso kaltegarria da: ondorio samurrena da euskara ez dela “guay-a” moduan identifikatzen; baina kasu batzuetan euskara inposi-

zioarekin, frustrazio esperientziekin, edota antzeko ideiak harremantzea ere badakar, hizkuntza irakasteko moduarekin zuzenki baldintzatuta.

Behatu ditzagun unibertsitatean ikasgai batzuk euskaraz ikastea erabaki duen ikerketako partaide baten lagunen erreakzioak:

38. Nere lagunak, adibidez, ni bezala, txikitatik euskeraz hitz egin dute ikastolan baino gero kanpoan, ba gurasoekin ta hoi gaztelaz, eta esan nienean irakasgai batzuk euskeraz hartuko nitula eta gehienak esan zuten “bai?, euskeraz?, osea, hainbeste urte ta gero hitz egiten, ez behartuta, baino, joe, ba kostata eta holan, euskaraz hartuko dezu?” (Gazte-DO-C, 144)

Laburbilduz, eskola biztanleria gaztea euskalduntzeko eginkizuna betetzen ari da; baina testuinguru oztopotzaileetan eskola ez da nahikoa gazteek euskara harreman hizkuntza moduan erabili dezaten. Argi dago, eskolaz gaindi, bestelako estrategia eta ekimenak ere landu behar direla.

Gazteek muda burutzeko beste momentu garrantzitsu bat **unibertsitatea** da. Katalunian, esaterako, unibertsitatea da muda egiteko une arrakastatsuenetarikoa (Pujolar eta beste (2017) zenbaki honetan bertan; Pujolar eta beste (2010), Puigdevall eta beste (agertzeko), González eta beste 2009). Unibertsitateak aukera sortzen du, batetik, institutua amaitu eta ostean euskara mantentzeko; eta bestetik, harreman berriak egiteko. Testuinguru oztopotzaileari dagokionean, unibertsitateak bestelako euskaldun profilak erakartzen ditu, besteak beste, testuinguru euskaldunetatik etorri eta euskara egunerokoan darabiltenak.

39. Irten nintzanean unibertsitatera, eta nahiz eta gazteleraz egin karrera, ba hor topatu nauzen beste pertsona euskaldunak bere bai, eta horrekaz euskaraz hasi nintzen berbetan eta orain arte. Horiekin arraroa izango litzateke gaur egun adibidez gaztelaniaz egitea. (BI-D, 18)

Hurrengo aipuak datu interesgarria eskaintzen digu erlazio berrietan harreman hizkuntza aukeratzerako orduan sortzen diren dinamiken gainean:

40. -Orduan ni hara [unibertsitatera] heldu nintzan, nire klasean zeuden euskaldunak, beno, euskaldunak denak, esan nahi dut, baña euskaldun barriak eta euskaldun zaharrak. Euskaldun zaharrek egiten zuten klasean eta klase kanpoan euskeraz, eta nik euskaldun zaharrekin klase barruan eta klase kanpoan euskeraz. Baña euskaldun barriak ginenok klase barruan egiten genuen euskaraz eta kafetegira joaten ginenean, eta ostegunetan, ez dakit, poteora joaten ginenean alde zaharrera ostiralean klaserik ez zegoelako, erderaraz. (BI-A, 151)

-Eta zu bezala, denak? Zure egoeran, euskaldun berrien egoeran, denak?

-Denak, bai, bai, bai. Eta gaur egun aurkitzen gara eta batzuetan, nik

Testuinguru oztopotzaileetan eskola ez da nahikoa gazteek euskara harreman hizkuntza moduan erabili dezaten. Argi dago, eskolaz gaindi, bestelako estrategia eta ekimenak ere landu behar direla.

**Unibertsitateak
aukera sortzen
du, batetik,
institutua amaitu
eta ostean
euskara
mantentzeko; eta
bestetik,
harreman
berriak egiteko.
Testuinguru
oztopotzaileari
dagokionean,
unibertsitateak
bestelako
euskaldun
profilak
erakartzen ditu,
besteak beste,
testuinguru
euskaldunetatik
etorri eta
euskara
egunerokoan
darabiltenak.**

euskaldun zaharrak direnekin, adibidez, Markinako lagun bat daukat, eta berarekin egoten naizenean beti egiten dut euskeraz... (BI-A, 153)

Beraz, eskolan ezarritako dinamika unibertsitatean ere mantentzen dela ikusi daiteke: “nirelakoak” direnekin, alegia, etxean euskara ikasi ez dutenekin eta herri euskaldunetatik ez datozenekin, harremana gaztelaniaz izango da, tartean faktore berezirik ez badago (klasean erabiltzea, “euskaldun zaharrak” tartean egotea, etab.)

Unibertsitatea euskara mantentzeko estrategia moduan presente egin da partaide batzuen artean:

41. Ni berez ere bai, o sea, hitz egiterako garaian eta ikasterakoan eta guzti oi erosoago sentitzen naiz erderaz iten baino nere buruari ba, ez dakit, obligatu bezala in nion ez ahazteko eta, ez dakit, ez dalako gauza bat ahazteko modukoa, nire ustez. / Saiatzen naiz ba hoi, esan detena, ez ahaztea eta hor eotea. Ez naiz gai dana euskaraz eiteko eta ez naiz kapaza ikusten denbora guztian euskeraz mintzatzeko ta hola, baino, ez dakit, ez det ahaztu nahi. (Gazte-DO-C, 78 / 234)

42. Nik karrera ikasi dut Sarrikan euskaraz, eta euskaraz ikasteko arrazoietakoa bat izan zen nik euskeraz mintzatzen jarraitu nahi nuela eta banekien karrera euskeraz egiten ez banun, galduko nuela dena. Hori izan zan, nik uste dut, arrazoi nagusia. Eta gero zortea izan nuen nire karrera guztiz euskeraz zegoela eta euskeraz edo gaztelaraz ikasteko, ez dakit, nibela edo, bardina zela. (BI-A, 150)

Ikasketak edo ikasgaiaren bat euskaraz egiteak erabakia hartzea eskatzen du, eta beraz, aukera egin duten gazteen artean nolabaiteko jarrera proaktiboa eta hizkuntzarekiko zeozelango kontzientzia nabarmendu daiteke (izan motibazio instrumentalagatik, identitarioagatik zein integratzaileagatik). Baina badira beste gazte asko aukera aprobetxatzen ez dutenak. Hurrengo aipuan ageri den gaztearen ikasgaiak gaztelaniaz aukeratzeko arrazoia euskara gaitasuna da: euskaraz jarduteko arazorik ez duen arren, gaztelaniaz ziurrago sentitzen da eta errazagoa eta erosoago suertatzen zaio:

43. Idazterako garaian hobeto sentitzen naiz gaztelaniaz hitz egiten, o sea, iten dut eta idazten ere bai. / Ez daukat arazorik baina, ez dakit, hobeto sentitzen naiz erderaz, erreago egiten zait. / Eta ikastolan ta dena azterketa guztiak ta dena euskeraz iten nitun, baina ez dakit, unibertsitatean bi aukera nitun eta esan nun, gaztelaniaz. / Ni ere notagatik, ez?, o sea, notak garrantzitsuak dira unibertsidadean eta uste nuen erderaz aukeratzen banituen asignaturak nota hobeagoak izango nitula euskeraz baino, ta ez dakit, nik lehenengo urtean asignatura bat euskeraz hartu nun eta lehenengo klasea jun nintzen eta esan nun, “euskerako nibela oso, oso ona da eta ni igual hemen ez det, o sea, agian ez det pasatzen asignatura” eta orduan segituan aldatu nintzen eta gaz-

telaniaz, igual komodidadeagatik, igual, baino notetan ere pentsatu nun ta... (Gazte-DO-B, 77/82/84/145)

Profil honetako hiztunen artean mudarik gertatu ez den arren, unibertsitateak aukerak eskaini ditzakeela uste dugu. Batetik, euskararekin kontaktua luzatu eta mantentzeko (lerro berean dago euskaltegian izena ematea). Bestetik, harremanak euskaraz ezartzeko, nahiz eta bakanak eta puntualak izan. Gazte batzuek aukera horiek aprobetxatzen dituztela ikusi dugu; eta beste batzuek, berriz, ez dituztela aprobetxatzen. Azken erabaki horrek euskararekiko urruntze bat ekarri dezake, baita apurka-apurkako gaitasun galdera bat ere.

Egitez, testuinguru oztopatzaileetako gazte askok euskara erabiltzeko oztopo moduan **gaitasuna** aipatu dute:

44. Bueno, bai, ba gehien erabiltzen duzun hizkuntzarekin ba, babestutagoa ikusten zara. Adibidez ni gaztelaniaz gehiago aritzen naiz eta gaztelaniaz hitz egiten hobetoago defendatzen naiz euskeraz baino. Euskeraz askotan, ba hori, mugatuta bai ikusten naizela ze zenbait espresio ez zaizkit ateratzen edo kostatzen zaizkit edo. Adibidez gaztelaniakin soltura gehigokin hitz egiten duzu ta. Eta gero beste pertsonekin azkenean da ohitzen zaitu denbora gehiago ematen duzunekin. Adibidez, lagunekin ematen baduzu denbora asko eta haiekin gaztelaniaz aritzen bazara, azkenean gaztelaniez hitz egitera ohitzen zara. (Gazte-DO-A,88)

45. Nire koadrilan, adibidez, gertatzen dena da jendea, uste dut, **ez dela eroso sentitzen euskeraz** hitz egiten, askoz erosoago sentitzen dela gaztelaniaz hitz egiten, zeren ez dakite oso ondo gauza batzuk esaten, (...) eta **horrexegatik ba ohitura izan da gaztelaniaz** hitz egitea ba txikitatik, eta horrexegatik hitz egiten dugu gaztelania. Niri, adibidez, ere bai unibertsitatean gertatzen zaidana da, ba, noizbehinka ba arbelara irten behar naizenean ba zerbait hitz egiteko edo, zertxobait(i) buruz, edo powerpoint bat esplikatu behar dudanean edo, ba esaten dut «lo voy a preparar», ¿sabes?, **eske ez daukat konfiantza** nigaz, ¿sabes? Horrexegatik, eta, eta beti, eta gainera nire klasekideek ba ere bai, osea, euskaldunak dira eta batzuk Gernikakoak, beste batzuk ba Bermeokoak, baina, klaro, gure artean gazte-leraz hitz egiten dugu, eta beraiek noizbehinka esaten didate «bua, la has preparado, has metido una gamba...», klaro, eske azken finean nik ez daukat konfiantza asko euskeraz hitz egiteko. (Gazte-BI-E, 195)

4. ZEIN DIRA GAKO ERAGILEAK BEHIN BETIKO MUDA SEGURTATZEKO? HIZKUNTZA-POLITIKAK ERAGIN DEZAKE?

I

Artikulu honetan hiztun berri ezberdinen hizkuntza-ibilbidean sakondu da eta hiztun aktibo bihurtzeko zein diren hiztun-profil ezberdinak, bi-

**Lan eremuko
muda-unea
aintzakotzat
hartuta, euskara
lan-hizkuntza
den kasuetan
bakarrik suertatu
da eraginkorra,
irakaskuntzan
bereziki eta
administrazio
publikoko kasu
batzuetan.
Euskara lan
eremuan
normalizatzen
den neurrian une
honek indarra
hartuko du baina
oraindik ere
pertsona
gutxiarentzat (eta
gazte are
gutxiagorentzat)
da eraginkorra.**

**Familia barruan
eta lagunartean
gertatutako
mudak oso
indartsuak izan
dira. Bereziki
aipatu behar dira
bikotekidearekin
hasi, seme-
alabak izan eta
lagun berriak
egitea
ahalbidetzen
duten uneak.
Horiei gehitu
behar zaie herri
euskaldun batera
bizitzen joatea
eta horrek
dakartzan sare
berriak.**

zitza-une eraginkorrenak eta gako garrantzitsuenak azaldu dira. Lehen-
goei dagokienez, *muda* kontzeptua proposatu zutenean González eta
bestek (2009) identifikatu zituzten uneetatik, euskararen kasuan lehen
eta bigarren hezkuntzako momentuak ez dira suertatu oso eraginkorrak.
3.5 atalean azaldu den bezala, lehen hezkuntzan eskolatik kanpo ere
euskara erabiltzeko gune bakarra edo bakarrenetarikoa den kasuetan
ikaskideekin harremana gaztelaniaz ezartzen da eta horrek eragozten
du *muda* egitea. Gainera, nerabeen artean *mudak* gertatzen direla ikusi
bada ere, horiek kontzientzia piztu delako suertatu direla ikusi da, ez
hiztunaren bizitzako zirkustantzietan aldaketa batek bultzatu duelako,
adibidez ikastetxea aldatzerakoan lagun berriak egin direlako. Uniber-
tsitateko *muda*-uneari dagokionez, bere potentzialitatea azpimarratu be-
har da: ez da Catalunako kasuan bezain eraginkorra, euskara uniber-
tsitatean ez dagoelako katalana bezain normalizatua, baina hiztun
batzuentzat aukera interesgarria da. Une hau hizkuntza-politikek gehiago
baliatu beharko lukete hiztun berriei *muda* egiten laguntzeko. Lan ere-
muko *muda*-unea aintzakotzat hartuta, euskara lan-hizkuntza den ka-
suetan bakarrik suertatu da eraginkorra, irakaskuntzan bereziki eta ad-
ministrazio publikoko kasu batzuetan. Euskara lan eremuan
normalizatzen den neurrian une honek indarra hartuko du baina oraindik
ere pertsona gutxierez (eta gazte are gutxiagorentzat) da eraginkorra.

Bestalde, katalan-hiztunentzat bezala, familia barruan eta lagunartean
gertatutako *mudak* oso indartsuak izan dira. Bereziki aipatu behar dira
bikotekidearekin hasi, seme-alabak izan eta lagun berriak egitea ahalbi-
detzen duten uneak. Horiei gehitu behar zaie herri euskaldun batera bi-
zitzen joatea eta horrek dakartzan sare berriak eta harreman berri horiek
euskaraz ezartzea. Une horiek oso poderetsu suertatu dira baina kontuan
izan behar da pertsona bakoitzak bizi dituen zirkustantzien arabera
direla eta, beraz esku hartzeko zailak: hiztun berri denek ez daukate
euren bizitzan aukerarik zirkustantzia mesedegarriak izateko.

Muda egiteko bizitza-une egokiak asko izan daitezke, eta ezberdinak
hiztun batetik bestera. Baina euskararen kasuan behin betiko *muda* egi-
teko ezinbestekoa suertatu den gako kontzientzia izan da, bizitzaren
edozein unetan gertatu daitekeena. Euskararen egoera gutxituak hiz-
tunen aldetik jarrera proaktiboa, konpromisoa eskatzen du, *muda* egiteko
baldintza mesedegarrietan egonik ere. Hori ezik *muda* ez da egiten edo
eginda (kanpoko presioak eraginda egiten den kasuetan) ere behin be-
tikoa ez dela eta *alderantzizko muda* egin litekela uste dugu. Horregatik,
gako hau ezinbestekoa da kasu guztietan eta bereziki zaindu beharrekoa

hizkuntza-politikak egiten direnean.

Muda-prozesuetan bai prozesuaren arrakasta, erabilera aktiboa, bermatu dadin bai hiztun berriak prozesu eta esperientzia positiboa izan oso garrantzitsuak dira beste gako batzuk. Batetik, euskara erabiltzeko aukerak. Hiztun batzuk oztopo ezingainditu bezala azpimarratu dituzten testuingurua eta euskaldunek osatutako sare-falta edo “euren moduko” euskaldunekin gaztelaniaz hitz egiteko ohitura; beste batzuk, berriz, oztopo horiek gainditu dituzte, baldintza zailetan *muda* egitea posiblea dela erakutsiz (ikus Amorrortu eta beste 2017). Bestetik, hiztun berriak eskuratu duen eta erabiltzen duen euskara-mota aipatu behar da, hiztun legitimo sentitzeko daukan garrantziagatik (ikus Ortega eta beste 2013; Ortega eta beste 2014; Ortega eta beste 2015; Urla eta beste 2016) eta horren barruan bai nolako gaitasuna (zuzentasuna, jarria, erraztasuna) daukan eta nola perzibitzen duen berak, bai nolako aldaera erabiltzen duen (kasu batzuetan lekuan lekuko edo euskalki batera hurbiltzeko gai den; besteetan ahozko erregistro kolokialak edo, Idoiak esaten zuen bezala, “hizkuntza emozionala”, ere daukan). Artikuluan zehar erakutsi den bezala, *muda*-prozesu arrakastatsua egin duten askok, eta egin ez duten batzuk ere, azpimarratu dute gako horren garrantzia eta pentsaerazi beharko liguke euskara zelan irakasten den hezkuntza arautuan, zelako gaitasuna irakatsi beharko genukeen (ikus Ortega 2017 agertzeko).

Amaitzeko, *muda* egin ala ez profil ezberdinak erakutsi dira, baita egin ez dutenek dituzten oztopo eta zailtasunak ere. Profil guztien artetik, eta hizkuntza-plitikari begira, gazteek osatutako eta testuinguru oztopotzailean bizi diren bi profil nagusi lehentasunezko bezala azpimarratu behar dira: lehendabizi, saiatzen ari diren eta *muda* egin nahiko luketena (Idoia 3.2 atalean eta Urko 3.4ean); eta bigarrenik, kontzientzia epela duten gazteak (3.5). Lehentasunezkoa da gazte horiekin hizkuntza-neurri koordinatuak hartzea, batetik, ez dagoenean, kontzientzia eta *muda* egiteko erabakia har dezaten eta, bestetik, euskara erabiltzeko aukerak eta beharrezko baliabideak eskaintzeko. Esku hartzea bideragarria eta lehentasuenzkoa delakoan gaude. ●

OHARRAK

1. *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* izeneko ikerketa Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatearen arteko Bizkailab ekimenaren diru-laguntzari esker egin zen. Espainiar Estatuko Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioak ere diruz lagundu zuen (FFI2012-37884-C03-03). Artikulu honetan ageri diren ideiek ondoko foroetan izandako eztabaida akademikoetatik edan dute: COST Action – IS1306 “New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges” (http://www.cost.eu/domains_actions/isch/Actions/IS1306), Espainiar Estatuko Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioak diruz lagundutako “El neohablante como sujeto social: el proceso de

Euskararen kasuan behin betiko muda egiteko ezinbestekoa suertatu den gakoa kontzientzia izan da, bizitzaren edozein unetan gertatu daitekeena. Euskararen egoera gutxiituak hiztunen aldetik jarrera proaktiboa, konpromisoa eskatzen du, muda egiteko baldintza mesedegarrietan egonik ere. Hori ezik muda ez da egiten edo eginda (kanpoko presioak eraginda egiten den kasuetan) ere behin betikoa ez dela eta alderantzizko muda egin litekela uste dugu.

conversión lingüística en Galicia, Euskadi, Aragón y País Valenciano” (FFI2016-76869-P) proiektua, Eusko Jaurlaritzak oneritsitako IT-983-16 taldea eta Deustuko Unibertsitateko *Euskal Gaiak* ikerketa-taldea. Egileek eskerrak eman nahi dizkie aipatutako erakundeei eta ikerketan parte hartu duten pertsona guztiei.

2. Partaideen konfidentziasuna gordetzeko, haien aipuak gako baten bitartez emanda daude. Gakoaren lehen bi letrek zein eztabaida-talderi dagokion adierazten dute, adibidez, BE Bermeo, ZU Zumaia, GA Gasteiz, Gazte-DO Donostian egindako gazteek osatutako taldea; Elk elkarrizketa bideratua. Hurrengo letrak aipua egin duen partaidea adierazten du eta zenbakiak berba hartzea. Izen propioak ageri direnean asmatutakoak dira. Bestalde, irakurleak kontuan hartu beharko luke transkripzioa ez dela fonetiko, ortografia-arauari jarraituta baizik. Hala ere, hiztunek erabiltzen duten aldaeraren ezaugarriak gorde dira, izan ahozko eta bat-bateko hizkuntzaren adierazle izan tokian tokiko aldaeraren baten adierazle. Partaideak darabilen aldaerak informazio garrantzitsua ematen du hiztun bezala duen auto-pertzepzioa ulertzeko, besteak beste.

3. Ikerketako lagina osatzerakoan partaide guztiek gaitasun maila aurreratua (C1 maila, Europako kontseilua 2001)) izatea erabaki zen. Hala ere, hiztun guztiek ez dute haien gaitasunaren pertzepzio ona. Izan ere, gaitasuna oso aldagai garrantzitsu bezala suertatu da mudantza-prozesuak ulertzeko. Hiztunen gaitasunaren pertzepzioa zein den jakiteko, bakoitzak mahai-inguru eta elkarrizketetan horretaz esan dutenaz aparte, saioa burututakoan bete zuten galdesortatik atera dugu informazioa. Galdesorta horretan, besteak beste, euren hizkuntza-gaitasuna (ahozkoa zein idatzia) ebaluatu zuten, 1etik 4rako eskalan, non 1 “ez oso ona” eta 4 “oso ona” den. Auto-ebaluazio horri gaitasun subjektiboa deitu zaio. Horretaz aparte, bi ebaluatzaileek 1etik 4rako eskalan partaideen jartutasun eta zuzentasun gramatikaren ebaluazioa egin zuten, mahai-inguruko grabazioak entzunda, berriro ere 1 “ez oso ona” eta 4 “oso ona” izanik. Azken honi gaitasun objektiboa deitu zaio. Hiztunaren aldaerari dagozkion datuak Gaitasun datuak bezala batu dira: galdesortan euskalki ezberdinak eta batua ulertzen eta hitz egiten duten galdetu zaie; ebaluatzaileek egindako azterketa objektiboan Batuatik lekuan lekuko aldaera batera doan kontinuuma lau kategorietan banatu zen, batua koloregabea 1 eta euskalkira asko hurbiltzea 4 izanik, eta bi ebaluatzaileek baloratu zuten. (Ikus Ortega eta beste 2016: 33-34 azalpen gehiagorako)

4. Hala ere, gure laginean egon da testuinguru euskaldunean mudantza egonkorra egin baina gaitasunarekin oso eroso sentitzen ez denik, profil honetako gainontzeko ezaugarriak beteta ere. Ikus atal honetan bertan Amaia ibilbidea.

5. Ideologia horren arabera, familian ikasitako hizkuntzak erabat eta bizitza guztirako baldintzatzen du pertsona eta hizkuntza hori da onen menperatuko duena; era berean, pertsonaren lehen (“ama”) hizkuntza ez dena ezin da hain ondo ikasi, hain zuzen ama-hizkuntza ez delako.

6. Iñakik Gasteizen burutu zen mahai-inguruan parte hartu zuen eta gero, bere kasuan sakontzeko, bakarkako elkarrizketa egin zitzaion, gaztelaniaz (ikus Ortega eta beste 2016: 25).

AIPATUTAKO LANAK:

Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiri-tziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Amorrortu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri, J. (2017). Hiztun berriak eta hizkuntza-ohitura aldatzea. Udaletako Euskara ZERbitzuen Topaketetan aurkeztutako txostena. <http://www.udaltop.eus/documents/192363/1177782/Estibaliz+Amorrortu.pdf/12e01023-2d11-4f37-b1e8-83a9f89ad2ac>. 2017/10/20an azkenengoz ikusia.

- Baztarrika, P. eta Erize, X. (2016). *Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkorta suna edo «dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen»*. Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. In: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf. 2017/10/20an azkenegoz ikusia.
- Europako Kontseilua (2001). *A Common European Framework of Reference for Languages*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- Eusko Jaurlaritz (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskararen erakunde publiko-Office public de la langue basque (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa*. Eskuizkribua: Donostia, 2016/10/14.
- González, I., Pujolar, J., Font, A. eta Martínez, R. (2009). *Entre la identitat i el pragmatisme lingüístic. Usos i percepcions lingüístiques dels joves catalans a principis de segle*. Generalitat de Catalunya. Direcció General de Política Lingüística. Observatori de la Joventut.
- Mayring, P. (2000). Qualitative Content Analysis. *Forum: Qualitative Social Research*, 1 (2): 1-10.
- McLeod, W. eta O'Rourke, B. (2015). "New Speakers" of Gaelic: Perceptions of Linguistic Authenticity and appropriateness. *Applied Linguistics Review* 6 (2): 151-172.)
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. eta Urla, Jacqueline (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, Bizkailab.
- Ortega, A. (2017, agertzeko). "Euskararen biziberritzea eta eskola 1: hiztun-profil berriak eta ideologia berriak". In J. Goirigolzarria, I. Manterola & X. Landaluze (arg.). *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbao: UEU / Deustuko Unibertsitatea.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. Urla, J., Uranga, B. (2014). *Nuevos hablantes de euskera: identidad y legitimidad*. *Digitum*, 16: 86-97.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J., Uranga, B. (2013). *Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: «nolako euskalduna naiz?»*. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 151-170 or.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Uranga, B. (2015). *Linguistic Identity Among New Speakers of Basque*. *International Journal of the Sociology of Language*, 231: 85-105.
- Piller, I. (2002). Passing by a Native Speaker. *Journal of Sociolinguistics*, 6 (2): 179-206.

- Puidgevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. eta Ortega, A. (agertzeko). New speakers and Linguistic Mudes: Becoming, Passing and Belonging. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*.
- Pujolar, J. eta González, I. (2012). Linguistic «Mudes» and the De-ethnicization of Language Choice in Catalonia. *The International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16 (2): 138-152.
- Pujolar, J. eta Puigdevall, M. (2015). "Linguistic 'Mudes': How to Become a New Speaker in Catalonia". *International Journal of the Sociology of Language* 231: 167-187.
- Pujolar, J., González, I., Font, A. eta Martínez, R. (2010). *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament d'Acció Social i Ciutadania. Secretaria de Joventut.
- Pujolar, J., González, I. eta Martínez, R. (2017). Gazte katalanen muda linguistikoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 104. 51-70
- Skutnabb-Kangas, T., Phillipson, R. (1989). «Mother tongue»: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept. In U. Ammon (arg.), *Status and Function of languages and Language Varieties* (450-477 or.). Berlin / New York: Mouton de Gruyter.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. Euskal Herria, 2016. Prentsa-txostena.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. eta Uranga, B. (2016). Authenticity and Linguistic Variety among New Speakers of Basque. In *Language Documentation & Conservation*. Special Publication, 9. Vera Ferreira eta Peter Bouda (arg.) (1-12 or.)
- Walsh, J. eta O'Rourke, B. (2014). Becoming a new speaker of Irish: linguistic mudes throughout the life cycle. *Digithum* 16: 67-74. In: <http://journals.uoc.edu/index.php/digithum/article/view/n16-walsh-orourke/n16-walshorourke-en>, 2017/04/28 azkenengoz ikusia.
- Walsh, J., O'Rourke, B. eta Rowland, H. (2015). Research Report on New Speakers of Irish. Foras na Gaeilge erakundearentzat egina. <http://www.nspk.org.uk/images/New-speakers-of-Irish-report.pdf>, 2017/10/20an azkenengoz ikusi.
- Walsh (2017) Irlandaradun berriak: jatorria, motibazioa, erabilera eta ideologia. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 104. 71-94

ARGIA



**Zer emateko
prest zaude?**

**Eta zer jaso
nahi duzu?**

INDARTU DEZAGUN INDARTZEN GAITUENA

EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

2 Gazte katalanen muda linguistikoak

Joan Pujolar

Universitat Oberta de Catalunya (UOC)

jpujolar@uoc.edu

Isaac González

Universitat Oberta de Catalunya (UOC)

igonzaiezbal@uoc.edu

Roger Martínez

Universitat Oberta de Catalunya (UOC)

rmartinezsa@uoc.edu

Itzultzailea: Itziar Murgiondo*

Sarrera-data: 2017-09-03 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. Nahiko ohituta gaude erabilera linguistikoak era askotan neurtzen, batez ere, mapak edo grafikoak eginez une zehatzetan katalanak eta gaztelaniak Katalunian eta beste testuinguru batzuetan zer presentzia erlatibo duten ikusteko. Ordea, gutxi dakigu hiztunen ibilbide linguistikoei buruz eta bizi-zan zehar jarrera linguistikoetan izaten dituzten aldaketen inguruan. Aldaketa horiei deitzen diegu “muda linguistikoak”, eta hori da artikulu honen gai nagusia. Artikuluan aurkeztuko ditugu UOCk, Hizkuntza-politika sailaren eta Kataluniako Generalitatearen Gazteria Behatokiaren mandatuz egin zuen hizkuntza eta gazteei buruzko ikerketa baten emaitzak (González et al. 2014). Ikerketak batzen ditu zenbait inkestatatik jasotako datuen analisi kuantitatiboa zein elkarriketa eta eztabaida taldeetatik eskuraturako zenbait datuen analisi kualitatiboa. • **Hitz gakoak:** *katalan-hiztuna, muda linguistikoa, ibilbide linguistikoa, hezkuntza-ibilbidea, jatorrizko hizkuntza*

Abstract. It is common practice to measure language use in various ways, and particularly to draw up maps and graphs showing the degree of relative presence of Catalan and Castilian at specific points in time in Catalonia or elsewhere. However, little is known about the linguistic development of the speakers and the changes taking place around them in the course of their lifetime. Such changes, which are referred to [adopting a Catalan term – Translator] as linguistic mudes, are the subject of this article, which presents the results of a study of language and young people for the Open University of Catalonia, the Department of Language Policy and the Youth Observatory of the Generalitat of Catalonia (González et al. 2014). The discussion and debate groups were set up specially for this study, and consisted of debates in fifteen groups and twenty-five detailed discussions, with 102 participants aged between 16 and 35. • **Key words:** *Catalan speaker, linguistic mude, linguistic biography, educational background, language of origin.*

* BAT aldizkariko argitalpen batzordeak eskerrak eman nahi dizkio itzultzaileari artikulu honen itzulpena egiteko izandako prestutasunagatik. Eskerrak, era berean, UPV/EHUko Letren Fakultateari, Itzulpengintza eta Interpretazioa Gradu hainbat praktika BAT aldizkariarekin egiteko hitzarmena Soziolinguistika Klusterrarekin sinatzeagatik.

Nahiko ohituta gaude erabilera linguistikoak era askotan neurtzen, batez ere, mapak edo grafikoak eginez une zehatzetan katalanak eta gaztelaniak Katalunian eta beste testuinguru batzuetan zer presentzia erlatibo duten ikusteko. Ordea, gutxi dakigu hiztunen *ibildide* linguistikoei buruz eta bizitzan zehar jarrera linguistikoetan izaten dituzten aldaketen inguruan. Aldaketa horiei deitzen diegu “muda linguistikoak”, eta hori da artikuluko honen gai nagusia. Artikuluan aurkeztuko ditugu UOck, Hizkuntza-politika sailaren eta Kataluniako Generalitatearen Gazteria Behatokiaren mandatuz egin zuen hizkuntza eta gazteei buruzko ikerketa baten emaitzak (González et al. 2014). Ikerketak batzen ditu zenbait inkestetatik jasotako datuen analisi kuantitatiboa zein elkarrizketa eta eztabaida taldeetatik eskuratutako zenbait datuen analisi kualitatiboa. Hona hemen zein inkesta hartu zituen oinarri: Kataluniako gazteei egindako inkesta 2002 eta 2007 (KGI02 eta KGI07) eta Erabilera linguistikoaren inkesta 2003 (35 urtetik beherakoek emaitzetara mugatuta). Elkarrizketak eta eztabaida-taldeak lan honetarako egin ziren berariaz: 15 taldeko eztabaida izan ziren, eta 25 elkarrizketa sakon; 16 eta 35 urte bitarteko 102 parte-hartzaileekin.

1. ZERGATIK HITZ EGITEN DUGU ORAIN “MUDA LINGUISTIKOEZ” ETA EZ DUGU LEHENAGO EGIN?

Praktika elebidunak ertz askotatik ikertu badira ere, ikerketa orokor gehienek fokua jarri dute soilik katalanak eta gaztelaniak gizarte katalanean zein pisu duten neurtzen eta alderatzen. Hortaz, egoera nola aldatzen zen ikusteko, une desberdinetan egindako zentsu eta inkestetako emaitzak konpara zitezkeen soilik, eta emaitzak, sarri, ez ziren oso argiak, izan ere, aldaketa esanguratsuek denbora dezente eskatzen dute. Hala, metropolialdean katalana “euren hizkuntzatzat” zuten pertsonen kopurua jaitsi egin zen apur bat (%35,8tik 33,2ra) “elebidunen” alde, 1990. eta 2000. urteen artean, eta gaztelania mantendu egin zen (Subirats 2002). Pesimistei hauspoa emateaz gainera, ikerketa horiek ez zuten asko laguntzen gure herrialdean hizkuntzekin zer gertatzen zen ulertzeko. Joaquim Torresek (2002) adierazi zuenez, datuek ez zuten ematen bariazioak zergatik gertatzen ziren ulertzeko azalpen onargarririk, ez belaunaldi gazteenen eragina ez immigrazioaren eragina oinarri hartuta.

Bestalde, adierazi behar dugu ikerketa asko oinarritzen direla identitate katalana zer den eta katalan-hiztuna izatea zer den dioten auresuposizioetan. Kasurik agerikoena da auresuposizio honetan oinarritzea: elkarrizketatuen hizkuntza “propio” (edo “euren hizkuntza”) gisa hartzen

***Gutxi dakigu
hiztunen ibildide
linguistikoei
buruz eta
bizitzan zehar
jarrera
linguistikoetan
izaten dituzten
aldaketen
inguruan.
Aldaketa horiei
deitzen diegu
“muda
linguistikoak”.***


**Metropolialdean
katalana “euren
hizkuntzat”
zuten pertsonen
kopurua jaitxi
egin zen apur bat
(%35,8tik 33,2ra)
“elebidunen”
alde, 1990. eta
2000. urteen
artean, eta
gaztelania
mantendu egin
zen (Subirats
2002).**

da, edo hartu beharko litzateke, normalean erabiltzen duen hizkuntza. Horregatik txertatu da azken urteetan “ohiko hizkuntza” kontzeptua, printzipioz, deskribatzaileagoa eta ez hain subjektiboa izan beharko lukeena. 2003ko Kataluniako erabilera linguistikoaren inkestako emaitzak aztertzen baditugu, ikusiko dugu identifikazioko hizkuntza hori eta ohiko hizkuntza ez datozela bat. 15 eta 34 urte arteko gazteen %44,3ren tzat katalana da identifikazio-hizkuntza, eta %38,3ren ohiko hizkuntza; gaztelaniaren zifrak, hurrenez hurren, hauek dira: %46,8 eta %43,8.

Hala ere, emaitza horiek engainagarri ere izan daitezke. Izan ere, pentsa dezakegu euren burua katalan-hiztuntzat dutenek gehiago erabiltzen dutela gaztelania bizitza errealean gaztelania-hiztunek baino. Baina beste datu bati, “jatorrizko” hizkuntzarenari, begiratu gero, kontrakoa pentsarazten digu: %36,8k hitz egiten du edo zuen katalana txikitan etxean, eta %55,1ek gaztelania. Hortaz, edozein erataraz begiratu ere, gertatzen da gazteak katalanarekin identifikatzen direla eta askoz ere gehiago erabiltzen dutela herritar gehienei jatorriz familiatik legokiekeena baino. Dauden datu guztietatik, hori da, hain zuzen ere, argiena eta egiaztatua. Horiek erakusten dutenez, katalanaren erabileran eta harekiko identifikazioan asko aurreratu da, eta, beraz, konpentsatu egiten du tradizioz “katalan-hiztuntzat” hartu ditugun horien atzeratze demografikoa, preseski, belaunaldi gazteen artean.

Kontraesanezko emaitza horien aurrean, adierazi genuen seguruenik ari ginela galtzen katalanaren egoera soziolinguistikoaren zatirik funtsezkoena. Izan ere, bi hizkuntzak ulertzen, hitz egiten edo idazten zituen jendeaz harago, edota batarekin edo/eta bestearekin identifikatzen ziren pertsonen harago, edo normalean hitz egiten zuen jende kopuruz harago, bazeuden istorio eta bizitza-ibilbide asko etiketa horiekin bat ez zetozenak. Argiago ikus dezakegu 1. grafikoan.

1 Grafikoa: Jatorri-hizkuntzaren eta ohiko hizkuntzaren (berreraikia) arteko alderaketa 15 eta 24 urte arteko gazteen artean. Katalunia, 2003



Datu horiek eskuratzeko erabilitako galderek saihestu egiten zituzten identitate-kategorizazioak, eta azpimarra jartzen zuten elementu deskriptiboan; hala, elkarrizketatuei eskatu zitzaizkien kalkulatzeko zein proportziotan erabiltzen zituzten gutxi gorabehera hizkuntzak eremu desberdinetan. “Ohiko hizkuntza” kalkulatu da deskribapen horien arabera, eta ez adierazpen zuzenetatik abiatuta. Ikusten dugunez, erdiko hiru profilak bateratzen baditugu, argi gelditzen da Kataluniako herritarren zatirik handienak bi hizkuntzak erabiltzen dituela eguneroko bizitzan. Horrek bi ondorio ditu: a) hizkuntza bateko eta besteko hiztunak argi bereizi nahi dituzten deskribapenek herrialdearen errealitate linguistikoa nabarmen desitxuratzen dute; eta b) kategorizazio tradizional horiekin urte luzez ez ditugu aintzat hartu, entzungor egin diegu edo ezabatu egin ditugu milaka istorio eta ikaste-esperientzia, milaka erabaki, negoziazio eta aldaketa, eta beste hainbeste beldur eta aurkikuntza; finean, hizkuntzen bidez eta horien konpainian izandako bizipenak.

Visto en perspectiva, se diría que nos interesaba menos saber qué pasaba con la lengua que no qué pasaba con una determinada manera de entender y de vivir la catalanidad:

Galderari erantzutea, alegia, atal honen hasierako galdera bikoitzari erantzutea, beraz, konplexua da. Perspektibaz ikusita, esan daiteke hizkuntzarekin zer gertatzen zen baino gehiago interesatzen zitzaigula jakitea zer gertatzen den katalana izatea ulertzeko eta bizitzeko era jakin batekin: zenbat *ginen*; gehiago edo gutxiago izatera ote *gindoazen*; ea he-

Kataluniako herritarren zatirik handienak bi hizkuntzak erabiltzen ditueguneroko bizitzan. Horrek bi ondorio ditu: a) hizkuntza bateko eta besteko hiztunak argi bereizi nahi dituzten deskribapenek herrialdearen errealitate linguistikoa nabarmen desitxuratzen dute; eta b) kategorizazio tradizional horiekin urte luzez ez ditugu aintzat hartu, entzungor egin diegu edo ezabatu egin ditugu milaka istorio eta ikaste-esperientzia.

**Normalizazio-
proiektuak
berekin
zekarrena bazen
katalanaren
ezagutza eta
erabilera
orokortzea, ez al
genbiltzan hitz
egiten aldaketa-
prozesu bati
buruz? Eta
orduan, ez al da
logikoa jakin
nahi izatea nork
egiten edo
jasaten duen
aldaketa hori,
nola egiten edo
kudeatzen duen,
non, noiz eta
zergatik? Muda
linguistikoak
ikertzea da
ezikusi egin
zaion errealtate
hori azaleratzeko
moduetako bat.**

mengoak hango izatera igarotzen ote ziren, edo alderantziz. Ildo horretatik, muda linguistikoak ikertzeak behartzen gaitu perspektiba aldatzera, eta, agian, herrialdea beste era batera ikustera. Ikuspuntu diakronikoago bat hartu genuen erabilera linguistikoetan aldaketa biografikoak ere kontuan hartzeko, eta, horrez gainera, onartu genuen norbanakoei jartzen dizkiegun etiketak erlatiboagoak, gertagarriagoak, behin-behinekoak eta, horrenbestez, dibertsoagoak eta sakabanatuagoak direla. Azken batean, normalizazio-proiektuak berekin zekarrena bazen katalanaren eza-
gutza eta erabilera orokortzea, ez al genbiltzan hitz egiten aldaketa-pro-
zesu bati buruz? Eta orduan, ez al da logikoa jakin nahi izatea *nork* egiten
edo jasaten duen aldaketa hori, *nola* egiten edo kudeatzen duen, *non*,
noiz eta *zergatik*? Muda linguistikoak ikertzea da ezikusi egin zaion erre-
altate hori azaleratzeko moduetako bat. Ez da, ezta gutxiago ere, bakarra.

2. MUDA LINGUISTIKOKO UNEAK

I
“Muda” kontzeptua izaki bizidunek euren itxuran edo ezaugarrietan, normalean bizi-ziklo zehatzetan, izan ohi dituzten aldaketekin lotzen da. Azala mudatzen duten animaliak daude, eta hostoak berritzen di-
tuzte zuhaitzek. Pertsonak bizilekuz aldatzen dira, edo itxuraz: jendea
aldatu egiten da, edo aldatzen zen, igandeetan edo ospakizun batzuetara
joateko. Guretzat, muda linguistikoak honako adiera hauetatik guztie-
tatik zerbait izan dezake: egon daitezke aldaketa oso esanguratsuak eta
luzerakoak hizkuntzari eta identifikazioari dagokionez, baina, badaude
une eta testuinguru zehatzei lotutako aldaketak ere. Hitz egiteko era
aldatzea esperientzia normala eta ohikoa da, eta pertsonak aurkezteko
edo besteen aurrean agertzeko duten era anitzekin batera doa joera
hori. Hizkuntza aldatzea identitate sozialaren eguneroko kudeaketaren
zati da. Aldaketa horietako asko, baina, ez dira deigarri egiten jakinak
eta ohikoak direlako, izan ere, koherenteak izaten dira pertsonaren jo-
katzeko moduarekin eta jokatzeko espero den moduarekin. Hala, Kata-
lunian, jende askok sarri aldatzen du hizkuntza; hori normalizat jotzen
da, eta ez du merezi bestelako iruzkinik egitea. Aitzitik, norbaitek alda-
tzen badu hizkuntza hautatzeko duen modua, hori bai har daiteke al-
daketa gisa, eta komentatua izan daiteke, onartua edo zentsuratua, go-
goratua edo azaldua. “Muda linguistiko” deitzen diogu, funtsean, azken
aldaketa mota horri: pertsona bat gizartean ordura arte erabiltzen ez
zuen hizkuntza hitz egiten hasteari, edo jende ezagunarekin edo tes-
tuinguru jakinetan hizkuntza aldatzeari, edo ordura arte egoera jakine-
tan hizkuntza erabiltzeko aukeran eragiten zuten arauak aldatzeari.

Ia katalan guztien biografietan aurki daitezke muda linguistikoko uneak, eta kasurik gehienetan, zerrenda labur samar honetan aurki daitezke une horiek: a) haurtzaindegian edo lehen hezkuntzan hastean, b) bigarren hezkuntzako institutu batean hastean, c) unibertsitatean hastean, hasiko balitz, d) lanean hastean, eta beste alde batetik, e) bikote harreman bat hastean eta f) lehen haurra jaiotzen denean. Abiapuntu gisa hartzen dugu aurrez aipatu dugun “jatorrizko hizkuntza” deiturikoa, hori baita elebitasuna ohiz kanpokoena (%11,4 soilik) den eremua. Zehaztu egin behar da, baita ere, bai aipaturiko inkestek zein elkarrizketatutako lekukoek datu gutxi ematen dizkigutela immigrazioaren bizipen berrienei buruz. Gogoan izan behar da, dena den, gazte gehienentzat oso ezohiko fenomeno bat izan dela euren artean familian ez katalanik ez gaztelaniarik hitz egiten ez zuen jendea egotea, eta, hortaz, soilik hemendik aurrera has gaitezke aztertzen eta neuritzen ibilbide biografikoaren dimentsioan duen inaktuagatik.

2.1 Eskolako hizkuntza eta hizkuntzak eskolan

Etxeak gehienetan elebakarrak izanik, pertsona batzuentzat haurtzaindegia eta eskola dira lehenengo inguruneak non “beste hizkuntzarekin” eguneroko kontaktua izaten duten eta hura ikasteko prozesua hasten duten; gehienetan, oroimenean galduta gelditzen da. Jatorrizko gaztelania-hiztunak diren askorentzat hezitzailea edo irakaslea dira katalanez hitz egiten dioten bakarrak zein berak hitz egiten dien lehenak ere.

Elkarrizketatutako gehienek jotzen dute haurtzaroko garai hori ingurune oso elebakartzat, eta hori ez dator guztiz bat katalanaren mapa sozio-linguistikoa osoa kontuan hartuz gero; izan ere, bi hizkuntzak hitz egiten dituzten hiztunak proportzio desberdinetan daude lurralde osoan zehar. Garai horretako oroitzapenak oso fidagarriak ez izatetik harago, Alegre et al.-ren (2008) ikerketan aurki dezakegu hori zergatik gertatzen den azaltzeko era posible bat. Diotenez, gurasoek egiten duten eskola-aukeraketaren ondorioz, klase sozialak bereizten dira, eta, zeharka, hizkuntza baten eta bestearen hiztunak. Den bezala izanik ere, ohikoak dira jatorrizko auzo edo herrian *jende guztiak* gaztelania (Bartzelonako metropolialdean) edo katalana (batez ere Kataluniaren barnealdeko herri edo hiribilduetan) hitz egiten zuelako azalpenak. Ondorioz, elkarrizketatuek azaltzen dute haur guztiek lagunekin auzoko edo herriko hizkuntza soilik hitz egiten zutela, eskolako hizkuntza edozein izanik ere. Horren ondorioa da, baita ere, jatorriz katalan-hiztunak diren askorentzat, lehen aldiz gaztelaniarekin ohiko kontaktua beranduagokoa dela, eta hori bat dator lehen hezkuntzako bigarren zikloan gaztelania ikasgaia hasten den unearekin.

Katalunian, jende askok sarri aldatzen du hizkuntza; hori normaltzat jotzen da, eta ez du merezi bestelako iruzkinik egitea. Aitzitik, norbaitek aldatzen badu hizkuntza hautatzeko duen modua, hori bai har daiteke aldaketa gisa, eta komentatua izan daiteke, onartua edo zentsuratua, gogoratua edo azaldua. “Muda linguistikoa” deitzen diogu, funtsean, azken aldaketa mota horri.

**Pertsonak azkar
hartzen dute
hizkuntza
nagusiaren
erabilera soziala
eskolako lagunen
artean:
gaztelania-
hiztunek
katalana hartzen
dute, eta
alderantziz.
Horrekin lotuta,
bi kasutan,
haurrak anai-
arrebekin eta
batzuetan
gurasoekin,
hizkuntza hori
erabiltzen hasi
dira, nahiz eta
gerora jatorrizko
hizkuntza
berreskuratu
duten.**

Zentzu horretan, muda gutxi batzuk atzeman ditugu euren ingurunean nagusi zena ez beste hizkuntza bat hitz egiten zuten umeen artean. Kasu horietan, pertsonak azkar hartzen dute hizkuntza nagusiaren erabilera soziala eskolako lagunen artean: gaztelania-hiztunek katalana hartzen dute, eta alderantziz. Horrekin lotuta, bi kasutan, haurrak anai-arrebekin eta batzuetan gurasoekin, hizkuntza hori erabiltzen hasi dira, nahiz eta gerora jatorrizko hizkuntza berreskuratu duten. Beste hizkuntzaren hitzun ezohiko horiek sarri ikusezinak izaten dira kideentzat, testigantza hauek erakusten duten moduan:

1. lekukotza

Boe: ella amb els seus pares parlava català · però amb la resta de la gent · és la única que recordo que era catalanoparlant.

Boe: gurasoekin katalan hitz egiten zuen · baina gainerakoekin ere · gogoan dut katalan hitzuna zela.

2. lekukotza

Bb: amb tu es dirigien en català fora · si els podies conèixer de fora de classe i era amb català amb tu · per tant tu no sabies que amb els seus amics parlaven en castellà

Bb: zurekin katalan hitz egiten zuten kalean. · eskolatik kanpo ezagutu ahal bazenituen eta zurekin katalanez zen · hortaz zuk ez zenekien berak bere lagunekin gaztelaniaz hitz egiten zuela

2.2 Institutua: aurkikuntzak eta antagonismoak

Bigarren hezkuntzara igarotzearekin batera, eskolako kideen dibertsifikazioa handitzen da: hainbat herri eta auzotako pertsonak daude elkarrekin, hizkuntzak era desberdinean erabil ditzaketenak. Lehen hezkuntzan gutxiengo ziren jatorrizko katalan- eta gaztelania-hiztun batzuek berreskura eta bistara dezakete euren familia-hizkuntza (batzuetan, lagunen harridurarako).

3. lekukotza

Bb: al <TAL ESCOLA> era impensable que algú parlés en castellà

F: hosti[!] · a la meva classe no hi havia ningú que parlés en castellà[!]

Bb: a la meva tampoc

F: i quan vaig anar a l'institut vaig pensar · on has anat[!]

Bb: jo també

Bb: <ESKOLA HONETAN> pentsaezina zen norbaitek gaztelaniaz hitz egitea

F: *hostia[!] · nire gelan inork ez zuen gaztelaniaz hitz egiten [!]*

Bb: *nirean ere ez*

F: *institutura joan nintzenean pentsatu nuen · non sartu zara [!?!]*

Bb: *nik ere bai*

Garai horretan sortzen dira gaztetako kulturarenak diren antagonismoak; hizkuntza bat erabiltzeak markatu dezake sektore edo talde jakin batekoa izatea, edo diskurtso politikoekin eta gustu musikalekin lotzea. “Independentistak” eta “*fatxak*” eta beste hainbat etiketa agertzen dira, testuinguru metropoliarrean batez ere, lotuta daudenak hizkuntza baten eta bestearen hiztunen desberdintasun sozialekin:

4. lekukotza

Dn: *antes no me gustaba mucho o · también por cuando crecemos o cuando somos jóvenes mmm normalmente los catalanes son un poco así pues bordes · o estirados o nos tratan mal por hablar en castellano parece que somos todos, que tenemos una neurona o algo así*

Dn: *lehen ez zitzaidan asko gustatzen edo · ere bai hazten garenean edo gazteak garenean mmm normalean katalanak apur bat dira horrela bada desatseginak · edo hantustetzat hartu edo gaizki tratatzen gaituzte gaztelania hitz egiteagatik badirudi guztiok garela tontoak, neurona bat daukagula edo horrelako zerbait*

Wa: *Con diez años se catalogaba mucho el castellano-tonto*

Wa: *hamar urterekin asko hartzen zen gaztelaniaduna tontotzat*

Une horretan agertzen da baita ere katalanez ez hitz egitea erabakitzen duen sektorea, kasu batzuetan katalan-hizkuntzako eskola-orduetan ere bai. Litekeena da kasu horietako asko izatea garai batean irakasleekin katalanez hitz egin zuen jendearena, baina elkarrizketatuek puntu hori argitu gabe utzi dute. Horrenbestez, teknikoki, hizkuntzarekiko jarrera zurrin baterako muda izango litzateke. Ez dago jatorriz katalan-hiztunak diren testigantzarik hori egiten dutela dioenik, nahiz eta garai horretan hasten den baita ere (elkarrizketa elebidunetan) katalana mantentzeko jarrera; baina hori ez da gaztelaniako eskoletan gertatzen, gazteek eurek dituzten harreman informaletan baizik.

Bestetik, une honetan hasten dira halaber jatorriz gaztelania-hiztunak diren eta bokazio akademikoa dutenetako batzuk katalan-hiztunen presentziari etekina ateratzen, eta katalana sozialki erabiltzen. Pertsona horiek ohituta daude irakasleekin katalanez hitz egiten. Harreman berriak hasten dituztela aprobetxatzen dute, eta estrategiak hartzen dituzte ez diezaieten gaztelaniaz erantzun:

**Une horretan
agertzen da baita
ere katalanez ez
hitz egitea
erabakitzen duen
sektorea, kasu
batzuetan
katalan-
hizkuntzako
eskola-orduetan
ere bai.**

**Bestetik, une
honetan hasten
dira halaber
jatorriz
gaztelania-
hiztunak diren
eta bokazio
akademikoa
dutenetako
batzuk katalan-
hiztunen
presentziari
etekina
ateratzen, eta
katalana sozialki
erabiltzen.**

5. lekukotza

Teu: Jo per exemple a l'institut quan comences a relacionar-te amb gent molta gent que parla català i hi ha persones que canvien eh[?] et comencen a parlar en castellà · i jo en aquell moment vaig optar per dir que no canviessin · que jo volia practicar més el català.

Entr: els hi vas explicitar així[?]

Teu: sí · i llavors ja · bueno després de la primera setmana de classe et parlaven en català i seguia parlant en català

Teu: Nik esaterako institutuan hasten zarenean jendearekin erlazionatzen jende askok katalanez hitz egiten du eta pertsona batzuek aldatu egiten dute eh [?] hasten zaizkizu hitz egiten gaztelaniaz.

Elk: horrela azaldu zenien [?]

Teu: bai · eta orduan ja · tira lehenengo klase astearen ondoren katalanez hitz egiten zizuten eta nik katalanez hitz egiten jarraitu nuen

Beste hizkuntzarekiko espazio berri bat irekitzeko gogo horrek aurrei-kusi gabeko egoeretara eraman ditzake, esate baterako, familia-hizkuntzatzat gaztelania duten pertsonekin katalanez hitz egitera:

6. lekukotza

Su: sí o sigui catalanoparlants · de família totes castellanes i entre no-saltres ens parlem en català

Entr: i com com va ser això[?]

Su: tothom s'ho pregunta · va ser ens vam conèixer així i això que passa que quan coneixes algú

(...)

Su: sí elles anaven a una escola pública i elles ja feien les assignatures en català jo venia de fer-les en castellà i l'entorn i tot era propici pel castellà no pel català · i després ens vam trobar i ja et coneixes parlant català i ja continues amb un idioma · llavors vas parlant et vas coneixent i això i dius: osti "mi padre es de no sé donde mi padre tal" i et sobta no[?] però és així

Su: bai hau da katalan-hiztunak · familiakoak guztiok gaztelaniadunak eta gure artean katalanez hitz egiten dugu

Elk.: eta hori zelan izan zen [?]

Su: guztiok egiten dugu galdera hori · izan zen horrela ezagutu ginen eta hori gertatzen da norbait ezagutzen duzunean

(...)

Su: bai haiek eskola publiko batera joaten ziren eta ikasgaiak katalanez egiten zituzten jada · ni nentorren gaztelaniaz egitetik eta ingurua eta dena aproposa zen gaztelaniarentzat eta ez katalanarentzat · eta gero topo egin genuen eta ezagutzen duzu elkar katalanez hitz egiten eta hizkuntza batekin jarraitzen duzu · eta gero hitz egiten duzu ezagutzen joaten zara eta hori eta diozu: “hostia nire aita ez-dakit-nongoa da eta nire aita bestea” eta harritu egiten zara ez [?] baina horrela da

2.2 Lehen aldaketa handia: institututik unibertsitatera

Unibertsitatean hasten direnen artean (joaten direnen artean) erabilera linguistikoen alorrean aldaketaren bat egotea orokorragoa da. Jatorrizko katalan-hiztunak direnentzat, gaztelania irakaskuntzan eta ikasleen artean oso hedatuta dagoelako, eta ez zelako hain esanguratsua jatorrizko lekuan. Bestalde, gaztelania-hiztunek hainbeste katalan-hiztun egotea normalean aukera gisa ikusten dute egunerokoan eta irakaskuntzatik kanpo hizkuntza hori hitz egiten duen jendearekin harremanetan jartzeko. Une honetan, desagertu egiten dira bigarren hezkuntzan ikusten ziren iritzi antagonikoak ere. Hala, katalana ahalik eta gutxien erabiltzen jarraitzeko aukera era honetan azal daiteke:

7. lekukotza

G: yo a lo mejor sí · hablo más catalán que antes · yo antes lo hablaba súper mal y lo había estudiado toda la vida igualmente pero era de no utilizarlo que no-

Entr: no te sentías cómodo

G: la pronunciación y todo eso se me notaba un montón que no lo hablaba y ahora no sé · yo creo que es más por respeto o por yo que sé

G: nik agian bai · hitz egiten dut katalanez lehen baino gehiago · lehen oso gaizki hitz egiten nuen eta bizitza osoan egona nintzen ikasten baina ez erabiltzeagatik zen eta ez-

Elk: ez zinen eroso sentitzen

G: ahoskera eta hori guztia pila bat igartzen zitzaidan ez nuela hitz egiten eta orain ez dakit · nire ustez gehiago da errespetuagatik edo nik zer dakit

Nolanahi ere, jatorrizko gaztelania-hiztunen artean, unibertsitatea lotzen dute beti maila sozialean katalanak presentzia dezente handiagoa edo askoz handiagoa duen leku batekin, euren jatorrizko auzo edo ikastetxeetan ohituta zeudenaren aldean. Zerbaitegatik dira gazte tituludunen edo unibertsitate ikasketadunen %55 ohiko katalan-hiztunak; aldiz, %30 gaztelania-hiztunak dira, eta soilik %9k hitz egiten du katalan apur bat

**Beste
hizkuntzarekiko
espazio berri bat
irekitzeko gogo
horrek
aurreikusi
gabeko
egoeretara
eraman ditzake,
esate baterako,
familia-
hizkuntzatzat
gaztelania duten
pertsonekin
katalanez hitz
egitera.**

**Nolanahi ere,
jatorrizko
gaztelania-
hiztunen artean,
unibertsitatea
lotzen dute beti
maila sozialean
katalanak
presentzia
dezente
handiagoa edo
askoz handiagoa
duen leku
batekin, euren
jatorrizko auzo
edo ikastetxeetan
ohituta
zeudenaren
aldean.**

edo batere (EJC02). Testuinguru horretan, orokorra da katalana erabilera sozialeko hizkuntza gisa hartzeko muda, eta horrek ekar dezake katalanaren erabilera biziagoa -gehiago edo gutxiago- baldintzen arabera (izan ere, muda hori, funtsean, katalana katalan-hiztun gisa identifikatutakoekin hitz egiten hastean datza).

8. lekukotza

Km: sí · tenia alguna persona · algun amic o alguna persona que parlava català però molt restringit a · a àmbits específics o a moments concrets · i bueno · a la universitat ja vaig conèixer més amics catalans o catalanoparlants i · bueno · potser això · ja vaig començar a practicar més.

Km: bai · baneukan nor edo nor · lagunuen bat edo pertsonaren bat katalanez hitz egiten zuena baina oso mugatuta · arlo espezifikoetan edo une zehatzetan · eta bueno · unibertsitatean jada ezagutu nituen lagun gehiago katalanak edo katalan-hiztunak zirenak eta · bueno · agian horrek · ja hasi nintzen praktikatzen katalan gehiago.

Katalan-hiztun askok, berriz, unibertsitateko testuingurua kontrako erara ikusten dute, batez ere katalana nagusi den inguruetatik baldin badatoz. Batzuk kexatu egiten dira, gaztelaniaz ematen diren ikasgaietan, irakas-kuntzako jarduera guztiak (azterketak eta lanak barne) gaztelaniaz egin behar direlako uste inplizitu bat dagoela-eta. Halaber, kexu dira arazo ezagun honengatik ere: irakaskuntza gaztelaniaz egin dadin eskatzen duten ikasle atzerritarrak. Egoera horretan, pertzepzio bat dago katalanak nolabaiteko ahultasuna pairatzen duela, eta horren aurrean, talde handi batek katalana mantentzeko estrategiak hartzen ditu:

9. lekukotza

Qn: sí es va notar bastant ja perquè · llavors allà ja va començar a no haver-hi aquest canvi · allavors allà els castellanoparlants ja no canviaven de llengua perquè primera suposo que eren més grans i · i ja havien fet una opció lingüística i segona perquè la presència era més ampla i més normalitzada llavors · allà hi havia bastant bastant bilingüisme però bilingüisme real o sigui que tu parlaves amb un amic teu en català i ell et contestava en castellà · cadascú respectava bastant · tot i aixís allavors allà ja es va començar a veure una mica la · el caràcter català de canviar d'idioma amb els castellanoparlants · per exemple si el professor era catalanoparlant tots els alumnes castellanoparlants li feien les preguntes en castellà sense cap problema · ningú canviava pel fet que el professor fos catalanoparlant · en canvi al revés no ho fèiem · si un professor parlava en castellà tots els catalanoparlants li preguntàvem en castellà i ell contestava en castellà.

Qn: bai jada dezente igarri zen zeren · orduan han hasi ziren jada aldaketa hori ez egiten · orduan han gaztelania hiztunek ez zuten hizkuntza aldatzen zeren batetik suposatzen dut helduak zirelako eta · eta jada egina zuten hautu

linguistiko bat eta bigarrenik presentzia zabalagoa eta normalizatuagoa zuelako orduan · han elebitasun dezente-dezente zegoen baina benetako elebitasuna hau da zuk hitz egiten zenuen zure lagun batekin katalanez eta hark gaztelaniaz erantzuten zizun · bata bestea dezente errespetatzen zuen · hala ere orduan han hasi ginen ikusten apur bat · katalanen joera gaztelania hitzunekin hizkuntza aldatzeko · adibidez irakaslea katalan-hiztuna bazen gaztelania-hiztun guztiek galderak egiten zizkioten gaztelaniaz arazorik gabe · eta inork ez zuen aldatzen irakaslea katalan-hiztuna zelako · aldiz alderantziz ez genuen egiten · irakasle batek gaztelaniaz hitz egiten bazuen katalan hiztun guztiok galdetzen genion gaztelaniaz eta hark erantzuten zuen gaztelaniaz.

10. lekukotza

Kus: el primer contacte més amb el castellà[?] · aviam (...) va ser quan vaig anar a estudiar a Barcelona (...) hi havia gent que era castellano-parlant castellanoparlant és a dir que només parlaven en castellà · poca entre cometes i ja dius hòstia m · hi ha gent que no · que no sap parlar el català · tot i amb això jo no canviava d'idioma no[?]

Kus: eta lehen kontaktua gehiago gaztelaniaz [?] · ea (...) Bartzelonara ikastera joan nintzenean (...) gaztelania-hiztun gaztelania-hiztunak zeuden hau da gaztelania bakarrik hitz egiten zutenak · gutxi kakotx artean eta diozu hostia m · badago jendea ezetz · ez dakiena katalanez hitz egiten · hala ere nik ez nuen hizkuntza aldatzen eh [?]

Horrenbestez, katalan-hiztun askok *mudatu* egiten dituzte erabilera linguistikoko arauak ingurunea aldatu dela-eta erreakzio gisa aldatzen dituzten heinean. Katalana mantentzeko joerarako muda hori da segur aski fenomeno soziolinguistiko garrantzitsuenetako bat. Batez ere, ulertzen laguntzen duelako katalanaren erabilerak maila globalean duen aurrerapauso esanguratsua, eta prestigiozko zenbait arlo sozialetan hizkuntzak duen maila sendo xamarra. Hasteko, azpimarratu behar da erabilera linguistikoaren jarraibide hori bideragarria edo bateragarria dela hibridazio linguistikoa nagusi den testuinguru batean, hau da, bi hizkuntzen erabilera eta presentzia dagoela eremu sozial gehienetan. Uztargarritasun hori uler daiteke, seguruenik, praktikatzan dutenek aditzera ematen duten malgutasunagatik eta diplomaziagatik:

11. lekukotza

Bm: cada día · bueno jo a la uni una de les meves millors amigues de la universitat és brasilenya i amb ella ella em parla castellà i jo li parlo català sempre[!] i llavors la gent s'estranya molt quan ho veu però és que jo estic més còmoda així i ella està més còmoda així · i no hi ha cap problema · és que si no estic tot el rato preocupant-me per si estic dient les coses bé o si m'expresso malament i per això a la universitat cada dia que estic allà hi ha molta gent que parla castellà · i llavors vale sí que pots parlar castellà amb gent que no t'entén però · llavors jo cada dia a la universitat sobretot el primer any era tot el rato pensar això “parlo

Katalan-hiztun askok mudatu egiten dituzte erabilera linguistikoko arauak ingurunea aldatu dela-eta erreakzio gisa aldatzen dituzten heinean. Katalana mantentzeko joerarako muda hori da segur aski fenomeno soziolinguistiko garrantzitsuenetako bat.

Batez ere, ulertzen laguntzen duelako katalanaren erabilerak maila globalean duen aurrerapauso esanguratsua, eta prestigiozko zenbait arlo sozialetan hizkuntzak duen maila sendo xamarra.

**Katalana
erabiltzen
jarraitzen dutela
baieztatzen duten
pertsonek profila
nagusiki
unibertsitarioena
denez, logikoa da
pentsatzea baita
ere horrek
dezente eragiten
duela erakunde,
enpresa eta
gehien
espezializatutako
sektore
profesionalen
hizkuntza-
erabileran.**

castellà? parlo català? què parlo?" (...) ara ja no · noo[!] si et poses d'acord amb l'altra persona ja no · estressa quan l'altra persona no ho sap · clar[!] i llavors has de dir · hi ha d'haver un moment d'acord de dir "vale" · llavors els moments en què no no et coneixen i llavors · aviam que hi ha moments que jo faig l'esforç de canviar però és que de vegades penso: mira si no m'entens què vols que t'hi digui? perquè no canvis tu que també parles cat- o sigui la gent que sé que no el parla jo faig l'esforç no m'importa en absolut

Bm: egunero · bueno nire uniko lagunik onenetako bat unibertsitatekoa brasil-darra da eta harekin hark niri gaztelaniaz hitz egiten dit eta nik katalanez hitz egiten diot beti [!] eta orduan jendea asko harritzen da ikusten duenean baina ni erosoago nago horrela eta bera ere erosoago dago horrela · eta ez dago arazorik · bestela denbora osoan arduratuta nago ea gauzak ondo esaten ditudan edo gaizki adierazten ditudan gauzak eta horregatik unibertsitatean han nagoenean jende asko dago gaztelaniaz hitz egiten duena · eta orduan ados hitz egin dezakezu gaztelaniaz ulertzen ez dizun jendearekin baina · orduan ni egunero unibertsitatean batez ere lehenengo urtean egoten nintzen pentsatzen denbora guztian hau "gaztelaniaz hitz egingo dut? katalanez? zelan hitz egingo dut?" (...) orain jada ez · ez [!] ados jartzen bazara beste pertsonarekin jada ez · estresa sortzen du besteak ez dakienean · noski [!] eta orduan esan egin behar duzu · egon behar da une bat ados jartzeko esateko "bale" · orduan une batzuetan ezagutzen ez ez zaituztenean eta orduan · ea badaude une batzuk nik esfortzua egiten dudana aldatzeko baina batzuetan pentsatzen dut: begira ez banauzu ulertzen zer nahi duzu nik esatea [?] zergatik ez duzu zuk aldatzen eta zuk ere kat hitz egin - hau da jende horrekin baldin badakit ez duela hitz egiten nik esfortzua egiten dut ez zait batere axola

Beraz, zentzuzkoa da pentsatzea katalana mantentzen dutenek nabarmen areagotzen dutela jatorriz gaztelania-hiztunak direnek katalana praktikatzeko duten aukera, horrela egiteko prest edo motibatuta daudenei. Bestalde, inkestetan katalana erabiltzen jarraitzen dutela baieztatzen duten pertsonen profila nagusiki unibertsitarioena denez, logikoa da pentsatzea baita ere horrek dezente eragiten duela erakunde, enpresa eta gehien espezializatutako sektore profesionalen hizkuntza-erabileran.

2.4 Hizkuntzarekin harira joatea

Lan-merkatuan sartzeko unea da biografia askotan unerik esanguratsuena erabilera linguistikoei dagokienez. Jatorrizko gaztelaniadunak diren unibertsitateko graduatuentzat normalean jarraipen bat irudikatzen du, baldin eta jada ohitu badira katalanez era naturalean hitz egiten. Edonola ere, gazte guztiek barneratuta dute lan gehienetan katalanez hitz egiteko alde aurretiko jarrera eskatzen dutela, nahiz eta testuinguruaren arabera gehiago edo gutxiago erabili. Elkarrizketek argi uzten dute lan-ingurune asko daudela (enpresa pribatuak zein, are

gehiago, erakunde publikoak) katalanez lan egiten dutenak, baita gaztelaniaren presentzia nagusi den lekuetan ere. Eta hori gertatzen ez den tokietan, espero da langileak prest egotea hizkuntza dela-eta bezeroaren eta, sarri, hornitzailearen beharretara egokitzeko. Horrexegatik aurkitzen ditugu lanaren arloan katalana erabiltzen hasteko muda gehien eta are, egoera batzuetan, ohiko hizkuntza aldatzea ere bai.

Katalana une horretan ere hartzen ez dutenak kolektibo oso zehatzak dira, profil baxuko eta enpresatik kanpora kontaktu gutxi dituzten lanetara sartzen direnak. Hor ikus dezakegu gaztelania mantentzen dutenen profila, bigarren hezkuntzan agertu eta unibertsitatean desagertzen zena, eta horiek sarritan katalana arbuia egiten dute esplizituki. Oro har, desberdintze-prozesu bat da, eta lotuta dago hezkuntza-ibilbidearekin, izan ere, partzialki islatzen ditu hizkuntzaren eta klase sozialaren artean dauden elkarrekikotasunak. Argi eta garbi adierazten du hori elkarrizketatu honek, zeina Bartzelonako metropolialdeko gaztelaniaz hitz egiten den auzo batean bizi baita:

12. lekukotza

Kw: home a <NOM DE CIUTAT> és molt clar que hi ha molta diferència entre la gent de barris de barris de la perifèria que som nosaltres i · i la gent del centre de la ciutat que és més catalana-catalana · després en els barris han sortit subgrups que són els que han estudiat i els que no han estudiat · la diferència jo crec que és aquesta · la gent que ha estudiat a lo millor utilitza català la gent que no ha estudiat no utilitza català ·

(...)

kw: jo vaig començar a parlar català a la universitat o sigui que · · ·

Kw: tira hemen <HIRIAREN IZENA> oso argi dago desberdintasun handia dagoela auzoetako aldirietako auzoetako jendearen artean eta horiek gu gara eta · eta hiriaren erdiguneko jendearen artean horiek dira katalan-katalanagoak · gero auzoetan atera dira azpitalde batzuk eta horiek dira ikasten aritu direnak eta ez dutenak ikasi · desberdintasuna nire ustez hori da · ikasi duen jendeak agian katalana erabiltzen du eta ikasi ez duenak ez du katalana erabiltzen ·

(...)

kw: ni katalana hitz egiten unibertsitatean hasi nintzen beraz · · ·

Katalana ahalik eta gutxien erabiltzeko joera edo erabilera oso mugatua duten profiletan, hura erabiltzeko ahalegina egiteko prestutasuna eta motibazioa sarritan desberdina da eskolan zein institutuan ikusten ditugun jarreretik. Kasu horretan, lehentasuna da ahalik eta azkarren erakustea zein den hizkuntza-disponibilitatea:

Desberdintze-prozesu bat da, eta lotuta dago hezkuntza-ibilbidearekin, izan ere, partzialki islatzen ditu hizkuntzaren eta klase sozialaren artean dauden elkarrekikotasunak.

**Nahiz eta
katalan-hiztunak
gutxitan egon
gastelania-
hiztunak nagusi
diren lan-
inguruneetan,
leialtasun
linguistikoz
jardun izan
duten horiek ere
euren gain
hartzten dute
gastelaniaz hitz
egiteko beharra,
egoerari hala
badagokio.**

13. lekukotza

Nit: no yo empecé hablando catalán porque mi primer jefe... o sea mi primera entrevista fue con el director de operaciones... que me llamó y me dijo: "hola <NOM DE PILA EN CATALÀ>" · y empezó a hablar en catalán y yo le contesté en catalán · perfecto · empezamos a hablar en catalán · y el primer jefe que tuve allí · que él no fue mi jefe directo sino que me dijo: "ahora te voy a presentar a tu jefe" que era el director de calidad · pues... vino y también era · catalán y empezamos a hablar en catalán y a partir de allí sí que todo el entorno era catalán...

Nit: ez ni hasi nintzen katalanez hitz egiten zeren nire lehen nagusia... hau da nire lehen elkarrizketa izan zen eragiketen zuzendariarekin... eta deitu zidan eta esan zidan: "kaixo <IZENA KATALANEZ>" · eta hasi zen katalanez eta nik erantzun nion katalanez · ederki · hasi ginen katalanez hitz egiten · eta han izan nuen lehen nagusia · hura ez zen izan lehen nagusi zuzena baizik eta esan zidan: "orain aurkeztuko dizut zure nagusia" eta hori zen kalitateko zuzendaria · bada... etorri zen eta hura ere zen · katalana eta hasi ginen katalanez hitz egiten eta ordutik aurrera bai zen ingurune guztia katalana...

Eskolan askok katalana soilik irakasleekin komunikatzeko erabiltzen bazuten ere, hemen ez da desberdintasunik egiten nagusien eta lankideen artean. Berez, lankideei laguntza ere eska dakieke katalana praktikatzeko aukera izan dezaten, gastelania-hiztunak izanda ere. Praktikatzeko beharraren pertzepzio horrek eragin dezake bezero eta hornitzaileekin katalanez hitz egitea edo, kasu batzuetan, bizitza pribatuan ere sartzea, esate baterako, denda eta zerbitzuetan, eta are lagun batzuekin ere.

14. lekukotza

Dn: no · eee empecé con el trabajo y después cuándo voy a sitios a tiendas o cuando voy a comprar algo · cuándo hablan catalán yo hablo catalán · ya como clienta también lo hago... con relaciones no personales del todo pero sí · y de hecho con gente en el trabajo que es catalanoparlante eeh · me adapto yo a ellos y hablo yo en catalán ·

Dn: ez · eee lanean hasi nintzen eta gero lekuetara noanean dendetara edo zerbitu erostera noanean · katalanez hitz egiten didanean nik katalanez egiten dut · jada bezero bezala ere egiten dut... harreman pertsonaletan ez guztiz baina bai · eta izatez lanean ere katalan-hiztun direnekin eeh · haienera egokitzen naiz eta nik ere katalanez egiten dut ·

Jatorriz katalan-hiztunak direnentzat lana izaten da sarritan gastelania, ahoz edo idatziz, ohiko hizkuntza gisa erabiltzen hasteko lekua, hezkuntza-ibilbidean salbuespen gehiagorekin erabili ondoren. Nahiz eta katalan-hiztunak gutxitan egon gastelania-hiztunak nagusi diren lan-inguruneetan, leialtasun linguistikoz jardun izan duten horiek ere euren gain hartzen dute gastelaniaz hitz egiteko beharra, egoerari hala badagokio. Sarritan azaltzen dute, hasieran, nolabaiteko esfortzu bat egin behar dutela ordura arte zutena

baino jarioetasun hobea eskura dezaten; baina ahalegin hori egitea eragozpenik gabe onartzen dute. Zentzu horretan, nolabaiteko desberdintasun bat dago katalana eta gaztelania mantentzen dutenen artean: lehenengoek gaztelania erabiltzea onartzeko egoera batzuk identifikatzen dituzte gatazkak saihesteko edo zenbait harreman bermatzeko, horrek euren ingurune linguistikoa funtsean aldatzen ez badu; aitzitik, azkenek, dirudienez, ez dute aurretiazko jarrera hori erakusten, eta zenbait gatazka eta eztabaida, benetakoak edo irudimenezkoak, bizi izan dituztela adierazten dute.

Lan-merkatua da, beraz, argi eta garbi herrialdea gehien elebiduntzen duen elementua. Lanaren arloa da eremu bat non katalanaren erabilera nagusi den (%43) lekuek gaztelania nagusi denarena (%35) zabal gainditzen baitu. Hasiera batean, hezkuntzaren alorrean katalanaren erabilera nagusiak altuagoak badira ere (%48), ez da ahaztu behar horiek sarritan hizkuntzaren erabilera askoz murriztaileagoa eta mugatuagoa hartzea dakartela.

2.5 Mudak eremu pribatuan

Atal hau eskainiko diegu lagunei, bikoteari eta seme-alabei. Hirurak dira harreman-mota oso desberdinak, eta, aldi berean, oso desberdinak dira orain arte jorratutako eremuen aldean. Lagunekiko eta bikotekidearekiko dinamika linguistikoak, kasurik gehienetan, aurretik ikusi ditugun dinamiketatik eratortzen dira, funtsean, ikastetxeetan eta lanean sortzen baitira harreman horiek. Baina, ikusi dugunez, muda linguistikoak normalean gertatzen dira ezagun berrietan oinarrituta, eta ez (gehienetan) aurrez ezagutzen diren pertsonekin erabiltzen den ohiko hizkuntza aldatuz. Horrek zera esan nahi du: norbaitek beste hizkuntza bat sartzen badu bere bizitza sozialean, hizkuntza horrek espazioak partekatuko ditu jatorrizko hizkuntzarekin, eta ez du ordeztuko. Muda linguistikoak gauzatu dituen, hortaz, ibili ohi da ingurune sozial batean zeinak, hein batean, islatzen duen linguistikoki iragana eta orainaldia aldi berean.

Lagunen arteko hizkuntza, horrenbestez, alda daiteke, baina ez da hain ohikoa bat-bateko aldaketak izatea, zenbait pertsonak unibertsitatean edo lanean bizitzen dituztenen modukoak. Seguruenez, horrek azaltzen du zergatik erakusten duen lagunen arteko hizkuntzak aurrerapenik moderatuena jatorrizko hizkuntzarekin lotuta. Nolanahi ere, eremu horretan bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak dira nagusi gutxigatik, nahiz eta aniztasun hori bat etor daitekeen edo ez, espazioan eta denboran:

15. lekukotza

Fo: llavors com que no conservo cap amic d'aquella època excepte un que també hem quedat demà · que amb aquest parlo castellà encara i

**Muda
linguistikoak
normalean
gertatzen dira
ezagun berrietan
oinarrituta, eta
ez (gehienetan)
aurrez ezagutzen
diren
pertsonekin
erabiltzen den
ohiko hizkuntza
aldatuz.**

és un merder · perquè anem quatre tots som catalans tots parlem català entre nosaltres

Fo: orduan ez daukadanez garai hartako lagun bat ere bat izan ezik eta bihar gelditu gara · horrekin gaztelaniaz hitz egiten dut oraindik eta nahaste-borraste bat da · zeren joaten baikara lau denok gara katalanak denok hitz egiten dugu katalanez gure artean

16. lekukotza

Lau: no casi totes és que · bueno jo tinc un grupet d'amigues que és del de l'escola d'art que amb elles parlo català · però després tinc amics de fa molts anys des de que · doncs això érem adolescents que amb ells parlo castellà · però bueno · això · igual ara avui dia veig més a les amigues de l'escola d'art que no pas · amb ells perquè estan treballant també i tot i llavors · i amb elles parlo català i parlem català o potser de vegades si ve algú i parlem · jo parlo castellà amb aquella persona (...)

Lau: ez ia denak izan ere · bueno nik nesken lagun-talde bat daukat arte-eskolakoa dena eta horiekin katalanez hitz egiten dut · baina gero baditut lagunak orain urte asko egindakoak · nerabeak ginenean eta mutil horiekin gaztelaniaz hitz egiten dut · baina tira · hori · agian gaur egun gehiago ikusten ditut arte-eskolako lagunak eta ez · besteekin zeren lanean ere badabilta eta nahiz orduan · eta lagun neskekin katalanez hitz egiten dut eta katalanez egiten dugu edo agian batzuetan norbait badator eta hitz egiten badugu · nik gaztelaniaz hitz egiten dut pertsona horrekin(...)

17. lekukotza

Boe: home doncs per exemple tinc · amb amics amb què parlo castellà i tal · amb els que per exemple no comparteixo · el posicionament amb el català no[?] o sigui que amb això sí que em veig · sí que em veig com amb dos móns diferents · de fet és com si tingui · no vides paral·leles que això és una xorrada però sí dos compartiments no[?] i aleshores · de la mateixa manera que · mmm · a vegades hi ha gent d'aquestes que · (és una xorrada això, però) que fa festes i ajunta a tothom · a dins de · a tots els seus amics · a mi em costaria fer això és veritat

Boe: tira bada adibidez badauzkat · lagun batzuekin gaztelaniaz hitz egiten dut eta hori · eta horiekin adibidez ez dut iritzi bera katalanari dagokionez ez [?] alegia horrekin bai ikusten dut · bai ikusten dut bi mundu desberdinetan moduan · berez da izango banitu beza- ez bizitza paraleloak ze hori txorrada bat da baina bai bi konpartimentu banitu bezala ez [?] eta orduan · agian batzuetan · mmm · batzuetan badago jende mota bat (txorrada bat da hau, baina) festak egiten dituen eta mundu guztia elkartzen du · hor barruan · bere lagun guztiak · niri kostatuko litzaide hori egitea egia esan ·

Bikotearen hizkuntza, oster, oso adierazle berezia da; izan ere, soilik pertsona bat da, eta, normalean, hizkuntza bakar bat erabiltzeko joera edukitzen dute. Horrenbestez, mudei aukera eman diezaieke zentzu askotan. Bikotekidea duten gazteen artean, %26k hitz egiten du bere

ohiko hizkuntza ez den beste batean, eta eremu horretan, lagun artekoan bezalaxe, katalanak ez du egiten aurrera era esanguratsuan (%39).

Azkenik, umeekiko hizkuntzak ematen digu guztietatik daturik harri-garriena. Izan ere, eremu horretan “katalana soilik” %47,3 da eta %3,2 “katalan gehiago”, beraz, erraz gainditzen ditu gainerako adierazleak. Interesgarria da adieraztea seme-alabena jo daitekeela, seguruenik, hizkuntza-hautaketa egiteko harreman mota irekien gisa. Azken batean, lehentasunik gabe jaiotzen dira, eta erabakia familia barnean negozia daiteke. Hala, elkarrizketaturikoen %17,6 dira jatorriz gaztelania-hiztunak eta seme-alabei katalanez hitz egitea erabaki dutenak, eta %4,9 dira jatorriz elebidunak eta erabaki bera hartu dutenak; hau da, biztanleen %22,5i eragiten die umeekin muda horrek. Halaber, horri gehitu behar zaio %11,2 hasten direla gaztelaniaz hitz egin ordez bi hizkuntzetan hitz egiten. Biztanleriaren heren batek hitz egiten du seme-alabekin eurek gurasoekin hitz egiten zutena ez beste hizkuntza bat.

Egindako elkarrizketen arabera, zera pentsatu behar da: kasu askotan haurrei katalanez hitz egiteko apustua ez da ulertu behar asimilazio-prozesu klasiko bat bezala, ezpada elebitasunaren aldeko apustu gisa. Gurasoen desioak azal dezake hori; izan ere, gurasoek nahi dute seme-alabak eskolan ongi egokitu daitezen eta haiek bizi izan direnaren moduko testuinguru linguistikoki hibrido batean erosotasunez mugi daitezen. Halaber, desioa dute ikaskuntza-prozesu aberatsagoa izan dezaten, bat etorritz gaur egun eleaniztasunaren alde dagoen jarrera orokorrarekin:

18. lekukotza

Ho: clar jo en el meu cas si tingués fills ara amb la meua parella seria com jo quan era petita · jo li parlaria català i suposo que ell li parlaria castellà · i per mi és una riquesa o sigui que vaig aprendre totes dues alhora no[?] en un altre cas ja no ho sé · però sí que considero que és una riquesa poder ser bilingüe perquè · no només per possibilitats que et dóna sinó que mentalment ·

U: jo crec que mentalment t’ajuda en moltes més coses alhora d’aprendre és com que estàs...

Ho: noski nire kasuan umeak izanez gero orain nire bikotekidearekin izango litzateke ni txikia nintzenean bezala · nik katalanez hitz egingo nioke eta suposatzen dut hark gaztelaniaz hitz egingo liokeela · eta niretzat hori aberatsa da hau da biak batera ikasi nituen ez [?] beste kasu batean ez dakit · baina bai uste dut aberatsa dela elebiduna izan ahal izatea ze · ez soilik ematen dizkizun aukerengatik baizik eta mentalki ·

U: nire ustez mentalki lagundu egiten dizula askoz gauza gehiagotan ikasteko orduan da zauden moduan...

**Umeekiko
hizkuntzak
ematen digu
guztietatik
daturik
harri-garriena.
Izan ere, eremu
horretan
“katalana soilik”
%47,3 da eta
%3,2 “katalan
gehiago”, beraz,
erraz gainditzen
ditu gainerako
adierazleak.**

**Interesgarria da
adieraztea seme-
alabena jo
daitekeela,
seguruenik,
hizkuntza-
hautaketa
egiteko harreman
mota irekien
gisa.**

**Gurasoen
desioak azal
dezake hori; izan
ere, gurasoek
nahi dute seme-
alabak eskolan
ongi egokitu
daitezen eta
haiak bizi izan
direnaren
moduko
testuinguru
linguistikoki
hibrido batean
erosotasunez
mugi daitezen.
Halaber, desioa
dute ikaskuntza-
prozesu
aberatsagoa izan
dezaten, bat
etorritz gaur egun
eleaniztasunaren
alde dagoen
jarrera
orokorrarekin.**

3. GOGOETA OROKORRAK

I Aberatsa eta kontraste askokoa da muda linguistikoak aztertuta lortzen dugun herrialdearen ikuspegia. Gazteen gehiengo handi batek ikasten du herrialdeko aniztasun linguistikoan nabigatzen inguruan dituzten aldaketen arabera, hezkuntza-ibilbideak, bizilekuz edo lanez aldatzeak, harreman berriek eta abarrek eraginda. Oro har, adierazi behar da “beste” hizkuntza ikastea partekatutako esperientzia dela, baina “beste” hizkuntza sozialki erabiltzen hastea zenbait aldagaik baldintzatzen dute, batez ere hiztunen presentziak. Hori dela eta, katalana sozialki erabiltzen nahiko berandu hasten dira Bartzelonako Metropolialdeko Eskualdeko zenbait sektoretan, izan ere, katalan-hiztun gutxi dauden lekuetan bizi dira. Zentzu horretan, eskolan eta administrazioan katalanak duen presentzia instituzionalak zein arlo sozioekonomikoan duen garrantziak bultzada handia ematen du eremu horietan hizkuntza hori erabiltzeko; aitzitik, eremu pribatuan katalanaren erabilera areagotzeko prozesua oso moderatua da, betiere, alde batera uzten bada haurrei katalanez hitz egiteko dagoen joera hedatua, sarritan, haurrak elebidun goiztiarrak izan daitezen bermatzeko. Beste alde batetik, intentsitatea gorabehera, aipatu behar da gizartearen gehiengo handi batek bi hizkuntzak erabiltzen dituela normalean, nahiz eta badauden bi sektore garrantzitsu bi hizkuntzetako baten zaleago direnak, eta bestea salbuespen gisa erabiltzen dutenak. Bi taldeak sozialki oso desberdinduta daude; katalana mantentzen duten hiztunak batez ere kalitatezko sektore profesionalean egoten dira, eta gaztelania mantentzen duten gaztelania-hiztunak geografikoki zein arlo profesionalean gutxi mugitzen direnen profilarekin lotuta daude. Asimetria horrek azaltzen du, hein handi batean, zergatik egiten duen gora progresiboki katalanaren erabilerak klase ertaineko biztanleen artean eta jendea nagusiago egiten den heinean. Bi hizkuntzak erabiltzeko espazioen desberdintze sozial horrek ere badu zati bat geografiarekin lotutakoa, hau da, ohikoagoa da Metropolialdeko Eskualdean Kataluniaren barnealdean baino, non katalana hartzea fenomeno orokortuagoa eta klase desberdintasunek ez hain markatua baita. ●

ERREFERENTZIAK

Alegre, Miquel Àngel, Ricard Benito, and Isaac González. 2008. “Procesos de Segregación Y Polarización Escolar: La incidencia de Las Políticas de Zonificación Escolar.” *Profesorado. Revista de Currículum Y Formación de Profesorado* 12 (2): 1–26. <https://www.ugr.es/~recfpro/rev122ART5.pdf>.

- González, Isaac, Joan Pujolar, Anna Font, and Roger Martínez. 2014. *Llengua I Joves. Usos I Percepcions Lingüístics de La Joventut Catalana*. Book. Estudis. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
http://www20.gencat.cat/docs/Joventut/Observatori_Catala_de_la_Joventut/documents/arxiu/Publicacions/Coleccio_Estudis/Estudis30.pdf.
- Subirats, Marina. 2002. "Els Trets Lingüístics." In *Enquesta de La Regió de Barcelona 2000. Condicions I Hàbits de Vida*, in Institut d'Estudis Regionals i Metropolitans de Barcelona, 180–87. Barcelona: Institut d'Estudis Regionals i Metropolitans de Barcelona.
- Torres, Joaquim. 2002. "Els Resultats de la pregunta 'quina és la seva llengua?' a Les Enquestes Metropolitanes de Barcelona (1990-2001)." *Llengua i Ús: Revista Tècnica de Política Lingüística* 25: 65–68.

3 Irlanderadun berriak: jatorria, motibazioa, erabilera eta ideologia

Jon Walsh

Irlandako Unibertsitate Nazionala, Galway
john.walsh@nuigalway.ie

Itzulpena: **Bakun**

Sarrera-data: 2017-09-03 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. “Hiztun berriak” deizioak biltzen ditu hizkuntza bat naturaltasunez eta erregularitasunez hitz egiten duten hiztunetatik hizkuntza hori lehen sozializazioak hasierako hizkuntzatzat izan ez duten horiek, hizkuntza hori tradizioz hitz egiten den eremu batean. Artikulu honetan, irlanderaren hiztun berrien hizkuntza jatorriari, ohiturei eta ideologiei buruzko ikerketaren emaitzak aurkezten dira. Hiztun berri horiek era askotako jatorri soziolinguistikoak dituzte, bai hazi diren familiari dagokionez, bai hizkuntza sistemaren esperientziari dagokionez ere. Horietako asko ingeles hutseko ikastetxeetara joan dira, baina adierazi dute irlanderako irakasle inspiratzaileak izan dituztela. Hiztun berriek esaten dute irlanderaren erabilerearekiko aldaketa nabarmenak izan dituztela bizitzako inflexio puntuetan (mudes), adibidez, Gaeltacht eremura (distritu irlanderadunak) bisitan joatearen eraginez edo unibertsitateko eskoletara joatean. Zer kompetentzia izan eta zenbat denbora eskaintzen dioten, hiztun berriek hainbat modutara erabiltzen dute irlanderaz. Batzuk kezkatuta daude irlanderaz hitz egiteko aukeren faltagatik, baina beste batzuek irlanderaz erabiltzen dute etxean seme-alabekin. Gaeltacht eremua garrantzitsua da hiztun berrientzako, baina era askotako iritziak daude han hitz egiten diren dialekto tradizionalen garrantziari edo autoritateari buruz. Zenbait hiztun berriek uste dute beraiek ez dutela Gaeltacht komunitateetan duten irlanderaren ezagutza maila bera. • **Hitz gakoak:** *hiztun berriak, irlanderaz, hizkuntza gutxituak, hizkuntza ideologia, hizkuntza kompetentzia, identitatea.*

Abstract. ‘New speakers’ describe fluent and regular speakers of a given language who were not raised with that language as initial language of primary socialisation in an area where it is spoken traditionally. This article presents research findings about the language background, practices and ideologies of new speakers of Irish. Such new speakers have a wide variety of sociolinguistic backgrounds, both in terms of family upbringing and experience of the education system. Many attend mainstream English-medium schools but report that they had inspirational Irish teachers. New speakers describe defining changes towards the use of Irish at critical junctures (mudes) in their lives, for instance because of visits to the Gaeltacht (the Irish-speaking districts) or while attending university. Depending on their competence and dedication, new speakers use Irish in different ways. Some are concerned about lack of opportunities to speak Irish due to the sociolinguistic context but others use Irish as the family language with their children. The Gaeltacht is important to the new speakers but they express a variety of opinions regarding the importance or authority of the traditional dialects spoken there. Some new speakers believe that they do not have the same degree of ownership of Irish as those in Gaeltacht communities. • **Key words:** *new speakers, Irish, minority languages, language ideology, language competence, identity.*

1. SARRERA

I Hizkuntzalaritzan eta hari lotutako beste adar batzuetan badira “jatorrizko” bere hizkuntza ez den beste batean mintzatu ohi den jendea deskribatzeko kategoria tradizionalak: “L2 hiztuna”, “ikaslea”, “hiztun elebiduna”, eta abar. Hiztun berriaren kontzeptua, hain zuzen ere, kategoria horien kritika batean oinarrituta dago. (O’Rourke eta Pujolar 2013; O’Rourke eta Ramallo 2011, 2013). Hiztunaren hizkuntza ekoizpenean gabeziak nabarmentzea baino, “hiztun berria” terminoa har daiteke hizkuntzalaritzan autoritarioak izan arren arazoak sortzen dituzten jatorrizko etiketetako batzuk ezabatzeko ahalegin bat bezala (O’Rourke et al 2015; O’Rourke eta Walsh 2015; ikusi, baita ere, Davies-en kritikak 2003). Beti ez da posible irlandeararen moduko hizkuntza gutxituetako hiztun berrien eta hiztun zaharren artean garbi bereiztea. Sarritan, errealitatea askoz anbiguoagoa eta zalantzaszkoagoa da, funtsezko desberdintasunak daudelako gaur egun hiztun gazteak irlanderekin hazi diren testuinguruaren eta testuinguru soziolinguistiko historikoaren artean, zeinetan irlanderak presentzia sozial handiagoa baitzuen *Gael-tacht*¹ eremuan, hau da, neurri batean edo bestean irlandera komunitate hizkuntza bezala hitz egiten den eskualde historikoan.

Ikerketa proiektu honek Europako hizkuntza gutxituen “hiztun berrietan” jarri du arreta osoa. Soziolinguistika Kritikoaren paradigmaren barruan kokatzen da, horrela esaten baitzaio Hizkuntzalaritza Kritikoaren eta Diskurtsoaren Azterketa Kritikoaren espezialitateari. Ikuspegi kritikoaren kezka nagusiak boterea eta gatazka dira, eta zer eratan dituen hizkuntzak desberdintasunak eta hierarkiak gizartean (Mesthrie 2009; ikusi, baita ere, Bourdieu, 1991; Heller 2001; Heller & Martin-Jones 2001). Soziolinguistika Kritikoaren paradigmak “Hiztun berria” kontzeptuaren berri eman du, eta kritikatu du, bereziki, hizkuntzalaritzan eta horri lotutako adarretan “hiztun zaharraren ideologia” nagusi dela. Historikoki, hiztun zaharrak benetakotasunaren eta legitimitatearen tontor gisa aurkeztu izan dira, eta esan izan da horien moldearen eredugarritzat hartu beharke luketela “ikasleek”, “hiztun zahar ez direnek” edo “bigarren hizkuntzako ikasleek”. Ingelesaren moduko munduko hizkuntza nagusien kasuan, hiztun zaharraren nozio ukaezin bat luze kritikatu bada (Davies 2003), esan daiteke are gatazkatsuagoa izan dela hizkuntza gutxituen kasuan. Izan ere, hizkuntza gutxituetako hiztunak “hiztun zahar” eta “hiztun ez-zahar” izatearen arteko muga lausoaren bi aldeetara daude, eta “hiztun zahar” diren gazte askok hiztun zahar ez izatearekin lotutako ezaugarri linguistiko post tradizionalak erabiltzen dituzten, eta alderan-

**Soziolinguistika
Kritikoaren
paradigmak
“Hiztun berria”
kontzeptuaren
berri eman du,
eta kritikatu du,
hizkuntzalaritza-
ren “hiztun
zaharraren
ideologia”.**

tziz. O'Rourke et al-en arabera (2015) "hiztun berri" bat hizkuntza bat naturaltasunez eta erregularitasunez hitz egiten duen pertsona bat da, hizkuntza hori lehen sozializazioko hizkuntzatzat izan gabe hazi dena, hizkuntza hori tradizioz hitz egiten den eremu batean.

Hizkuntzalaritzan autoritarioak izan arren arazoak sortzen dituzten jatorrizko etiketetako batzuk ezabatzeko ahalegin bat bezala har daiteke "hiztun berria" terminoa, hiztunaren hizkuntza ekoizpenean gabeziak nabarmentzeko baino (O'Rourke et al 2015; O'Rourke eta Walsh 2015). Beti ez da posible irlandערaren moduko hizkuntza gutxituetako hiztun berriak eta hiztun zaharrak zein diren garbi bereiztea. Sarritan, errealtatea askoz anbiguoagoa eta zalantzarazkoagoa da, funtsezko desberdintasunak baitaude testuinguru soziolinguistiko historikoaren eta gaur egun hiztun gazteak hizkuntza gutxituekin hazi diren testuinguruaren artean. Izan ere, testuinguru soziolinguistiko historikoan hizkuntzek presentzia sozial handiagoa zuten eskualde historikoetan. Horrez gain, herritarrak ez ziren mugitzen modernitate berantiarrean mugitzen diren bezain beste, eta herritarrek ez zuten modernitate berantiarrean hitz egiten den bezain erraz hitz egiten. Hiztun berriaren kontzeptuak arazoak sortzen ditu "L1" eta "L2" hizkuntzen arteko banaketa binario sinplean, eta bide ematen du kategoria batean edo bestean argi eta garbi sartzen ez diren hizkuntza ohiturak arretaz aztertzeko. Horrek hautsi egiten du "hiztun zaharren" nagusitasun (sozio) linguistiko historikoa, eta legitimitateari nahiz hizkuntza jabetzari buruzko auziak jartzen ditu agertokiaren erdi-erdian: Nor da emandako hizkuntza baten hiztun legitimoa? Nork erabakitzen du nor den hiztun legitimoa, eta zein dira erabaki horren ondorioak? Zer ondorio ditu erabaki horrek hizkuntza, gizarte eta ekonomia baliabideetara iristeko orduan? Lan honek heltzen die, baita ere, modernitate berantiar eta jariakorrean talde bateko kide izateari eta identitateari buruzko auziei: zeri edo nori eskaintzen diote hiztun berriek leialtasuna, eta zer harreman dute hiztun tradizionalen komunitateekin? (O'Rourke & Ramallo 2011, 2013). Auzi horiek guztiek ondorio nabarmenak dituzte bai irlandערaren hizkuntza politiketan bai eta Europako hizkuntza gutxituen beste testuinguru batzuetan ere: "hiztun zaharra" hiztun "legitimo" bakartzat jotzeko erronkak zalantzan jartzen du zein izan beharko litzatekeen hezkuntza sisteman irakatsi edota hedabideetan erabili beharreko xede hizkuntza, eta lehen planora ekartzen ditu dialekto tradizionalaren eta aldaera estandarizatu eta post tradizionalagoen arteko tentsioak (O'Rourke & Pujolar, 2013; O'Rourke et al, 2015).

2. IRLANDERADUN BERRIAK

I

Ez dago irlanderadun berriei buruzko informazio estatistiko argirik, estatistikako institutu nazionalak ez baitu kategoria linguistikoei buruz galdetzen, baina, horren orde, hiztunei eskatzen die adieraz dezatela zein den irlandera hitz egiteko haien gaitasuna (nahiz eta hori zer den zehaztu ez duen) eta zer maiztasunez erabiltzen duten hizkuntza hori. Irakasgai nagusietako bat izanik, irlanderearen ezagutza pasiboa oso hedatuta dago, baina oso gutxi erabiltzen da. 2016ko azken galdeketa datuen arabera, herritarren ehuneko 40 inguruk adierazten du irlandera hitz egiteko gai dela, baina horietako gehienak ez dira hiztun aktiboak. Hezkuntza sistematik kanpo, herritarren ehuneko 2 inguruk hitz egiten du irlandera egunero (73.803 pertsonak) eta astero hitz egiten dutenen ehuneko apur bat handiagoa da (111.473 pertsonak hitz egiten dute astero) (Estatistikako Bulego Nagusia 2017)². Estatua sortu zenetik etenik gabe hazi da irlandera modu kompetentean erabiltzen dutela adierazten duten pertsonen kopurua. Hala ere, 2016ko inkestak erakusten du behera egin duela hizkuntzaren erabilera kompetenteak eta, baita ere, erabilerari lotutako kategoria nagusi guztiek. Beherakadarik nabarmenena Gaeltacht eremuan izan da, orain bost egoiliarretatik??? batek baino ez baitu irlandera hitz egiten egunero hezkuntza sistematik kanpo (20.586 pertsona), nahiz eta hizkuntza hori modu kompetentean erabiltzen duela adierazi duen bertako herritarren ia ehuneko 70ek (63.664 pertsona) (Estatistikako Bulego Nagusia 2017). Hitzunen beste zenbatespen bat lor daiteke baldin eta Gaeltacht eremutik kanpo eguneroko nahiz astero irlandera hitz egiten duten pertsonen Ipar Irlandan irlandera hitz egin, irakurri, idatzi eta uler dezaketela adierazi duten pertsonak gehitzen bazaizkio (Estatistikako Bulego Nagusia, 2017; Ipar Irlandako Estatistika eta Ikerketa Agentzia, 2012). 220.000 pertsona lirateke guztira, hots, Irlandako herritarren ehuneko bost inguru. Euskararen, katalanaren eta Europako beste hizkuntza gutxitu batzuen aldean gutxiengo oso txikia baldin bada ere, hitzunen kopurua hazi egin daiteke irlandera moldatzen direla adierazten duten ehuneko berrogei horren baitan.

Irlandan barrena hiztun berrien sareak baldin badaude ere, ikerketa sistematiko gutxi egin da gai honen inguruan. Baliteke hiztun berrietako batzuk loturak izatea murgilketa ikastetxe batekin (*Gaelscoil* edo *Gaelcholáiste* delakoekin)³ zenbait eremutan, baina gehiago ikertu beharko litzaiteke horri buruz. Drawing on Ó Murchú (2006 eta 2007) irlandera hitzunen berriei buruzko artikulua berrian, esaterako, Irlandako hogeiretaren zerrenda eman da, eremu horietan ahalegin koordinatuak egiten

**Irlandan ia
mende batez
hizkuntza
biziberritzeko
ahaleginean egon
ondoren, familia
gutxi batzuk izan
dira, Gaeltacht
eremutik kanpo,
irlandera etxeko
hizkuntzatzat
hartu eta
hurongo
belaunaldiari
transmititu
diotenak.**

ari baitira edo egin izan baitituzte Irlandako ohituren erabilera indartzeko eta irlanderadunen sareak baitaude (Walsh et al, 2015: 10-11). Hizkuntza politikan aintzat hartzen hasi dira sare horiek formalki azken urteotan, nahiz eta horiek garatzeko dagoen funts erabilgarria erabat urria den. *Irlanderako 20 urteko estrategia* dokumentuan ezarri da gobernuak “Hizkuntza komunitate edota sare berriak garatuko dituela *Gaeltacht* eremutik kanpo. Komunitate eta sare berri horiek egongo dira, batez ere, herritarrek eta Estatuak irlandera babesteko funtsezko masa kritikoa lortu duten komunitateetan” (Irlandako Gobernua, 2010: 23). 2012ko *Gaeltacht* Legearen 11.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ministroak agindu bidez izenda dezake *Gaeltacht* Hizkuntza Plangintzako Eremu batekoa edo *Gaeltacht* eremu batekoa ez den komunitate espezifiko bat irlanderako hizkuntza sarea izan dadin. Legeak hutsune asko baditu ere, nabarmentzekoa da lege horretan aintzat hartu direla, lehen aldiz lege batean, *Gaeltacht* eremutik kanpoko irlanderako sareak (O’Rourke & Walsh, 2015: 67-8).

Irlanderaren kasuan, ikerketa honetan hiztun berriaren definizio zabal bat erabili da, tartean diren era askotako jatorriak eta konpetentziak biltzeko asmoz:

- Hiztun berri gehienek etxetik kanpo ikasten dute irlandera, gehienbat hezkuntza sisteman. Askok hezkuntza sistema orokorretik datoz, non irlandera ikasgai nagusietako bat den, baina ikasleen ehuneko 95en komunikazio hizkuntza ingelesa den. Murgilketa ikastetxeetan, berriz, komunikazio hizkuntza irlandera da, eta bertako ikasleak hiztun berri bilakatzen dira, baina esan behar da, han ere ez dagoela hori ziurtatuta.
- Zenbait hiztunek irlanderarako gaitasun aktiboa dute etxean irlanderaz hitz egin dietelako (zenbaitetan ingelesarekin batera), baina haien inguruko komunitatea ez zen irlanderaz mintzatzen. Hau da, bada jendea irlanderaz hazi dena *Gaeltacht* eremutik kanpo, sarritan irlanderaz hitz egiten hazi ez ziren gurasoek irlanderaz eginda. Fenomeno hori Irlandako hizkuntza politikaren ibilbide luzearen ondorio da (1922. Urtetik). Luzea da, Espainian laburragoa baita katalana, euskara eta galegoa sustatzeko hizkuntza politikaren ibilbidea, trantsiziotikoa, hain zuzen. Irlandan ia mende batez hizkuntza biziberritzeko ahaleginean egon ondoren, familia gutxi batzuk izan dira, *Gaeltacht* eremutik kanpo, irlandera etxeko hizkuntzatzat hartu eta hurongo belaunaldiari transmititu diotenak. Edonola ere, nahiz eta jatorri hori duten batzuek beren burua “hiztun zahartzat” duten, askok ez dute horrelakotzat, eta uste dute ez direla *Gaeltacht* eremuko

hiztun zaharrak bezain legítimoak. Horiek, beraz, “hiztun berria” kategoria zabalaren barruan sartu dira.

- Beste hiztun berri batzuk *Gaeltacht* eremukoak dira jatorriz, hau da, betidanik entzun diete senideei edo bizilagunei irlandera hitz egiten, baina etxean ez diete irlandera egin.
- Txosten honetan aztertutako hiztun berriek irlandera maila handia dute, hau da, Hizkuntzen Erreferentziako Europako Esparru Komuneke B2 maila edo handiagoa.
- Hiztun berri aktibok irlandera sarri erabiltzen badute ere, Irlandako testuinguru soziolinguistikoak ohitura hori muga lezake. Hala ere, hiztun horiek kontuan hartzea merezi dute, ahalegin handia egiten baitute hezkuntza testuinguruetatik kanpo irlandera hitz egiteko aukera gehiago izateko.
- Zenbait hiztun berriek *Gaeltacht* eremuko dialekto tradizionalak erabiltzen dituzte (edo horietako zenbait elementu), eta nahita saihesten dezakete kodez aldatzea. Beste batzuek irlandera eta ingelesa nahasten dituzten aldaera post tradizionalagoak erabiltzen dituzte.
- Hiztun berri askok motibazio politikoak edo ideologikoak dituzte. Irlanderaren erabilerarekiko aldaketa nabarmenak gerta daitezke pertsona baten bizitzako inflexio puntuetan.⁴
- Beste hiztun berri batzuek irlandera ikasi dute horren behar sozialik izan gabe edo testuinguruagatik, eta ez motibazio ideologikoak tarteko direla. Hortaz, testuinguru hori aldatzen baldin bada, hiztun horiek ingelesa erabiltzen has daitezke berriz ere (Walsh et al, 2015).⁵

XX. mendearen hasieratik, sakon aztertu dira *Gaeltacht* eremuko irlanderaren dialektoak, baina hiztun zahar tradizionalenak ez diren beste guztiei arretarik ez jartzeko joera izan du irlanderako dialektologiak (e.g. Wagner, 1981 [1958]). “Hiztun berri” terminoa berariaz erabiltzen ez baldin bada ere, berriki egindako azterlanetan hiztun post tradizionalei eta era askotako jatorrietatik datozen hizkerei buruz mintzo dira. Azterlan horiek bi kategoriatan bana daitezke: (a) *Gaeltacht* eremuko hizkera tradizionalarekin lotura historikorik ez duten hiztunak (e.g. Ó Riagáin & Ó Glasáin, 1979; Ó Catháin, 2001; Maguire, 2003; Murtagh, 2003; Walsh, 2007; Ó Duibhir, 2010 & 2011; Mac Giolla Chríost, 2012) eta (b) *Gaeltacht* eremuko hizkera tradizionalaren gaineko aldaketak (e.g. Ó Dónaill, 2000; Ó Béarra, 2009; Ó Curnáin, 2007, 2009 & 2012; Ó hÍfearnáin and Ó Murchadha 2011; Ó Giollagáin et al 2007; Ó Giollagáin & Charlton 2015). Askoz berriagoak dira hiztun berriaren inguruan espresuki irlanderaren gain egindako azterlanak (e.g. O’Rourke, 2011; O’Rourke & Ramallo, 2011; O’Rourke & Walsh, 2015; Walsh et al, 2015).

***Txosten hau
oinarritzen da,
batetik,
irlanderako
hiztun berriei
2012. urtetik
egindako 100
elkarrizketetatik
46ren azpi sorta
batean (25
gizonezko eta 21
emakumezko)
eta, bestetik,
lanean aritzean
hartutako
oharretan eta
parte
hartzaileekin
posta bidez hitz
egindakoen
jarraipenean.***

3. IKERKETAREN IKUSPUNTUA ETA METODOLOGIA

I
Txosten hau oinarritzen da, batetik, irlanderako hiztun berriei 2012. urtetik egindako 100 elkarrizketetatik 46ren azpi sorta batean (25 gizonezko eta 21 emakumezko) eta, bestetik, lanean aritzean hartutako oharretan eta parte hartzaileekin posta bidez hitz egindakoen jarraipenean. Egilea Bernadette O'Rourke-rekin elkarlanean gauzatzen ari den proiektu baten parte da. Parte hartzaileak sare laginketaren metodoa erabiliz hautatu ziren, ikerlariek arloaren gain duten ezagutzan oinarrituta (Berg, 2008). Nahikoa partehartzaile identifikatzen ahalegindu ziren, era askotako profilak ordezkaturik egon zitezen. Elkarrizketek berrogeita bost minutuko iraupena izan zuten, batez beste; ikuspuntu biografiko erdi egituratu batean oinarritu ziren, eta elkarrizketaren zatirik handiena irlanderaz egin zen. Elkarrizketak bideratzeko, NEOPHON sareak Bartzelonako Universitat Oberta de Catalunya unibertsitatean oinarrituta garatutako galdera protokolo bat erabili zen, bertako kide baitira egilea eta O'Rourke irakaslea. Elkarrizketa bakoitza transkribatu egin zen, solas txandak bereiziz eta horik zenbakituz. Ondoren, materiala NVivo softwarea erabiliz kodetu zen, azterketa kualitatiboa errazten baitu. Euskaldun berriei buruz egin zen antzeko beste lan baten bitartez izan genuen kodetze prozesu horren berri (Ortega et al, 2016). Datuetan, hiru gai nagusi identifikatu ziren: (1) hiztunen jatorri soziolinguistikoa eta linguistikoa, (2) hiztunen hizkuntza erabilerak eta (3) hiztunen hizkuntza ideologiak eta identitateak. Txosten honek hiru gai nagusi horien adibideak hartzen ditu oinarri.

Parte hartzaile bakoitzari letra eta zenbaki banaz osatutako izenorde bat eman zitzaion, adibidez: G27. Txostenean azaltzen den laburpen bakoitzaren ondoren atala zer solas txandari dagokion adierazten da. Adibidez, (G27, 18) kodeak adierazten du dagokion atala G27rekin izandako elkarrizketaren hamazortzigarren txandari dagokiola. Transkripzioak egiteko protokoloaren bertsio sinplifikatu bat txertatu dugu eranskinean. Laginaren ezaugarriak kontuan izanik, hiztunak hizkuntza arauetatik desbideratzea espero zen, eta, transkripzioak egitean, ez ziren akats gramatikalak eta sintaktikoak zuzendu. Argitasuna bermatze aldera, jatorrizko materialeko akats lexikal batzuk zuzendu ziren, eta testuak zertxobait editatu. Espazio mugak direla eta, azpiko laburpen guztiak irlanderatik itzulpenak dira.

4. HIZTUN BERRIEN JATORRI SOZIOLOGIKOA

I

Jatorri soziolinguistikoaz ari garenean, hiztunak haurtzaroan hazi bi-tartean erabili zuen hizkuntzari edo hizkuntzei eta hezkuntza sisteman hizkuntzekin izan zuen lehen esperientziari buruz ari gara. Atal honetan, aztertutako jatorri guztien aukeraketa bat jaso da, familia eta hezkuntzari dagokienez.

4.1 Hizkuntza jatorria

Hiztunetako batzuek irlandeararen aldeko familia jatorria deskribatu dute, edo adierazi dute familiako batek irlanderaz (zertxobait) zekiela. Zenbait kasutan, hiztunaren gurasoetako bat jatorriz *Gaeltacht* eremukoa zen, nahiz eta baliteke ingelesez hitz egiten hazi izana. Beste batzuek azaltzen dute ingelesez hitz egiten hazi zirela, baina badakitela irlandar tradizionalen ondorengo direla. Gehienak hainbat belaunalditan soilik ingelesez hitz den familietako kideak dira.

J4 (37 urte, emakumezkoa) hiztunaren etxean, adibidez, ingelesez hitz egiten zen, baina etxekoek *Gaelscoil* batera eramane zituzten haurrak jatorriaragoak izan zitezten. J4ren familia handiaren lau belaunaldi joan dira *Gaelscoil* berera: J4ren amona, ama, bera eta iloba. Lagunekin eta lanean irlanderaz hitz egiteko ohitura baldin badu ere, etxean ez dute sekula irlanderaz hitz egin:

Nire amonak irlanderaz hitz egiten zuen, irlandera hutseko em [ikastetxea] ikastetxera joan zelako eta ni / tira egiazki gure familiako laugarren belaunaldia [ikastetxearen izena] joango da irailetik aurrera nire seme-alabak ez dira joango baina nire / nire iloba baina [ikastetxearen izena] joan zen eta gero [beste ikastetxe baten izena] joan zen eta nire ama gauza bera hortaz irlandera bazegoen etxean baina suposatzen dut nire amona hazten ari zenean bete-betean sartuta zegoela nazionalismoan halako moduz non irlandar dantzetara joan ohi zen eta bizitza sozial oso bizia izan ohi zuen beraz pentsa irlanderaz egiten zuen baina ez zen / nola esan / nire familiakoak Dublingoak izan dira urtetan eta urtetan/ urtetan em beraz baina irlandera egon da familian ez dakit zergatik / ez diot sekula galdetu nire buruari hein batean (J4, 46).

G11 (24, gizonezkoa) gehien bat ingelesez hitz egiten hazi da, eta haren aita *Gaeltacht* eremutik gertukoa bazen ere, ez zuen irlanderaz hitz egiteko ohiturarik. Hala ere, G11k esaten du etxean pixka bat hitz egiten zutela irlanderaz, eta, herriko Lehen Hezkuntzako ikastetxean irlandar jarritako enfasiari esker, hurrek ondo ikasi zutela irlanderaz txiki-txikitatik:

**Hiztun berri
askok aipatzen
dute eskolan hasi
zirela
irlanderarekiko
interesa izaten.
Aipatu izan da,
baita ere,
ingelesko
ikastetxe
arruntetan
irakasleek
(zenbait
Gaeltacht
eremukoak)
hartutako
ardura, irlandera
berekotzat
hartzeko nahia
piztu baitzuten
jendearen baitan.**

Ingelesa hitz egiten zen nagusiki baina suposatzen dut beti ulertu dugula irlandera bagenekien existitzen zela harremanak genituelako [Gaeltacht inguruko toki] hartan eta lagunak genituen [Gaeltacht] eremuan ere eta eh Lehen Hezkuntzan nengoen eta [Gaeltacht] eremuan baino enfasi handiagoa egiten zuten irlanderan Gaelscoil bat ez bazen ere [...] eta gogoan dut poema zailak ikasi nituela oso gaztea nintzenean, orain Leaving Cert [selektibitate] prestatzeko ikasmailetan ere ikasiko ez lituzketenak eta [Gaeltacht] eremuko irakasleak genituen ere beraz / etxean irlanderez hitz egiten genuen zenbaitetan hori ziur eta lehen esan dudana bezala beti ulertu dut / bagenekien existitzen zela baina ingelesa zen gehien hitz egiten zen hizkuntza nire amak ez zekielako irlanderez (G11, 42).

B8 (45 urte, gizonezkoa) soilik ingelesez hitz egiten hazi zen, eta irlandera eskolan eta, gerora, unibertsitatean ikasi zuen. Nabarmentzen du, bereziki, berarentzat oso garrantzitsua dela ulertzea bere familiakoak irlanderadunak izan zirela duela belaunaldi gutxi batzuk:

Nire arbasoak irlanderez mintzo ziren / Irlandez hitz egiten zuen nik uste maparen bat begiratu nuen eta pentsatu nuen bertako biztanleen erdiak edo [...] irlandez zekiela uste dut 1901 edo 1911n argitaratutako inkesta batean eta tartean ere baziren irlandez hitz egiteko gaitasunari buruzko galderak eta uste dut 1911n idatzi zela eh [...] nire aitona irlandez zekien / hogei bat urte izango zituen urte hartan eta [...] [inkesta] horretan idatzi zen nire birraitonak eta haren emazteak irlandez zekitela beraz [...] ingelesez eta irlandez zekiten [...] nire aitak errespetu handia izan du beti irlanderarekiko eta hezkuntzarekiko eta esan ohi zidan irakasle izan nahi zuela eta irakasle izatea erabaki zuela Lehen Hezkuntzan zegoenean (B8, 4).

4.2 Hezkuntza jatorria

Hiztun berri askok aipatzen dute eskolan hasi zirela irlanderarekiko interesa izaten. Aipatu izan da, baita ere, ingelesko ikastetxe arruntetan irakasleek (zenbait *Gaeltacht* eremukoak) hartutako ardura, irlandera berekotzat hartzeko nahia piztu baitzuten jendearen baitan, Irlandako kultura tradizionalaren eta hizkuntzaren zenbait alderdi biziki nabarmenduz. G16k (30 urte, emakumezkoa) esaten du irakasle bikainak izan zituela Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, hizkuntzarekiko interesa piztu zutenak haren baitan eta hainbat eratan laguntza eman ziotenak:

Beraz ingelesez hitz egiten zen ikastetxe bat zen [...] baina em baziren irlanderadunak / bazegoen irakasle bat bikaina zena eta laugarren eta seigarrenekoei irakasten ziena eta ondo irakasten zuen irlandera beraz eta uste dut eta gero

beste irakasle bat izan nuen Bigarren Hezkuntzako lehen urtean egon nintzenean eta irakasleak izan ziren gehien bat nire baitan gogoaz piztu zutenak (G16, 97).

Laginean badira, baita ere, *Gaeltacht* eremuan ingelesez hitz egiten hazi ziren zenbait lagun. K1 (32 urte, gizonezkoa) ingelesez hitz egiten hazi zen *Gaeltacht* eremu batean eta herriko Lehen Hezkuntzako eskolaren bitartez lortu zuen irlandaraz moldatzeko gaitasuna. Pertsona horrek ere aipatzen du irakasle oso jantzi eta konprometituak izan zituela:

Bertan ikasi nuen irlandaraz uste dut eta eh esan beharko nuke irakasle horiek eh oso ondo hitz egiten zutela eta oso irlandar zaleak zirela [“Gaelach”, irlandararekiko eta Irlandako kulturarekiko atxikimendua dutenak] eta em izan nuen emakume bat [Gaeltacht] eremuko irakasle eskolako nire lehen lau urteetan eta gero bazegoen gizon bat Gaeltacht eremuko ez zena baina irlandera ikasi zuena [Gaeltacht] eremuan (B1, 40).

5. HIZTUN BERRI BILAKATZEKO MOTIBAZIOA

Irlanderadun berri bat bihurtzeko motibazioen artean daude, besteak beste, haurtzaroan *Gaeltacht* eremura bisitan joatean piztutako interesa, unibertsitateko urte erabakigarriak, hiztunaren kontzientzia politikoa edota hiztunak *Gaeltacht* erroak dituela jakitea.

5.1 Gaeltacht eremura egindako bisita batek piztutako interesa

Hiztun berri askok adierazi dute bizitzan *muda* erabakigarri bat izan dutela *Gaeltacht* eremura egindako bisita baten ondorioz. Urtero ehunka nerabe irlandar joaten dira *Gaeltacht* eremura, bertako familiekin uda pasatzera eta irlandarako eskolak hartzera. N4k (34 urte, gizonezkoa) Ipar Irlandakoa da, eskolan ikasi zuen irlandera, eta esaten du nerabezaroan *Gaeltacht* eremura joan arte ez zekiela irlandera komunitate hizkuntza bat zela:

1996. urtea izango zen Gaeltacht eremura estreinakoz joan nintzenean eta gogoan dut elkarren segidako lau urtetan joan nintzela uda pasa [tokira] bueltan [...] Eta hor hasi nintzen hizkuntza erabiltzen / horren aurretik gustuko nuen eskola irakasgai bat zen baina bat-batean konturatu nintzen interes handia nuela gai akademiko horren gainean nire bi begiekin ikusi bainuen bizirik zegoen gaia zela / bazegoen jendea // bazegoen komunitate bat irlandaraz mintzo zena eta hori itzela izan zen // inspirazio handia izan zen niretzat [...] Gaur egun Gael bat naizela esaten dut [irlandarra, hau da, irlandararen kulturarekiko atxikimendua duena] / Ez dut uste garai hartan

**Irlanderadun
berri bat
bihurtzeko
motibazioen
artean daude,
besteak beste,
haurtzaroan
Gaeltacht
eremura bisitan
joatean piztutako
interesa,
unibertsitateko
urte
erabakigarriak,
hiztunaren
kontzientzia
politikoa edota
hiztunak
Gaeltacht erroak
dituela jakitea.**

**sarritan. Goi
mailako
ikasketetan
irlandera ikasi
duten edo
irakasgairen bat
irlanderaz egin
duten pertsona
horiek adierazten
dute
unibertsitateko
komunitatea oso
garrantzitsua
izan dela
irlandera
erabiltzeko.**

ohartu nintzenik zer zen badakizu [...] Irlandarren artean egon nintzen eta oso gustura sentitu nintzen eta suposatzen dut inoizko zoriontsuen izan nintzela han (N4, 23).

J3 (26 urte, gizonezkoa) hasiberrientzako udako eskola batera joan zen *Gaeltacht* eremuan eta, horren ondoren, *Gaeltacht* eskola batera joan zen. Ikusi zuenean eremu horretan irlandera komunitatearen hizkuntza zela, hizkuntza hori gehiago erabiliko zuela erabaki zuen:

Tira ohartu nintzen altxor hau nuela nire sudurraren azpi-azpian eta zergatik ez nuen erabiliko, bada? Hamabi urteetatik joaten nintzen Irlanderako eskola batera edo udako eskola batera hobe esanda eta suposatzen dut irlanderaren beste alde bat ikusi nuela han // ikusi nuen herri hizkuntza izan zitekeela eta komunitateko hizkuntza eta abar horretaz konturatu nintzen eta eredu hori hartu nahi izan nuen eskolan sentitzen bainuen benetan ere denbora galtzea zela han bertan hitzun zaharrak izanik haiekin irlanderaz ez egitea (J3, 44).

5.2 Unibertsitateko urte erabakigarriak

Unibertsitatea hitzun berriaren bizitzako beste *muda* erabakigarri bat dela aipatu izan da sarritan. Goi mailako ikasketetan irlandera ikasi duten edo irakasgairen bat irlanderaz egin duten pertsona horiek adierazten dute unibertsitateko komunitatea oso garrantzitsua izan dela irlandera erabiltzeko, haien gaitasuna bultzatzeko eta harekiko zuten jarrrera aldatzeko. G17 (gizonezkoa) *Gaeltacht* eremuan hazi zen nagusiki ingelesez hitz egiten eta irlanderaren gain oso interes gutxi zuen, harik eta unibertsitatean irlanderaz naturaltasunez hitz egiten zuen gazte talde bat ezagutu zuen arte:

Ez dut inoiz irlanderaren gain interesik izan harik eta unibertsitatera joan eta [...] irlanderaren gain interesa zuen jendea ezagutu nuen arte eta orduan hasi nintzen / parte hartzen irlanderarekin lotura zuten taldeetan eta hor hasi nintzen irlanderaren gain interesa izaten eta hizkuntzan eta hasi nintzen benetan gozatzen irlanderadunen komunitatea eta / eh suposatzen dut irlanderaren ingurunea eta izaten genituen ekitaldiak / Adibidez Oireachtas irlanderako jaialdi handira lehenengoz joan ginen hartan biziki motibatu nintzen // izan ere [...] hara joan arte ez bainekien Oireachtas zer zen ere [...] Unibertsitatera joan nintzenean [...] konturatu nintzen lehenengoz [...] ez nuela natural-natural hitz egiten batez ere *Gaeltachtaí* 6eremuetako jendea ezagutu nuenean eta bazegoen jendea irlanderaz hitz egiten zuena // eta uste dut hura izan zela nire adin bereko jendearekin irlanderaz hitz egiten nuen lehen aldia (G17, 40).

5.3 Hiztun berriek politikaren edo identitatearen gain duten kontzientzia piztea

Zenbait hiztun berriak aipatzen dute politikarekin edo identitatearekin lotutako arrazoiengatik gauzatu dutela *muda*. G23k (22 urte, gizonezkoa) ikuspuntu sozialista eta irlandar errepublikarrarekin eta globalizazioaren aurkako mugimenduekin lotzen du hizkuntza gutxituen sustapena:

Nahiko natural hitz egiten dut suposatzen dut haur bat nintzenetik baina // ez nuen hizkuntzaren gain interesik izan hamalau urte edo bete nituen arte orduan hasi bainintzen eskolatik kanpo irlandaraz hitz egiteko nahia izaten eta hori gertatu zen politikan janzen hasi nintzelako uste dut (G23, 58) [...] Errepublikarragoa eta sozialistagoa bihurtu nintzen eta abar eta globalizazioaren eta horrelako gauzen kontrako nolabait // eta horren ondorioz hizkuntza garrantzitsua zela jabetu nintzen eta identitatearekin lotura zuela (G23, 60).

N4 (34 urte, gizonezkoa) Ipar Irlandakoa da eta uste du lotura handia dagoela irlandararen eta bere identitatearen artean. Laburpen honek iradoki du identitateak bultzatu zuela hizkuntzaz aldatzera, pertsona horrek uste baitzuen irlandera bere izatasunaren funtsezko parte bat zela:

Pentsatzen dut iraultzaile txiki bat nintzela ere eta iparraldeko herri iraultzaile batean hazi nintzela / nire sorterrria errepublikarra da ezbairik gabe eta pentsatzen dut bertan bazegoela / halako sentipen bat nabari zen badakizu // eta identitate hori oso-oso garrantzitsua zen guretzat esan dudan moduan oso-oso garrantzitsua zen nire amarentzat / eta uste dut gure komunitatean guztiek sentitzen zutela identitatea oso garrantzitsua zela guretzat eta gero 80ko hamarkadan gatazka handiak izan ziren kaleetan eta hor egon ginen eta beste aldea ere hor egon zen eta ikurrak eraman behar genituen erakusteko nortzuk ginen eta suposatzen dut pentsatu nuela irlandera horren guztiaren parte zela / hau da bazela nire identitate propioa garatzeko modu serio bat eta aitortzeko nor nintzen mundu honetan (N4, 19).

5.4 Hiztun berriaren Gaeltacht erroak

Zenbait parte hartzailek *Gaeltacht* eremuan erroak dituztela aipatu dute hizkuntza *muda* motibatu zuten faktore gisa. K1 (32 urte, gizonezkoa) ingelesez hitz egiten hazi zen *Gaeltacht* eremuan. Harentzat erabakigarria izan zen bere irlandera hobetu behar zuela jabetzea. Bere irlandera gaitasuna areagotzeko asmoz, irlanderako eskola partikularretara joan zen, Leaving Certificate (selektibitatea) egin aurretik. Eskola horietan, irakasleak galdetu zion ea nola zitekeen bertan egotea *Gaeltacht* eremukoa

Zenbait hiztun berriak aipatzen dute politikarekin edo identitatearekin lotutako arrazoiengatik gauzatu dutela *muda*.

baldin bazen. K1 lotsatu egin zen bere irlandera ez zelako nahikoa ona eta, ondorioz, hiztun berri bihurtzea erabaki zuen:

Galdetu zidanean ea zergatik nengoen hor Gaeltacht eremukoa izanda eta ez zidan modu iraingarrian edo txarrera esan ez ezer baina berak nahi zuen besterik gabe suposatzen dut ni hitz egiten has nendila ere baina bihurtu nintzen pixka bat eh [...] / ez nuen gogoia galdu baina eh zur eta lur geratu nintzen hor nengoelako eta suposatzen dut ate hori ireki zitzaidala buruan eta eh ni [...] tira lotsatu egin nintzen [...] Beraz gau hartan etxera joan nintzen eta ispiluaren aurrean egon nintzen eh eta nire buruari irlandera hasi nintzaion eta hautsa eta herdoila kentzen saiatu nintzen suposatzen dut / nire irlandeari eta une horretatik aurrera interes handia dut irlanderan (K1, 56-57).

6. IRLANDERA GAITASUNA

I

Hiztun berri asko ezkor dira haiek baino hobeto hitz egiten duen norbaitekin edo hiztun zahar batekin komunikatzeko beren gaitasunaren gain. Batzuek uste dute haien irlandera kaxkarra dela eta esaten dute badakitela haien trebetasunak okerrera egingo duela beste hiztun batzuekin kontakturik ez izateagatik. Aitzitik, hiztun berri batzuk baikor dira eta uste dute ondo edo nahiko ondo moldatzen direla haien komunikazio beharrak edo behar profesionalak asetzeko.

6.1 Hiztun berrien gaitasunari buruzko iritzi negatiboak

Bistan da hiztun berriek ez dutela konfiantzarik beren buruaren gain, ezta oso adituak direnak eta dialekto tradizional bat ikasteko ahalegin berezia egin dutenak ere. Elkarrizketaren egunean, G1 (28 urte, gizonetzkoa) irlandera graduondokoa lortzeko puntuan zegoen, baina etsia hartuta zegoen ez zekizkielako hizkuntzaren arau guztiak:

Suposatzen dut etsia hartuta nengoela hizkuntzaren ikaskuntzarekin / irlandera ikasten etsia hartzen duzu beti / gogorra da eta suposatzen dut em izango direla irlandera baino askoz gogorragoak diren beste hizkuntza batzuk baina hala ere oso gogorra da eta em batez ere irlandera idaztea eh nik neuk idatzitako idazlan bat marka gorriekin ikusten dudanean etsia hartzen dut esan behar dudanean eh [graduondoko ikasketetan] graduatzeaz nago eta oraindik ere akatsak egiten ditut / badira ulertzen ez ditudan zenbait gauza ez dut gustuko eta esan beharra daukat hori etsigarria dela em suposatzen dut nire irlandera mugatua dela eta etsia hartzen dut horregatik ez bainaiz gai zenbaitetan nire burua eraginkortasunez adierazteko eta hori bada edonork etsia hartzeko modukoa bigarren hizkuntza bat erabiltzen ari direnean suposatzen dut baina

zaila da irlanderak badu zailtasun berezi bat jakin baitakizu beti alda dezakezula hizkuntzaz eta ingelesez hasi (G1, 117).

6.2 Hiztun berrien gaitasunari buruzko iritzi positiboak

Zenbait hiztun berri pozik daude beren mailarekin, lanerako eskakizunei dagokionez. B1 (24 urte, emakumezkoa) adibidez irakaslea da Bigarren Hezkuntzako *Gaelcholáiste* ikastetxe batean. Irlanderadunek elkarrengandik ikasten dutela esaten du eta, bere irlandera bikaina ez dela onartzen badu ere, uste du baduela lanpostua betetzeko nahikoa gaitasun:

Badakit hemen egon naitekeela irakasle bezala eta nire irlandera nahikoa ona dela / tira espero dut hala izatea behintzat / Gaelcholáiste ikastetxe batean irakasle aritzeko eta pozik nago horrekin / nire irlandera beste pertsona batzuenarekin alderatu nahi dudanean guztiok ari gara elkarrengandik ikasten eta hori zoragarria da / nire irlandera ez da izango beste irakasle edo beste hiztun batzuen bezain ona / hori horrela da eta onartzen dut / baina pozik nago nire estandarrekin / nik ezagutzen dudana estandarrekin (B14, 88).

7. IRLANDERAREN ERABILERA

Hiztun berriek era askotara erabiltzen dute irlandera, bakoitzaren profila zein den eta hura non bizi den. Gainera, ingelesa nagusi den testuinguru soziolinguistikoak muga dezake erabilera hori. Pertsona asko arduratuta daude gai horrekin, beldur baitira ez oten duten irlandera erabiltzeko gaitasuna galduko hura ez erabiltzeagatik. Zenbait hiztunek aipatu dute ekitaldi kulturalak, hala musikak nola antzerkiak eta irlandar hizkuntzaren kulturarekin lotutako ekitaldiek hizkuntza erabiltzeko aukera ematen dutela. Zenbait hiztun berri adierazi dute etxean irlandera erabiltzen dutela eta seme-alabei transmititzea dela haien eginbeharra.

7.1 Aukera urri

Hiztun askok adierazi dute haien inguruan ingelesak duen nagusitasunak mugatu egiten dituela irlandera erabiltzeko dituzten aukerak. Hori gertatzen zaie, bereziki, beren burua hizkuntza aktibistatzat ez duten eta egunero irlanderaz aritzen diren zirkuluetan ibiltzen ez diren horiei. N3 (32 urte) irlanderarekin lotzen ez den Ipar Irlandako zona batean bizi da:

Hona itzuli nintzen lehen aldian [unibertsitatetik] irlanderako graduondoko ikastaro bat egin nuen Belfasten eta han aukerak izan nituen irlanderaz hitz egiteko eta hura praktikatzeko // Aukerak izan nituen baita hirian ere eta aukera horietako gehienak baliatu nituen / baina [herriaren izena]ra itzuli naizenetik ez

Hiztun berriek era askotara erabiltzen dute irlandera, bakoitzaren profila zein den eta hura non bizi den. Gainera, ingelesa nagusi den testuinguru soziolinguistikoak muga dezake erabilera hori. Pertsona asko arduratuta daude gai horrekin, beldur baitira ez oten duten irlandera erabiltzeko gaitasuna galduko hura ez erabiltzeagatik.

**Guraso diren
hiztun berriek
era askotako
bizipenak izan
dituzte etxean
irlandera
erabiltzeari
dagokionez.
Batzuek adierazi
dute etxean
irlandera
erabiltzea
erabaki dutela,
edo ingelesa eta
irlandera biak
batera. Haurrek,
ordea, ez dute
beti irlandera
ondo hitz egiten
ikasten edo ez
daude irlandera
hitz egiteko
prest.**

ditut irlandera hitz egiteko aukera berdina eta uste dut irlandera okerrera egin duela [...] Raidió na Gaeltachta [irlanderazko irrati] entzuten dut autoan lanerako bidean eta lanetik bueltan eta unibertsitateko lagunekin hitz egiten dudanean guztietan irlandera hitz egiten dut gehienbat // baina egia hori uste dut lehen baino gutxiago hitz egiten dugula irlandera hitz egiteko 60 edo 50 urte baino gehiago da orain // ohitura galtzen ari gara.

7.2 Musika eta kultura

Parte hartzaile askok kulturaren eta musikaren arloko ekitaldiak aipatu dituzte irlandera praktikatzeko esparru gisa. Adibidez, G3 (26 urte, emakumezkoa) estatubatuarra da eta musika tradizionalaren eraginez piztu zitzaion irlandera hitz egiteko interesa. Urte bat egon zen Irlandan irlandera ikasten eta, tarte horretan, irlandera hitz egiten zuten beste musikari tradizional batzuekin izan zuen harremana. Badira irlandera kulturalki garrantzitsua dela uste duten eta beren burua hizkuntzaren enbaxadore gisa ikusten duten beste hiztun berri batzuk ere. G1ek (28 urte, gizonezkoa) uste du alderdi kulturala eta historikoa askoz garrantzitsuagoa dela dimentsio politikoak baino, hizkuntza eskubideak baino, esaterako:

Suposatzen dut hizkuntzari kalte egiten dion gauzetako bat ezjakintasuna dela badago jendea hortik zehar gai dena eh irlandera hitz egiteko garrantzia azaltzeko eta irlandera hitz egiteko aberastasuna azaltzeko ingelesdunei hots hizkuntza ezin hitz egin dezakeen jendeari edo hura irakurri edo ulertzeko aukerarik ez duen jendeari // garrantzitsua da / erakundeetan modu aktiboan parte hartzeari dagokionez nik ez dut hain interes handirik alde horretako gauzetan baina gustu handiz emango nuke denbora idazten hitzaldiak emateko alegia Irlandako jendeak hizkuntzari buruz gehiago jakitearen alde nire aletxoak jartzeko / pozik egingo nuke baina ez nintzateke manifestazioei edo horrelako gauzei begira egongo (G1, 126).

7.3 Irlanderaren erabilera familian

Guraso diren hiztun berriek era askotako bizipenak izan dituzte etxean irlandera erabiltzeari dagokionez. Batzuek adierazi dute etxean irlandera erabiltzea erabaki dutela, edo ingelesa eta irlandera biak batera. Haurrek, ordea, ez dute beti irlandera hitz egiten ikasten edo ez daude irlandera hitz egiteko prest. Beste batzuek ez zieten haurrei irlandera hitz egin, baina haur horietako batzuk hiztun berri bihurtu ziren hezkuntza sistemaren bitartez. B4 (60 urte, emakumezkoa) gizonezko irlandar batekin ezkondu zen, eta haurrak izan zituztenean, senarrak irlandera hitz egitera bultzatu zuen:

Pixkaka-pixkaka zenbait erakundetan parte hartzen hasi ginen Glór na nGael hizkuntza sustatzeko taldean esaterako eta badakizu irlandera eta komunitatean eta irlandera sustatzen eta em haurrak izan genituenean bada interesa genuen zera ospakizun guztietan zera bataiatzea edo eskolan hasi zirenean // irlandera [irlanderako izenak] izenak hautatu genituen // eta irlandera hain zen / tokia egin genion irlanderari etxe elebiduna zen nolabait badakizu eta parte hartu genuen / [toki izena] herrian Gaelscoil bat sortu zenean (B4, 10).

Eta irlandera hitz egiten zenien gazteak zirenean? (B4-I, 70).

Bai tira badakizu nolakoak diren gazteak zenbaitetan // gurasoek gauza bat izugarri gogoko izan eta paso egiten dute baina pixkaka-pixkaka urteak bete ahala burutsuagoak dira eta suposatzen dut ulertuko dutela / hizkuntzaren eta kulturaren esanahia bai (B4, 71).

8. HIZTUN BERRIEN IDEOLOGIAK GAELTACHT EREMUARI BURUZ

I Hitzun berrien ideologiekin eta identitateekin lotura duen material pila bat sortu da datuak biltzean, baina leku arrazoiengatik artikulu honek azpi gai batean jarriko du arreta osoa: hitzun berrien ideologiak *Gaeltacht* eremuko hizkerari eta hitzunei buruz. Parte hartzaile gehienek modu batean edo bestean *Gaeltacht* aipatu baldin bazuten ere, aldeko eta kontrako iritzia egon ziren *Gaeltacht* eremuko hizkera hitzun berrien xede aldaera izatearen legimitateari buruz.

8.1 *Gaeltacht* eremuko hitzunaren legimitatea

Datuetan behin baino gehiagotan ateratako gaia izan zen *Gaeltacht* eremuaren eta *Gaeltacht* eremuko hitzunek eredu linguistiko diren aldetik duten eginkizuna. Elkarrizketatu gehienentzat, *Gaeltacht* eremua haien kontzientziaren parte da eta *Gaeltacht* eremua bizirik mantentzeko beharra azpimarratu dute. Askok bertara joanak dira irlandera hobetzera eta irlandera eredu bat hartzera. Elkarrizketatuetako askok esplizituki lotu zuten irlandera ondo hitz egitea *Gaeltacht* eremukoa izatearekin. Horrekin batera, behera egin zuen hitzun berri bakoitzak irlandera hitz egiteko duen moduak. B12 hitzunak (25 urte, emakumezkoa) dio *Gaeltacht* eremuko jendeak benetako *blas*-a (doinua) duela, eta bere irlandera *saghas caighdeánach* dela dio (nahiko estandarra). Hitz egiteko bere moduarekin nahiko pozik badago ere, behar handia sumatzen du *Gaeltacht* eremuan boladaxo bat igarotzeko beste hitzun berri askok egin bezala. G15k (26 urte, gizonezkoa) *Gaeltacht* eremuko irlanderari

garrantzia ematen dio, iraganarekiko eta hitz egiteko benetako molde-arekiko lotura bat bezala ikusten baitu eremu hori. “Dublin” edo hiritar-rragoa den dialekto baten garrantzia behar baino gehiago nabarmen-tzearen kontra dago, eta azaltzen du zergatik:

Jendearen identitatean hautsi ez den tarte hori izatea nahiko garrantzitsua da // gure aurreko belaunaldiekin gure arbasoekin lotura bat dugula sentitzen du-gunontzat eta horrenbestez nahiko filosofikoa da eta ez nau asko kezkatzen egunerokoan baina hala ere em de facto lotura hori askoz baliotsuagoa da hautsi gabe baldin badago hautsita badago baino Man uhartean gertatu bezala adibidez (G15, 60).⁷

Baliteke *Gaeltacht* eremuko hizkera idealizatuta egotea baina, hala ere, hiztun berri askori beren aukeretatik kanpo dagoela edo ezin iritsizkoa dela iruditzen zaie. Hiztun berri askok *Gaeltacht* eremuko hizkeraren mailara iristeko ahaleginei buruz hitz egiten dutenean, adierazten dute uste dutela haien moldea ez dela inoiz izango tradizioz irlandera hitz egiten den herrialdeko tokietan hazitako norbaitena bezain “naturala”.

8.2 *Gaeltacht* eremuko hizkeraren legitimitatearen erronkak

G2 (29 urte, emakumezkoa) *Gaeltacht* eremuko hizkeratik gertu dagoen aldaera idiomatiko batean mintzo da eta jarrera anbigua du. Alde ba-tetik, lehentasuna ematen dio *Gaeltacht* eremuko hizkerari eta, horrez gain, ideologia garbizalea du, irlandera ingelesaren eraginez “garbi” mantentzearen ideiarekin aldekora baita. Hitz egin du, adibidez, irlandera irlandar mantentzeari buruz (*an Ghaelainn a choimeád Gaelach*) (G2, 106). Beste aldetik, ez du gustuko irlandera hiztun zaharraren “fetitxe” hori, eta aitortu du badakiela hiztun berria dela eta bere irlandera ez dela perfektua, baina harro dago ahalegin handia egiten ari delako bere jar-duna hobetzeko. Hiztun berri askok uste badute ere *Gaeltacht* eremua garrantzitsua dela hizkuntzaren etorkizunerako, aitortu dute errealitate soziolinguistiko berri bat sortzen ari dela tradizioz irlandera mintzo diren komunitateetatik kanpo, eta hiztun berriek beren burua ikusten dute hura eratzen laguntzen. Zenbait hiztun berriek aitortu izan dute *Gaeltacht* eremua, garrantzitsua bada ere, ez dela gaur egun irlandera mintzo den komunitatearen eredu bakarra, eta aintzat hartu beharko lirakeela “ikasleak” gehiengo baitira. Uste hori du B6 dublindarrak (45 urte, emakumezkoa) erdi landako eremu batera bizitzera joan eta alaba *Gaelscoil* batera bidali zuenak:

Hitz egitea niri bost LF badakit soinuak oso garrantzitsuak direla baina are garrantzitsuagoa da ahalegintzea ezta // Ez naiz Gaeltacht eremuko ez dakizu eta ez naiz inoiz ere ez han bizi izan Dublingo irlanderaz hitz egiten duen beste pertsona bat naiz (B6, 199).

8.3 Irlanderaren jabetza

Gaeltacht eremuari eta legitimitateari buruzko auziekin lotuta, irlanderraren jabetzari buruzko zenbait kontu izan ziren. Parte hartzaileei galdetu zitzaion ea irlanderaz beraien hizkuntzatzat zuten edo haren jabetza aldarrikatzen zuten. G20 (29 urte, emakumezkoa) irlanderraz hitz egiten hazi zen *Gaeltacht* eremutik kanpo. Irlandera bere lehen hizkuntza dela adierazten baldin badu ere, *Gaeltacht* eremuko hiztunen aldean legitimitatea falta zaiola uste du, haiek komunitate geografiko bat osatzen baitute eta, hortaz, irlandera “jabetzan” baitute berak duena baino gehiago:

Nire hizkuntza da bai baina em sentitzen dut / *Gaeltacht* eremuko jendeak nik baino gehiago / nik baino indar handiagoz duela berezkotzat (G20, 144)

Zergatik? (G20-I, 145)

Tira bada / bada *Gaeltacht* komunitate batekoak direlako edo irlanderraz mintzo den komunitate bateko kide direlako baina ni irlanderraz hitz egiten duen familia batean sortu nintzen ingelesez mintzo den komunitate baten barruan eta horregatik (G20, 146)

Beraz *Gaeltacht* eremuko hiztunek jabetza edo eskubide handiagoa dute hizkuntzaren gain? (G20-I, 147)

Ez dut uste eskubide handiagoa dutenik baina baliteke nik baino jabetza handiagoa izatea eta nik baino eskarmentu handiagoa dute baita ere irlanderraz bizi direlako bizitza osoan ni ez bezala (G20, 148)

9. LABURPENA ETA ONDORIOAK

I Txosten honek erakusten du hiztun berrien jatorri soziolinguistikoak era askotakoak direla, bai hazi diren familiari dagokionez, bai hezkuntza sistemaren esperientziari dagokionez ere. Gehienek ingelesa besterik ez dute izan etxean haztean eta eskolan ikasi dute irlanderraz. Nolanahi ere, badira gutxi batzuk familiako zenbait kideri irlanderraz entzun zitenak gaztaroan edo hazi egin direnak irlanderraz zertxobait egiten den

Txosten honek erakusten du hiztun berrien jatorri soziolinguistikoak era askotakoak direla, bai hazi diren familiari dagokionez, bai hezkuntza sistemaren esperientziari dagokionez ere. Gehienek ingelesa besterik ez dute izan etxean haztean eta eskolan ikasi dute irlanderraz.

***Ikerketak
erakusten du
irlanderarekin
izandako
hezkuntza
esperientzia
guztiak ez direla
negatiboak izan,
eta esperientzia
positiboek jendea
bultzatzen dezaketela
hiztun berri
bilakatzera.***

sendietan. Beste batzuek irlanderarekiko oso jarrera positiboak ikusi izan dituzte gurasoengan edo beste senide batzuegan. Gehienak ingelesez hitz egiten den ikastetxeetara joan dira baina askok esan dute irlanderako irakasle inspiratzaileak izan dituztela. Batzuk *Gaelscoileanna* edo *Gaelcholáistí* ikastetxeetara joan dira. Ikerketak erakusten du irlanderarekin izandako hezkuntza esperientzia guztiak ez direla negatiboak izan, eta esperientzia positiboek jendea bultzatzen dezaketela hiztun berri bilakatzera.

Hiztun berriek bizitzan izandako era askotako *mudes* edo inflexio puntuei buruz ere hitz egin dute, hau da, irlanderaren erabilerarekiko aldaketa nabarmena egin zuten uneei buruz. Aldaketa horien eragile ohi-koena *Gaeltacht* eremuko esperientzia izan da, hiztun berriek udan izan ohi zutena gazte garaian. Nolanahi ere, hizkuntza maila handia duten hiztun askok adierazi dute unibertsitatean emandako urteak oso garrantzitsuak izan direla harremanetan jarri baitira irlanderaz mintzo ohi diren beste pertsona batzuekin, eta aldaketa soziolinguistiko horrek *muda* bat eragin izan du sarritan. Identifikatu dira, baita ere, identitateari eta ideologiari lotutako eragileak, hala nazionalismo kulturala nola antiglobalizazioa.

Hiztun berrien artean, batzuek positiboki eta besteek negatiboki ebaluatu dute nork irlanderaz egiteko bere gaitasuna. Are, maila oso handia duten hiztun berri askok adierazi dute oraindik ere badutela ikasteko bidean daude ustea, eta naturaltasunez hitz egiten dutela uste badute ere, konfiantza falta dute beren buruan *Gaeltacht* eremuko hiztunekin alderatuta. Beste batzuk, ordea, ez daude hain kezkatuta beren hizkuntza mailarekin eta uste dute egokia dela beren behar profesional eta sozialetarako.

Hiztun berriek hainbat esparrutan erabiltzen dute irlanderaz, nahiz eta ingelesaren nagusitasuna arrisku gisa ikusten duten erabilera faltagatik haien gaitasunak kalte hartzearen beldur diren askok. Zenbaitek adierazi dute musika edo antzerkiaren moduko jardura kulturalen bitartez hasi zirela irlanderaz erabiltzen. Zenbait hiztun berriek etxekoekin erabiltzen dute irlanderaz, eta hori egitea haien ardura dela uste dute. Beste batzuek ez dute irlanderaz egiten etxean eta murgiltze hezkuntzaren esku uzten dute seme-alabei hizkuntza transmititzeko lana.

Gaeltacht eremua ia hiztun gehienek gogoan baldin badago ere, guztiek ez dute modu berean balioesten eremu horretako hizkera. Hiztun berri askok *Gaeltacht* eremuko hizkera hartzen dute xede aldaera legitimotzat, eta *Gaeltacht* eremuko hiztunak ereduakotzat dituzte. Beste batzuek adierazi dute nahiago dituztela hain tradizionalak ez diren irlanderaren

formak. Zenbait hiztun berrik sentitzen dute ez dutela irlandera jabetzan *Gaeltacht* eremuko hiztunek bezain beste.

Ondorioztatu da irlanderako hiztun berria izatea eta horri eustea jarrera ezegonkorra eta zalantzazkoa dela maiz, testuinguru soziolinguistikoaren eraginez alderantzika baitaiteke. Irlanderadunen sare sozialak ahulak izan ohi dira eta desegin ohi dira, hiztunak bizitza zikloan aurrera egin eta beste norabait joan baitaiteke bizitzera, lanpostuz alda baitezake edota familia edo harreman berriak sor baititzake. Hiztun berri bilakatzeko trantsizioa egiten duen jendearen kopurua nahiko txikia da eta hiztun berri horiek beraien helburuak bete ohi dituzte oztopo nabarmenak gaindituz. Gehiago ikertu beharko litzateke hiztun horien ideologiak eta identitateak eta irlanderaren etorkizuneko bilakaeran izan dezaketen eginkizuna hobeto ulertu ahal izateko. Bada hiztun berri izan daitekeen talde handi bat, irlanderaz hitz egin nahi duen arren oraindik ere *muda* gauzatu ez duena, baina oso gutxi dakigu hari buruz. Baliteke talde horretako zenbait kidek hizkuntza maila nahiko handia izatea, baina aukerak edo ausardia faltan dituzte hiztun berri bilakatzeko. Askoz gehiago ikertu beharko litzateke ulertzeko zergatik gertatzen den hori eta zer egin daitekeen hori konpontzeko.

ESKER ONA

Artikulu hau idazteko EBko COST sareko kideekin izandako eztabaidak hartu dira oinarri IS1306 *New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges*, baita artikulu honek berak oinarri duen datu multzo handiaren gainean Bernadette O'Rourke andrearekin elkarlanean egindako lana ere.

TRANSKRIPZIO PROTOKOLOA

[herriaren izena] ezabatutako tokiaren izena

LF barrea

/ etena

// eten laburra

↑ ahotsa goratzea

[...] ezabatutako materiala ●

OHARRAK

1. Editorearen oharra: *Gaeltacht* izena ematen zaio irlandera hitz egiten duten populazio-dentsitate handieneko eremu geografikoei. Eremu horietan irlandera lehen hizkuntza gisa eta egunerokotasunean mintzatu ohi da. Irlandako Galway, Mayo, Kerry, Cork, Warrterford eta Meath konderrietako mendebaldean kokatzen dira eremu horiek.

2. Ipar Irlandan ere hitz egiten da irlandera. Eremu horretan, irlanderaz hitz egiteko, irakurtzeko, idazteko eta ulertzeko gai direla adierazi dute 65,000 lagun inguruk, hots, herriarren ehuneko 4 inguruk (Ipar Irlandako Estatistika eta Ikerketa Agentzia 2012: 18).

**Hiztun berri
bilakatzeko
trantsizioa egiten
duen jendearen
kopurua nahiko
txikia da eta
hiztun berri
horiek beraien
helburuak bete
ohi dituzte
oztopo
nabarmenak
gaindituz.
Gehiago ikertu
beharko litzateke
hiztun horien
ideologiak eta
identitateak eta
irlanderaren
etorkizuneko
bilakaeran izan
dezaketen
eginkizuna
hobeto ulertu
ahal izateko.**

3. *Gaelscoil* (pl. *Gaelscoileanna*) Lehen Hezkuntzako ikastetxea esan nahi du. *Gaelscoil* (pl. *Gaelscoileanna*) Bigarren Hezkuntzako ikastetxea esan nahi du.
4. Aldaketa horiek *mudes* (singularrean *muda*) bezala deskribatu izan dira bibliografiako zenbait idazkitan. Hitz hori katalaneko *mudar* aditzetik dator, hau da, aldatu edo itxuraldatu. Katalanari buruz gehiago jakiteko, ikusi Pujolar & Puigdevall 2015. Euskarari buruz gehiago jakiteko, ikusi Ortega et al, 2015. Irlanderari buruz gehiago jakiteko, ikusi Walsh, 2017.
5. Kontzeptu horiei buruz gehiago jakiteko, ikusi dokumentu hau:
http://www.nspk.org.uk/images/downloads/CONCEPTUALISATIONS_OF_NEW_SPEAKERNESS_final.pdf
6. *Gaeltacht* hitzaren plurala, irlanderaz hitz egiten duten eskualde bat baino gehiagori egiten dio erreferentzia. Teknikoki, irlandera hitz egiten den lurralde guztiak aipatzeko erabiltzen den izen kolektiboa da *Gaeltacht*.
7. G15 hiztuna Ned Maddrelli buruz ari da, 1974. urtean zendu zena eta ezagun egin zena Manx dialektoaren azken hiztun zaharra izateagatik, Man uhartean hitz egiten zena eta irlanderarekin lotura handia zuena (Broderick, 1999).

ERREFERENTZIAK

- Broderick, G., 1999. *Language Death in the Isle of Man*. Tübingen: Niemeyer.
- Central Statistics Office. 2017. *Census 2016 Summary Results: Part 1*. Cork: Central Statistics Office. Hemen eskuragarri: <http://www.cso.ie/en/media/csoie/newsevents/documents/census2016summaryresultspart1/Census2016SummaryPart1.pdf>.
- Davies, A., 2003. *The native speaker: Myth and reality*. Clevedon, UK: Multilingual Matters.
- Mac Giolla Chríost, D., 2012. *The Irish Language, Symbolic Power and Political Violence in Northern Ireland, 1972-2008*. Cardiff: University of Wales Press.
- Maguire, G., 1992. 'Resilience and versatility in an urban Gaeltacht'. In: Ó Baoill, D.P. (ed.) *Insealbhuí na Gaeilge mar chéad teanga/Acquisition of Irish as a first language*. Dublin: Irish Association for Applied Linguistics, 43-53.
- Murtagh, L., 2003. *Retention and Attrition of Irish as a Second Language: A longitudinal study of general and communicative proficiency in Irish among second level school leavers and the influence of instructional background, language use and attitude/motivation variables*. Rijksuniversiteit Groningen, PhD thesis.
- Northern Ireland Statistics and Research Agency, 2012. *Census 2011: Key Statistics for Northern Ireland*. Hemen eskuragarri: <http://www.nisra.gov.uk/archive/census/2011/results/key-statistics/summary-report.pdf>.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urangu, B, 2015. "Hiztun berrien hizkuntza-identitatea" *International Journal of the Sociology of Language* 231: 85-105. Hemen eskuragarri: <http://www.degruyter.com/view/j/ijsl.2015.2015.issue-231/issue-files/ijsl.2015.2015.issue-231.xml>.

- Ó Béarra, F., 2009. 'An Ghaeilge Nua agus triall na Gaeilge' ['Irlandar berriak eta irlanderaren bidaia']. In: Mac Craith, M. & Ó Héalaí, P. (eds.) *Diasa Díograise: Aistí i gCuimhne ar Mháirtín Ó Briain*. Indreabhán: Cló Iar-Chonnacht, 257-276.
- Ó Catháin, B., 2001. 'Dearcadh an teangeolaí ar chomharthaí sóirt Ghaeilge an lae inniu' ['Egungo irlanderaren itxuraren aurean hizkuntzalariek duten jarrera']. *Ceist na Teanga: Léachtaí Cholm Cille XXXI* [Hizkuntzaren auzia]. Maynooth: An Sagart, 128-149.
- Ó Curnáin, B., 2007. *The Irish of Iorras Aithneach, Co. Galway* [4 ale]. Dublin: Institute for Advanced Studies.
- Ó Curnáin, B., 2009. 'Mionteangú na Gaeilge' ['Irlanderaren minorizazioa']. In: Ó Catháin, B. (ed.) *Sochtheangeolaíocht na Gaeilge: Léachtaí Cholm Cille XXXIX* [Irlanderaren soziolinguistika]. Maynooth: An Sagart, 90-153.
- Ó Curnáin, B., 2012. 'An Chanúineolaíocht' ['Dialektologia']. In: Ó hIfearnáin, T. & Ní Neachtain, M. (eds.) *An tSochtheangeolaíocht: Feidhm agus Tuairisc* [Soziolinguistika: funtzioa eta txostena]. Dublin: Cois Life, 83-110.
- Ó Dónaill, É., 2000. "'Tá sé suas duit féin": impleachtaí mheath na Gaeilge do mhúineadh na Teanga' ['Irlanderaren gainbeheraren eragina irlanderaren irakaskuntzaren gain']. In: Mac Mathúna, L., Mac Murchaidh, C. & Nic Eoin, M. (eds.) *Teanga, Pobal agus Réigiún: Aistí ar Chultúr na Gaeltachta Inniu* [Hizkuntza, komunitatea eta eskualdea: egungo Gaeltacht eremuaren kulturari buruzko idazkiak]. Dublin: Coiscéim, 48-63.
- Ó Duibhir, P., 2010. "'It's only a language." The attitudes and motivations of Irish-medium education students of the Irish language'. In: Hutchinson, W. & Ní Ríordáin, C. (eds.) *Language Issues: Ireland, France, Spain*. Brussels: Peter Lang.
- Ó Duibhir, P., 2011. "'I thought that we had good Irish": Irish immersion students' insights into their target language use'. In: Tedick, D., Christian, D. & Williams, T.F. (eds.) *Immersion Education: Practices, Policies, Possibilities*. Bristol: Multilingual Matters.
- Ó Giollagáin C. & Charlton, M., 2015. *Nuashonrú ar an Staidéar Cuimsitheach Teangeolaíoch ar Úsáid na Gaeilge sa Ghaeltacht: 2006-2011* [Gaeltacht eremuaren irlanderaren erabilerari buruzko ikerketa linguistiko osoaren eguneratzea]. Na Forbacha: Údarás na Gaeltachta.
- Ó Giollagáin, C., Mac Donnacha, S., Ní Chualáin, F., Ní Shéaghdha, A. & O'Brien, M., 2007. *Comprehensive Linguistic Report on the Use of Irish in the Gaeltacht*. Dublin: Stationery Office.

- Ó hÍfearnáin, T. & Ó Murchadha, N., 2011. 'The perception of Standard Irish as a prestige target variety'. In: T. Kristiansen & Coupland, N. (eds.), *Standard Languages in a Changing Europe*. Oslo: Novus Press, 97-104.
- Ó Murchú, H., (ed.) 2006. *Léargais: Pobail na Gaeilge 2006* [Ikuspuntuak: irlanderadun komunitateak 2006]. Dublin: Glór na nGael.
- Ó Murchú, H., 2007. 'Cur chun cinn na Gàidhlig agus na Gaeilge sa chathair' ['Hirian gaelikoa eta irlandarra sustatzen']. In: McLeod, W. (ed.) *Gàidhealtachdan Ùra/Nua-Ghaeltachtaí* [Gaeltacht Komunitate Berriak]. Edinburgh: University of Edinburgh, 5-18.
- Ó Riagáin, P. & Ó Gliasáin, M., 1979. *All-Irish Primary Schools in the Dublin Area: A sociological and spatial analysis of the impact of all-Irish schools on home and social use of Irish*. Dublin: Institiúid Teangeolaíochta Éireann.
- O'Rourke, B., 2011. 'Whose Language is it? Struggles for Language Ownership in an Irish Language Classroom'. *Journal of Language, Identity and Education*. 10 (5). 327-345.
- O'Rourke, B. & Ramallo, F., 2011. 'The native-non-native dichotomy in minority language contexts: comparisons between Irish and Galician'. *Language Problems & Language Planning* 35 (2), 139-159.
- O'Rourke, B. & Pujolar, J., 2013. 'From native speakers to "new speakers" – problematizing nativeness in language revitalization contexts'. *Histoire Épistémologie Langage* 35 (2), 47-67.
- O'Rourke, B. and Ramallo, F., 2013. 'Competing ideologies of linguistic authority amongst new speakers in contemporary Galicia'. *Language in Society*, 42, 287-305.
- O'Rourke, B., Pujolar, J., & Ramallo, F., 2015. 'New speakers of minority languages: the challenging opportunity – Foreword'. *International Journal of the Sociology of Language* 231: 1-20. Hemen eskuragarri: <http://www.degruyter.com/view/j/ijsl.2015.2015.issue-231/issue-files/ijsl.2015.2015.issue-231.xml>.
- O'Rourke, B. & Ramallo, F., 2015. 'Neofalantes as an active minority: understanding language practices and motivations for change amongst new speakers of Galician'. *International Journal of the Sociology of Language* 231: 147-165. Hemen eskuragarri: <http://www.degruyter.com/view/j/ijsl.2015.2015.issue-231/issue-files/ijsl.2015.2015.issue-231.xml>.
- O'Rourke, B. & Walsh, J., 2015. 'New speakers of Irish: shifting boundaries across time and space'. *International Journal of the Sociology of Language* 231: 63-83. Hemen eskuragarri: <http://www.degruyter.com/view/j/ijsl.2015.2015.issue-231/issue-files/ijsl.2015.2015.issue-231.xml>.

- Pujolar, J. & Puigdevall, M., 2015. 'Linguistic mudes: how to become a new speaker in Catalonia'. *International Journal of the Sociology of Language* 231: 167-187. Hemen eskuragarri: <http://www.degruyter.com/view/j/ijsl.2015.2015.issue-231/issue-files/ijsl.2015.2015.issue-231.xml>.
- Government of Ireland, 2010. *Straitéis 20 Bliain don Ghaeilge 2010-2030/20-Year Strategy for the Irish Language 2010-2030*. Dublin: Government of Ireland.
- Wagner, Heinrich. 1981 [1958]. *Linguistic Atlas and Survey of Irish Dialects* (Vol. 1, Introduction). Dublin: Dublin Institute of Advanced Studies.
- Walsh, C., 2007. *Cruinneas na Gaeilge scríofa sna hiar-bhunscoileanna lán-Ghaeilge i mBaile Átha Cliath* [Irlandera idatziaren zehaztasuna Dublingo Lehen Hezkuntzaren ondoko irlandera hutseko ikastetxeetan]. Dublin: COGG.
- Walsh, J., O'Rourke, B. & Rowland, H., 2015. *Research Report on New Speakers of Irish for Foras na Gaeilge*. Dublin: Foras na Gaeilge. Hemen eskuragarri: <http://www.forasnagaeilge.ie/research-report-on-new-irish-speakers-launched-at-oireachtas-na-samhna-2015/?lang=en>.
- Walsh, J., 2017. 'The role of emotions and positionality in the trajectories of "new speakers" of Irish'. *International Journal of Bilingualism*. Online argitaratuta uztailearen 28an.

Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila

Eduardo Apodaka

EHU/UPV- Euskal Herriko Unibertsitatea

eduardo.apodaka@ehu.eus

Jordi Morales

Soziologian Doktorea eta Sare Sozialen Ikertzailea

morales.jordi@gmail.com

Sarrera-data: 2017-09-03 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. Euskararen errealtate soziolinguistikoa ikertzeko lanetan erabili diren alderdi batzuen azterketa kritikoa aurkezten du artikulu honek. Zehatzago esan, aztertu diren alderdi horiek hiztun kategoriak eta hiztunen aitortzenak dira. Mapa eta Inkesta Soziolinguistikoko ofizialak aztertu dira kategoriak eta banakoen aitortzenak nola erabiltzen diren eta zein ondorio izan dezaketen Errealitate Soziolinguistikoa eraikitzekeo jardun eta politikan. Azterketa horren ondorioz defendatuko dugu ikerketa soziolinguistikoek kategoria identitarioak baztertu eta praktika linguistikoaren erregistro eta ebaluazio zehatz eta anitzak lehenetsi beharko lituzketela. Horrez gain, bestelako bideen berri eman nahi dugu eta proposamen metodologiko-epistemologikoak nondik jo dezakeen erakusteko asmoz, ikerketa bat aurkeztuko dugu: Getxoko Udalaren Twitter kontuetan euskararen erabileraren erregistroa. • **Hitz gakoak:** hiztun kategoriak, hiztunen aitortzak, hizkuntza-praktikak, inkestak, mapak.

Abstract. This article presents a criticism of certain aspects of studies of the sociolinguistic reality of Basques: speaker categories and speaker self-reports. Official sociolinguistic maps and surveys were analysed to find out how individuals' reports are used and what conclusions may be drawn in the practice of constructing a picture of sociolinguistic reality and in policy-making. On the basis of this analysis it will be argued that sociolinguistic studies should not be using categories of self-identification and should instead prioritize multiple, detailed records and evaluations of language behaviour. As an example of an alternative approach and a demonstration of our methodological and epistemological proposal, we will present a study of records of Basque language use in the Twitter accounts of Getxo Town Council. • **Key words:** speaker categories, speaker self-reports, language behaviour, surveys, linguistic maps.

SARRERA

I Euskararen ezagutza, erabilera eta hedadura ikertzeko erabili diren ildo batzuen oinarri metodologiko eta epistemologikoei buruzko gogoeta da artikulu honen ardatza. Azken helburua, berriz, ikerketa soziolinguistikoetan aldaketa baten aldeko proposamena lantzea eta sustatzea da. Labur esan, defendatu nahi dugu ikerketa soziolinguistikoek kategoria identitarioak baztertu eta praktika linguistikoen erregistro eta ebaluazio zehatz eta anitzak lehenetsi beharko lituzketela. Horretarako, bai Mapa bai Inkesta Soziolinguistiko ofizialak aztertu ditugu, batez ere kategoriak eta banakoen aitorpenak nola erabiltzen diren eta zein ondorio izan dezaketen Errealitate Soziolinguistikoa eraikitzeke jardun eta politikan. Azterketa hori azaltzeaz gain, bestelako bideen berri eman nahi dugu eta proposamen metodologiko eta epistemologikoak nondik jo dezakeen erakusteko asmoz, ikerketa bat aurkeztuko dugu: Getxoko Udaren Twitter kontuetan euskararen erabileraren erregistroa*.

1. ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAREN ERAIKUNTZA SOZIO-TEKNIKOAK

1.1 Estatistika, errealari neurria hartzen

Berger eta Luchmanek (1966) *errealitatearen eraikuntza sozialaren* teoria plazaratu zutenetik mota guztietako gaiei aplikatu zaie (Hacking, 1999). Dena eraikuntza soziala ote den askatu gabe utziko dugun korapiloda; hemen oso-oso soziala den errealitate-alderdi bati buruz arituko baikara: errealitate soziolinguistikoaren eraikuntzaz. Aztertu nahi dugu eraikuntza horretan jarduten duten jakintza moduek, alegia (ustezko) jakintza tekniko adituak eta (ustezko) jakintza amateur arruntek nola egiten duten lan hura eta langintza hartan nola eragiten dioten elkarri. Alabaina, gaia zabalegia izanda, jakintza teknikoaren azterketara bideratuko dugu honako lan hau, helburu zehatzagoa dugulako: jakintza horiek eraikitzeke tekniken eta metodoen efektuak zein izan daitezkeen kontuan hartuta, gogoeta egingo dugu oraingo estrategia epistemologiko eta metodologiko nagusiei buruz, haien efektu zenbait kritikatu ditugu eta euskara biziberritzeko egokiagoa deritzogun ikerketa-moldea aurkeztuko dugu.

Izan ere, ikerketa soziolinguistikoek eragin zuzena dute jendeak egoera soziolinguistikoaz pentsatzen (eta sentitzen eta egiten) duen guztian. Eta, beste aldetik ere, arrunt zabaldu diren ideiek, edota mugimendu ideologiko aktiboek defendatzen dituzten burubideek, eragin handia

Defendatuko dugu ikerketa soziolinguistikoek kategoria identitarioak baztertu eta praktika linguistikoen erregistro eta ebaluazio zehatz eta anitzak lehenetsi beharko lituzketela.

* Aurkezten dugun ikerketa hau 2017ko lehen hilabeteetan bukatu genuen. Ez dira, beraz, kontuan hartu 2017an argitaratu diren makro-ikerketa soziolinguistikoak. Hala ere, aztertutako gaiei dagokienez ez diegu ikerketa horiei aldaketa berezirik antzeman. Horregatik ere artikulua bere horretan argitaratzea hobetsi dugu.

**Ikerketa
soziolinguistikoek
eragin zuzena
dute jendeak
egoera
soziolinguisti-
koaz pentsatzen
(eta sentitzen eta
egiten) duen
guztian. Eta,
beste aldetik ere,
arrunt zabaldu
diren ideiek,
edota
mugimendu
ideologiko
aktiboek
defendatzen
dituzten
burubideek,
eragin handia
dute ikerketa
teknikoetan.**

dute ikerketa teknikoetan. Askotan, euren arteko egokitasuna eta bate-ratzea jotzen dugu egiaren seinale. Baina, eginkizun eta estatus sozial eta instituzional aldetik, oso diferenteak izaten dira. Ustez, jakintza tek-nikoak errealtatea bere horretan zein den esan behar digu, edo erreali-tatearen alderdi ilun eta ikusgaitzak agerian utzi. Jakintza arrunta, berriz, jokatzeari itsatsita doan ezagutza da, askotan bere burua ezagutzen ez duen ezagutza, baina praktikan eraginkorra den arrazoizko arrazoia. Bourdieuk maiz kontrajarri zituen biak, eta salatu zuen jakintza *docto* eta eskolastikoaren paralogismo edo faltsukeria zeritzona: metadiskur-tsoa diskurtsoaren jatorria dela uste izatea, alegia metapraktika prakti-karen jatorritzat jotzea (Bourdieu, 1994: 208). Hemen hartuko dugun ikuspegitik metapraktika aditua eta praktika aritua, oso logika desber-dinak izan arren, etengabe ari dira elkar kutsatzen eta elkar moldatzen.

Praktikaren jakintza arruntak eta metapraktikaren jakintza adituak, ja-kintza eta ekintzarako bi modu desberdinak badira ere, helburu berbera dute: askotariko gauza diferenteak bilduz, iraungo duten eta ekintzarako berme gisa erabili ahalko diren objektu sozialak muntatzea. Helburu hori lortzeko elkar sustengatzen dute; ontologia arruntek zientziari edo jakintza adituei bermea eskatzen dieten bitartean, jakintza adituek euren teknikak, diskurtsoak eta praktikak legitimatze aldera jendearen bizi-munduan erabilgarri eta eragingarriak direla erakutsi behar dute. Fi-nean, truke, transferentzia eta partekatze horiek dira objektu sozio-tek-nikoen berme ontologikoa: zenbat eta sare trinkoagoa izan, ordua eta egiazkotasun handiagoa izango du objektuak.

Gizartea eta gizarte gertaerak ulertzeko, jakintza arruntari bereziki era-gin dion jakintza tekniko bat dugu estatistika. Edo hobe esan, estatistika antolatu zenetik jakintza teknikoaren eta jakintza sozialaren arteko transferentzietan eta itzulpenetan truke askoren gaia izan da (Desrosiè-res, 2004a; Desrosières, 1989; Desrosières & Thevénot, 1988).

Estatistikak neurtzen dituen objektuak aldi berean izaten dira berez errealak eta konbentzioz egindakoak. Estatistikaren lanabesen bidez mundua deskribatzeko eta munduan esku hartzeko euskarri izango zaizkigun hainbat eta hainbat “sorkari” sortzen ditugu: errealak eta eraikiak dira (Desrosières, 2004a: 17). Hala, eguneroko pentsamenduan aurretiaz eraiki diren objektuak berezko objektu errealtzat jotzen ditugu, hala eginda aurkitu ditugulako eta hori delako arrazoizko eta zentzuz-koa. Baina, nola eraiki ditugu objektu horiek eta noraino behartzen di-tuzte gure errealtateak?

Desrosièrenen iritziz, objektu baten existentzia aldi berean da erregistro-eta kodetze-prozedura sozialen emaitza eta aniztasuna ezaugarri gutxi batzuetara murrizten duten prozedura kognitiboen emaitza (Desrosièren, 2004a: 26). Hala izanik, edozein objektu *askotarikoa* kodetzeko irizpideen arabera eraikitzen dugu eta irizpide horiek ezin dira bereizi ekintzatik eta erabileratik; baina objektu horiek muntatu eta ekintzan inskribaturik direnez geroztik iraun dezakete ekintzaren bermea direlako hain zuzen.

Estatistikan, analistak eraikitzen ditu aztertzen dituen komunitateak, klaseak, indizeak, tipologiak eta abar, haietan esku hartu ahal izateko, “ezagutzaren eta ekintzaren objektuak” diren aldetik, baina aldi berean *askotarikoa* erreala den alderdi bat bereizi, nabarmendu eta erregistratzen du. Eta beste aktore sozial askok bat egin dezakete alderdi horren errealitatea bereizi eta nabarmendu nahiarekin. Adibide arruntak dira langabezi tasa edota zahartze indizeak: horietara biltzen dira hainbat aldagai irizpide (politiko) batzuen arabera, behin hori eginda langabezia deritzogun errealitate bati kuantifikazioaren indarra ematen diogu. Neurgarria denez gero, muga zehatzak dituelarik, gertaera edo objektu gisa irudikatzeko behar duen materialtasuna lortzen du.

Esperientzia arrunteko jakintza sozialek oso iritzi desberdinak izan ditzakete langabeziari buruz (zer den langabetua izatea, zer indar duen erregistroak hori determinatzeko, zer jarduera den lana, eta abar) baina esku hartze politiko-estatistikoa erabaki behar da nola zenbatu eta nola gauzatu errealitate instituzional hura: langabeziaren erregistroan nor inskribatu. Askotan, erregistro eta ikerketa ofizialek talka egiten dute bizi-inguruan jasotzen dugun esperientziarekin, eta frikzioak izaten direnez irizpideak aldatzera jotzen dute erakundeek. Langabeziaren kasuan, esaterako, indizea bera arazo bihurtu zaie gobernuei: jendeak erreferentzia gisa erabiltzera ohitu eta gero, lan-politiken salaketa gogorrena bilakatu delako. Arazoari emandako erantzunak bi eratakoak izan daitezke; batetik, aldagaietan esku hartu daiteke lan-politika zehatzen bidez, bestetik, indizea eraikitzeko irizpideak aldatu edo bertan behera utzi. Gatazka eta frikzio kasuetan ikusten da hobekien bai langabezia eta bai langabeziaren tasa aldi berean direla administrazio eta ikerketen asma-kizunak eta lan-merkatuaren ondorio errealak. Eta halakoetan ezin hobeto aplikatu ahal da Goodharten legea, bere bertsio arruntenean: “When a measure becomes a target, it ceases to be a good measure”.

Gure gaitik hurbilago, Jacqueline Urlak, Nikolas Rose eta Peter Miller foucaultiarren arrastoan deskribatzen digu estatistika gobernamendu teknika politiko gisa (Urla, 2012: 112). Estatistika ez da bizitza soziala

Hala, eguneroko pentsamenduan aurretiaz eraiki diren objektuak berezko objektu errealtzat jotzen ditugu, hala eginda aurkitu ditugulako eta hori delako arrazoizko eta zentzuzkoa. Baina, nola eraiki ditugu objektu horiek eta noraino behartzen dituzte gure errealitateak?

**Diskurtso-
praktika gisa,
estatistika
diskurtsoak hiru
ezaugarri ditu
(Urla, 2012:
112): (1) ikuspegi
holista, edo
makroskopikoa,
bultzatzen du
(areago, ikuspegi
makroskopiko
legitimo bakarra
izatea lortzen
du); (2)
normalizatzailea
da (normala zer
den ezartzen du);
eta (3)
sailkapenak
eginez efektu
erabakigarriak
ditu
errealitatearen
eraikuntza
sozialean.**

irudikatzeko modu aditu bat, ez da hori soilik, edozein irudikatze ariketak bezala egia(zko) efektuak ditu¹. Hark dioenez, zenbakiak erretorika forma bat dira, pertsuaditzeko argudioak eta gobernamentu-teknika: hizkuntza, jakintza adituaren eta planifikazioen objektu bihurtzen duen lanabesa. Diskurtso-praktika gisa, estatistika diskurtsoak hiru ezaugarri ditu (Urla, 2012: 112): (1) ikuspegi holista, edo makroskopikoa, bultzatzen du (areago, ikuspegi makroskopiko legitimo bakarra izatea lortzen du); (2) normalizatzailea da (normala zer den ezartzen du); eta (3) sailkapenak eginez efektu erabakigarriak ditu errealitatearen eraikuntza sozialean. Horrela, errealitate soziolinguistikoa arrazionalizatzen du, konplexutasuna unitate bereizi eta zenbagarrien bidez sinplifikatzen du (eta Desrosièresek dioen moduan, unitate horiek baliokidetza-sareak sortuz alderatzen ditu). Eta horrela ere, hiztun talde homogeenak sortzen ditu (Arel, 2002). Labur, han sortzen da politikak artikulatzeko erak eta eztabaida publikoan erabiltzen diren kategoriak (Scott, 1998: 87-88).

Azken alderdi horretaz luzeago hitz egingo dugu aurrerago, bertan ikusten baitugu estatistikaren eragin handiena, gure irudimena eta gure adimena pizteko indarra izan baitu kategoria sozialen bidez. Eta horrela, dio Urlak, gobernatze-tresna bezainbat, erresistentzia tresna ere izan da. Urlak, ikuspegi foucaultiar batetik, estatistikaren dimentsio politikoa nabarmetzen duen eran, guk dimentsio *sozio-ontologikoa* nabarmendu nahi dugu. Ados gaude harekin: zenbakiak borroka-eremu sinbolikoan daude; eta borrokarako armak diren moduan, errealitate soziala eraikitze eta eraldatzeko baliabideak dira. Baina, horrexegatik ere, zenbakiak haiek erabiltzen dituztenen asmoen kontra doazen efektuak izan ditzakete.

Horrenbestez, estatistikan, eta jakintza teknikoaren beste metodoetan ere, analistek zuzen-zuzenean sortu ez duten *askotariko* sozial batean esku hartzen dute eta hartarako tresna eta ekinbide berezietan antolatzen eta muntatzen dituzte objektu estatistikoak². Jakintza sozialean ere bide beretik jotzen dute aktoreek: bizi behar duten *askotarikoan* zentzuzko erabakiak eta jokaerak izateko errealitate sozialak asmatzen eta antolatzen dituzte. Egoeraren deskripzioak, esaterako, erruz egiten ditugu ezagutza arruntean, zentzua ematen diguten narrazioak ehuntzen ditugu elkarrekin, eta zentzuzkoa da haietan nork bere jokaera bermatzea. Zientziaren ospea eta itzala hazi ahala, gero eta ziurragoa da diagnostiko eta narrazio horietan jakintza tekniko eta adituaren ekarpenak erabiltzea, tekno-zientzietatik datorren jakintza berme iraungarriagoa delako: metodo horiek objektibatze era ziurragoak direlako, eta ez objektiboagoak direlako (azken hau sinesten badugu ere). Kasu guztietan, hala ere, me-

todoak eta haien bidez sortutako objektuak, hala nola horietan oinarrituko diren ekinbideak eta esku hartzeen ebaluazioak, ez dira egiazen jakintza hutsaren argitan juzgatu behar: ekintzarako direnez, efektuei begira egin behar dira judizioak.

Desrosièresen tesiek diote maiz estatistikan eraikitzen diren jakintza-kategoriak, ekintza-kategoriak eta haien ebaluazioak egiteko neurketa-tresnak batera doazela, eta elkartze hartatik lortzen dutela irauteko indarra. Sinesteko arrazoi indartsuak ematen dizkigute metodo horiek, eta horregatik ere, ekiteko bide seguruagoa.

Funtsean, *gizartea pentsatzea-gizartean ekitea-gizartea deskribatzea* batera egiten dira, aldi bereko egintzak dira, elkar sustengatzen dutenak. Desrosièresek ematen dizkigun moduan: gizartea pentsatzeko erak (merkatua, auto-erregulazioa, sarea, lehia, gobernantza, kalitatea, zikloak, epeak, mugikortasuna...), ekiteko erak (sustapena, proiektua, berrikuntza, helburuak, juizioak, ondorioak, diagnostikoa, ebaluazioa, esku hartzea, praktika onak...) eta deskribatzeko lanabesak (erakusleak, tipologiak, maiztasun indizeak, behategiak, sintomak, sailkapenak, eskalak, panelak, simulazioak, tasak...) (Desrosières, 2004b: 11). Hiru arlo horiek *neurria* hitzaren inguruan batu ahal dira: errealtateko alderdi bat neurtzen dela, edo alderdi hura eraldatzeko neurriak hartzen direla, edo neurrien eraginkortasuna neurtzen dela, kasu guztietan neurriak dira jardunaren bide eta era. Jakintza-ikerketa-ekintza zirkuluan, neurriak hartzea eta egikaritzea etenik gabeko bira da.

1.2 Errealitate soziolinguistikoaren produkzio sistemak

Gure gaiari dagokionez, bi maila edo bi izari bereizten dira errealtatea eraikitze-lanean: (1) batetik, hizkuntzak erabiliz sortzen diren harremanak, elkarrekintzak, normak edota egiturak; horiek egituratzen dute, nolabait, errealtate soziolinguistikoa. Hizkuntza praktikak, azken finean, errealtate soziolinguistikoaren egituratze bideak dira, haren egitura eta euskarri erreala, nonbait. Eta (2), bestetik, jendeek horiei buruz dituzten pertzepzio, ezagutza edota iritzi eta balorazioak. Eta oso pizuzkoak eta errearen ezinbesteko osagaiak izanda ere, gain-geruza gisa ulertu ohi da izari hau, errearen gaineko geruza subjektibo eta partziala. Horrenbestez, ikerketa soziolinguistikoan bereiz aztertu ohi dira: alderdi objektiboa eta alderdi subjektiboa izango balira bezala.

Jakina, ikerlariak eta adituek objektibotzat jo nahi dute eurek sortu eta eratu duten ezagutza; beste maila batean geratuko da ez-adituek egu-

**Zenbakiak
borroka-eremu
sinbolikoan
daude; eta
borrokarako
armak diren
moduan,
errealitate
soziala
eraikitze eta
eraldatzeko
baliabideak dira.
Baina,
horrexegatik ere,
zenbakiak haiek
erabiltzen
dituztenen
asmoen kontra
doazen efektuak
izan ditzakete.**

**Hizkuntzen
egoera soziala
ikertzen denean
zeharka edo
zuzen maiz ikertu
da zein diren
hiztunen iritziak,
jarrerak, balioak,
diskurtsoak, eta
halako disposizio
psikosozialak.
Gutxiagotan,
berriz, zein den
hiztun haiek
euren
testuinguru
(sozio)linguistiko
ei buruz dituzten
pertzepzioak eta
nola eragiten
dieten euren
hizkuntza
praktikei.**

neroko elkarrekintzetan egin eta antolatu behar duten irudikapena. Hala ere, nekez bereizten dira eremu edo merkatu linguistikoen gorabeheretan eta beraietan dituzten efektuetan. Merkatu haietan ideologien, zientzien eta irudikapen sozialen produktuak hibridaturik aurkituko ditugu. Jakintza eta errealtatea eraikitze bide autonomoak eta mailakatuak izan ala ez, bai analisisian, bai diagnosi amateurrean, bai hiztunen bizipenetan, nahastuta agertzen dira, elkar sustengatzen eta bermatzen dutelako. Esan bezala, hiztun arruntek Zientziaren ikerketa teknikoen bermea bilatzen dutelako eta ikerlari adituek hiztunen praktika errealetan bermatu nahi dutelako euren jakintza. Interesgarriena, beraz, ez da zein den egiazkoagoa edo objektiboagoa eztabaidatzea; erreala *nahikara* sortzeko, eraldatzeko edota iraunarazteko, ditugun objektibatze, esku hartze eta ebaluatze bideek zein ondorio dituzten jakitea baizik. Bestaldekik, hizkuntzen egoera soziala ikertzen denean zeharka edo zuzen maiz ikertu da zein diren hiztunen iritziak, jarrerak, balioak, diskurtsoak, eta halako disposizio psikosozialak. Gutxiagotan, berriz, zein den hiztun haiek euren testuinguru (sozio)linguistikoei buruz dituzten pertzepzioak eta nola eragiten dieten euren hizkuntza praktikei. Baina, hizkuntza orotako kideek badute testuinguru linguistikoaren berri, badituzte errealtate sozio eta demolinguistikoaren zenbait datu eta badute horien gaineko iritzirik eta baloraziorik. Halabeharrez bertan jardun behar dutelako. Datu edo eza-gutza horiek, bistan da, ez dira soilik adituen ikerketen metodoen bidez lortu, bestela, bizibeharrez, lortu behar dituzte eta. Izan, lan hura lan soziala da: eguneroko berriketan eta solasaldietan sortu eta landu egiten den “egoerako definizio-diagnostiko-ebaluazioa”³.

Bistan da erabilerarekin batera beti doala ekintzan bertan inplikaturik, arauzko erabilerari buruzko gogoeta edo diskurtsoa. Hori dena areagotu eta handitu egiten da hizkuntza gutxitu eta bazterturen bat legitimatzeko prozesuetan. Baina dialektologian edo hizkeren eta erregistroen balio eta estatus sozialaren ikerketan kontuan hartu bada ere, hiztunen eza-gutza soziolinguistikoa ez da aski landu. Sinesmen eta irudikapen horiek, hala ere, elikatu dituzte txosten adituek⁴. Eta, jakina, ondorio erreala askoak izaten dituzte txosten horiek. Esan bezala, elkarri eragiten diote, batzuetan gurpil galgarri batean: eremu publikoan balekoa ez den hizkuntza, estatus baxukoa delako edo, zokoratzen badugu, gero eta gutxiago ikusi eta adituko dugu eta gero eta gehiago pentsatuko dugu inork gutxik hitz egiten duela hizkuntza hura. Ezaguna da prozesu hori hemengo bazterretan. Kontrara ere zerbait egin daiteke. Sortu ahal dugu, adibidez, erabilgarritasun eta erabilera irudirik, inpresiorik, pertzepzio-rik..., eta, batez ere, balioetsi ahal ditugu erabilera ezkutuak, apalak,

txikiak, eta horrela buelta eman baztertze eta desagertze prozesuari.

Horrenbestez, eta Bourdieuren terminoak (1982) erabilia: hiztunek badakite zein den hizkuntza-eremuan dauden joko eta lehiak eta zein diren hizkuntza-merkatuan dauden balioak eta kapitalak. Badakite edo, badute ideia bat, badute horri buruzko sentierarik. Eta, halaber, jakin dezakete haiek balioesten dutena beste merkatu batean purtzileria dela, eta egoera horiek guztiak aldakorrek direla.

Euskal Herriko herri askotan ez dugu galdetu behar zein den egoera edo errealtate soziolinguistikoa. Herrira ailegatzerakoan iragartzen digute “Hemen euskaraz bizi gara” edo “Hemen euskaraz bizi nahi dugu”. Taberna, denda edo administrazio publikoen bulego askotan ere iragarriko digute zein den, gutxi asko, hango egoera soziolinguistikoa. Deskripzioak eta preskripzioak dira, euskaraz egiteko aukera ageriko horiek atzean dute araua: euskaraz egin ahalik eta gehiena, euskaraz egiteko aukera guztiak baliatu, eta hemen, egoera definitu dugu euskarak balio objektiboa, estrukturala eta predeterminatua izan dezan.

Askotan definitzen diren egoerak mikroak dira, pertsona artekoak edo truke azkar eta aldi batekoak. Baina efektua berdina da. Ikurrak eta halakoak erabiliz pertzepzioak aldatu eta bestelako errealtate soziolinguistikoa eraiki nahi dute. Antzeko bidetik, hizkuntzaren bizitza soziala ikertzen dutenek metodo eta teknika berezien bidez bestelako errealtateak eraikitzen dituzte eta indartu eta sustatu ahal dituzte hiztunen errealtatea bera. Maiz, hala egiten da kontzeptu edo kategoria arruntak ikerketan erabiliz, edo gatazka sozialen ageriko logikak ikerketak diseinatzeko irizpide gisa hartuz. Eta horrela ere, eragin zuzen eta argia dute hiztunek “hizkuntza-eremuaz” (edo merkatuaz, edo hizkuntza-joko eta gatazka eremuaz) eta hango gorabeherari buruz dituzten eza-gutza eta iritzietan. Horregatik guztiagatik, oso arreta handia eman behar zaie bai ikerketaren bidez eraikitzen diren errealtateei, bai ikerketa haietan sustatzen eta bermatzen diren errealtate sozialei eta legitimatzen diren politikei.

2. KATEGORIAK ETA AITORPENAK ERREALITATE SOZIOLINGUISTIKOAREN PRODUKZIOAN

I

Planteatzen ari garen eztabaida epistemologiko eta metodologikoaren muinean galdera bat dugu: zein da errealtate soziolinguistikoaren unitatea? Unitatea diogunean errealtate horretan oinarritzko sorkari edo gertakaria esan nahi dugu, alegia, errealtatearen funtsezko osagaia. Errea-

***Dialektologian
edo hizkeren eta
erregistroen
balio eta estatus
sozialaren
ikerketan
kontuan hartu
bada ere,
hiztunen
ezagutza
soziolinguistikoa
ez da aski landu.
Sinesmen eta
irudikapen
horiek, hala ere,
elikatzen dituzte
txosten adituek .
Eta, jakina,
ondorio erreal
askoak izaten
dituzte txosten
horiek.***

Oso arreta handia eman behar zaie bai ikerketaren bidez eraikitzen diren errealitateei, bai ikerketa haietan sustatzen eta bermatzen diren errealitate sozialei eta legitimatzen diren politikiei.

litatea neurtu nahi dugunean zer hasiko gara zenbatzen? Izan, kontua ez da egiazko oinarria topatzea, baizik eta zehaztea errealitatea asmo jakinez eraikitzeko eta egia soziolinguistikoa produzitzeko, zein osagai behar dugun. Aukeran, batzuk ditugu: hiztunak (jende kategoriak edo tipoak...), hizkuntza-gaitasunak (zein, zein mailatan), jardunak (praktika jakinetako erabilera, bai eta jarduteko aukerak, jardute efektiboak, motak eta abar), jarrerak eta bestelako disposizioak (balioak, iritziak, irudikapenak, irudiak), eta azkenik, pertzepzioak eta hautemate marko zabalagoak (*framingak*, ideologiak, diskurtsoak...).

Esan bezala, balizko banako horiek eratu edo landu behar diren datuak dira, ez dira berezko gertaera gordinak. Eskuarki, neurketak hainbat unitate edo alderdi neurtzen saiatu dira, ez bakar bat. Baina garrantzia batera lerratu ohi da, besteak beste, unitate omen den hori *explanans* delakoaren osagai nagusia izaten delako. Neurketaren unitate nagusia zein izango den ebazteak baditu ondorio asko:

- Errealitate soziolinguistikoaren (ESL) eragileak gaitasunak direlakoan gaitasunak neurtzen dituenak neurketaren ondorioz lortu dituen datuetan esku hartu nahiko balu, haiek hobetzera bideratuko lituzke politikak, eta politikak ebaluatzeko berriro gaitasunak neurtu beharko lituzke. Bide horretatik, errealitatearen beste alderdi batzuk baztertu edo zokoratu litzake eta azkenean zalantza asko sortu litzake ikerketaren zioaz: gaitasunak ote ziren ikergaia, politiken emaitza ebaluatzea ote zen helburua, gaitasunak hobetze aldera egindako politikek gaitasunak edo horiek neurtzeko moduak aldatu ote dituzten eta abar.
- Antzera gertatzen da gaitasunak taxonomietan sailkatu eta kategoriak sortzen direnean. Kategoriak neurtzen dituenak, kategoriez antolatzen du ESLa eta haietan oinarritzen du ESLa eraldatzeko politikak (adibidez, categoria jakin bat indartuz). Ondorioz, politikak ebaluatzen dituelarik, ESLa kategoriez osatuta dagoelako ustea indartu lezake.
- Erabilerak neurtzen baditugu, berdin antzera gertatuko zaigu: erabilerak izango dira gure ESLaren osagai nagusia, haietara bideratuko ditugu politikak eta erabilera handitzeko politikak ebaluatuko ditugu.

Aurrekoa gutxitan da horren argia. Gehienetan nahasiriko joerak ditugu ikerketa eta politiketan. Baina horien bidez ezagutza soziala egituratzen dugun era berean, ESLa zehazten dugu. Hemen Victor Pichérekin bat egin genezake: “The main question is *which indicators for which objectives?*”

(Piché, 2015: 94). Neurtzeko unitatetik erakusle nagusiak ondorioztatuko direlako, noski. Eta unitate nagusia zein den ebaztearekin batera, horiek neurtzeko arazo metodologikoak ditugu. Esate baterako: zein da “*norberak hautemandako eta aitortutako erabilera*” neurtzearen ondorioa? Azaldu gisan, pertzepzioak neurtzen ditugunean, gertaerak edo jokaerak bainoago, pertzepzio-markoak neurtzen ditugu maiz (zein diren, nola erabiltzen ditugun eta zein garrantzia duten, adibidez; baina hori dena, jokaeratzat jo nahi dugu).

Horiek horrela, zein da euskararen ESLan eragina izan duten ikerketek erabili duten unitate nagusia? Ikerketa soziolinguistikoetan garai berri bat zabaldu omen zen erakunde autonomikoen bultzadaz; hizkuntza politikak, legeak eta planifikazioak abiarazi beharra zutela eta, ikerketa “handiak” egiteari ekin zioten. Horiek aztertuko ditugu. Ikuspegi makroskopikoa eman nahian, errealitate soziolinguistikoa kuantifikatzea eta kartografiatzea izan da ikerketa horien asmo nagusia, eta dagoeneko hiru hamarkadako bidea egina dute. Jacqueline Urlak horrela deskribatzen du bidai horren nondik norakoa:

“The normalization efforts of the last quarter century have produced, to borrow philosopher Ian Hacking’s phrase (1982), an “avalanche of numbers.” From the census and surveys of the early eighties to ever more rigorous quantifications of the “linguistic landscape” have come pages and pages of statistical surveys, pie charts, bar graphs, and percentages, telling us among other things **who** reads Basque, **who** can write it, **who** learned it at school, **who** learned it at home, how much it is spoken, and their demographic characteristics.” (Urla, 2012: 111).

Beltzez nabarmendu dugun hitzari erreparatu nahi diogu: *who*. Zerbait kuantifikatu bada, hiztunak izan dira. Eta haien bitartez, erabilerak edota gaitasunak. Baina haien bitartez. Oro har, beraz, bi ildo bereizi eta nabarmendu nahi ditugu ibilera horretan: (1) kategorien sustapena, eta harekin tipologiaren objektibazioa; eta (2) auto-azterketa, edota auto-aurrekeza. Bi ildo horiek gaingiroki aztertuko ditugu ondorengoan. Horretarako hautu bat egin dugu, Mapa Soziolinguistikoaren bidez aztertuko dugu kategorien sustapena eta Inkesta Soziolinguistikoaren bidez auto-azterketa.

2.1 Hizkuntza-gaitasunak eta kategoria identitarioak

Mapa eta Inkesta Soziolinguistikoetan kategoriak erruz erabili dira, kasu guztietan “gaitasunak” izan dira kategoria horiek antolatzeke al-

**Zein da
euskararen
ESLan eragina
izan duten
ikerketek erabili
duten unitate
nagusia?**

**Zerbait
kuantifikatu
bada, hiztunak
izan dira. Eta
haien bitartez,
erabilerak edota
gaitasunak.**

dagai baliokideak, haietan oinarri hartuta, tipoak sortu dira, gehienetan jakintza arrunteko tipoak, baina askotan ere, tipo bereziak edo jakintza soziolinguistiko arruntean arrotzak. Eta, adigarria da nola joan diren kategoria horiek ugaltzen eta finagoak, xeheagoak, egiten.

Estatistika guztien oinarri eta baldintza da *baliokidetza eremu* baten sorrera politiko eta kognitiboa. Estatistikak berak lagun dezake espazio hori antolatzen, baina historian usuagoa izan da estatu-politikek eta administrazio-erregistroek lan hura egin izana. Estatistika estatuaren gobernu-erreminta izan da gehienetan, berak ematen zuen bestela ezinezkoa zen begirada makroskopikoa eta globala (estatala eta estatistikoa, hain zuzen)⁵. Baina hori egin ahal izateko, aldagaiak baliokide gisa sortu behar izan ziren. Alegia, kasu singular, partikular eta banakoak aldagai batera murriztuz eta aldagai berekotzat joz, baliokideen sorta antolatu behar izan ziren. Kategoriak handik eratortzen ziren, edo askotan legez, hori eginda jakintza arrunteko kategoriei zientziaren berme eta legitimitatea ematen zitzaien, indar ontologiko bereziz segurtatzen zirelarik jakintza arruntaren eta teknikoaren arteko sarearen baitan.

Euskarari buruzko ikerketetan, berriz, estatu-administrazioek ez zuten baliokideen sorta antolatu⁶. Euskaltzaleen lan ideologikoa izan zen hura. Mogelek *Peru Abarkan* “iru euskaldun modu, prancesa, quiputza, ta bizcaitarra” elkartu zituen bezala, euskaltzaleek antolatu behar izan zuten euskal hiztunen arteko baliokidetza. Euskaraz hitz egitea aldagai bakarra zela ebatzea eta norbera (hiztun gisa, bederen) definitzeko erabakigarria izan zitekeela erabakitzea euskalgintza deritzogunaren eskutik etorri zen. *Baliokidetza eremua*, beraz, ondorio praktikoetarako irudikatu zen, euskara biziberritzeko diskurtso eta ekimenetan. Eta hiztun kategoriak nahiz hitz egiteko modu eta gaitasunak, hainbeste eta hain bestelakoak izanda, batzeko beharraz antolatu zen. Hala ere, batasun linguistikoaren ideia beti izan da eztabaida eta borroka gunea, eta horregatik ere, baliokidetza sailak sail bakar batera biltzeko ahaleginetan tematu da euskalgintza: alfabetatzea, euskalduntzea, hizkuntza estandarra egitea... Aha! legin horietan estatu baten gabezia agerikoa izan da; baita estatistikari balio orokorraren bermea aurrez ezartzeko orduan ere.

Ikerketa soziolinguistikoaren aurrekari zaharretan, Eliza katolikoaren erregistro eta inkestak ditugu. Euskararen kasuan, zaharrena 1587an egin zen herrien (eta hiztunen) erregistroa izan daiteke (Jimeno Jurio, 1997: 83). Trentoko Kontzilioan ezarri ziren ebangelizatze eta kontrol neurri berrien ondotik, Elizak egin zituen lehendabiziko horiek. Geroago, esan bezala, estatuek ez, zientziak hartu zuen lekukoa (Bonaparte

edo Brocaren mapak, esaterako). Eta zientziaren eskutik, euskalgintzak berak ekin zion euskaldunak eta euskararen erabilera zenbatzeari. Hasierako lanek berdintzen zuten euskaraz hitz egiteko gaitasuna, hitz egitea eta euskalduna izatea. Hirurak nahasten zituzten, hau da, herri-kategoriak bere egin zituzten, gehienetan “euskaldun” etiketaz laburturik⁷. Geroago, 70. hamarkadan, ezagutza-gaitasunari gehitu zioten bai erabilera, bai jarrera ere (Juaristi, 2013: 51).

Horrenbestez, estatu-administrazioek egin ez zuten lana, herri-ekimenez eginda zegoelarik hasi ziren ikerketa soziolinguistikoak. Kategoriak definituta zituzten hiztunek beraiek: euskaldun, erdaldun, euskaldun zaharra, euskaldun berri eta halakoak (hemen argitzerik ez dugun beste kontu bat da kontzeptu horiek, tipo horiek, nola sortu ziren).

2.1.1 Kategoriak Mapa Soziolinguistikoetan

Aurrekariak aurrekari, mapa linguistikoen ibilera 1981ean hasi zela esan daiteke⁸. Urte hartan, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, gaitasunari buruzko galdera bat sartu zen EAEko zentsuaren galdetegian (bost urte geroago, gauza bera egin zen Nafarroako erroldan). 1986ko datuekin argitaratu zen 1989an lehendabiziko mapa soziolinguistikoa: *Soziolinguistikazko Mapa*. 1986. *Urteko Erroldaren Araberako Euskal Autonomi Elkarteko Azterketa Demolinguistikoa*. Esan bezala, bertan jaso ziren biztanleriaren ama-hizkuntza eta hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak. Hurrengoetan bide beretik jo zuten eta 1991ko zentsuaren galdetegian, etxeko ohiko hizkuntzari buruzko galdetu zen⁹.

Hastapeneko kategoriak zuzen-zuzenean izan ziren herri-kategorien isla: euskaldun/erdaldun ardatzeko elebidunak eta elebakarrak. Bi komunitate bereizi gisa agertzen omen ziren: “two mutually exclusive linguistic communities” dio J. Urlak (Urla, 2012: 129). Erro sakoneko kategoriak ziren eta ordurako ere nekez uler zitezkeen soil-soilik kategoria linguistiko gisa. Baina ondo islatzen zuten gairako euskaldunen ikuspegi arrunt edo natiboa. Bidean aurrera egin ahala, kategoriak ugaltu eta sofistikatuagoak egin ziren, hori bai, identifikazio arruntetatik urrundu joan ziren, gaitasunak eta jardunetara hurbiltze aldera, baina jende-tipologiak egiteari utzi barik.

III Mapa Soziolinguistikoan (2005) egindako bideari argitasuna eman nahia, *Glosarioa* izeneko atal bat gehitu zuten egileek. Bertan EAEn 1981-2001eko tartean “azterketa soziolinguistikoan erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa” emateaz gain, Hizkuntza Politikarako Sailbu-

**Zientziaren
eskutik,
euskalgintzak
berak ekin zion
euskaldunak eta
euskararen
erabilera
zenbatzeari.
Hasierako lanek
berdintzen zuten
euskaraz hitz
egiteko
gaitasuna, hitz
egitea eta
euskalduna
izatea.**

**Geroago, 70.
hamarkadan,
ezagutza-
gaitasunari
gehitu zioten bai
erabilera, bai
jarrera ere.**

**BILA hizkuntza-
bilakaeraren
tipologia da,
zehatzago esan,
ama-hizkuntza
eta hizkuntza-
gaitasuna
neurtzeko erabili
ziren kategoriak
gurutzatuta
agertzen diren
tipoen bilduma
da.**

ruordetzak hizkuntza-gaitasunaren arabera egindako sailkapena azaltzen da. Berez, hizkuntza-trebetasunak gurutzatzen dituen tipologia bat da. Itxura batean, tipologia aditua eta neutroa gisa azaltzen zaigu: elebidunak, elebidun hartzaileak, eta erdaldun elebakarrak. Euskaldunak, beraz, bi taldetan agertu ziren, euskara hala moduz jakitea edota euskalduntzen ari zen jendea onetsi nahi izan balute bezala.

Sofistikazio eta teknifikazio maila igota, aurrekoarekin batera beste bi tipologia berezi aurkeztu zituzten: BILA eta ERABIL. Biak ala biak dira arestian aipatu ditugun produktu (objektu) estatistiko adituak: fabrikazio tekniko baten emaitzak eta errealitatea deskribatzeko eta antolatze bideak.

BILA hizkuntza-bilakaeraren tipologia da, zehatzago esan, *ama-hizkuntza* eta *hizkuntza-gaitasuna* neurtzeko erabili ziren kategoriak gurutzatuta agertzen diren tipoen bilduma da. Ama-hizkuntza dela eta, berriro agertzen dira jakintza arrunteko kategoriak (euskaldun zaharra, euskaldun berria, erdalduna...). Orotara, hamabost tipo agertzen baziren ere, zazpi baino ez ziren erabili azterketan; honako hauek: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak, partzialki erdaldunduak, guztiz erdaldunduak, euskaldun berriak, partzialki euskaldun berriak eta erdaldun zaharrak. Eragiketa, egia esan, ez da aski konplikatua, esaterako: *jatorrizko elebiduna* tipoa eratzen da *ama-hizkuntza biak* eta *bietan gaitasun ona* batuz.

Baina beste aldagai bat erantsi ahal zaie aurrekoei eta tipo gehiago sortu. Hala egin zuten ERABIL indizean. Kasurako, etxeko ohiko hizkuntza erantsi zioten BILAREN bertsio laburtuari. Eragiketa horrek eman zituen hogeita sei kategorietatik hamabost erabili ziren azterketan¹⁰.

2006ko Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikaren datuak IV. *Mapa Soziolinguistikoan* bildu ziren (2009)¹¹. Eta talde berriak agertu ziren: imigrazioari buruzko atal esanguratsu bat gehitu zioten Mapari, bertan immigranteak lau taldetan sailkatu zituzten (latinoamerikarrak, afrikarrak, europarrak eta besteak). Maila zehatzago batean estatu-jatorriaren arabera zenbaturik agertzen baziren ere (eta mapa soziolinguistiko bat izan arren) ez zen daturik ematen euren hizkuntzei buruz.

Mapa hark berrikuntza metodologiko bat ere ekarri zuen. Zentsuko datuak nahikoak ez zirelakoan edo, beste iturri batzuetako datuak jasoz atondu zen Mapa. Kontuan hartu zentsua derrigorrez erantzun behar den galdeketa ofizial baten emaitza dela. Galdera batzuk errazak eta “objektiboak” dira, beste batzuk ez. Galdeketa testuinguruan, euskarari buruzkoak nahiko aldrebesak dira. Galdetegiak hiru aukera baino ez ditu ematen euskaraz ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten al dugun

galderari erantzuteko: ondo, nekez edo ezer ez. Eta segituan beste bi galdera dakartza: (norberak) “zein hizkuntza erabili zuen lehen aldiz (hiru urte bete arte)?” eta “zein hizkuntza erabiltzen du gehien etxean?”¹².

Ez da harritzekoa, beraz, mapak beste iturri batzuen datuekin osatu izana. Beste iturri horiek, erregistroak gehienak, honako hauek izan ziren laugarren mapan: batetik, Hezkuntza Sailak jasotako selektibitatearen datuak, LOGSE tituluen eta hizkuntza-ikasketen tituluen erregistroak, eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskara modalitateko ikasleen kopuruak; bestetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bilduta, funtzionarioen euskara-ikasketak; eta azkenik, Helduen Alfabetatzeko eta Berreuskalduntzerako Erakundearen eskutik euskara ikasten ari ziren helduen matrikula kopuruak. Oro har, euskaraz edo euskara ikasten ari zirenen kopuruak izan ziren, beraz, bildutakoak. Ikasle horiek zein taldetan sartuko zituzten erabakitzeke erabili ziren irizpideak ez dira azaltzen Mapa Soziolinguistikoa. Hala ere, datuak ikusita ondorioztatu ahal da, esaterako, D ereduko ikasleek elebidunen taldea handitu zutela.

Horrela uler liteke nola, 2014ko V Mapa Soziolinguistikoa, Bilbon euskaraz ez dakiten gurasoek euskaraz dakiten seme-alabak hezi dituzten (35 / 50 urte tartetean dauden batez besteko euskaldun kopuruak ez dira %20tik pasatzen). Izan ere, 2011ko Maparen datuen arabera, Bilbon 15-19 adin tartean %60,4 dira *euskaldunak*, 10-14 tartean %75,3, eta 5-9 tartean %68,8. Baina, operazio hau borobiltzeko, gutxitzen doan kategoria bat diseinatu zuten ikerlariak: *erdaldunak* (*euskaldunak* eta *euskaldun hartzaileak* kategoriekin batera). Maparen arabera, aipatu ditugun adin tartetean Bilboko *erdaldunak* ez dira asko: 16,9, 6,7, 7,3, hurrenez hurren (V Mapa Soziolinguistikoa, 2014: 54). Bistan da, *euskaldunak* eta *euskaldun hartzaileak* ere *erdaldunak* dira Bilbon. Orduan, zer da egiaz irakurtzen ari garena? Eskola ereduak matrikulazio datuak. Eta oso datu onak dira, baina hori baino ez dira.

Dena den, horrela aurkeztuta, ez dakigu oso ondo zer irudikatu nahi den: Bilbo arin-arin ari dela euskalduntzen? Arazoa, kategorien joko horretan, eguneroko praktika soziolinguistikoekin talka egitean sortzen da. Demagun arazo epistemologiko eta metodologikoa baino ez dela, alegia, datuak hala aurkeztea aurreiritzi edo marko ideologiko batek metodoari eginiko kaltea dela. Marko hori honako hau dela esan genezake: euskarazko eredu batean ikasten ari denak hizkuntza-gaitasunak lortuko ditu, euskaraz dakienak euskaraz erabiliko du hartarako motibazio nahikoa badu, motibazioa euskaldunen arau pragmatiko nagusiak

2011ko Maparen datuen arabera, Bilbon 15-19 adin tartean %60,4 dira euskaldunak, 10-14 tartean %75,3, eta 5-9 tartean %68,8. Baina, operazio hau borobiltzeko, gutxitzen doan kategoria bat diseinatu zuten ikerlariak: erdaldunak (euskaldunak eta euskaldun hartzaileak kategoriekin batera). Maparen arabera, aipatu ditugun adin tartetean Bilboko erdaldunak ez dira asko: 16,9, 6,7, 7,3, hurrenez hurren (V Mapa Soziolinguistikoa, 2014: 54).

**Hasiera batean
hitz egiteko era
zein den
adieraziko zuen
euskaldun hitzak,
baina kontzeptua
irauli dela esan
liteke: euskaraz
egiten du =
euskalduna
esatetik
euskalduna =
euskaraz egiten
du uste izatera
pasa bagina
bezala.
Euskararen
egoera gaiztotu
ahala, baliabide
praktiko-
kognitiboa izan
zitekeena,
maxima morala
bilakatu zen:
euskalduna ez
zen izango
euskaraz hitz
egiten zuena,
euskaraz hitz
egin behar zuena
baizik.**

ekarriko du («euskaldunen artean, euskaraz»); beraz, euskaraz ikasten ari den orok euskaraz jakingo du, eta euskaraz dakienez motibatu beharko dugu. Hala gauzak, ikaskuntza eta motibazioa subjektibatzea, are eta psikologizatzea ere, oso erreza izaten da. Ondorioz, joera horiekin bat egiten duten politikak eta interbentzio publikoak legitimatzen dira eta hutsal edo bigarren mailakoak bilakatu beste batzuk.

Kasu honetan gainera, bi iturri mota ezberdin nahasi ziren, batetik inkesta modukoak (zentsua nagusia) eta bestetik aipatu erregistro horiek. Inkestetan aplikatzen diren eragiketa estatistikoen bidez eraikitzen diren kategoriak tipo analitikoak direla esan dezakete eta ez dutela pertsona talde bat zehazki izendatzen edo irudikatzen (tipo ideal weberiarrek direla gutxi asko, ez dira egiazko inor, jendarteko praktiken eta posizioen bilduma pertsonifikatuak nonbait). Baina, erregistroetan agertzen direnak pertsonak dira, edo nahi izatera, egoera eta testuinguru jakinetan pertsonak egindakoak. Esaterako, ikasle horiek guztiak pertsonak dira eta hemen tipoak handitzeko edo ahultzeko erabili dira, ez jardun jakin batera mugaturik (matrikulaziora edo ikastera, adibidez) baizik eta osorik, hiztunak diren aldetik. Baina zuzena al da ondorioztatze eta hedatze hura? Erdaldunak ere izan badirela erdi lausotuta, eta euskaldunak direla erabakita, ez al da jarduera jakin eta bakar baten gainean gehiegi eraiki nahi?

Estatistikaren magia da galdera sorta txiki batekin hainbat eta hainbat kategoria sortu eta berehalakoan jende tipoak bihurtzea. Jakina, tipo analitikoak dira. Ez dugu gure burua batekin edo bestearekin identifikatu behar, ez dugu gure burua sailkatzeko erabili behar, ezta egoera batean edo bestean zein den gure portaera etiketatzeko ere. Baina, halako magia batez, hizkuntza-gaitasunak, hizkuntza ikasteko modua, eta leku jakin bateko ohiko erabilera jende mota bihurtuta ematen dizkigutenez gero, errez jausi ahal gara aurreko tentazioetan.

Ikusten denez, sofistikatze teknikoaren itxuran edo, herri-kategorietatik abiatutako ibilerak kategoria praktiko horiek indartzera jotzen du. Tipoen bidez, beraz, hizkuntza-praktikak, egoerak, aukerak, komunikazio-testuinguruak eta komunikazio-harremanak jendearen ezaugarri bilakatzen dira. Eta egoerak eta praktikak anitz, askotariko eta nahasiak izanda, tipoak ere ugaltu beharko dira. Ustez, tipo horiek errealtatearen konplexutasun larria murrizteko eta, horrela ere, atzemateko modua emango digute. Beste kontu bat da analisirako lagungarriak diren eta diagnosirako eta interbentziorako zer nolako joko-eremua deskribatzen diguten.

Hiztunen kategorien sorreran logika kognitibo bat topatzen dugu, gutxi asko, euskaldun kategoriaren oinarrian dagoena. Hasiera batean hitz egiteko era zein den adieraziko zuen *euskaldun* hitzak, batez ere hizkuntza arteko egoeretan. Beraz, komunikaziorako hizkuntza gaitasuna (orokorrean) zehazteko bidea zen, baina kontzeptua irauli dela esan liteke: *euskaraz egiten du* = *euskalduna* esatetik *euskalduna* = *euskaraz egiten du* uste izatera pasa bagina bezala. Euskararen egoera gaiztotu ahala, baliabide praktiko-kognitiboa izan zitekeena, maxima morala bilakatu zen: euskalduna ez zen izango euskaraz hitz egiten zuena, euskaraz hitz egin behar zuena baizik. Euskaldunen artean euskaraz hitz egitea izango zen gizalegezko araua.

Gure ustez inbertsio hau hizkuntza biziberritzeko bitarteko garrantzitsua izan da; zeren eta inguruan predeterminazio objektiborik (soziala eta estrukturala) ez duen praktika sozialak disposizio subjektiboetan topatu behar baitu non ainguratu eta non bermatu. Alabaina, inbertsioa emanda gero, praktika ez da abiapuntua helburua baizik: orduan, euskalduna ez da “euskaraz egiten duena”, euskaraz “egin behar duena” baizik. Arau hau da euskararen erabilerarako maiz aurreikusten dugun baldintza bakarra. Eta horregatik ez da oso harrigarria euskarazko jardunak zenbatu beharrean, euskaldun eta hiztun motak zenbatzeari eman zaion nagusitasuna. Baina, hartan hainbat arazo topatzen ditugu, hiru gutxienez:

- Euskaldunek ez dute bakarka hitz egiten (beraz, kopuruak baino sareak eta antolakuntza sozialak, kontzentrazioak eta jardun-guneak neurtu eta sailkatu beharko genituzke);
- *Euskalduna* kategorian sartzen direnek hizkuntza-gaitasunak izanda ere, ez dute euskara erabiliko besterik gabe (egoeran-egoeran mota askotako aldagaiak hartu behar dituzte kontuan);
- *Euskalduna*, kategoria bihurtuta, zein kategoria mota da hiztunentzat: linguistikoa? etnikoa? politikoa? Hizkuntza erabiltzea ote da etiketa sozial hori lortzeko bide bakarra?

Labur esan, erabilera ez da bermatzen soil-soilik gaitasun linguistikoa lantzen: euskal hiztunek ez dute beti euskaraz egiten, ez dute beti euskaraz egiterik; eta askorentzat euskalduna ez da hizkuntza kategoria hutsa, ez da erabilera edo ohitura linguistikoen deskripzioa. Alderantziz izan behar duela pentsatzen dute beste askok: euskalduna denak euskaraz egingo du. Beharra du, araua halakoa da, beraz egin egingo du. Baina behar hau ez da linguistikoa, identitarioa da. Eta behar identita-

**Gehienek
euskaldun,
erdaldun eta
halako etiketen
karga linguistikoa
(garbi eta huts)
horri karga
etniko, politiko
edota
soziokultural
larriak eransten
dizkiote. Hori
baita kategorien
erabilera
praktikoa.
Hizkuntza
biziberritzea
ahalegin
ideologiko,
politiko eta
kulturala da, ez
soilik jarrerak
eta iritziak
sailean,
gaitasunak eta
kategoriak
asmatzean eta
zehaztean ere
bai.**

rioak, alegia, kategorien onura psikosozialak, beste modu askoren bidez lortu ahal dira aiseago.

Ikusten denez, kategoriak beraiek dira ikerketa soziolinguistikoaren alderdi garrantzitsua eta gure artean polemika gai bizia, baina ez horrenbeste ikergai (Szreter, Sholkamy eta Dharmalingam, 2004). Ez da ikertzen nola sortu, nola erabili eta zein efektuekin ibiltzen diren. Kategoria sozialak aldagai bat bereiziz, abstradituz eta isolatuz sortzen dira. Aldagai hori izaten da, jardun eta testuinguru praktikoetatik kanpo, kategorian sartuko dugun orori egotzi beharko diogun ezaugarria. Kategoria, talde gisa, beti izaten da biltzen dituen zernahikoak baino murriztagoa eta sinpleagoa¹³. Ikerketan ezin da pentsatu aldagai linguistikoa berez balio-kide-gakoa denik; ikerketak egindako operazio baten emaitza da hori. Eta, halaber, ezin da espero jendeek horrela hartuko dutenik. Gehienek euskaldun, erdaldun eta halako etiketen karga linguistikoa (garbi eta huts) horri karga etniko, politiko edota soziokultural larriak eransten dizkiote. Hori baita kategorien erabilera praktikoa. Hizkuntza biziberritzea ahalegin ideologiko, politiko eta kulturala da, ez soilik *jarrerak eta iritziak* sailean, gaitasunak eta kategoriak asmatzean eta zehaztean ere bai.

2.1.2 Norberaren aitortpen eta aurkezpenak Inkesta Soziolinguistikoetan

Bigarren ildo bati ekingo diogu esandakoaren arrastoan eta hura osatze aldera. Ohikoa izan den kritika metodologiko bat izango da ildo honen edukia: auto-azterketaren kritika. Horretarako Inkesta Soziolinguistikoak aztertuko ditugu¹⁴.

Inkesta gehienen helburuak hasieratik planteatu zirela esan dezakegu. Bigarreanean hauek aipatzen ziren berariaz: (1) hizkuntza-gaitasunaren bilakaera; (2) euskararen erabilera etxean, familiatik kanpoko gertuko komunitatean, lanean eta eremu formalean; (3) biztanleriaren interes eta jarreretan sakontzea; (4) familia bidezko transmisioari buruzko diagnosia egitea eta (5) euskaldun berrien erakarpena eta hizkuntza-jokabidea aztertzea.

Arlo horiei dagokien informazioa, beraz, hiztunei galdetuz, eta haiek aitortutakoak balekotzat jota, bildu eta analisi estatistikoaren bidez formalizatuz eta kuantifikatuz sortu da. Teknikak baditu bere ajeak, nahiko agerian: batetik, erabileraz, gaitasunez edo jarreraz galdetzen denean, egoera horretan aitortzaileek egokitzen dituzten kodeen bidez ematen diote galderari esanahia, haiek ulertzen dutenaren arabera erantzungo dute; eta

bestetik, egoera berezia da: aitorzailea bere burua (edota bere etxeakoak) aurkezten ari da ikerketa jakin baterako. Horiek horrela, zer ote da aitorzaileek ulertzen dutena eta zein egoeratan ari dira erantzuten?

Oso aspaldiko kezka izan da hau euskal soziolinguistikan. 1999an Iñaki Larrañagak inkesta ofizialeko hiztun kopuruen gorakadak piztu omen zuen euforiari muga jarri nahian idatzitako artikuluan zioenez, neurketa horiek errealtatetik aldentzen ziren, datu guztiak “autobalorazio subjektiboetatik” zetozelako. Berekiko galdetzen zuen ea zergatik Hizkuntz Politikako arduradunek ez zuten inoiz erabilera errealtaren azterketa egiten. “Errealtatea gordinegia delako ote?” (Larrañaga, 1999). Bide bereko kritikak ez dira gutxi izan. Adibide pare bat: inkestatuek erantzuteko errealtateari buruzko iritzi bat eraiki behar dute eta iritzi hartan nahiak, usteak eta halakoak sartzen dira (Amonarriz eta Joly, 2007); euskara jakitea oso desberdina da herri euskaldun bateko edo erdaldun bateko hiztunentzat, oso bizi-zen desberdinak izango dituzte euskararen erabileran (Joly, 2012: 108).

Azken puntu honi jarraikiz, oso agerikoa da Inkesta Soziolinguistikoetan hiztunek ez dutela euskararen erabilera espazio orokor batean neurtzen (hau da, ez dute erreferentzia-espazio bera), ez dituzte parametro berberak erabiltzen, ezta neurtzeko sistema berbera ere. Gutxienez, kontuan hartuko beharko genuke zein den euren inguruan hautematen eta bizi-tzen duten egoera soziolinguistikoa. Zein den, esaterako, bizi-inguruan duten euskara-erabilera.

Badirudi beharrezkoa dela aitorzailearen disposizioak eta bizi-ingurua abstraditzea baliokideen serieak sortzeko. Baina ez dugu ziurtatzerik gauza bera neurtzen ari garenik, ezta neurtze sistema bera erabiltzen ari garenik. Gauzak horrela, badirudi auto-neurketen neurketa egiten ari dela halakoetan; eta ondorioz, adituen sofistikazio metodologiko osoa amateurren metodo arrunten gainean altxatzen eta bermatzen dela. Jakina, amateurren irudikapenak ikertzea ez da ikerketa horien helburua; baina haietan oinarritzen dira¹⁵.

Auto-azterketaren gorabeherez gain, esan dugun bezala, ikerketa bera aitorzaileak bere burua aurkezteko jokoa bihur daiteke. Horrela, estrategikoki erakutsi edo aurkeztu ahal ditu eskaintzen zaizkion aukeretan hobesten dituenak edo egoera hartarako balioesten dituenak.

Hori dena oso begi bistakoa da kategorien erabileran (kategoriei dago-kienez, Mapetan ikusi duguna errepikatzen da Inkestetan). Labur esan, aitorzaileek ematen dute euren gaitasunen berri, horrekin ikerlarietipoak eraikitzen dituzte, eta inoiz ere, tipo horiek kategoria praktikoekin guru-

Oso agerikoa da Inkesta Soziolinguistikoe tan hiztunek ez dutela euskararen erabilera espazio orokor batean neurtzen (hau da, ez dute erreferentzia-espazio bera), ez dituzte parametro berberak erabiltzen, ezta neurtzeko sistema berbera ere.

**Baina zein izan
zen galderaren
terminoa: euskal
herritarra edo
euskalduna? Zein
hizkuntzatan
jaso da
informazio hori?
Inkestak ez du
datu hori
ematen. Baina,
erdaraz vasco
agertzen zen
bitartean,
euskaraz euskal
herritarra erabili
zen (erdaraz ez
zen erabili
ciudadana/o
vasca/o).**

tzatzen dituzte. Nor ari da kasu horietan kategorien esanahia definitzen? Adibide bat: II Inkestan (1997-1998) “nortasunaz” galdetu egin zuten, antza denez, hainbat aukera eman zitzaizen inkestatuei “nortasun autokategorizazioa” egin zezaten: euskal herritarra, espainola, frantsesa, euskal herritar bezain espainola eta halakoak. Ondorioak honako hauek dira:

“Hala ere, nortasunari dagozkion desberdintasunik handienak hizkuntza-gaitasunaren arabera dira (ez jaio-tokia) (...) hamar elebidunetik zazpik (%71) dute bere burua euskal herritartzat soilik; elebidun hartzaileen artean portzentaia erdira jaisten da (%36) eta bikoiztu euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dutenena (%25etik %55era). Azkenik, erdaldun elebazarren artean bere burua euskal herritartzat soilik dutenak zazpirena dira (%11), euskal herritar eta espainol edo frantsesetzat dutenen portzentaia mantendu egiten da (%56) eta oso egiten du gora bere burua espainol edo frantses soilik dutenen portzentaia (%22)” (II Inkestan, 1997-1998: 29).

Hemen, funtsean bakarra den arazo baten bi aurpegiak ditugu: batetik, euskara eta erdararen artean itzulpen desegokiak egitea, eta bestetik, kategorien esanahiak ez zehaztea. Inkestak dio elebidun gehienek *euskal herritartzat* dutela bere burua. Baina zein izan zen galderaren terminoa: *euskal herritarra* edo *euskalduna*? Zein hizkuntzatan jaso da informazio hori? Inkestak ez du datu hori ematen. Baina, erdaraz *vasco* agertzen zen bitartean, euskaraz *euskal herritarra* erabili zen (erdaraz ez zen erabili *ciudadana/o vasca/o*)¹⁶. Horrela ezin dugu jakin, *euskal herritar* hitzaren atzean zenbat *vasco* izan ziren. Baina, horretatik aparte, behin korrelazio hori eginda zer pentsatu behar dugu: hizkuntzak determinatzen duela identifikazio politikoa?

Gure ustez, kategorien esanahia eta zentzua ondo zehaztu behar dira diskurtsoei buruzko ikerketak eginez. Bestela eginez gero, ezin da baztertu erantzun horiek nork bere burua “identitate legitimoen merkatuan” kokatzeko ahaleginak ez izatea (eta ez da jakingo galderek ez ote duten merkatu hura indartzen edo eraldatzen). Izan, kategorio horiek ez dira termino adituak, praktikaren kategoriak dira, jendeak bere eguneroko bizitzan erabiltzen dituen kategoriak. Ez da oso zuzena, horiek zehaztu barik, halako korrelazioak egitea. Are gehiago, tranpa metodologikoak egin ahal dizkiogu geure buruari: Inkestak ematen dizkigun datuetan badirudi bi aldagai (linguistiko, politiko, identitario ...) neurtu beharrean aldagai bera ari zirela neurtzen, alegia, aldagaiak, praktikaren kategoriak diren aldetik, bat eta ez bi direla¹⁷. Kategorien adiera ez da norberaren hautu subjektibo hutsa, jendartean eraikitzen eta erabiltzen ari diren diskurtsoen eragina baizik.

Hautu subjektiboetan edota banakatutako informazioetan oinarritzeak Pelloren egiak diruditen ondorioetara garamatzate askotan. Ikusi dugu aurrekoan, nola identifikazioa banakatzen den eta nola hautu subjektibo hutsera mugatzen den edota nola ahazten den aitortzaileek euren diskurtso eta kodeak dituztela, eta ez dutela derrigorrez bat egingo ikerketaren diseinuarekin (ez dutela, labur esan, kategoria linguistikoa eta politikoa zertan bereizi). Baina banakatzeko badiu arrisku gehiago. Nabariena agian, banakoen erantzunetan oinarritzen diren inkestetan oso ohikoa den eta guk *Txinako miraria* deritzoguna izan daiteke: munduko hizkuntza-gaitasunak ikertuko bagenitu, jendeei banaka galdetuta, eta ondoren lortutako datuak norberaren bizitokiarekin gurutzatuko bagenitu ikusiko genuke txineraz dakiten gehienak Txinan bizi direla. Nola azaldu mirari estatistiko hau? Pentsatuko ote du inork kasualitatez batu direla Txinan? Edo bertan elkartzea deliberatu dutela txinerako hiztunek? Jakin badakigu alderantziz ulertu behar dela. Izan ere, has tapena ez da hiztuna (oro har, ez da banakoa), ez praktikan, ez ikerketan, inguru soziolinguistikoa baizik.

Horrenbestez, unitatea hiztunak (eta hiztunaren aitortpenak) badira halako operazio eta interpretazio bitxiak egin daitezke. Abiapuntua ingurune sozialik gabeko hiztuna bada, pentsa liteke erabilera hautu subjektiboa dela eta hautu horri inguruneak eragiten diola. Inkesta soziolinguistikoko batean ingurunetik abiatzen ez bagara, ingurunea behin eta berriro agertuko zaigu atzeko atetik. Ezin da ahaztu edo baztertu euskara erabiltzea jokaera soziala dela, inguru sozial jakinetan egiten dena, beste hiztunekin egiten dena, elkarrekintzetako jardunetan egiten dena. Hala ere, 2011ko Inkestan irakurtzen dugu euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak harreman-sarean dagoen euskaldunen dentsitatea eta euskaraz egiteko erraztasuna direla (beste hauek ere aipatzen ditu: lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa) (V Inkesta Soziolinguistikoa, 2013: 116). Labur esan, zenbat eta euskaldun gehiago harremanetan, orduan eta euskara gehiago aurkituko dugu, eta ondorioz ere, zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta euskaldun gehiago harremanetan. Arazoa da, errealtate sozial baten alderdiak bere testuinguru praktikotik erauzi eta banakatu ostean, objektu estatistikoak egiteko berriro biltzean eta korrelatiboak direla ikustean, korrelazio horiek fenomeno desberdinen eraginak direla interpretatzea¹⁸.

Jakina, zentsuak eta erroldak Modernitatean banakoak zenbatzeko, aletzeko eta antolatzekeo asmatu ziren. Estatu modernoan gobernamendu

**Zentsuak eta
erroldak
Modernitatean
banakoak
zenbatzeko,
aletzeko eta
antolatzekeo
asmatu ziren.
Estatu
modernoan
gobernamendu
teknologiak diren
aldetik, banakoa
eta osotasuna
izan dituzte beti
aztergai eta xede.**

**Horrez gain,
dakigunari
begirada
makroskopiko
tekniko eta
adituaren
legitimazioa
eransten
diogunean,
jakintza
legitimatzeaz
gain, uste ohi
dugu eragiteko
ahalmen
handiagoa izango
dugula. Baina,
gaur egun, eragin
tresna horien
lekuan
harremanak eta
jokaerak
erregistratzeko
teknologia eta
metodo berriak
agertzen ari dira,
eta eragiteko
moduak erabat
iraultzen
(kasurik
aipagarriena,
jakina, big data
deritzona da).**

teknologiak diren aldetik, banakoa eta osotasuna izan dituzte beti aztergai eta xede. Behar horien eraginpean ari gara, nonbait. Horrez gain, dakigunari begirada makroskopiko tekniko eta adituaren legitimazioa eransten diogunean, jakintza legitimatzeaz gain, uste ohi dugu eragiteko ahalmen handiagoa izango dugula. Baina, gaur egun, eragin tresna horien lekuan harremanak eta jokaerak erregistratzeko teknologia eta metodo berriak agertzen ari dira, eta eragiteko moduak erabat iraultzen (kasurik aipagarriena, jakina, *big data* deritzona da).

2.2 Bestelako helburuak, bestelako ikerketak

2.2.1 Kezka zantzuak

Kategoria eta auto-aitorpenetan oinarritutako ikerketak kolapso egoera batera heltzen ari direla susmatzen dugu. Bestela esan, ikerketa sozio-linguistiko hauek bidea urratu bainoago, bidea ixten dutelako susmoa zabaltzen ari dela iruditzen zaigu. Badirudi ez digutela ondo azaltzen zergatik ez den euskararen erabilera hiztunen kopurua hazi ahala hazten. Itxura hutsa izan daiteke gabezi hori. Agian, hiztunen kopurua ez da esan bezala hazi, edo hiztun horiek isolaturik eta sakabanaturik bizi dira, edo euskaldunen kontzentrazio handiko sareak xare-xare egiten ari dira, edo. Arrazoiak arrazoi, oro har, esan liteke ohiko mapa eta inkestekin mesfidantza zabaltzen ari dela. Usuago ari da korritzen *euskaldun errealak* kartografiatzeko eta zenbatzeko eskaera. Eskaera haren muina, azken buruan, zera da: erabilera praktikoa (ohikoa eta eroso, bestela naturala deritzona) ez dela orain arteko metodo eta ikerlanetan ondo hartzen, ezta ematen ere¹⁹.

Baina honetan guztian nabarmendu nahi dugu ikerketa-logika horien ondorioz, egiten ari diren interbentzio eta efektuak zein izan daitezkeen. Gaitasunak galdetuta, hiztunak zenbatzen dituenak hiztunak ugaltzeko politikak eta interbentzioak egiteko beharra sumatu dezake eta hiztunak zenbatzen ebaluatuko ditu ekimen horiek. Eta, oso egoera soziolinguitiko ezberdinetan bizi direnen pertzepzio subjektiboen bidez erabilera neurtzen bada, hizkuntza-praktikak ugaltzeko ekimenak egiturazko eragileetatik banakoen dispozizioetara desbideratzeko joera nagusitu daiteke.

Hala ere, euskara biziberritzeak erabilera du helburu, euskara normaltzea hura bizi-jarioan ohikoa eta erosoa egitea den aldetik. Horri ofizialtasunaren estatusa gehituz gero, argi dago hizkuntza politikei erabilera sustatzea eskatu behar zaiela. Hori hainbat xedetan zehazten da: erabiltzeko aukera, gune eta moduak zabaltzea eta bermatzea, erabilera

predeterminaturako dispositiboak, edo gutxienik, euskara erabiltzeko probabilitatea (*ergo* ahalmena) handitzea. Bestela esan, helburuak ez luke izan behar *euskara dakien jendea, subjektiboki hartarako motibatua*, bai- zik eta *euskaraz egiten diren jarduerak eta horretarako aukera objektiboak*.

Ikerketen eta interbentzioen helburua erabilera sustatzea bada, ikerketa-gaia *euskaraz egiten diren jarduerak eta horretarako aukera objektiboak* beharko lukete. Horrela jakin eta zehaztu genezake bai erabilera prede- terminaturako dispositiboak zein diren, bai tokian-tokian zeinetan in- terbenitu behar den. Izan ere, praktikak testuinguru jakinetan neurtu, zehaztu eta ebaluatu behar dira: praktika linguistikoak praktika sozialak direla ahaztu barik, jende artekoak eta tokian tokikoak.

Erabilera “efektiboa” neurtzea izan daiteke beste bidea. Alegia, erabilera edo praktika inkesten bidez neurtu barik, erregistratu eta handik balio- kideen serieak eta aldikako ebaluazioak sortu. Horrez gain, erabilera efektiboa erregistratzen eta alderatzen denean, zeharka bainoago, zu- zenean neurtzen eta ebaluatzen dira erabiltzeko aukerak eta politikak. Horrela, ez litzateke zuzen-zuzenean deskargatuko hiztunen gainean erabileraren “kausa” (hizkuntza bat erabiltzea borondatzeko kontu bat izango balitz bezala).

2.2.2 Praktikak neurtu, ebaluatu eta ulertu

Bestelako errealitate soziolinguistikoa eraikitzeko bestelako ikerketa- metodoak behar ditugu. Eta izan baditugu. Baditugu praktika linguis- tikoak zuzenean neurtzen dituztenak, eta praktika horiek gehiago izan daitezen beharrezko neurriak zein diren zehazten saiatzen direnak, baita bide hartan aurrera egiten den ebaluatzen dutenak ere.

Ezagunena Kale Neurketa da (Altuna eta Basurto, 2013). Iñaki Larraña- gak, Siadeco-ko ikerlariak, proposatu zuen metodologia hau, hain zuzen, erabilpen erreala neurtzeko²⁰. Ez da arazo gabeko metodoa, baina bertute batzuk ditu gure hemengo ikuspuntutik. Metodo gisa zailtasunik edo arazorik handiena, berriro ere, serieak egite aldera aniztasuna mugatu eta askotariko aldeak berdindu beharra da. Kasu honetan, baliokidetzat jo eta gero alderatuko diren aldagaiak kaleko hizkuntza-praktikak di- renez, asko dira kontrolatu (eta baztertu) beharreko eragileak. Baina, halakoetan gertatu ohi denez, arazo handiena behaketa eta erregistro egin behar duten jendeen eta erregistro-uneen aniztasuna bera da. Se- rietan topatu daitekeen aldea askotan ez da aldaketa errealaren ondorioa, baizik eta ikerlarien arteko aldeen ondorioa. Beraz, hiztunen subjekti-

**Baditugu
praktika
linguistikoak
zuzenean
neurtzen
dituztenak, eta
praktika horiek
gehiago izan
daitezen
beharrezko
neurriak zein
diren zehazten
saiatzen direnak,
baita bide hartan
aurrera egiten
den ebaluatzen
dutenak ere.**

**Hiztunen
subjektibotasuna
gainditzen dela
egia bada ere
hein batean
subjektibotasuna
eta
aldakortasuna
ikerlarien aldera
igaro daitezke.**

botasuna gainditzen dela egia bada ere hein batean subjektibotasuna eta aldakortasuna ikerlarien aldera igaro daitezke²¹. Arazo metodologiko honi aurre egiteko ikerlariak ondo trebatu behar dira eta erregistroak ahalik eta berdinen egin behar dira. Ez da erreza kalean bertan egiten den erregistro batean.

Datu-bilketako arazoei gehitzen zaie lortutako emaitzetatik estrapolarazioak egiteko nahia. Oro har, alderaketa kuantitatiboetan tentazio induktiboak baztertu beharko lirateke. Kasurako, kale neurketan neurtzen denarekin konformatu, edota serieak mamitsuagoak egin erregistro-uneak ugalduz eta praktiken zentzua zehaztuz (adibidez, etnografia intentsiboak eta egoerari lotuagoak eginez²²). Alabaina, erregistroak, berez, badu nahikoa baliorik. Ez da datu-bilketa hutsala, esate baterako, 2011ko Euskal Herriko Kale Neurketan 154.277 elkarriketa eta 363.616 hiztun erregistratu ziren. Horrek badu zentzurik hizkuntzaren erabilerari buruzko jakintzan. Eta metodoa hobetzen da erregistro horiek testuinguru jakin eta zehatzetan eginez gero, hau da, praktika kopuru osoa erregistratzeko aukera ematen digutenetan.

Hala eta guztiz ere, metodo honen bertute nagusia, gure ustez, azterketako unitatea bera da. Kale neurketaren bidez elkarriketak neurtzen dira: elkar hizketak, bistan da: “Kaleko erabileraz ari garela, elkarriketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarriketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean)” (Altuna eta Basurto, 2013: 74). Kalean egiten diren elkarriketen erregistroak dira kale-neurketak; horrela, beraz, baztertzen da bai auto-txostena eta aitortzak, ez zaio inori eskatzen bere hizkuntza-gaitasunak aztertu eta aitortu ditzan, ezta hizkuntzen erabileraren kontu eman dezan ere. Eta gainera, oso kontuan hartzen da erabilera ororen ezinbesteko markoa jendarte dela eta horrenbestez ere, ikerketarako abiapuntua jendarte-eremua dela eta ez hiztun soila.

Kale neurketaz gain, beste erregistro mota asko izan ditugu, beharra sumatu baita behin baino gehiagotan, honako hauek esaterako (zerrenda osatu gabea da, adibide sorta bat baino ez):

- Produktu jakinen erregistroak egin dira. Adibidez, euskal liburgintzan aski ezagunak diren Joan Mari Torrealdairen lanak edota ikerketa bibliometriko zenbait (Artetxe, 2011)
- Testuinguruan euskararen ikusgarritasuna zein presentzia estatiko edo inerteza neurtu dituzten paisaia linguistikoari buruzko ikerketak: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2006-2007 urteetan, EAEko eremu publikoan zein pribatuan egindakoa, edota Donostiako Udal

Patronatuak Donostiako hizkuntza paisaiatz eginikoa (Cenoz eta Durk, 2008; Aiestaran, Cenoz eta Gorter, 2010; Gorter eta beste, 2012).

- Euskarazko eskaintzaren adierazleak biltzeko *Euskaini* egitasmoa. Potentzial handikoa baina guztiz garatu eta finkatu gabeko egitasmo honen baitan hainbat herritan neurtu da euskarazko eskaintza publikoa (Altuna eta Suberbiola, 2003)²³.

- Eta adibide zerrenda partzial hau ixteko, kontuan hartu behar ditugu komunikazio eta harreman esparru berezietako praktikak neurtzen dituzten lanak. Horietan nabarmendu nahi ditugu Internet eta sare sozialak praktikak neurtzeko egin direnak (Sagarna, 2003; Aizpurua, 2010; Petxarroman, 2016), batez ere, UMAPen ekarpenak²⁴ eta rankingak²⁵.

Kasu guztiak jo ditzakegu praktika linguistikoen erregistrotzat: batzuk erregistro hutsa izatetik besteak baino hurbilago egonik, jakina. Batzuetan, produktuak edo produkzioa neurtu arren, produktuaren inguruko praktika hartu ahal da kontuan (hau da, produktua egiteko edo erabiltzeko jardunak). Beste batzuetan, zuzenean praktikak zenbatu beharrean, testuingurua eta harreman zein praktikaren harreman komunikatiboak izan daitezke aztergai. Horrela edo hala izan, badugu nondik jo praktikei zuzenean eragitea helburu duten politikak sustatu nahi izanez gero. Badugu praktiken politikak sustatzeko, neurtzeko, ebaluatzeko ikerketa eredurik. Errealitate Soziolinguistikoa eraikuntza praktiketan oinarrituz gero, praktiketara bideratu behar dira neurriak: ikerketa-neurriak eta ekite-neurriak. Esan bezala, alderdi kuantitatiboa eta kualitatiboa jorratu behar dira. Kualitatiboak esango digu zein den praktika baten zentzua, bere inguruan, bere jokoan, bere horretan. Hori arizale edo jarduleekin ikertu beharra dago, maiz haien esanahi partikular eta zentzu bizi eta oharkabeetatik abiatuta. Arlo kuantitatiboan, berriz, honako bi ezaugarri hauek betetzen dituzten erregistroak lehenesten ditugu: (1) praktika jakin bat bere testuinguru edo praktika-eremuan ikeretzea (denbora, espazio, harreman edota praktika irizpideek mugaturiko esparrua) eta (2) eremu horietako kasu guztiak kontuan hartzea, egoki eta beharrezkotzat jo diren ezaugarriak barne.

3. ERREGISTRO BAT ETA HAREN ERABILERA: EUSKARA GETXOKO UDALAREN TWITTER KONTUETAN

I

3.1 Komunikazio-praktika bereizien erregistroak

Orain arte esandakoa adibide praktikoa batez osatu nahi dugu. Gutxi asko tesi nagusia bat aldeztu nahi izan dugu: (jende) kategoriak neurtu eta ebaluatu beharrean, (hizkuntza) praktikak neurtu eta ebaluatu behar

Arlo

kuantitatiboan, berriz, honako bi ezaugarri hauek betetzen dituzten erregistroak lehenesten ditugu: (1) praktika jakin bat bere testuinguru edo praktika-eremuan ikeretzea (denbora, espazio, harreman edota praktika irizpideek mugaturiko esparrua) eta (2) eremu horietako kasu guztiak kontuan hartzea.

**Asko salatu da
IKT berriak
kontrol- eta
zapaltze-
teknologiak
direla, askatze-
teknologia ezin
eragingarriagoak
direla
aldarrikatu den
bezainbeste.
Hemen hizkuntza
gutxituak
biziberritze
aldera eraman
nahi ditugu
kontrol- eta
menderatze-
ahalmenak.**

dira. Bestela esan, gure iritziz errealitate soziolinguistikoa eraldatzen lagunduko diguten ikerlanek hizkuntza praktiketara jo behar dute eta praktiketara eragiteko politikak ebaluatu behar dituzte.

Tesiaren eredu praktiko bat emate aldera, kasu azterketa bat aurkeztuko dugu. Ikerlan apal bat baino ez da, baina zuzen-zuzenean hizkuntza-praktiken erregistroei buruzko analisia izaki, aurrekoan defendatu dugun ikuspegi epistemologiko eta metodologikoarekin bat egiten duena. Horrenbestez, praktika-eremu jakin bateko erregistroa eta analisia ariketa bat aurkeztuko dugu, zuzenean hizkuntza-praktikak neurtu eta ebaluatzeko ariketa bat.

Ikerlana Sare Sozialen Analisisian (SSA) oinarritu zen. Ikergaia Getxoko Udalaren *Twitter* kontuetako euskararen erabilera izan zen²⁶. Horretarako, 2015eko urriaren 25etik abenduaren 31era arte, Getxoko Udalaren *Twitter*-eko kontu ofizialetatik igorritako edota haietara bidalitako mezuak monitorizatu genituen. Helburu hirukoitza izan zuen ikerketak: (1) hizkuntza praktikak atzematea, (2) euskarazko mezuak zein bidetatik eta zein esparrutan hedatzen ziren identifikatzea, eta (3) etorkizunean, euskararen erabilera handitzeko, aliatuak izan daitezkeen kontuak zein ziren zehaztea.

Ikerketaren eremua zertan hautatu zen eta zein ezaugarri dituen arin azalduko dugu. Batetik, *Twitter*. Bistan da sare sozial telematikoak eremu sozial bereziak direla: sarbide berezikoak direlako, dispositibo bereziak behar dituelako, edota jarduteko logika bereziak ezartzen dituelako. Horregatik ez dugu bizitza sozial zabalaren isla edo ordezkotzat jotzen. Aitzitik, berezko jardute eremu sozial bat da eta han gertatzen dena bertakoa da; gizarte bizitzan txertaturik egonda ere, ezin da partea osoaren ordezkotzat hartu. Ezaugarriak bereziak omen ditu: gazteak dira erabiltzaile gehienak, ikasmaila altuagokoak... Hala izanik, galdeztzekoa da lurralde emankorra den euskarazko praktikentzat. Alde horretatik, errealitate soziolinguistikoaren ordezkoa edo adierazle ziurra izan barik ere, praktika-eremu esanguratsua izan daitekeela uste dugu. Horrez gain, metodologikoki abantaila handia du. Erreza da eremua zehaztea eta han gertatzen den guztia monitorizatzea, alegia, erregistratu ahal dira praktika guztiak eta errez jakin nor den eta norekin modu batean edo bestean ari dena.

Asko salatu da IKT berriak kontrol- eta zapaltze-teknologiak direla, askatze-teknologia ezin eragingarriagoak direla aldarrikatu den bezainbeste. Hemen hizkuntza gutxituak biziberritze aldera eraman nahi ditugu kontrol- eta menderatze-ahalmenak. Hori dela eta, kontuan hartu behar

dugu praktika minorizatuak bere burua legitimatzen dutela ikusgarri egiten diren neurrian, batez ere, espazio publiko eta zabaletan. Twitter, alde horretatik, begirada makro eta mikroa nahasten dituen teknologia da; baina zaila da erabiltzaile batentzat berak ehuntzen dituen sareei buruzko begirada makroskopikoa lortzea. UMAPen arrastoan, beraz, honelako ikerketek sustatze-politikak antolatze baliabideak emateaz gain, ikusgarritasun zabala eman ahal diete euskarazko praktikei.

Bestetik, Getxoko udal kontuak hautatu genituen. Getxon, Zuberogoitia anaien iritziz, “elkarlana ipar” izan dute Udalak eta euskalgintzako elkarte eta taldeek, alegia, aspaldi hasi zen Getxon euskara biziberritzeko ahalegina eta gehienetan elkarlanean aritu dira Udala eta herriko euskalgintza antolatua, egonkortasunez garatu den ekimen ildo batean²⁷. Beste herri askotan bezala Getxon ere euskararen ezagutza maila erabilera mailaren gainetik agertzen da datu soziolinguistiko ofizialetan²⁸, eta beste herri askotan bezala Getxon ere euskaltzaleek elkartzera eta antolatuzera jo dute euskara erabiltzeko aukerak eta guneak sortu eta hedatu asmotan. Baina, ikerketan ez dugu euskalgintza antolatuaren lana neurtu, baizik eta Udalaren zerbitzu baten aurrean jendeak dituen erantzunak, zein nolako erabilera egiten duen zerbitzu hartaz eta, zehazkiago, zein diren Udalak euskara erabiltzen duenean jendeak dituen erantzunak.

Pentsatzekoa da legeek, arau-markoek, araudiek, erabilera-protokoloek edo plan ofizialek eragin zuzen-zuzena izango dutela Twitter-eko kontu ofizialetan. Beti ez da horrela. Alabaina, gure asmo nagusia ez da izan udal praktika ofizialak ebaluatzea, praktika horiek jendearen aldetik zein erantzun duten baizik. Zergatik? Uste dugu, euskara biziberritu, edo besterik gabe, hizkuntza ofizialen parekotasuna sustatu nahi duten politikek oinarria praktiketan behar dutela. Are gehiago, erakundeek euren jarduna ebaluatzen dutenean arau-markoak edota politika jakinak errespetatzen dituzten ebaluatzeaz gain, jendearen praktika bera hartu behar dute kontua. Bestela esan, praktikak eraldatzeko politikak neurtzean jakin behar da (jendearen) praktikak politika horien norabidean zenbat aldatu diren.

3.2 Getxoko Udalaren Twitter-eko sare sozialen analisia

Esan bezala, 2015eko urriaren 25etik abenduaren 31ra arte Getxoko Udalaren Twitter-eko kontuetatik igorritako edota haietara bidalitako mezu guzti-guztiak monitorizatu eta atzitu genituen. Kontuak honako hauek izan ziren: @bibgetxo (udal liburutegikoa), @getxogazte (gazte-entzako argibideak), @getxokirolak (kirola zerbitzuko), @getxokirolberri (kirola taldeei buruzko berriak), eta @getxoweb (orokorra).


Baina, ikerketan ez dugu euskalgintza antolatuaren lana neurtu, baizik eta Udalaren zerbitzu baten aurrean jendeak dituen erantzunak.

**Lehenengo
urratsa, beraz,
hizkuntzak
zenbat erabili
diren neurtzea
izan da, eta
kontuetan nahiz
haietatik
sortutako
komunitateetan
euskararen
erabilera
zenbatekoa izan
den alderatzea.**

Datuen tratamendurako tweet bakoitzaren hizkuntza identifikatu genuen (hartarako, *Google Spreadsheets* erabili genuen, baina bereizketa ondo zegoela ikuskatu genuen banan-banan). SSArako baliagarria izango zen datu-base bat sortzeko, lau kategoriatan sailkatu genituen txioak, mezua ulertzeko hizkuntza nagusia eta beharrezkoa zein zen kontuan harturik: gaztelerazkoak (osorik gazteleraz, edo zentzu osoa ulertzeko gaztelera jakin beharrekoak), euskarazkoak (berdin), ele bita-koak (bai euskara, bai gaztelera jakin beharra zutenak, ulertuko baziren), gainerakoak (ingelesaz eta beste hizkuntzetan). Hala eginda, datu-ba-sean hizkuntza ez zegoen erabiltzaileei loturik, baizik eta komunika-zio-praktikei. Azkenik, sare analisia egiteko, *Gephi* softwarea erabili genuen (doanekoa eta irekia).

Goazen, bada, ikerketaren emaitzak aurkeztera. Jasotako eta igorritako mezuak kontuan hartuta, kontuek oso txio bolumen ezberdinak sortu zituzten, histograman ikus daitekeenez (1. Irudia).

1. irudia: Mezuen bolumena (iturria: egileak)




Desberdintasun esanguratsuak egon ziren, beraz. Kirolari lotutako kontuak izan ziren aktiboenak. Getxoweb kontu orokorra den aldetik eta denetariko argibideak eskaintzen dituen aldetik, aritze handia izatea aurreikustekoa zen, eta, era berean, zerbitzu berezikoak (gazteentzakoa edo liburutegikoa) apalago ibiliko zirela.

Hizkuntza-praktika neurtu eta aztertzeko, frekuentzia edo maiztasu-naren arabera antolatu ahal dira datuak. Horrela, bada, kontuetan eta oro har komunitate horietan, gazteleraz, euskaraz, ele bitan edo beste hizkuntza batean ibili diren mezuen kopurua zein den zehaztuko dugu.


Lehenengo urratsa, beraz, hizkuntzak zenbat erabili diren neurtzea izan da, eta kontuetan nahiz haietatik sortutako komunitateetan euskararen erabilera zenbatekoa izan den alderatzea.

2. irudia kontuek erabilitako hizkuntza (egileak)



Kontu ofizialetan hizkuntza-praktika gehienak erdaraz egin dira (asmo politikoa hizkuntzen parekotasuna izan arren), eta handik eragin diren erantzun eta beste jardun gehien-gehienak ere erdaraz izan dira: erdara hazi egin da komunitatean.

3. irudia: komunitateak erabilitako hizkuntza (egileak)



Grafikoetan ikus daitekeenez, kontu ofizialetan hizkuntza-praktika gehienak erdaraz egin dira (asmo politikoa hizkuntzen parekotasuna izan arren), eta handik eragin diren erantzun eta beste jardun gehien-gehienak ere erdaraz izan dira: erdara hazi egin da komunitatean (i.e. @bibgetxo: %72,66-%77,30; @getxokirolak: %69,65-%74,22; @getxoweb: %52,75-%79,66). Kontu horietako komunitateek, euren birtxio eta inter-


pelazioen bidez, laguntzen dute euskararen presentzia gero eta txikiagoa izan dadin, eta horrela hasieratik bertatik izan duen presentzia murrizta are eta murriztagoa egiten.

Salbuespen nabari bat dago, hala ere: @getxogazte. Kasu honetan, kontuak igorritako mezuetan erdarazkoak %58,49 baldin badira ere, audentziak hedatu dituen mezuetan euskarazkoak %44,74 dira. Hau da, bestalde ere, mezuetan gaztelera eta euskara ez diren beste hizkuntzak gehien erabiltzen dituen komunitatea (%23,68). Antzeko joera ikusten dugu @getxokirolberri kontuarekin harremanak dituen komunitatean, han praktika elebidunak egitera joera apal bat ageri baita (13,98%). Ondorioz gaztelera azko mezuen inpaktua gutxiagotzen da (%86,54-%61,29).

Ikerketaren hurrengo urratsa, Sare Sozialen Analisia da (SSA). SSA aztertze soziologiko eta balioztatze enpirikorako metodologia bat da. Haren bitartez, banako edo taldeen arteko elkarrekintzak behatu ditzakegu eta horrela ere harreman horietan formazio edo eraketa sozialak nola agertzen diren ikusi. Analisia grafoetan irudikatzen da. Grafoek adierazten dute zein diren hautatutako kontuaren inguruko elkarriketak, eta eratu edo saretu ziren komunitateak.

Kontu guztien grafoak erakutsi beharrean, salbuespentzat jo dugun *getxogazterena* baino ez dugu ekarri hona (4, 5, 6, irudiak). Haietan agertzen den nodo edo lotune bakoitza Twitter kontu bati dagokio, eta ertzak erabiltzaileen arteko aipamenei²⁹. Nodoen tamaina aipamenei arabera da: zenbat eta aipamen gehiago, orduan eta handiagoak. Marrez bildutako komunitateek eta nodoen kokapenek elkarriketako azpi-komunitateak erakusten dizkigute. Hainbat nodo etiketatu ditugu sarea hobeto ulertzeko. Adibidez, @gaztegunaleioa eta @gaztebizz kontuek elkarriketa berberetan jardun dute aldi berean @getxogazte aipatzen zutelarik. Nabarmendu ez ditugun komunitateetako nodoek, berriz, elkarrekintzan jardun dute @getxogazterekin, baina ez euren artean; hau da, @getxogazte kontuarekin bakoitzak duen harremana da kontu horiek biltzen dituen.


4. irudia: @getxogazte kontuaren komunitatea




Euskarazko ertzak gutxiago izan arren, badakigu ezarri ziren komunikazioen kopurua handiagoa dela. Hemen ere etiketatu ditugu hizkuntza batean eta ez bestean jarduteko joera duten kontuak, horrela hizkuntza praktiken sareak ditugu.

Hurrengo grafoetan euskaraz eta erdaraz egindako interpelazioak ikus daitezke (5. eta 6. irudiak hurrenez hurren). Euskarazko ertzak gutxiago izan arren, badakigu ezarri ziren komunikazioen kopurua handiagoa dela. Hemen ere etiketatu ditugu hizkuntza batean eta ez bestean jarduteko joera duten kontuak, horrela hizkuntza praktiken sareak ditugu (i.e. aisialdiko talde eta gazte elkarteek euskaraz aritzeko joera dute, erdara nagusitzen da udala eta banakoen arteko komunikazioan, erakunde artekoan eta Getxo enpresa munduan). Informazio hau euskara sustatzeko abiapuntua da. Horrez gain, euskararen erabilera handitzeko eta komunikazio ildoak zehazteko orduan jakingarria da sarearen egitura zein den jakitea. Alde horretatik, kontu batzuk, kokapen estrategikoa dute: *getxogazte* (kontu askorekin elkarlotzeko ahalmen handia dutelako), *kulturleioa* eta *ukgaztea*.

5. irudia: @getxogazte kontuaren euskarazko sarea.



6. irudia: @getxogazte kontuaren erdarazko sarea.



3.3 Nola erabili erregistroa

Esan bezala, aurkeztu dugun ikerketatxo honen helburua ez da zehazki Getxoko Udalaren Twitter-en kudeaketa, ezta haren hizkuntza-politika ere. Baina ikerketa eginda, eta ondorio itxirik gabe, hainbat ohar egin daitezke erregistroa zertan erabili daitekeen erakuste aldera:

- Erakundearen aldetik euskarak sostengu eta sustapen argirik izan ezean komunikazio praktikak kasik osorik erdaraz egiten dira.
- Erakundearen aldetik hala-holako sostengurik izaten denean ere (i.e. *getxoweb* kontuak mezuen %42,68 euskaraz egin ditu) komunitatean erabat gailentzen da erdarazko jarduna. Salbuespen nabaria, *getxogazte* izan da. Eta oso esanguratsua deritzogu salbuespen horri.
- Getxoko Udalaren kontu ofizialetan euskara bultzatu eta sustatu ahal da, besterik gabe, euskarazko mezuak hedatzen laguntzen duten kontuekin harremanak ugalduz, harreman horiek lehenetsiz (i.e. birtxiokatuz, erantzunak emanez, e.a.) eta horretan erakundearen sostengua handituz.

Azkenik, ohar orokor bat egin nahiko genuke Twitter-i buruz: zaila izaten da Twitter-en ikuspegi zabala izatea, baina mezu eta jardun jario horiek, ezarian, ari dira Udalaren irudia eraikitzen. Twitter ez da soilik hedatze edo informatzeko bide bat (eta alderdi horretan, hizkuntza ofizialak parekotasunez erabiltzea komeni liteke), Twitter bada ere komunitateak sortzeko tresna bat eta erakundearen irudia zein ospea sortzeko eta hobetzeko bide bat, eta horrez gain, hainbat politikatan (euskararen erabileran, arrazismoaren kontrako jardunean edota genero berdintasunean, esaterako) eragiteko baliabide ezin hobe.

Ikerketa honek erregistro moduan zentzurik izan dezan, aldian-aldian errepikatu beharko litzateke eta beste erregistro batzuekin osatu (esaterako: zenbat euskarazko liburu eskatzen dira udal liburutegia, zenbat ikastaro egiten dira euskaraz udal kiroldegietan, zenbat kontsulta auzotarrak artatzeko zerbitzuetan, eta abar). Erregistro horien helburuak beti izan beharko luke politiken ebaluazioa: neurriak neurtu eraginkorrak diren ala ez jakiteko. Hitz gutxitan, neurtu neurriak hartzeko. Baina osatu beharko lirateke praktiken zentzuari buruzko ikerketa etnografikoekin. Kasu honetan, ikertu beharko litzateke erabiltzaileek zer zentzurik antzematen dieten euren hizkuntza praktikei, zein den hizkuntza bat edo beste hautatzeko zentzuzko arauak eta zein diren hautaketa horietan dituzten aukerak eta oztopoak.

Hori dena egin dugun hautu epistemologikoaren baitan: hiztunei bere buruari egotzitako gaitasunen edota praktiken neurketa eskatzeari uztea,

Erakundearen aldetik euskarak sostengu eta sustapen argirik izan ezean komunikazio praktikak kasik osorik erdaraz egiten dira.

Erakundearen aldetik hala-holako sostengurik izaten denean ere.

**Ikerketa honek
erregistro
moduan
zentzurik izan
dezan, aldian-
aldian errepikatu
beharko litzateke
eta beste
erregistro
batzuekin osatu.**

hiztunak auto-egozpen horien arabera kategorizatzeari uztea, eta horren ordeaz, euskaraz aritzeko aukera, baliabide eta betebeharren dispositiboak aztertzea, neurtzea eta ebaluatzea, hizkuntza-praktiken eremuen erregistroak eginez. Hori, errealitate soziolinguistikoaren eraikuntzarako politikei dagokienez. Baina, jendearen errealitatera hurbiltze aldera, hori dena osatu beharko da joko sozial zehatzetan euskarazko praktikak sustatzen edota laguntzen dituzten disposizio psikosozialak (nahiak, beharrak, arauak, zentzuak, narrazioak, irudiak...) zein diren ikertuz. Azkenik, bi ikerketa mota horietan lortutako emaitzak alderatu eta go-goeta intentsiboetan sintetizatu beharko lirateke.

4. ONDORENERAKO: PRAKTIKA ETA AUKEREN ERREGISTROAK, ETA HAI EK UGALTZEKO POLITIKEN EBALUAZIOA

I Jendarteko jokaerek jendearen jokaerak egituratzen dituzte. Praktika sozial gutxituak hedatu eta egonkortuko badira, jokaera legitimo eta zentzuzkoen artean agertu behar dute. Lekua behar dute bizi-jarioan eta haren irudikapenean. Aldaketa prozesu horietan honako alderdi hauek aurkitu ohi dira: berrikuntzak edo aldaketen aurkezpena, gatazka soziokognitiboa, berrikuntzen edo aldaketen legitimazio diskurtsiboa (zentzu onartuekin artikulatuz, berriak sortu), legitimazio praktikoa (praktikaren senari erantsi), norik bereganatzea eta senez eta eginez bere egitea, berrikuntzaren erabilera arrunta, egitura(keta) berria... Prozesu horietan, beraz, zabaltzekotan eta normalizatzeotan diren praktika berriak, bestelakoak, edo gutxituak aurkeztea, zabaltzea, eta ohiko bihurtzea ezinbestekoa da.

Ohiko hizkuntza-praktikek egitura moduan jokatzeko dute, hau da, hizkuntza-portaera egituratzen dute, baina ez jendeen pertzepzio eta baloraziorik gabe (gogora dezagun: praktikarekin batera metapraktika aurkituko dugu beti; alegia, jardutearekin batera, jarduteko jakintza eta sena). Bere buruari eragiten dion prozesu zirkular baten aurrean gaude: erruz zabaltzen diren praktikek egituratzen dute portaera eta ohiko portaerak izaki bere burua legitimatzen dute. Aldi berean dira *dispositiboak*, edo joko-eremu arautuak eta araugileak, eta *disposizioak*, edo hiztunen *jokatzen-jakitea* eta jokaera sentitzea.

Aldaketa, esan bezala, praktika eta metapraktika berriak zabalduz egin behar da, arian-arian zirkulua hautsiz, eta horrela dispositibo berriak altxatzen hasita. Baina, hartan oso garrantzitsua da sustatu edo aldatu nahi diren praktiken “ikusgarritasuna” deitu ohi duguna edo bestela

esan hautemandako presentzia. Errealitate soziolinguistikoa harreman sozialetan hautemandako eta bizitako praktiketan eta balioa nahiz zentzua ematen dizkieten metapraktiketan altxatzen da. Norberaren disposizioak (gaitasunak barne) soilik praktika direnean dute eraginik joko sozialetan, hau da, egoera eratzen parte hartzen duten neurrian.

Horregatik guztiagatik defendatu dugu euskara biziberritzeko politikek zuzenean praktikak (praktika-inguruak) atontzera jo behar dutela. Eta helburua hura bada, neurriek ere halakoak behar dute: praktikak sustatu, erraztu, ikusgarri egin, hedatu, normaldu, eta neurtu, zenbatu, ebaluatu. Testuinguru horretan nabarmendu dugu jakintza adituak biziki eragiten diola jakintza arruntari. Estatistikaren kasuan ikuspegi sinoptiko, kuantitatibo eta makroskopiko batez errealitatearen irudi ulergarri eta adierazgarria lortzen da zientziaren legimitateaz jantzirik. Hori dela eta, berebiziko garrantzia du jakintza aditu horrek erabiltzen duen unitatea: ontologia oso bat eraikitzen delako haren gainean. Aztertu ditugun ikerlan handiek hiztuna dute unitatetzat; hala, hiztuna bere baitan, bere gaitasun eta bere jarrerekin, bilakatzen da politiken helmuga. Eta ikerlanek eta politikek, elkarrizketak eta sustengaturik, errealitatearen oinarri hura indartzen dute, eta horrela hizkuntza jokaera indibiduala dela sentiarazi diote jendeari (soziala testuinguruaren ezaugarria izatera mugatuta).

Funtsean, banakatzeko horren bi alderdi baino ez ditugu ikusi: bata epistemologikoa (kategoriak) eta bestea metodologikoa (auto-azterketak eta aitorpenak). Eta bestelako ildo bat defendatu nahi izan dugu: errealitate soziolinguistikoaren unitatetzat praktika (soziala) jotzen duen ikerketa eta ulertze-ildoak. Pentsatzen dugu, praktikak neurtzeak eta, batez ere, erregistratzeak kategorien auto-aurrezpenetarako erabilera gutxitu lezakeela eta politikak praktiketara bideratu lezakeela, eta ez banakoenengana. Eta horrela, akatsak akats, norberaren gogo, motibazio edota eskubideak betearazteko izan lezakeen grina, nahia edo erresistentziak alde batera utzita, praktiken ebaluazioa egituren gain utzi lezakeela.

Adibide bat ematearren, osasun zerbitzu batean non bermatu behar dugu euskararen erabilera: bezeroen engaiamenduan?, langileen borondate onean?, erakundearen kalitate eta praktika onetan?, lan egituraketa eta antolakuntzan?, zerbitzuak hobetze eta berritzeko programetan? Badakigu, zoritxarrez, egitura eta erakundearen ebaluazio-programek askotan goitik behera deskargatzen dituztela ardurak eta erantzukizunak. Baina horretan ere aitorpenetan eta kategorio sozialetan oinarritutako ikerketei kritikatu diegun logika bera ikusten dugu. Hizkuntza-erabilera edota lan-kalitatea prozesu eta produktu sozial eta estrukturalak dira,

***Errealitate
soziolinguistikoa
harreman
sozialetan
hautemandako
eta bizitako
praktiketan eta
balioa nahiz
zentzua ematen
dizkieten
metapraktiketan
altxatzen da.
Norberaren
disposizioak
(gaitasunak
barne) soilik
praktika
direnean dute
eraginik joko
sozialetan, hau
da, egoera
eratzen parte
hartzen duten
neurrian.***

**Funtsean,
banakatze horren
bi alderdi baino
ez ditugu ikusi:
bata
epistemologikoa
(kategoriak) eta
bestea
metodologikoa
(auto-azterketak
eta aitortpenak).
Eta bestelako
ildo bat
defendatu nahi
izan dugu:
errealitate
soziolinguistikoa
ren unitatetzat
praktika
(soziala) jotzen
duen ikerketa eta
ulertze-ildoa.**

alegia, banako bakar batek aldatu, osatu edo egin ezin dituenak (eta banako edo taldeko eragile proaktibo batek aldatu nahi duenean ere, praktika eremu osoa berrantolatuz eta birdefinituz aldatu beharko duena: ezinbestean, eremuko beste eragileekin jardunez). Hortaz, ez du zentzurik banako hura neurketa edo ebaluazio unitate gisa hartzea ikerketa makroskopikoetan (ondoren, irakurketa psikologistak hedatzeko). Bizi-mundu sozialetan gutxieneko unitatea harremana da, alegia, eremu sozial batean kokatutako praktika dinamikoa eta bizitua. Banakoen gaitasunak edo ezaugarriak agregatuz ez da mekanikoki harreman jakin bat sortzen: euskara erabiltzeko gaitasunak dituztenek ez dute euskara erabiliko, ez dute euren artean euskaraz egingo, ez badiote egoerari zerbait egozten. Egoera hartarako definitu behar dute edo hartarako aurredefiniturik aurkitu behar dute. Euskaraz egitea ez da gaitasunen zenbaketaren emaitza, egoerak definitze eta arautzearena baizik. Joko sozialak, praktika sozialak, nola definitzen eta arautzen diren da kontu minimoa. Are gehiago hizkuntza anitzeko eta hizkuntza ikasleen jendarteetan.

Badakigu ikerketa soziolinguistikoetan kategoriak erabiltzen jarraituko dela. Nekez utziko zaiola hiztunak kontatzeari eta sailkatzeari; izan ere, zenbaki eta kopuru ofizialetan, inguruari begiratu ahala lortzerik ez dugun so handi eta ziurra lortzen dugula ikasi dugu eta oso guretuta dugu irakaspena. Baina gutxienez, jakitun jokatu beharko genuke. *Euskaldun* kategoriaren alde izugarritzko lan diskurtsibo eta praktikoa egin da, horren ondorioz balio erantsi sinboliko handiak ditu kategoria honek. Eta asko dira zuzen edo zeharka etekin eta hobari sinboliko horiek beretzat nahi dituztenak. Halaber, oso motibagarria izan zaio askori, bai euskara ikasteko, bai euskaraz egiteko ere. Alabaina, kategoriatze sozialaren bidez edota buru-kategorizatzearen bidez) behin lortuta, euskaraz egiteko premia inguruko eragileen eraginera mugatu ohi da. Kategoriatze praktikatik (euskaraz egitetik) askatuta, etiketa sozial huts bihur daiteke eta, ondorioz, auto-aurkezpenarako eskuragai diren beste ikur, zeinu edota jokamoldeen bitartez aiseago eskuratu. Hori da gure ustez *euskaldun* kategoriari gertatzen ari zaiona, gero eta zailagoa baita praktikan euskaraz egitearekin identifikazio itxia egitea: euskaldunek maiz ezin dutelako euskaraz egin, edo ez dagoelako behar sozialik, edo onura sinbolikoak bestela ere lortu daitezkeelako...

Euskaldun kategorian gero eta jende gehiago egonda ere, nork bere buruari gero eta hizkuntza-gaitasun handiagoak aitortuta ere, edota euskaldunen askotariko erregistroetan (D ereduan, esaterako) jende gehiago

egonda ere, ezin izango dugu bermatu euskararen erabilera, ezta euskara erabiltzeko aukeretan eragin ere. Bestela esan, hiztuna unitate eta informazio-iturri gisa hartuta, banakoen aitortpenak zenbatzen, eta tipo zein kategorietan sailkatzen, ikerketen ondorioek beti jotzen dute banakoen disposizio edo atributu desozializatuetara, eta ondorioz, testuinguru edota egitura sozial errealek gutxietsi eta hiztunarengan uzten dute hizkuntzaren erabileraren erantzukizuna eta ardura: hiztunarenak dira, nonbait, euskara biziberritzearen motibazioa, eraginkortasuna eta, zergatik ez esan, ez erabiltzearen *kulpa*. ●

OHARRAK

1. Urlaren berbetan: “official statistics powerfully *shape* rather than just reflect, how we understand the world of language” (2012: 115).
2. Hau dena begi bistakoa da disposizioak neurtzen direnean eta areago ere neurraketa makroskopikoetan. Oso ezagunak dira, esaterako, balioei buruz egin diren azterketen mugak eta gabeziak. Herrialde edo estatuen arteko konparazioak egiten direnean tentuz eraiki beharko lirateke. Kasurako, aztertu beharko litzateke noraino ote diren “alderatuko diren baliokideen serieen” balio haiek egocera jakinetatik kanpo iraungo duten disposizioak, edo zentzu berekoak ote diren, edo populazio oso batera zabaltzen diren disposizioak, edo herrialdeak gune homogeneous ote diren (Haller, 2002). Hau dena oso kontua hartu beharko genuke “erabilerak” edo “jarrerak” neurtzeko baliokideen serieak egiten direnean.
3. Dialektologia arloan jarrera eta balioei buruzko ikerketak ez dira gutxi eta maila askotan egin dira (ikus., Long eta Preston, 2002; Preston, 2000). Baina, berriro, zein da gure inguru soziolinguistikoak dugun ezagutza? Zelan eragiten dio gure jarduerari? Ikerketa ildo horri, etnometodologoei jarraituz, etnosoziolinguistika deitu geniezaioke; linguistikari dagokionez, *folk linguistic* ere erabili izan da (Niedzielski eta Preston, 2000).
4. Esaterako, hitanoa erabiltzeko arauak ezagutza pragmatikotzat jo ditzakegu, hau da, ekintzan inplikaturik dagoen jakintza (*emic*); baina hitanoari buruzko lan etnolinguistikoek, edo filologikoek, edo soziolinguistikoek ere, eragin (ahal) diote erabilera horri. Batez ere, ikerketei politika edo ekimen batek jarraitzen badie, eta ondoren esku hartzea ebaluatzeko ikerketaren bat egiten bada.
5. James Scotten ustez, estatuagileek populazioak eta paisaiak moldatu zituzten erregistroen teknikan egokitu zitezen, horrela gobernu zentralizatuaren objektu irakurterazak b ilakatu ziren, hartara, tipifikazio sorta ugari eraikiz (Scott, 1998, 2009). Estatistikak berebiziko garrantzia izan zuen estatugintza hartan.
6. Espainiar eta frantziar estatuek “gorputz bakarreko nazioa” eraiki dutenez gero, ez dute ez hizkuntzarik, ez etniarik, edo antzeko banaketarik neurtu: ez dituzte kontuan hartu, ez dituzte gobernatzeko gai edo baliabidetzat jo. Aitzitik, Frantziar legez debekatu zuten euren neurraketa ofiziala (Blum, 2002). Kategoriatu horiek sortu, landu eta kontatu direnean, nazio-estatuen errealtate ofizialaren kontra izan da, edo haien logikaz kanpo. Alde horretatik, James Scottek dioten moduan, kategoriatu gordinak izan dira, estatu-aparatuek sukaldatu gabekoak (Scott, 1998: 22). Arraza, etnia edo hizkuntza baztertutako kasu gutxi batzuetan erabili dituzte inguruko nazio-estatuek, ijitoena nabarmena. Oso bestelakoa izango zen gure historiako espainiar estatuak erregistro etnikoak egin balitu eta, esate baterako, “*vizcainia*” zeritzon estatus juridikoaren erregistroa etnifikatu balu. Gure kultura politikoa eta epistemologia soziologikoak ere desberdinak izango ziren.
7. Adibidez, Odon Apraizek bere *El vascuence en Vitoria y Alava* ikerlan klasikoan, *vasco-parlante* eta *euskeldun* hitzak erabili zituen (neurri batean kategoriatu teknikatik jota); bertan kontatzen denez Asparrenen euskaldunei *vasco* esaten zieten. Apraizek termino horietara

biltzen zituen hizkuntza-gaitasuna, balizko erabilera eta pertsonak beraiek.

8. 1983an argitaratu zen *La lucha del Euskera/ Euskararen borroka* (EJ-GV) eta lan horretako datuak erabiliz *Atlas lingüístico Vasco/Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*a argitaratu zen 1984ean, J. I. Ruiz Olabuenaga soziologoak zuzenduta.

9. *Ama-hizkuntza* eta *etxean erabilitako hizkuntza* kategoriak Quebecetik ekarri ziren (ezaguna da R. Bourishen eragina). Han, antza denez, kategoriak sortu ziren frantsesaren erabileraren bilakaerari jarraitzeko, baina testuinguru jakin batean: hainbat aldagetarik (esaterako, 1981etik aurrera erroldetan nork bere buruari jatorri etniko batzuk emateko aukera zabalteagatik) kategoria etnikoak alferrikakoak bilakatu zirenean, hizkuntza-kategoriak erabiltzen hasi ziren. Garai hartantxe ere, diskurtso nazionalistak hizkuntza aldera jo zuen. Hala, identitatea etnia edo jatorritik hizkuntzara lerratzean, hizkuntza bihurtu zen jatorri-marka (jatorri-adierazleak dira ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza) (Piché, 2015: 93-94).

10. Honakoak, zehazki: euskaldun zahar aktiboak, euskaldun zaharrak bietan aktiboak, euskaldun zahar pasiboak, jatorrizko elebidun aktiboak, jatorrizko elebidunak bietan aktiboak, jatorrizko elebidun pasiboak, partzialki erdaldundu aktiboak, partzialki erdaldunduak bietan aktiboak, partzialki erdaldundu pasiboak, euskaldun berri aktiboak, euskaldun berriak bietan aktiboak, euskaldun berri pasiboak, partzialki euskaldun berri aktiboak, partzialki euskaldun berriak bietan aktiboak, eta partzialki euskaldun berri pasiboak.

11. Estatistika honen egilea EUSTAT da. Hainbat iturri erabili omen ziren: Biztanleriaren Erregistroa, 2006ko Demografiako eta Balidazioko Inkesta (DBI06), Biztanleriaren Jarduaren Arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Lan Merkatuaren Zentsua (LMZ), eta 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. V Mapan (2014) ere metodologia mistoa erabili zen, 2011ko zentsua osatzeko aldera honako iturria erabili ziren: EUSTATEko Biztanleen Erregistroa, Administrazio-jatorriko informazio estatistikoa, INEren Biztanleriaren Zentsua (inkesta). Horrenbestez, lehendabiziko mapen metodologia guztiz gainditu zen eraikuntza estatistikoa ageriagoan utziz.

12. INE 2011; iturria: http://eu.eustat.eus/estadisticas/censo/censos2011_cuest_e.pdf

13. Taldea parteak baino *gehiago* izaten da ez dituelako parteak bere osotasunean zenbatzen edo taldekatzen, soilik baliokide egiten dituen aldagaia hartzen die kontuan; alegia, taldekatzeak sinplifikatzen du taldekatzen duena. Horregatik ere, taldea beti izaten da parteak baino *sinpleagoa*, eta konplexutasun *gutxiagokoa*. Eta horrexegatik ere, bizitza sozialean jende arteko harremanen efektu psikosozialak beti doaz taldekatze edo kategorizatze kognitiboaren efektuetatik harago. B. Latouren hitzetan (2011: 806): “What is a collective phenomenon once you deploy all the information you have about individual associations? It is certainly not something superior to the web they form by sharing their profiles. What is it then? Probably something inferior, something smaller than the parts. This is what Tarde always objected to with Durkheim: the whole is necessarily less complex than the individual who makes it possible...”.

14. Bost izan dira ofizialak iritzi daitezkeenak. Nafarroa Garaian lehendabizikoa, *Distribución de la población navarra según el nivel de euskera, basado en los datos del padrón de 1986* izan zen. 1995ean agertu zen *Euskara Nafarroan zertan den* (Vilches et al., 1995). EAEn Lehendabiziko Inkesta soziolinguistikoa 1991n egin eta 1995ean argitaratu zen, *Euskararen Jarraipena* izenarekin. Bigarrenetik aurrera Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, eta EKE aritu dira elkarlanean (argitaratzeko orduan gutxienez). Bigarrena, 1996koa da, baina 1997an argitaratuta (Nafarroakoa 1998an, Iparraldekoa 1999an). Hirugarrena, 2001ean egin eta bi urte geroago plazaratu zen. Laugarrena, 2006koa, 2008an argitara eman zen; eta azkena, Bosgarrena, 2011an eginda, 2013an argitaratu zen.

15. Inkesta Soziolinguistikoetatik aparte, oso argi ikusten da hori dena Arrue ikerketan (Eusko Jaurlaritza, 2013). Ikerketa horretan muturrera eraman zen hiztunen auto-azterketarekiko konfiantza metodologikoa. Izan ere, hango aitorzaileak haurrak eta gazteak ziren: Lehen Hezkuntzako 4. mailakoak (10-11 urteko haurrak) eta DBHko 2. mailakoak (15-16 urte). Haiek erantzun behar izan zuten zenbat erabiltzen zuten euskara eskolan,

gela barruan, gelaz kanpo, irakasleekin, lagunekin eta abar. Euren jarrearen kontu emateaz gain, beren jokaerak zehaztu eta kuantifikatu behar izan zituzten. Beraz, (talde bi horietako) populazio osoari egindako itauntzearen ondorioz sortu zen erregistroa gaztetxo horien auto-azterketa fin eta zehean oinarritu zen. Hau da, ikerketa osoaren oinarria gazteen inpresioak izan ziren (honetaz, luzeago, ikus: Apodaka, 2013).

16. Erdarazko bertsioaren pasarte honetan ikus dezakegu terminologia zein den (eta esan barik doan diskurtsoa): “la gran mayoría de los euskaldunes considera que para ser vasco de verdad hay que saber hablar euskera (81% en Navarra; 79% en el País Vasco Norte y 73% en la Comunidad Autónoma Vasca), mientras que más de la mitad de los erdaldunes tanto de la Comunidad Autónoma Vasca (66%) como de Navarra (51%) están en desacuerdo con tal afirmación” (II Encuesta Sociolingüística, 1997: 29). Zein ote da *vasco de verdad* delakoaren itzulpena: euskaldun hutsa?, egiazko euskal herritarra? Nola interpretatu datu hori? Euskaldunek uste dutela *euskalduna* izateko euskara jakin behar dela, edo euskaldunek uste dutela *euskal herritarra* izateko euskara jakin behar dela?

17. Inkestan diotenez bi serie ezberdin ari dira koerlazonatzen: hizkuntza-kategoriak eta identitate politikoaren kategoriak. Baina emaitzak ikusita esan genezake serie bakarra dela jende gehienarentzat (euskaldunentzat gutxienez). Ez dago guztiz jakiterik, falta zaigu diskurtso-ikerketa. Hala ere, emaitzak ikusita estatistikoki kolinealitate arazo bat dagoela pentsa liteke. Estatistikoki, korrelazio horrek ez digu ezer esaten: fenomeno bera ari da neurtzen, aldagai bi direlako ustean.

18. Beste adibide bat, etxeko erabilera eragiten duten faktoreen korrelazioak (berriro ere eragin gisa emanda), honako hauek omen dira: euskaldunen dentsitatea (0,755), euskaraz egiteko erraztasuna (0,720), gune soziolingüistikoak (0,629), eta lehen hizkuntza (0,587). Horren arabera, euskara etxean erabiltzen da etxeko gehienak euskaldunak direnean, euskaraz egiteko erraztasuna dutenean, eta inguruan ere euskaraz egiten denean (V Inkesta Soziolingüistikoak, 2013: 116). Ustez, aldagaiak biltzen edo korrelazonatzen ari direlarik, praktika-inguru baten ezaugarriak ematen ari dira. Ondo dago praktika-inguru horiek zehaztea eta neurtzea, baina ez da zuzena inguru horien ezaugarriak eragile independente gisa hartzea. Bestela ere, interesgunea ez dago hor, kontrara doazen kasuetan baizik: nonbait, etxe batzuetan nahiz eta euskaldun asko ez egon, euskaraz gaitasun handirik ez izan eta gune erdaldun batean bizi, euskaraz egiten omen da.

19. Ez da ezinegon horren azterketa gure lan honen helburua, baina adibide gisa oso esanguratsua izan zen Sustatuko elkarriketa hau: *Euskararen mapa berrien premia: hiztun errealean mapak* (2016/01/08). Bertan ikus daitezke hainbat ahalegin hiztun errealak (ez alegiazkoak) neurtzeko eta kokatzeko.

20. “Euskararen Erabilpen Erreala Gipuzkoan: Leku Publikoetan, Udal Erakundeetan, Gizarteko Zerbitzuetan” izeneko komunikazioa aurkeztu zuen 1985ean, Getxoko *Hizkuntza Minorizatuen Soziologia* Kongresuan (Juaristi 2013: 53).

21. Hizkuntzen Kale-Erabilera VI Neurketaren txostenean dioten legez: “Neurtzaileek ere ez dute interferentziarik eragiten, alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren subjektibotasuna albo batera utziz, entzun eta elkarriketaren hizkuntza jasotzen da, hiztunaren adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera”. <http://www.soziolinguistika.eus/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaitzen%20txostena.pdf>

22. Hortik doa, Jacqueline Urlak diona *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa*: “Baina, emaitzak azaltzeko, beharrezkoa da, berriro ere, datu horiek beste ikerketa sakon batzuekin osatzea, eta aztertzea zein diren dagozkien hizkuntzekin lotutako balio sinbolikoak, hizkuntza-aukeraketa eragiten duten arauak eta sortzen ari den hizkuntza-merkatuari buruzko ikerketak.” (Urla, 2013: 20). Interesgarria da merkatu linguistiko kontzeptuaren haritik aztertzea hiztunek nola eraikitzen dituzten balioak eta zentzuak, bai, baina baita ere nola erabakitzen den (edo ez) egoeran-egoeran erabiliko den hizkuntza. Horregatik, merkatua bainoago, merkatuak eta mikromerkatuak zehaztu beharko genituzke; dena den, merkatuaren metaforak mugak ditu: hizkuntza kontuetan

ez dugu merkatu (liberalik) aurkituko, ez da banako hiztunen elkarrekintzetatik azalera-
tzen den araupeko eremu bat.

23. Arrasaten 2008an egindako neurketaren txostena, hemen eskura: <http://www.arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/euskara/beste-gai-batzuk/euskaini>

24. Adibidez, ikus: Twitterreko euskal komunitatea eta euskararen erabilera: 2015eko irai-
leko estatistikak (2015-10-23). <http://umap.eus/albisteak/twitterreko-euskal-komunitatea-eta-euskararen-erab/>

25. <http://umap.eus/ranking>

26. Hemen ikerketaren parte bat baino ez dugu aurkezten. Izatez, ikerketa proiektu han-
diago baten atala da, zehatz esan, Soziolinguistika Klusterraren eta EHUko ikerketa talde
baten elkarlaneko *Jendaurrean Erabili* proiektuaren atala. Analisiaren testuingurua zehaz-
teko lagungarriak izan dira proiektu haren baitan Getxoko udal teknikariekin egindako
hainbat elkarriketa. Eskerrak eman behar dizkiegu elkarriketetan parte hartu zuten J.
Arakamari, X. Aranguenari eta M. Rodriguezi. Eta, oro har, Getxoko Udalarari. Eta jakina,
ikerlari aritu den Uxoa Anduaga soziologoari.

27. Zuberogoitia anaiek (2014: 560) Getxoko politika horiek Bilbon gertatuarekin alderatuta
ondorioztatu dute datu soziolinguistiko ofizialetan Getxokoak hobeak izatearen arrazioa
elkarlan hura izan daitekeela.

28. Eustaten arabera 2011n %28 ziren euskaldunak, %32 euskaldun hartzaileak. Erabilerari
dagokionez, Soziolinguistika Klusterraren arabera, 2011n %9koa (Zuberogoitia eta Zube-
rogoitia, 2014: 559).

29. Ertz bakoitzak aipamen-harreman bat islatzen du. Ertz batzuek aipamen bakar bat eta
beste batzuek, ordea, hainbat adierazten dituzte, denbora tarte horretan errepikatu diren
aipamenak jasoz. Sarea zuzendua da (i.e., ertzek badute norakorik eta ez dira halabeharrez
simetrikoak) eta haztatua (i.e., ertzek pisua dute, ordeztzen dituzten aipamen kopuruaren
arabera, hau da, lotune bakoitzaren tamaina beste kontuetatik jasotako aipamen kopuruaren
arabera haztatu da). Horrez gain, Gephi-ren bidez modularutasun-probak eginez, komuni-
tateak bereizi dira eta koloretan desberdindu. Komunitateak zehazteko Gephi-k talde-
barneko ertzen bolumena maximizatu eta talde artekoena minimizatzen ditu, eta hala sor-
tzen duen komunitate bereizketari esangura estatistikoko zifra bat ematen dio.

BIBLIOGRAFIA

Aiestaran, J.; Cenoz, J. eta Gorter, D. (2010). "Multilingual cityscapes: perceptions and preferences of the inhabitants of Donostia-San Sebastián". In: E. Shohamy, E. Ben-Rafael & M. Barni (arg.) *Linguistic landscape in the city*. Bristol: Multilingual Matters, 219-234.

Aizpurua, J. (2010). "Gizarte-sareak + Euskara 2.0". Udaltop. www.udaltop.eus

Altuna, O. eta Basurto, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

Altuna, O. eta Suberbiola, P. (2003). "Euskaini: euskarazko eskaintzaren adierazlea" in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 46 (79-93).

Amonarriz, K. eta Joly, L. (2007). "Hizkuntzen kale erabileraren neurketa 2006" in *BAT aldizkaria*, 62, 141-146.

Apodaka, E. (2013). "Arrue proiektuaren Ebaluazio diagnostikoa 2011 ikasle-
leen hizkuntza erabileraren datuak txostenari buruzko gogoeta" In

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura saila eta Soziolinguistika Klusterra. *Ikasleak Hiztun. 2011ko Arrue Proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 189-195.
- Apraiz Buesa, O. (1950). *El Vascuence en Vitoria y Álava en la última centuria* (kopia mekanografiatua). <http://bvvpb.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?id=411682>
- Arel, D. (2002). "Language categories in censuses: backward- or forward-looking?" in D. I. Kertzer & D. Arel (arg.) *Census and identity. The politics of race, ethnicity, and language in national censuses*. Cambridge: Cambridge University Press, 92-120 or.
- Artetxe, K. (2011). *Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Berger, P. eta Luckmann, T. (1966). *The Social Construction of Reality: A Treatise in the Sociology of Knowledge*. New York: Anchor Books.
- Blum, A. (2002). "Resisting identity categorization in France" in D. I. Kertzer & D. Arel (arg.) *Census and identity. The politics of race, ethnicity, and language in national censuses*. Cambridge: Cambridge University Press, 1-42 or.
- Bourdieu, P. (1982). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. Paris: Fayard.
- Bourdieu, P. (1994). *Raisons Pratiques. Sur la théorie de l'action*. Paris: Seuil.
- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2008). "Hizkuntz paisaiaren ikerketa". *Erabili.eus*. http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1207819885
- Desrosières, A. (1989). «Comment faire des choses qui tiennent: histoire sociale et statistique» in *Histoire & Mesure* V. 4 N. 3. 225-242.
- Desrosières, A. (2004a). *La política de los grandes números*. Barcelona: Melusina.
- Desrosières, A. (2004b). "Enquêtes versus registres administratifs: réflexions sur la dualité des sources statistiques" in *Courrier des statistiques*, 111.
- Eusko Jaurlaritza (1983). *Euskararen borroka. Oinarrizko inkesta bat: eza-gutza, erabilera, jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (1989). *Soziolinguistikazko Mapa. 1986. urteko Erroldaren arabera Euskal Autonomia Elkarte azterketa demolinguistikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (1997-1998). *II. Soziolinguistikazko Mapa (1991)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2003). *Encuesta Sociolingüística de Euskal Herria 2001. La continuidad del euskera III*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Eusko Jaurlaritza (2003). *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2005). *III. Mapa Soziolinguistikoa (2001)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2008). *IV Encuesta Sociolingüística. 2006: Comunidad Autónoma Vasca, País Vasco Norte, Navarra, Euskal Herria*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea, Nafarroa, Euskal Herria*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2009). *IV. Mapa Soziolinguistikoa (2006)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V Encuesta Sociolingüística. 2011: País Vasco, Comunidad Autónoma Vasca, Navarra, País Vasco Norte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2014). *V Mapa Soziolinguistikoa (2011)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EKE (1997-1998): *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, EKE.
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza . Aizpurua, X. (1995). *Euskararen Jarraipena I*. Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura saila eta Soziolinguistika Klusterra (2013). *Ikasleak Hiztun. 2011ko Arrue Proiektua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Gorter, D.; Aiestaran, J. & Cenoz, J. (2012). "The revitalization of Basque and the linguistic landscape of Donostia-San Sebastian" in D. Gorter, H.F. Marten eta L. Van Mensel (arg.) *Minority Languages in the Linguistic Landscape*. Basingstroke: Palgrave-MacMillan. 148-163 or.
- Hacking, I. (1999). *The Social Construction of What?* Harvard: Harvard University Press.
- Haller, M. (2002). "Theory and Method in the Comparative Study of Values. Critique and Alternative to Inglehart" in *European Sociological Review*, vol. 18, 2, 139-158.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2007). Hizkuntza paisaiaren azterketa. <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/conte->

- nidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/hi
zkuntza_paisaia_azterketa.html
- Jimeno Jurio, J. M. (1997). *Navarra. Historia del Euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- Joly, L. (2012), "Demolinguistika: inkesta soziolinguistikoa eta kale neurketak" (I) in *Jakin*, 191, uztail-abuztua, 107-113 or.
- Juaristi, P. (2013). "Ikergaien arabera hamazazpi ikerlerro euskal soziolinguistikan" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 86 (1) 49-72.
- Kertzer, D. I. eta Arel, D. (arg.) (2002). *Census and identity. The politics of race, ethnicity, and language in national censuses*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Larrañaga, I. (1999). "Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia giroa ala konfusio-zeremonia?" in *Zenbat Gara*. 3 <http://www.zenbatgara.org/eus/txostenak/larranaga-zg3.htm>
- Latour, B. (2011). "Networks, Societies, Spheres: Reflections of an Actor-Network Theorist" in M. Castells (ed.) *International Journal of Communication*, Vol 5, 796-810.
- Long, D. eta Preston, D. R. (arg.) (2002). *Handbook of Perceptual Dialectology*, Vol. II. Amsterdam: Benjamins.
- Nafarroako Estatistika Erakundea (1986). *Distribución de la población Navarra según el nivel de euskara. Datos del padrón de 1986*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Niedzielski, N. eta Preston, D. R. (2000). *Folk Linguistics*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Petxarroman, I. (2016). "Txiokatzeko ez, behintzat". *Berria*, 2016-03-08. http://www.berria.eus/paperekoa/1878/014/001/2016-03-08/txiokatzeko_ez_behintzat.htm
- Piché, V. (2015). "Ethnic and Linguistic Categories in Quebec: Counting to Survive" in P. Simon, V. Piché, A. Gagnon (arg.) *Social Statistics and Ethnic Diversity Cross-National Perspectives in Classifications and Identity Politics*, Switzerland: Springer International Publishing AG, 89-100.
- Preston, D. R. (arg.) (2000). *Handbook of Perceptual Dialectology*, Vol. 1. Amsterdam: Benjamins.
- Ruiz Olabuenaga, J.I. (1984). *Atlas Lingüístico Vasco*, Gasteiz: Eusko Jaur-laritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Sagarna, A. (2003). "Euskarazko edukiak dituzten web guneen azterketa", in www.erabili.com.
- Scott, J. C. (1998). *Seeing like a State. How Certain Schemes to Improve the Human Condition Have Failed*. New Haven & Londres: Yale University Press.

- Scott, J. C. (2009). *The Art of not Being Governed. An Anarchist History of Upland Southeast Asia*. New Haven & Londres: Yale University Press.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). *Euskal Herriko Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketa*. <http://www.soziolinguistika.org/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaizten%20txostena.pdf>
- Sustatu (2016). *Euskararen mapa berrien premia: hiztun errealean mapak* (2016/01/08). sustatu.eus/1452246875?utm_source=feedly&utm_medium=feeds
- Szreter, S., Sholkamy, H., & Dharmalingam, A. (arg.). (2004). *Categories and contexts: Anthropological and historical studies in critical demography*. Oxford: Oxford University Press.
- Urla, J. (2012). *Reclaiming Basque. Language, Nation, and Cultural Activism*. Reno: University of Reno Press.
- Urla, J. (2013). "Hitzaurrea" in Olatz Altuna & Asier Basurto, *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Vilches, C. et al. (1995). *Euskara Nafarroan zertan den : ikerketa soziolinguistikoa hizkuntz eremuen arabera = Investigación sociológica sobre el euskera en Navarra : un análisis desde la zonificación*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1995.
- Zuberogoitia, A. eta Zuberogotia, P. (2014). "Euskara Hirian: indar gidari bila". In *Euskara*, 59, 2, 545-571.

Gozatu elhuyar

aldizkari berritua

Zientzia eta teknologiaren arloan gertatzen den guztia, eskura: gaurkotasuna, iritzia, analisia, istorioak, irudiak, hemengo ikerketa...

Urtean 16 euroren truke



Hiru hilez behin jasoko duzu etxean
eta noiznahi eduki gehiago izango duzu webgunean

Harpidetu zaitez edo oparitu ezazu harpidetza, hemen:
<http://aldizkaria.elhuyar.eus/harpidetza>

Genero-identitatearen hizkuntza jokoa. Hurbiltze etnografikoa nerabeen hizkuntza-praktiketara

Jaime Altuna Ramírez

Antropologia Feminista Ikerketa Taldea (AFIT) - Balioen Filosofia eta

Gizarte Antropologia EHU

jaime.altuna@ehu.eus

Sarrera-data: 2017-10-17 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. Artikulu honetan generoa eta hizkuntza lotzeko ahalegina egin dut, sozializazio sexistak euskararen praktika sozialean duen eragina aztertuz. Horretarako, Pasai Donibane eta Lezoko 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin egindako ikerketa etnografiko batean oinarritu naiz, gazteen perspektiba erdigunean jarriz. Hizkuntza-praktiken inguruan genero perspektibarekin egindako ibilbide etnografiko honetan, emakume eta gizonen arteko desberdinkeria azalarazi dela esan daiteke. Hizkuntzaren bidez nerabeek identitate zehatz batzuk jokatzen (antzezten) dute eta neska eta mutilen artean hizkuntza erabiltzeko moduetan ezberdintasunak ematen dira. • **Hitz gakoak:** Hizkuntzaren Antropologia, Generoa, Euskara, Haurtzaro eta Nerabezeroaren Antropologia, Etnografia.

Abstract. This study looks at links between gender and language by analysing the influence of sexist socialization on social behaviour in Basque. An ethnographic study of adolescents aged from twelve to sixteen in Pasai-Donibane and Lezo was carried out, centred on the adolescents' point of view. It was concluded from the study that there are differences based on gender in the Basque language use of adolescents in Pasai-Donibane and Lezo, with girls tending to speak more Basque. Differences were also found between the ways the language is used. In this ethnographic study focusing on perspectives associated with language behaviour there are signs of discrimination between women and men. • **Key words:** Linguistic Anthropology, Gender, Euskara, Childhood, Adolescence, Anthropology of adolescence, Ethnography.

1. SARRERA

I Hizkuntza inoiz ez da testuingururik gabe gertatzen eta, hortaz, nekez aztertu daiteke hizkuntza testuingurua kontutan hartu gabe. Hizkuntzaren gizarte-praktikei begiratzeko beharrezkoa zaigu aldagai sozialak aintzat hartzea: klasea, kategoria sozio-ekonomikoa, adina, arraza, jatorria, generoa... Artikulu honetan adina eta, batez ere, genero-kategoriak Euskal Herrian egun ematen diren hizkuntza-praktikekin gurutzatuko ditut. Nerabeekin egindako ikerketa esploratzaile baten bidez generoak euskara eta beste hizkuntzen erabileran izan dezaketen garrantziaz mintzatuko naiz.

Halako azterketa bat nerabezeroan kokatzeak adinari buruz hitz egitea dakar. Kultura gehienetan bezala, gurean ere, adina gizarte antolaketaren oinarria da. Pertsona bakoitzaren kokapen soziala jaio den unetik pasa den denboraren arabera da. Mendebaldeko kulturen biziaroa modu linealean gauzatzen da, heldutasuna bizi-helmuga bihurturik. Iruditegi sozial horren arabera, heldua da erreferentzia eta eredia; haurrek, nerabeek eta gazteek iritsi (heldu!) behar duten tokia. Azken hamarkadetan Euskal Herrian abiatu den euskararen biziberritze prozesuan adinaren faktoreak garrantzia izan du, indar handia jarri baita eskolaren bidez haur eta gazteak euskalduntzeko ahaleginean. Estrategia horren onurak eta gabeziak azalarazten ari dira, eta adinaren ardatzak hainbat gako eman ditzakeela uste dut.

Bestetik, egungo gizartearen generoaren arabera antolatua dago eta, norbanakoen sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen da. Genero aldagaia kontutan hartzea ezinbestekoa da edozein talde edo jarduera soziala ulertu ahal izateko, eta generoa analisi-kategoria gisa erabiltzeak, genero harremanak botere harremanak direla ikusarazten ahalbidetzen digu. Genero rolen bidez kategorizatzen eta eraikitzen dira subjektuak, eta esperokoa da horrek hizkuntzaren gizarte-erabileran ere eragina izango duela. Hizkuntza eta bere erabilerak gizartearen isla baitira, eta hizkuntzak ez direlako diskurtso, arau, uste eta praktiketatik aparte dauden egitate autonomoak: gizarte egiturek eta agentziek hizkuntzen bizitza bideratzen dute. Artikulu honetan, beraz, generoaren inguruko esplorazio teoriko-metodologikoa zein enpirikoa mahai gainean jarri dut, beti ere, hizkuntzaren praktika sozialean ardatz horrek izan dezakeen eragina azpimarratuz. Genero perspektibarekin egindako hizkuntzaren azterketa sozialaren bidez, emakume eta gizonen arteko gizarte desberdinkeria

**Nerabeekin
egindako
ikerketa
esploratzaile
baten bidez
generoak euskara
eta beste
hizkuntzen
erabileran izan
dezaketen
garrantziaz
mintzatuko naiz.**

**Genero
perspektibarekin
egindako
hizkuntzaren
azterketa
sozialaren bidez,
emakume eta
gizonen arteko
gizarte
desberdinkeria
ikusarazi
daitekeela uste
dut.**

ikusarazi daitekeela uste dut, eta ikuspegi horrek estrategia edo ildo eraldatzaile batzuk eskaini ditzakeela.

Sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean duen eraginari buruz hausnartzeko, 2016an Gipuzkoako Pasai Donibane eta Lezoko 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin¹ garatutako ikerketa etnografiko batean oinarritu naiz: 2016an Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterean burutu nuen “Euskara generoaren ispiluan barrena: hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean” izeneko Master Amaierako Lana².

2. IKERKETARI BURUZ: BEHAKETAK, ELKARRIZKETAK, TALDE-EZTABAIDAK ETA DOKUMENTAZIOA

Ikerketa honen xede nagusia nerabeen hizkuntza-praktiketara eta diskurtsoetara gerturatzea izan zen genero-rol arabera ezberdintasunik ematen ote den esploratzeko. Horretarako hiru helburu zehaztu nituen: (1) sozializazio sexistak 12-16 urteko nerabeen euskararen praktika sozialean duen eragina esploratzea; (2) nerabe horiek bizipenetan eta diskurtsoetan genero-rolen arabera hizkuntza ezberdintasunik identifikatzen eta deskribatzen ote duten jasotzea eta (3) hizkuntza ezberdintasun horien nolakotasuna aztertzea eta genero ikuspegi baten bidez ulertzea.

Ikerketan gazteen perspektiba erdigunean jartzeko ahalegina egin nuen; aktoreen iritzia eta hausnarketatik abiatu nintzen, Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologiaren planteamendu teoriko-metodologikoak erabiliz. Antropologian ohikoak diren tekniken bidez nerabeen hizkuntza-sozializazioan ematen diren prozesuetara hurbilketa egin nuen, nerabeen praktiken azterketa eginez eta nerabeen hausnarketetatik abiatuz.

Horretarako, etnografia lanetan ohikoak diren hiru teknika erabili nituen. Batetik, behaketa parte-hartzailea: Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeekin egon nintzen. Behaketa hauek Gipuzkoako bi herritako “Kua-drillategi”³ aisialdiko egitasmoaren baitan garatu nituen. Guztira, 12 eta 16 urte arteko 65 gaztek parte hartu zuten. Lezon lau ostiral arratsaldetan izan nintzen, eta Pasai-Donibanen beste lau arratsaldetan, denak 2015eko udazkenean. Behaketak aisialdiko programa honen barruan egiteko arrazoiak bi ziren: batetik, herri hauetako nerabe asko biltzen diren gunen batean egoteko aukera ematen zidan; bestetik, egoera erabat informala ez bada ere, programa honetan nerabeak lagunarteko egoera ez-formaletik oso gertu egoten dira.

Gainera, Kuadrillategi programak beste baldintza egoki batzuk eskaintzen zizkidan ikerketa hau garatzeko. Hasteko, tipologia ezberdinetako gazteak biltzen dituen egitasmo iraunkor bat da, ikasturtean zehar gauzatzen dena. Antolaketa sendo eta, aldi berean, malgua du, eta, zentzu horretan, aukera eskaintzen du jarduera ezberdinak modu zuzenean gazteekin lantzeko. Izan ere, behatutako praktiken ohiko jasoketa egiteaz gain, elkarrizketa informalak bideratu nituen eta Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologian proposatzen diren zenbait talde-dinamika erabili nituen. Talde-dinamiken bidez gazteen egunerokotasunera hurbiltzeaz gain, euren diskurtsoak jaso nahi izan nituen. Horrela, behaketa lana egiten egon nintzen egun bakoitzean bina dinamika proposatu nizkien. Dinamika hauetan, lehendabizi, nerabeak, 5-6 lagunez osatutako taldeetan elkartzen ziren proposatutakoa egiteko. Ondoren, talde txikietan osatutako dinamikaren emaitza elkar banatzen zuten, talde handian denon artean landu nahi den gaiari buruz hausnarketa eginez. Dinamika hauetan sortutako material guztia (denon artean landu nahi zen gaiari buruz...) jaso nuen analisirako.

Bestetik, bost talde-elkarrizketa egin nituen, nerabeen artean ematen diren diskurtso nagusiak identifikatzeko (guztira 20 gaztek parte hartu zuten). Ez nituen iritzi partikularra edo originala duten informatzailerik bilatu, ikerketan parte hartu zuten kolektiboko partaide diren pertsona guztien diskurtso oro kolektiboa ere badela uste dudalako. Ikerketa honetarako bost talde-elkarrizketa egin nituen, behaketa-parte-hartzaileak egin ondoren eta behaketa horietan ateratako datuen lehen azterketa egin eta gero. Lehen lau talde-elkarrizketako nerabeek behaketa saioetan parte hartu zuten. Azken talde-elkarrizketakoek, ordea, ez zuten behaketa egin nituen egunetako dinamiketan parte hartu. Azken horiekin, beraz, ordurarte nik egindako azterketen emaitzak kontrastatzeko aukera izan nuen. Elkarrizketa horietako gidoi bat osatu banuen ere, solasaldirako eskema gisa erabili nuen eta elkarrizketatuak izan diren pertsonen arabera moldatu nuen, hau da, laguntza bat izan zen, eta ez nuen hitzez hitz jarraitu, ezta ordena mantendu ere. Asmoa elkarrizketatutako gazteekin solasaldi ahalik eta erosoena edukitzea izan zen, euren esperientziak, diskurtsoak eta hausnarketa pertsonalak jaso ahal izateko. Azkenik, testuinguru kultural, sozial eta linguistikoa ulertzeko dokumentazio-lana burutu nuen.

Esan bezala, beraz, ikerketa planteamendu honek nerabe multzo batekin lagunarteko egoera ez-formaletik oso gertu dagoen gune batean egoteko aukera eman zidan. Horri begira, Penelope Eckert-ek eta McConnel-

***Behatutako
praktiken ohiko
jasoketa egiteaz
gain, elkarrizketa
informalak
bideratu nituen
eta Haurtzaro eta
Nerabezaroaren
Antropologian
proposatzen
diren zenbait
talde-dinamika
erabili nituen.
Talde-dinamiken
bidez gazteen
egunerokotasune
ra hurbiltzeaz
gain, euren
diskurtsoak jaso
nahi izan nituen.***

Praktika-komunitatearen ideia oso tresna baliagarria da ikerketa soziolinguistikoaren bidez biltzen diren datuak gizarte testuinguru zehatzetan kokatu ahal izateko eta gertatzen diren hizkuntza-dinamikak hobeto ulertzeko.

Ginet-ek proposatutako *praktika-komunitatearen* kontzeptuan⁴ oinarritu nintzen. Aztertutako kasuan praktika-komunitatea nerabeen kuadrillak ziren; aisialdiko jarduerak garatzeko osatzen dituzten lagun-taldeak.

Praktika-komunitatearen ideia oso tresna baliagarria da ikerketa soziolinguistikoaren bidez biltzen diren datuak gizarte testuinguru zehatzetan kokatu ahal izateko eta gertatzen diren hizkuntza-dinamikak hobeto ulertzeko. Hortaz, Pasaia eta Lezoko nerabeen praktika-komunitate horietan oinarritu naiz egungo hizkuntza-praktiken azterketa egiteko, generoa eta adinaren ardatzei garrantzia emanez.

3. HIZKUNTZA GENEROAREN ISPILUAN BARRENA

Lewis Carroll-en liburu ezagunaren Alizia pertsonaiak ispiluan barrena egin zuen bidaia erabili nuen Lezo eta Pasaia gazteen artean burututako ikerketaren irudi gisa. Aliziaren ibilbidean gai asko azaltzen dira bidean topatzen dituen pertsonaia bitxi ugariren bidez, eta hizkuntza horietako bat da. Alizia eta Humpty Dumpty arrautzaren arteko elkar-irizketan azken honek hala dio:

Hitz bat erabiltzen dudanean -esan zuen Humpty Dumpty-k mesprezu handiko doinu-, hitz horrek nik aukeratzen dudana esan nahi du... ez gehiago ezta gutxiago ere. Kontua zera da – esan zuen Aliziak- ia eragin dezakezun hitzek hain gauza desberdinak adieraztea. Kontua zera da – esan zuen Humpty Dumpty-k- aruemailea nor den, horixe da dena.⁵

Humpty Dumptyk adierazten duen bezala, gakoa arauemailea nor den jakitea da. Beste hitz batzuekin esanda, kontua zera da: boterea nork duen jakitea. Horregatik, bai genero-dinamiketan, eta bai hizkuntza-dinamiketan ere, botere-harremanei begiratu behar zaie kultur arauak, diskurtsoak eta praktikak zein diren ulertzeko. Hizkuntza gizarte-logika orokorre zeharkatuta dago eta, gainera, oso aldagai berezia da kultura baten barruan hedapen elementu delako eta, era berean, ispilu gisa funtzionatzen duelako. Hizkuntza egitate konplexua da, eta bere bitartez botere sinbolikoa ezartzen da. Hizkuntzen erabileraren bidez, beraz, botere-harremanak ezartzen dira, eta sortzen diren hierarkia horietan generoa garrantzitsua da. Hau da, gizonek eta emakumeek hizkuntzaren bidez lortu dezaketen kapital sinbolikoa⁶ ezberdina da eta desberdin-keriak sortzen ditu.

Baina, era berean, sozializazio prozesua zeharkatzen duen genero-erai-kuntzak subjektuen hizkuntza-praktika ezberdinak sortzen ditu. Hau

da, generoak eragina du elkarren artean ezberdin gisa eraikitzen diren subjektuen (gizonen eta emakumeen) hizkuntzaren erabileran. Hori izan zen nire ikerketaren abiapuntua (sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean duen eragina aztertzea), eta egindako esplorazio teoriko-metodologikoan Kritika Feministan eta Hizkuntzaren Antropologian ainguraketa sendoak topatu nituen.

3.1 Kritika feminista genero identitateen eraikuntza ulertzeko

Kritika Feministak duela hamarkada batzuk ezarritako oinarri teorikoak oso baliagarriak dira generoaren eraikuntza soziala ulertzeko. Kritika Feministak aspaldidanik zehaztu du emakume eta gizonen kategoriak eta bien arteko harremanak gizarte eraikuntzak direla. Virginia Maqueira-k idatzi zuen bezala, “boterezko eta desberdinkeriazko harremanak genero desberdintasun gisa eraiki izan dira sare soziokultural osoan” (2001:129). Modernitatearen identitate-eraikuntza bi kategoria horien arabera eraikitzen da, sozializazio-prozesua zeharkatzen duen generoak banakako jarraibideen aukerak murriztuz eta elkarren artean ezberdinak diren subjektuak eraikiz: gizonak eta emakumeak. Gainera, bi multzoen artean harreman hierarkikoak ezartzen dira, gizonen ezaugarri maskulinoak prestigioatuz eta gizonen botere posizioa eta hegonia ahalbidetuz (Connell,1997:39).

Kritika Feministak oso argi adierazi du zein diren genero sistemaren bidez botere maskulinoa ezartzeko dauden mekanismoak. Gayle Rubin-ek 1975ean idatzitako *The traffic in Women: Notes on the ‘Political Economy’ of sex* testuan zehaztu eta zabaltu zuen diferentzia sexualaren eraikuntza sozialaren ideia. Rubinen ustez, gizarte orok sexu-genero sistema bat du gizon eta emakumeak sortzen dituen, haien arteko ezberdintasunak azpimarratuz, eta antzekotasunak ezabatuz (1986:115). Mendebaldeko egungo gizarteetan bereizketa kulturaren sozializazioaren bidez ezartzen da: “mutilak eta neskak, hau da, etorkizuneko gizonak eta emakumeak, balio eta printzipio desberdinekin eraiki behar dira, eta euren bizitzetara zentzu desberdinak eman, heldu bihurtzean gizartearen funtzio desberdinak -eta hierarkizatuak- bete ditzaten” (De Miguel, 2015). Sozializazio horren arabera, Modernitatean zirriborratu ziren eta gaur egun arte iritsi zaizkigun, gizon eta emakumeen ezaugarri ezberdinak ezartzen dira. Gizonari arrazoia egotzen zaio, ezaugarri hauen bidez definituz: indarra, aktibitatea, autonomia, independentzia, sexualki oldarkorra... Emakumeari, ordea, natura egotzen zaio ezaugarri hauen arabera: pasibotasuna, ahultasuna, besteen iritzien menpekota-

**Mendebaldeko
egungo
gizarteetan
bereizketa
kulturaren
sozializazioaren
bidez ezartzen
da: “mutilak eta
neskak, hau da,
etorkizuneko
gizonak eta
emakumeak,
balio eta
printzipio
desberdinekin
eraiki behar dira,
eta euren bizitzetara
zentzu
desberdinak
eman, heldu
bihurtzean
gizartearen funtzio
desberdinak -eta
hierarkizatuak-
bete ditzaten”.**

**Azken urteetako
feminismoaren
identitatea
osatzeko
prozesuaren
inguruko
planteamendu
berritzaileak
iradokitzaileak
dira
hizkuntzaren
bidez osatzen
dugun identitate
prozesua
ulertzeko.**

sun, apaltasuna, lotsa, umiltasuna, sedukziorako gaitasuna... Ezberdintasun horiek garai eta tokiaren arabera ñabarduraz betetzen dira, baina oinarrian dauden sailkapen dikotomikoaren ezaugarriak bizirik mantentzen dira.

Era berean, azken urteetako feminismoaren identitatea osatzeko prozesuaren inguruko planteamendu berritzaileak iradokitzaileak dira hizkuntzaren bidez osatzen dugun identitate prozesua ulertzeko. Judith Butler-en ustez, ekiteak eraikitzen gaitu, ez dago ezer zehatzik aurretik osatzen gaituenik. Generoa etengabe jokatzen (*performatzen*) dugunez, generoa ez da identitatea, errituala baizik. Identitatearen osaketan, beraz, izateari baino ekiteari begiratu behar zaio, etengabea den prozesua dela kontutan hartuta (Buttler, 1990:198).

3.2 Genero ikuspegia duen hizkuntza-ikerketak

Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeekin garatutako ikerketa Hizkuntzaren Antropologian azken hamarkadetan proposatutako kontzeptuetan eta ikuspegian oinarritzeak hizkuntza-praktikei begirada berri batekin hurbiltzeko aukera eman zidan. Planteamendu teoriko-metodologiko horiek oinarritzkoak suertatzen dira sozializazio bidez egiten den sexuaren araberako banaketaren sailkapena egiteko (mutilek zer egiteko gai diren erakutsi behar dute, neskek bere izaera zertan datzan adieraztea dute helburu), eta batzuen eta besteen hizkuntza-praktika ezberdinak oinarritzeko. Hizkuntzaren bidez ere desberdinkeriak eta botere harremanak ezartzen dira. 1960ko hamarkadan, soziolinguistikaren garapenarekin batera, iritsi ziren arlo honetako azterketa sendoenak. William Labov-ek New Yorken egindako ikerketa-lana aipatu izan da erreferentziazko lan gisa. Lan horren arabera, sexua ezinbesteko aldagaia zen ikuspuntu eta azalpen soziolinguistikoa garatzeko orduan, eta garai hartan jasotako datuek generoaren arabera jokatzen zela azaleratzen lagundu zuten. Hortik aurrera, teoria feministak garatzearekin batera, hainbat proposamen jorratu ziren emakumeen eta gizonen arteko hizkuntza-ezberdintasunak genero sisteman oinarrituta zeudela aldarrikatuz: Robin Lakkoff, Barrie Thorn, Nancy Henley... (Hernandez, 2004).

Nik egindako ikerketarako bereziki interesgarria suertatu zitzaidan Penélope Eckert-ek garatutako ildoak. Eckert-ek hiztunen hizkuntzen erabileraren nolakotasuna abiapuntutzat hartuta, erabilera horretan generoak eta hizkuntza-komunitatearen egituraketak duen protagonismoari erreparatu zion (Hernandez, 2005:49). Generoa erdigunean jarrita, "Gender roles and ideologies create different ways for men and women

to experience life, culture and society” (Eckert, 1989:247), hizkuntzaren praktika sozialean aldagai horrek duen eragina aztertu zuen, soziolinguistikan adina eta klase aldagaiekin egiten ziren azterketekin konparatuz eta osatuz. Abiapuntu horretatik, Eckerten ustez, gizona-koak eta emakume-koak azpitalde soziolinguistiko ezberdinetan hazten direnez, hizkuntza-erabilera eredu ezberdinak garatzen dituzte.

4. EMAKUMEAREN ROLA EUSKARAREN SOZIALIZAZIOAN⁷

I
Eguno hizkuntza-praktikak aztertze-ko eta ulertze-ko ezinbestekoa zaigu testuinguru sozio-historikoari begiratzea. Azken bi mendeetan Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesuak eta emakumeen bazterketak antzeko prozesuak izan dituzte. Biak arlo publikotik kanpo geratu ziren, eta azken hamarkadetan “etxetik ateratzeko” ahalegina handia egin bada ere, oraindik, bai euskararen biziberritze-prozesuan bai emakumearen askapenean ere bide luzea egiteke dago.

XIX. mende hasieran emakumeak eskubide unibertsalen aldarrikapenetik, eta ondorioz botere guneetatik, kanpo geratu ziren. Bestalde, estatutuzko zentralaren garaia abiatzearekin batera, hizkuntza askori arlo publikoaren ateak itxi zitzaizkion (Burke, 2004:185). Euskara eta emakumeak esparru publikotik at geratu ziren; esan daiteke modernitateak etxera bidali zituela. Egon ziren, hala ere, XIX. mendean zehar bi arlo horietan bazterketa dinamika horien aurkako mugimenduak: emakumeen heziketa aldarrikatu zutenen artean Emilia Pardo Bazan litzaiteke ezagunena, eta Agustin Paskual Iturriaga edo Luis Astigarraga pedagogoa liberalak aipatu ditzakegu euskararen irakaskuntza eta euskarazko eskolen alde lanean aritu zirenen artean. Bi eskakizunak batera aldarrikatu zuenik, ordea, ez zaigu iritsi gurera. Baina liberalismo eta tradizioaren arteko borroka urte haietan, euskararen alde eta emakumearen eskubideen alde egindako lanak XX. mende hasieran nola baiteko uztardura eduki zuten, euskal nazionalismoan militatu zuten emakumeen bidez.

XX. mende hasieran euskararen transmisioa emakumearen ardurapean geratu zen euskal nazionalismoaren bidez (Llona, 2002:171). Nazionalismoak amatasunaren aldarria egin zuen (Ugalde, 1995:141) emakumeentzat zaintza, transmisioa eta sozializazioa rol gako gisa agertuz (Del Valle, 1999:40). Paper horiei lotuta ageri zen, besteak beste, hizkuntzaren biziraupena. Euskararen transmisioaren eta zaintzaren papera emakumearen bizkar geratu ziren, nolabait euskararekiko ardura fe-

Azken bi mendeetan Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesuak eta emakumeen bazterketak antzeko prozesuak izan dituzte. Biak arlo publikotik kanpo geratu ziren, eta azken hamarkadetan “etxetik ateratzeko” ahalegina handia egin bada ere, oraindik, bai euskararen biziberritze-prozesuan bai emakumearen askapenean ere bide luzea egiteke dago.

**Euskararen
transmisioaren
eta zaintzaren
papera
emakumearen
bizkar geratu
ziren, nolabait
euskararekiko
ardura
femeninoa
indartuz. Azken
mendearen
diskurtsoetan eta
praktiketan
lotura hori
konstante gisa
agertu zaigu.**

meninoa indartuz. Azken mendearen diskurtsoetan eta praktiketan lotura hori konstante gisa agertu zaigu.

Eginkizun horretan ama biologikoak zein sozialak zuten tokia (Altuna eta Hernandez, 2017). Etxean emakumeen ardura seme-alabei euskara erakustea eta euskaraz hezitzea zen. Baina eginkizun bera zuten eskolako maistrek eta andereñoek. Hortik abiatu ziren 1920. eta 1930. hamarkadetako lehenengo “ikastolak” edo euskal eskolak (Fernandez, 1995:36) eta hala mantendu da gaur egun arte emakumeen protagonismoa euskararen irakaskuntzan.

Emakumeei ezarritako papera hizkuntzaren birsorkuntza ziurtatzea izan da. Feminitatea, beraz, estatiko eta latente den zerbait da (Acosta, 2013). Transmisioa nahiko rol pasiboa da, ez da dinamikoa: zuk duzun zerbait ematen duzu, baina ez da oso ekintza sortzaile aktiboa eta ez du beti eman beharko lukeen emaitza lortzen. Eta emaitzarik ematen ez duenean emakumeak erruduntzat hartzea ohikoa ere izan da.

Horregatik, zenbaitetan euskararen galeraren errua emakumeei leporatzea ere ohikoa izan da (Hernandez, 2004). Ardura, beraz, emakumeen esku utzi bada ere, eta euskararen euste eta biziberritze-lanean andreak lan handia egin badute ere, paradoxikoki arlo publikoan gizonezkoak izan dira euskararen (hitzaren) jabe agertu direnak. Emakumeei transmisore papera egotzi zaie, baina euskararen biziberritze dinamika publikoan ez zaie protagonismorik aitortu.

5. EUSKARA NERABEZAROAREN ISPILUAN BARRENA

Aurretik aipatu dudan bezala, Humty Dumptyk badu gauza bat argi: hizkuntza botere kontua da. Euskararen biziberritze prozesuan transmisioan jarri da fokua. Historikoki emakumeei egotzi zaie transmisioaren ardura, eta azken hamarkadetan haur eta gazte begira egon garenez, horien gainean ere arduraren zati garrantzitsu bat geratu da. Emakumeak eta haurrak. Hain zuzen, botere gutxien dutenak. Humty Dumptyk (arraultza harroa, arraultza arra eta arraultza heldua) hesiaren gainetik harrokeriaz hitz egin zion Aliziari:

Zazpi urte eta sei hilabete!- errepikatu zuen Humty Dumptyk pentsakor-. Adin deserosoa. Orain, nire aholkua entzun nahi izango bazenu, esango nizuke: “gelditu zazpi urteetan”... baina beranduegi da.

Mendebaldeko egungo gizarteak izaera helduzentrikoaren arabera botere harreman batzuk ezartzen eta garatzen dira (Duarte, 2012 in Fer-

nandez, 2016). Horregatik, haur eta nerabeei Humpty Dumpty bezala begiratzen eta hitz egiten diegu maiz: hesiaren gainetik. Nerabezaroan aldaketa garrantzitsuak ematen direla onartuta ere, nerabeak ez dira bukatu gabeko helduak, “prozesuan dauden subjektuak” baizik (MacDougall, 1998:82). Horregatik, Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologiak eskaintzen dituen tresnak eta proposamenak oso baliagarriak zaizkigu nerabeen ahotsak eta ikuspegiak jaso ahal izateko.

Pasaian eta Lezon garatutako ikerketan, ikertzaile helduaren hesi gainetik jaitsi ahal izan nuen gazteekin aurrez-aurre egoteko. Planteamendu antropologiko horiei jarraituz, hizkuntza-praktiketan neska eta mutilen artean diferentziak ematen ote diren ikusteko, lehendabizi, nerabeen identitateak eta praktikak aztertu nituen; nerabeen hizkuntza-praktikak ikertzeko nerabezaroan eta gaztaroan nabarmentzen diren praktiketan murgiltzea komeni baita. Horri begira, behaketa partehartzaileekin batera, zenbait talde-dinamika proposatu nizkien.

5.1 Nerabeen praktikak: kirola, festa eta mugikorra

Gazteria sortutako gizarte kategoria da, eta hari loturiko hainbat kontzeptu (nerabezaroa besteak beste) testuinguru sozial eta historiko jakin batean sortutako gizarte eraikuntzak dira. Gazte-kultura aldatuz joan den kontzeptu eta praktika izanik ere, gazte gisa izendatuak direnek euren berezko kultura (arau, bizimodu, ikuspegi...) sortzeko gaitasuna dute (Feixa, 1999). Ikerketan parte hartu zuten Lezo eta Pasaiko nerabeek gaztetasuna ezaugarri positiboen bidez deskribatzen zuten, eta gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen zen. Esan daiteke adinkideen taldeari berebiziko garrantzia ematen diotela eta jaiotza urtea eta sexua direla lagun-talde ezberdinak osatzeko funtsezko ezaugarriak. Hala ageri ziren gazteen nortasunaren ezaugarriak irudikatzen osatu zituzten paneletan eta ondoren sortutako solasaldietan. Ikerketan parte hartu zuten 12 eta 16 urte bitarteko nerabeen artean ez ziren estilo ezberdinetako gazte-kulturak nabarmentzen, eta euskara pisu gutxiko aldagaia zen euren burua definitzeko edo aurkezteko orduan.

Nerabe horien praktikak laburbildu ditzakegu aisialdiko jarduerak garrantzi handia hartzen dutela esanez. Kirola oso presente dago, nahiz eta, mutil eta nesken artean joera ezberdinak nabari diren. Nesken artean kirol-praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta kirol-espezialitateetan aniztasun handiago dago. Lezon, adibidez, honelako elkarriketa sortu zen talde-eztabaida batean:

**Lezon eta
Pasaian garatu
dudan ikerketan
nahiko argi
ikusten da
nerabeei
euskarak gauza
handirik ez diela
eskaintzen euren
gazte-identitatea
eraiki ahal
izateko:
euskararekin
lotzen duten
guneak batez ere
eskola eta etxea
(neurri
txikiagoan) dira.
Baina
nerabezaroan
gune horiek
garrantzia
galtzen dute
aisialdiko
jardueren aldean.
Eta aisialdi
eremuan
garatzen dituzten
praktika
nagusienetan
(kirola, musika,
komunika-
bideak...) euskararen
presentzia oso
apala da.**

M1: Ez duzuenak egiten kirola...

N1: Bai egiten degu, ez degu egiten futbola, baina bai egiten degu kirola.

(Lezoko gazteak, 13-14 urtekoak)⁸

Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari, eta euren bizitzaren erdigunea dela adierazten dute. Esaterako, ikerketaren bigarren behaketa-egunean euren aisialdi espazioak herriko mapa batean kokatzeko eskatu nien eta futbolaren presentzia oso nabarmena izan zen mutilen artean: mutilen mapa guztietan herriko futbol zelaia markatu zuten, bai futboleak aritzen direlako, bai partidak ikustera joaten direlako.

Bestetik, nerabe hauentzat kalea da aisialdi ez-formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Lagunartean kalean egote horretan ere, ezberdintasun batzuk deskribatu dituzte, mutilek neskek baino gehiago mugitzeko joera dutela adieraziz. Azkenik, oso esanguratsua da telefono mugikorrek nerabeen aisialdian duten erabateko presentzia. Behatutako saioetan tresna horiek oso presente egon dira, eta nirekin zituzten zenbait elkarrizketa informaletan ere mugikorra eskuetan edukitzea ohikoa zen: hizketan ari ziren baina era berean mugikorrari adi zeuden. Itxuraz, mugikorraren bidez sortzen diren sare sozialetan egotea oso garrantzitsua da adin honetako nerabeentzat bizitza sozialaren erdigunean egoteko. Horren adibidea da Lezon jaso nuen elkarrizketa hau:

M1: Nik ez det ia erabiltzen mobila.

N1: Bai! Ixo! Ez dezu edaten, ez zera ateratzen gauetan, ez dezu mugikorra erabiltzen, o sea!... Kar, kar, kar... Ez dezu erderaz hitz egiten...

M2: Ez dauka "vida sozialik"

(Lezoko gazteak, 13-14 urtekoak)

5.2 Nerabeen hizkuntza-praktikak: gaztelania nagusi nahasketa giroan

Gaztetxoen hizkuntza-sozializazioari dagokionez, Lezon eta Pasaian garatu dudan ikerketan nahiko argi ikusten da nerabeei euskarak gauza handirik ez diela eskaintzen euren gazte-identitatea eraiki ahal izateko: euskararekin lotzen duten guneak batez ere eskola eta etxea (neurri txikiagoan) dira. Baina nerabezaroan gune horiek garrantzia galtzen dute aisialdiko jardueren aldean. Eta aisialdi eremuan garatzen dituzten praktika nagusienetan (kirola, musika, komunikabideak...) euskararen presentzia oso apala da. Horrek, nire ustez, ondorio logiko bat dauka: haurtzaroan baliagarria zitzaien hizkuntza (euskara) ordezkatu edo

osatu behar dute, eta hori, hizkuntza-mudantza⁹ prozesuaren bidez ematen da. Nerabezaroan ematen den hizkuntza-mudantza Euskal Herrian egin diren beste ikerketa batzuetan garbi deskribatu da (Eusko Jaurlaritz 2013, 2016 eta 2017, Soziolinguistika Klusterra, 2013). Pasai Donibane eta Lezoko gazteek ere adin tarte honetan gaztelania gehiago erabiltzeko joera argia erakutsi eta deskribatu dute. Lagunartean erdara nagusitzen den euskara eta gaztelania nahasten den hizkuntza-praktika ohikoa bihurtzen da, kode-aldaketa gazte hauen hitz egiteko *modu normala* bihurtuz:

Galdera: Kanean zaudetenean zer hizkuntza entzuten da? Nola egiten duzue?

N6: Normala... Ez da euskaraz ez da erderaz

Galdera: Zer da normala?

N6: Normala...

N8: ¿El qué? Ez naiz enteratu

N6: ...hori da normala: "el que ez naiz enteratu"

(Pasai Donibaneko nerabeak, 13-14 urtekoak)

Esan daiteke, hizkuntza bat edo bestea egiteko gazteek eman dituzten arrazoiak bi multzotan antolatu daitezkeela: ohiturak eta diskurtsoak. Ikerketan parte hartu duten gazteek ohitura maiz aipatutako arrazoia izan da euskaraz egiteko: *"lagunekin egoten naizelako, horrela ateratzen zaigulako, txikitatik ikastolan euskaraz hitz egin dugulako, etxean beti horrela egin dugulako..."* Euskaraz egiteko arrazoiaren beste ardatzean diskurtsoak daude. Nerabe hauek euskararen inguruan, hizkuntza-sozializazioaren bidez, jaso duten hizkuntza-ideologia litzateke. Gazteek euskaraz egiteko arrazoiaren diskurtsoan, derri-gortasunarekin batera, nortasuna eta ardura bezalako kontzeptuak agertzen dira. Hau agerian geratu da jaso ditudan honelako esaldiotan: *"euskara gurea da, bestela desagertuko da, euskaraz egin!..."*.

Gaztelaniaz egiteko arrazoiei dagokionez, ikerketan parte hartzaileek aipatzen dituztenak ohiturarekin lotuta daude. Hori bai, beraiek ez diren beste pertsonen ohiturei egozten diete erdaraz hitz egitearen motiboa. Gehien errepikatu dena beste adinkideek dituzten ohiturak dira: *"ez dakitelako, erdara gehiago egiten dutelako, gogorik ez dutelako..."*. Helduen ohiturak ere askotan ageri dira: *"entrenatzaileek, etxekoek, dendariek... erderaz egiten dutelako."* Gaztelaniarekin lotutako ideologia-linguistikorik ez da agertzen hizkuntza hori erabiltzeko arrazoiei buruz galdetzerakoan. Baina nerabezaroan gaztelaniaz hitz egiteko dauden motiboak aipatzerakoan gaztelaniaren prestigioa eta euskararen prestigioa (eza) behin eta berriro agertzen da, eta argi dago hizkuntza baten prestigioa hizkuntza-ideologia dela: *"pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa"* (Eusko Jaurlaritz, 2010:15).

**Nerabezaroan
gaztelaniaz hitz
egiteko dauden
motiboak
aipatzerakoan
gaztelaniaren
prestigioa eta
euskararen
prestigioa (eza)
behin eta berriro
agertzen da, eta
argi dago
hizkuntza baten
prestigioa
hizkuntza-
ideologia dela.**

**Pasai Donibane
eta Lezoko
nerabeen artean
neskek euskara
gehiago egiten
dutela
ondorioztatu
nuen. Gaztetxoek
hala identifikatu
zuten eta
behaketetan
horrela dela
berretsi ahal izan
nuen. Neskek
gehiago
erabiltzeko bi
arrazoi ematen
zuten: hizkuntza-
prestigioa eta
aisialdiko
praktikak.**

Haurtzaroan euskararen inguruan jasotako mezuak ahultzearekin batera, nerabeak heldutasunera begira daude. Heldu izate horretan gaztelania nabaritzen dute prestigio-hizkuntza gisa. Nerabeek kapital sinbolikoa edukitzeko gaztelania garrantzitsua dela hautematen dute, eta ez dituzte euskararekin lotutako diskurtso erakargarriak topatzen. Horri gehitzen zaio gazteen aisialdiko jardueretan euskarak duen presentzia urria. Azken finean, behatutako prozesuetan oso argi ikusten da hizkuntzaren bidez nerabeek identitatea nola *performatzen* duten. Hau da, hizkuntza-identitatea ere, generoarena bezala, etengabeko osaketa eta aldaketa prozesuan dagoela ondorioztatu daiteke, eta prozesu horretan etengabe heldu izatera iritsi behar dutela jasotzen dutenez, pertsona helduaren papera *performatzeko* gaztelaniaz jokatzeko dute eta jolasten dira.

5.3 Generoa nerabeen hizkuntza-praktiketan: genero-identitatearen jokoa

Genero aldagaiak nerabeen hizkuntza-praktiketan zehazki nola operatzen duen aztertuta neska eta mutilen arteko ezberdintasun argiak ematen direla ondorioztatu nuen, eta alde horretatik, behatutakoak eta nerabeekin izandako talde-elkarriketetan jasotakoak bat datoz. Lezoko 16 urteko neska eta mutil batek hala zioten, adibidez:

M7: igual mutilak inizatiba gehio.

N12: mutilak mugituagoak dira, beti. Gure adinean mutilak dira mas “goazen hau egitera!” eta neskak egoten gea geldik.

Mutilek mugimendurako joera handiago adierazi eta erakusten dute, beraien presentzia nabarmentzen dute eta espazio handiago okupatzen dute. Gainera, mutilek jarrera oldarkorragoa adierazten dute eta gehiago entzuten zaie. Protagonismoa bereganatzen saiatzen dira eta, gehienetan lortu ere lortu egiten dute. Salbuespenak ere badaude, noski¹⁰. Zenbaitetan aztoratuak zeuden neskak behatu ditut, baita talde handian protagonismoa hartzen zutenak ere. Mutil taldeak dinamiketan lasai parte hartzen ere ikusi nituen, eta espazio egokiak utziz gero mutilekin elkarriketa giroa lortzea posible dela ere agerian geratu zen.

Hizkuntza-praktikei dagokionez Pasai Donibane eta Lezoko nerabeen artean neskek euskara gehiago egiten dutela ondorioztatu nuen. Gaztetxoek hala identifikatu zuten eta behaketetan horrela dela berretsi ahal izan nuen. Neskek gehiago erabiltzeko bi arrazoi ematen zuten: hizkuntza-prestigioa eta aisialdiko praktikak. Elkarriketa honetan, esaterako, hala zioten:

Galdera Eta zergatik uste dezue gertatzen dela hori?

M7: Mutilak guay-ago direlako.

N12: Ui! Miralo! Kar, kar...

M7: A ver! Esan nahi det trolakin, ordun... pues azkenean guaya dena gazteleraz egiten du ta ordun, azkenean, guay izate horrekin ohitura bat hartzen dezu eta ya zaila da aldatzea.

(Lezoko nerabeak, 16 urtekoak)

Lehenengo arrazoia, beraz, prestigioarekin lotuta dago: *guay izatearekin*. Ulertu daiteke gaztelaniaren bidez mutilek estatus berezia lortuko luke-tela eta horregatik gaztelaniaz egiten dute hizkuntza horrek ematen dien balore sinbolikoa handitzeko nahian. Mutilak botere estatus batetik abiatzen direnez, gaztelania erabiltzeak ez die ekartzen arazo handirik. Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeek maiz jasotzen dute euskara erabiltzeko agindua, baina, mutila izateak mutilei ematen dien posiziotik errazagoa dute agindu horri aurre egitea, batez ere, haurrei eta transmisioari oso lotuta dagoen agindua dela konturatzen direlako. Neskak, ordea, beste posizio batean daude, eta gainera, etengabe ikusi dugun bezala euskararen transmisioaren ardura emakumeengan ardaztua jarraitzen duenez, euskaraz egitearen agindua propioago sentitzen dutela pentsatu daiteke. Bigarren arrazoia, aisialdiko praktiken lotuta dator, batez ere, kirol praktikekin. Mutilen artean nerabezaroan garatzen den jarduera arrakastatsuena kirola da, eta ikerketa honetan (eta beste batzuetan) agerian geratu zen bezala euskararen presentzia kirolean oso apala da. Nesken artean, aisialdiko praktiken aniztasuna handiagoa da eta, hortaz, euskaraz egiten diren jarduera gehiagoetan parte hartzeko aukera handiago dute.

Bestalde, oso deigarria egin zitzaidan neska eta mutilen artean hitz egiteko modu ezberdinak topatu izana. Mutilen artean elkarrizketa luze gutxi jaso nituen. Euren arteko komunikazio egoera arruntena esaldi eta, batez ere, esamolde motzez osatutakoak dira: *“somos porreros!, los mejores, los putos amos!”* *“Quita, quita que te atropello!”* *“Eh! Tú, joder, déjame!”* *“Jo! Idatzi ondo!...Tú eres tonto!”* (...) *“Ke putosida!”* (Lezo, 13-14 urtekoak). Ezarritako genero rolaren arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte (etenak, isiluneak...). Nesken artean, aldiz, solasaldi luzeagoak eta giro lasaia batean edukitzeko joera nabarmentzen da. Diferentzia hauek oso lotuta daude batzuk eta besteek garatzen dituzten gorpuzta-dinamikekin: mugimendua edo geldotasuna.

Eckert-en ustez mutilek ezberdintasun objektiboetan oinarritzen dute beraien arteko lehia, indarra edo abilezia erabiliz. Nesken identitatea,

Nerabeek maiz jasotzen dute euskara erabiltzeko agindua, baina, mutila izateak mutilei ematen dien posiziotik errazagoa dute agindu horri aurre egitea, batez ere, haurrei eta transmisioari oso lotuta dagoen agindua dela konturatzen direlako. Neskak, ordea, beste posizio batean daude.

**Lezon eta
Pasaian egindako
ikerketan
nerabeak helduen
munduaren
emaitza eta
ispilu direla
ondorioztatu
nuen: nerabeen
mundutik
gustukoa ez
duguna, helduen
mundutik
gustatzen ez
zaiguna da. Eta
ondorio horrek
berdin balio du
hizkuntza-
praktikak
deskribatzeko
eta, baita, genero
desberdinkeriaz
hitz egiteko ere.**

aldiz, adiera sinbolikoetan oinarritzen da. Horrela itxura fisikoa, arropa, edo hizkuntz erabilera, nesken identitate adierazgarri garrantzitsu bilakatzen dira (Eckert, 1989:256). Ondorioz, mutilek zer egiteko gai diren erakutsi behar dute (egin). Neskek, aldiz, bere izaera zertan datzan adieraztea dute helburu (izan). Nire ikerketan ezberdintasun hauek ageri dira: mutilen artean txantxa, erronka, iraina eta ziria nagusitzen da eta hizkera horretan etengabe trebatzen dira. Nesken artean, ordea, solasaldi luzeak eta txutxu-mutxuak deituak izaten direnak gailentzen dira. Azken finean, batzuk eta besteak hizkuntza *performatzen* ari dira. Hizkuntzaren bidez, identitate zehatz batzuk jokatzeko/ antzetzeko ari dira, eta hizkuntza erabilera horren bidez genero identitate batzuk *performatzen* dituzte:

M7: Hor ginen sei mutil bakarrikan ta hamar minutu hizketan lasai...

N12: Kar, kar, kar, kar... Hamar minutu... (barrez). Ez dago gaizki (ironiaz)

M7: Atsalde osoa ezingo genuke. Atsalde osoa mutilen artean... gu astuak gera. Igual neskak hitz egiten dute mutilez xuabego edo, ez dakit. Mutilak ahal degu hitz egin xuabe, baino gaudenen talde handian, hasten da bat berotzen, beste harek txorrada bat esaten ta ordun... Ez da modu berdina.

N12: Nesken artean arratsalde osoa egoten gara hitz egiten. Beti dago zerbait kontatzeko.

(Lezoko gazteak, 16 urtekoak)

6. ONDORIOAK

I Amaitzeko, beraz, esan daiteke nerabeekin egindako ikerketa honetan argi geratu dela genero rolen arabera banaketa argia dela. Hori dela eta, nerabeek nesken ezaugarriak eta mutilen ezaugarriak garbi identifikatu eta ezberdintzen dituzte, eta hizkuntza-praktiketan desberdintasunak nabaritzen direla ikusi ahal izan dugu. Beraz, nire ustez, lekuan lekuko lanaren bidez artikulatu honen hasieran planteatzen zen tesi nagusia berresten da: hizkuntza eta bere erabilerak gizartearen isla direla eta gizartearen generoaren arabera antolatua dagoenez eta, norbanakoen sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen denez, horrek eragina du hizkuntzaren gizarte-erabileran.

Azken bi hamarkadetan “euskararen erabilera” kezka iturria bihurtu da, eta, gehienetan, auzi hau planteatzerakoan nerabe eta gazteengan jarri da lupa. Nire ustez, ordea, euskararen biziberritzea askoz modu zabalagoa planteatu ezean egungo egoera mantenduko da. Paula Kasaresi behin entzun nion bezala, haurrak *etorkizuna* dira baina hizkuntza kontuetan *orainaldi estatiko* bihurtuta geratzen dira, euskara “haurren

kontua” delako. Lezon eta Pasaian egindako ikerketan nerabeak helduen munduaren emaitza eta ispilu direla ondorioztatu nuen: nerabeen mundutik gustukoa ez duguna, helduen mundutik gustatzen ez zaiguna da. Eta ondorio horrek berdin balio du hizkuntza-praktikak deskribatzeko eta, baita, genero desberdinkeriaz hitz egiteko ere.

Haur, nerabe eta gazteei buruz hitz egin baino, haur, nerabe eta gazteekin hitz egin eta egon behar dugula uste dut. Haien ahotsak entzun behar ditugu, asko esateko dutelako eta gako diren gauza asko adierazten ditugutelako. Beharbada, euskarari buruz gutxiago hitz egin behar dugu, eta gizartean ditugun praktika, diskurtso eta arau sozial eta kulturei buruz (eta kasu honetan genero ardatza bereziki kontutan hartuta) gehiago hitz egin behar dugu eta zalantzan jarri behar ditugu. Horiek baitira boterezko hizkuntza-harremanak mantentzen dituztenak. ●

OHARRAK

1. Gaur egun ez da erraza adostasun orokor bat topatzea haurtzarora, nerabezarora eta gaztarora mugatzen dituzten adinen inguruan. Osasunaren Munduko Erakundeak dio nerabezarora 10 eta 19 urte arteko garaia dela, eta gaztarora 15 eta 24 urte artekoa. Ikerketan parte hartu dutenak 12 eta 16 urte bitartekoak dira. OME-ren sailkapenaren arabera denak nerabeak lirateke, eta batzuk gazte gisa ere izendatu litezke. Nik *gazte* eta *nerabe* gisa izendatu ditut adin horretakoak gaztaroaren prozesuaren lehen etapan txertatua daudela iruditzen zaidalako.
2. Master Amaierako Lan horren zuzendaria Jone Miren Hernandez Garcia EHuko antropologia irakaslea izan zen. Lanak UPV/EHuko Berdintasunerako Zuzendaritzaren diru laguntza izan zuen Genero ikuspegia barne hartzen duten master amaierako lanak egiteko laguntzen deialdian (2015/2016). -Master Amaierako lan honek UPV/EHuko 2016ko Maria Goyri Saria jaso zuen. Gainera, Lezo eta Pasai Donibaneko azterketa “Gu gazteok” izeneko ikerketa zabalago baten baitan garatu zen. “Gu Gazteok” Eusko Jaurralitzako Euskara Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziaren eskariz egindako lan bat izan zen (Eusko Jaurralitza, 2016)
3. Lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzeko helburuz garatzen den programa. Astean behin, ostiraletan bi orduz, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute, 20 eta 50 arteko kidez osatutako taldetan, bina aisialdiko hezitzaileekin. Kuadrillategi egitasmoa 2001. urtean abiatu zen Pello Jauregi ikerlariaren eskutik.
4. Praktika-komunitatea horrela definitu daiteke: “Un conglomerado de personas que se reúnen alrededor de un compromiso mutuo para llevar a cabo algo. Formas de hacer cosas, formas de hablar, creencias, valores, relaciones de poder – en una palabra: prácticas – surgen en el curso de ese esfuerzo mutuo. Como un constructo social, una CP es diferente de la comunidad tradicional, ante todo porque se define simultáneamente por su membresía y por la práctica en la cual esa membresía se emplea” (Lave eta Wenger (1991); in Holmes eta Meyerhoff, 1999).
5. Lewis Carroll-en “Alizia, ispiluan barrena” liburuko VI. Kapituluko zita (Carroll, 1995)
6. Pierre Bourdieuren ustez egunerokotasunean oso arraroa da hizkuntza komunikazio tresna huts gisa erabiltzea: hizkuntza-truke orok ekonomia printzipiotan oinarrituta dago eta irabazi sinbolikoa (pertsonala eta soziala) irabazteko helburua du (Bourdieu, 1985:40)
7. Euskal Herrian emakumeak euskararen sozializazioan izan duen (eta egotzi zaion) rola aztertzeke, azken hiru hamarkadetan gaia ikertu duten hainbat egile jarraitu ditut.

Besteak beste: Teresa Del Valle (1985, 1999), Idoia Fernandez (1994), Mercedes Ugalde (1995), Nerea Aresti (2000), Miren Llona (2002), Lore Agirrezabal (2009), Ainhoa Acosta (2013), Oihana Garcia (2016).

8. Nerabeen testigantzak txertatzeko garaian talde-elkarrizketetan parte hartu zuen pertsona bakoitza kode batekin identifikatu nuen: letra bat (M edo N) eta zenbaki bat. Ikerketa lan honetan generoa ardatzak garrantzia zuenez, M letrak mutila adierazi nahi du eta N letra neska.

9. Joan Pujolarrek honela definitzen du hizkuntza-mudantza: “Emprem el concepte de “muda lingüística” per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents. El concepte es pot projectar també a la comparació entre diferents posicionaments lingüístics dels individus, ja siguin relatius a usos, ja ho siguin a adscripcions simbòliques d’identificació lingüística (Pujolar, Gonzalez, Font, Martínez, 2010:45)”

10. Salbuespenezko adibide horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit, arautik kanpo edo mugan dauden subjektuak eta jokabideak, araua bera eta erdigunea argien erakusten digutenak baitira. Performatibitatearen ikuspegiaren arabera salbuespen horiek identitate osatze ez-determinatua erakusten digute. Maskulinitatea edo feminitatea jokatzeko etengabeko presioa jasotzen badugu ere, norberak badu identitate propioa osatzeko ahalmena eta salbuespenek horren berri ematen digute.

ERREFERENTZIAK

- Acosta, Ainhoa (2013): “El rol de las mujeres vascas en la transmisión del euskera: el idioma en las dinámicas de género e identidad”, *Euskonews* 656, Eusko Ikaskuntza, Interneten eskuragarri (2017/11/01) [<http://www.euskonews.com/0656zbk/kosmo65601es.html>]
- Agirrezabal, Lore et. al (2009) *Euskararen berreskuratzea. hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*, Garabide Elkarte, Eskoriatza.
- Altuna, Jaime (2016): “Euskara generoaren ispiluan barrena: hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean”, Master Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Interneten eskuragarri (2017/11/01): [<https://addi.ehu.es/handle/10810/19898>]
- Aresti, Nerea (2000): “El angel del hogar y sus demonios. ciencia, religión y género en la españa del siglo xix”, *Historia Contemporánea*, 21:363-394, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Bourdieu, Pierre (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril.
- Burke, Peter (2004) *Lenguas y comunidades en la Europa moderna*. Madril: Akal.
- Butler, Judith (1990): “Variaciones sobre sexo y género: beauvoir, wittig y foucault” in Seyla Benhabib (ed.) *Teoría feminista y teoría crítica*, Ediciones Alfons el Magnànim, Valencia.
- Carroll, Lewis (1995): *Alice*. Pamiela.
- Connell, Robert W. (1997): “La organización social de la masculinidad” in Teresa Valdés y José Olavarria (eds), *Masculinidades, poder y crisis*, ISIS-FLACSO, Santiago de Chile.

- De Miguel, Ana (2015-12-13): "Bi koloreren diktadurapean" in *Berria*.
- Del Valle, Teresa *et al.* (1985): *Mujer vasca: imagen y realidad*, Antrophos, Barcelona.
- Del Valle, Teresa (1999) "El genero en la construccion de la identidad nacionalista" in *Foru Hispanico. Revista Hispanico de los Paises Bajos*, 16:37-44.
- Eckert, Penelope (1989): "The whole woman: sex and gender differences in variation", *Language variation and change*, 1-03:245-267, Cambridge University Press .
- Eusko Jaurlaritza (2010), *Soziolinguistika Hiztegia*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2016) *Gu gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunero-kotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2017) *Arrue proiektua. EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2015kasleak hiztun. 2016ko*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Feixa, Carles (1999): *De jóvenes, bandas y tribus. antropología de la juventud*. Ariel, Barcelona.
- Fernandez, Idoia (1994): *Oroimenaren hitza: ikastolen historia, 1960-1975*, UEU, Bilbo.
- Fernandez, Irantzu (2016): "Nerabezarako maitasun bizipenen etnografia: harremanen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua bilboko gatetxoaren artean", doktorego-tesia (argitaratu gabe), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Garcia, Oihana (2016): "Hizkuntza-transmisioaren kate-begi isilak" *elhuyar.eus*, Interneten eskuragarri (2017/11/01) [<http://komunitatea.elhuyar.eus/eraldaketa-elhuyar-da/2016/02/22/hizkuntza-transmisioaren-kate-begi-isilak>]
- Hernandez, Jone M. (2004): "Euskara dela eta... neskek zer diote?" *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 53:79-95, Soziolinguistika Klusterra.
- Hernandez, Jone M. (2005): *Jolasgaraia. gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
- Hernandez, Jone M. (2008): "Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik" in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 69: 27-42. Soziolinguistika Klusterra.
- Hernandez, Jone M. (2011). "Baina gu ere gazteak izan ginen. gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur", *Euskera*, 55-2: 579-607. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Holmes, Janet eta Meyerhoff, Miriam (1999) "La comunidad de práctica: teorías y metodologías en investigación de lengua y género" in *Language in Society Cambridge University Press*, 28:173-183.

- Kasares, Paula (2014): *Euskaldun hazi nafarroan. euskararen belaunez belaluneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Llona, Miren (2002): *Entre señorita y garçon. historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*, Universidad de Málaga, Málaga.
- Macdougall, David (1998) *Trasncultural cinema*, Princeton University Press.
- Maqueira, Virginia (2001): "Género, diferencia y desigualdad", *Feminismos, debates y teorías contemporaneas*: 127-190. Alianza Editorial, Madril.
- Pujolar, Joan, Gonzalez, Isaac, Font, Anna, Martínez, Roger. (2010) *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.
- Rubin, Gayle (1986): "El tráfico de mujeres: notas sobre la economía política del sexo", *Nueva Antropología*, iii-30:95-145, Mexico.
- Soziolinguistika Klusterra (2013) *Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala*. Interneten eskuragarri (2017/11/01) [http://www.soziolinguistika.eus/files/Bergarako%20nerabeak%20eta%20euskarazko%20ahozko%20jarduna_diagnostikoa.pdf]
- Ugalde, Mercedes (1995) "Dinámica de género y nacionalismo. la movilización de vascas y catalanas en el primer tercio de siglo", *Ayer*, 17: 121-155, Asociación de Historia Contemporánea.

Soziolinguistika

aldizkaria

Eskuratu BAT aldizkariaren aurreko zenbakiak

Eskaintza berezia



1 – 63 zenbakiak: ALE BAKOITZA 3.00 euro

(1., 3-4., 5., 7-8., 10., 11., 15., 16. 17., 22-23. eta 30. zenbakiak agortuta)

64 – 103 zenbakiak: ALE BAKOITZA 10 euro

* Bidalketa gastuak eroslearen kontu

1/HIZKUNTZ PERFILAK **AGORTUA**

2/LURRALDEASUNA

3-4/EUSKAREN ERABILPENAREN NEURKETA **AGORTUA**

5/KATALANERAREN NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

6/EUSKAREN HERRI-MUGIMENDUA

7-8/HERRI BALTIKOAK **AGORTUA**

9/HIZKUNTZA ETA BOTERE POLITIKOA

10/IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZA: NORMALIZAZIOA **AGORTUA**

11/EUSKAREN NORMALKUNTZA LAN MUNDUAN **AGORTUA**

12/HIZKUNTZEN GEROA EUOPAR BATASUNEAN

13-14/EUSKAREN EZAGUTZA ETA ERABILPENA

15/IRLANDERA GAUR EGUN **AGORTUA**

16/EUSKAREN GIZARTE MUGIMENDUA ETORKIZUNEAN: EDUKINAK ETA EGITURAK **AGORTUA**

17/EUSKAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA HEGO EUSKAL HERRIKO ADMINISTRAZIOAN: PLANGINTZEN AZTERKETA

18/TXEPETX-EN HIZKUNTZEN TEORIA SOZIALA HAMAR URTE ONDOREN

19/HIZKUNTZ HERIOTZA

20-21/HIZKUNTZ PLANGINTZA KATALUNIAN ETA EUSKAL HERRIAN

22-23/SOZIOLOGIA INKESTAK: DATUAK ETA GOGOETAK

24/EUSKAREN ERROKIA TEKNOLOGIA BERRIEN AURREAN

25/UNIBERTSITATEKO HIZKUNTZA NORMALKUNTZAN BI EREDU: EUSKAL HERRIA ETA BELGIKA **AGORTUA**

26/EUSKAREN: EGOERA NAFARROAN IKERTZAILEEN BEGIRADAPEAN

27/EUSKARA BATUAK 30 URTE

28/EUSKAREN KALE ERABILPENA EUSKAL HERRIAN

29/HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

30/SUOMIERAREN NORMALKUNTZAZ

31/EUSKAREN ALDEKO GIZARTE-MUGIMENDUA ETA EKB, AZKEN 25 URTEAK GAINBEGIRATUZ

32/NEURKETA SOZIOLOGIAKOAK EUSKAL HERRIAN

33/ADDENDA. 1-30 ZENBAKIETAN ARGITARATURIKOAREN ADDENDA

34/UEMA 1991-2000

35/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ETA LEGE EREMUA

36/HIZKUNTZA GUTXITUA, BIZI IRAUPENA ETA NORMALKUNTZA

37/EUSKAL SOZIOLOGIA INSTITUTUA

SORTZEN. SINPOSIOA

38/HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PRIBATUAN, ETIKETA TOKIKO HIZKUNTZAN

39/ESLOVENIA

40/QUEBEC

41/ERABILERA, LABIRINTOTIK SUKALDERA

42/HIZKUNTZA NORMALKUNTZA HIZKUNTZA ERREPERTORIOAREN BIDETIK

43/KALE ERABILERAREN IV. NEURKETA 2001 EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

44/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA I: HIZKUNTZA ARLOKO ESKUMENEN KUDEAKETA

45/EUROPAKO BATASUNAREN GEROA II: HIZKUNTZA GUTXITUA EUROPAKO BATASUNEAN

46/EUSKARA AZTERKETA "MAKROETAN" ETA EGITASMO BERRIETAN

47/DONOSTIA-BAIONA EUROHIRIA

48/EUSKAL ERREPERTORIOA HEDABIDEETAN

49/HEZKUNTZA MUNDUA ETA HIZKUNTZA BERRISKURAPENA

50/UNIBERTSITATEA ETA ETA EUSKARA

51/LANBIDE HEZIKETA ETA EUSKARA

52/EUSKARA ETA ETORKINAK

53/EUSKAREN ERABILERAREN BILAKAERA

54/EUSKAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA UDALETAN

55/EUSKAREN ERABILERAREN ETA NORMALIZAZIOAREN AZTERKETA EAEko ADMINISTRAZIOAN

56/EUSKAREN JABEKUNTZA ESKOLAN

57/EUSKAREN ERABILERA ENPRESETAN

58/EUSKAREN ERABILERA NAFARROA GARAIAIN

59/EUSKAREN EGOERA IPAR EUSKAL HERRIAN

60/UNIBERTSITATE AURREKO HIZKUNTZA EREDUEN BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

61/UNIBERTSITATE MAILAKO SOZIOLOGIAKOAK IRAKASKUNTZA

62/HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

63/EUSKAREN ERABILERA ESKOLA-ORDUZ KANPO

64/KALE NEURKETAREN V. NEURKETA, 2006. EMAITZAK, AZTERKETAK, GOGOETAK

65/EUSKAL HERRIKO KULTURAK ETA EUSKARA

66/TEKNOLOGIA BERRIAK ETA EUSKARA

67/ERRAMUN BAXOKEN OMENEZ

68/HEDABIDEAK ETA EUSKARA-PLANGINTZA

69/HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK

70/EUSKAREN LEGEAK

71/JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA TXILLARDEGIREN OMENEZ

72/ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?

73/EUSKARA LAN MUNDUAN... LANEAN!

74/II. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

75/EUSKAREN PRESENTZIA UNIBERTSITATEAN

76/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (I)

77/BAT ALDIZKARIAREN XX. URTEURRENA (II)

78/III. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

79-80/DIGLOSIAREN INGURUAN HIZKUNTZA-OKOLOGIA EUSKAREN INGURUNEAN

81/HIZKUNTZA-OKOLOGIA EUSKAREN INGURUNEAN

82/IV. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

83/KULTURGINTZA EUSKAREN GARABIDEAN

84/HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011. EUSKAL HERRIA

85/V. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

86/EUSKAREN FRAMING BERRIAZ

87-88/EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK IKERKETA. AZKEN URTEOTAKO BEGIRADA

89/VI. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

90/LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HIZKUNTZA

91-92 /EUSKARA ERABILTZEKO PLANAK BERRITZEN

93/VII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

94/TRANSMISIOAREN MOLDE BERRIAK

95/LURRALDEAREN ETA HIZKUNTZAREN ARTEKO LOTURAK

96/AHOZKO KOMUNIKAZIOA ESKOLAN

97/VIII. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK

98/EUSKALTZALETASUNAREN AKTIBAZIOA

99/EUSKAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAKOAK (1981-2011). (I) TRANSMISIOA, GAITASUNA ETA JARRERAK

100/EUSKAREN BILAKAERA SOZIOLOGIAKOAK (1981-2011). (II) ERABILERA

101/UNIBERTSITATEAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA EUSKAREKIKO

102/IX. HAUSNARTU EUSKAL SOZIOLOGIAKOAK SARIAK (II) ERABILERA

103/EUSKALTZALEEN TOPALDIA: EUSKAREN HERRIA, ZUBIAK ETA PALANKAK

Kode-alternantzia aztertzeko hizkuntza-teknologien ekarpena

Larraitz Uria, Iñaki Alegria eta Ander Corral

IXA taldea (UPV/EHU)

larraitz.uria@ehu.es / i.alegria@ehu.eus / andercorral95@gmail.com

Sarrera-data: 2017-09-03 / Onartze-data: 2017-10-17

Laburpena. Kode-alternantzia (code-switching) ohiko fenomeno izan ohi da hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten diren komunitate linguistikoetan. Elkarrizketa berean hiztun elebidunek edo eleaniztunek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzean datza kode-alternantzia. Bat-batekotasuna du ezaugarri nagusia eta ahozko hizkuntzan ez ezik, hizkuntza idatzian ere agertzen da egun hain erabiliak diren sare sozialetan. Hala, sare sozialek eta hizkuntza-teknologiek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu nahi ditugu idatzizko mezuetan aurkitzen dugun kode-alternantzia aztertzeko. Artikulu honetan, hain zuzen ere, Hizkuntzaren Prozesamenduaren (HP) alorrean fenomeno hau aztertzeko garatzen ari garen metodologia eta hizkuntza-teknologiak aurkezten ditugu. Corpusa biltzeko nahiz etiketatzeko baliatuko ditugun metodoak hizkuntzarekiko independenteak izango dira. • **Hitz gakoak:** Kode-alternantzia, Hizkuntzalaritza Konputazionala, Soziolinguistika, Hizkuntzaren Prozesamendua (HP).

Abstract. In language communities where more than one language is spoken, a commonplace phenomenon is code-switching, which consists of bilingual or multilingual people using more than one language in the same conversation. This is a characteristic of spontaneous language use which occurs not only in speech but also in the written language on social media, the use of which is so widespread today. Thus it was decided to make use of the opportunities provided by social media and language technology to study the use of code-switching in written messaging. This article presents methods and language technology that are being used to study this phenomenon in the field of Language Processing (LP). Language-independent methods are used to compile and tag the corpus. • **Key words:** Code switching, Computational linguistics, Sociolinguistic, Linguistic Processing.

1. SARRERA

IXA ikerketa-taldeak hogeita zortzi urteko ibilbidea du Hizkuntzaren Prozesamenduaren (HP)¹ alorrean lanean. 1988. urtean sortu zen euskararako oinarritzko baliabide informatikoak garatzeko helburuarekin, eta ekarpen interesgarriak egin ditu euskal hizkuntza komunitatera (hala nola, eta batzuk aipatzearren, Xuxen zuzentzaile ortografiko-gramatikala, itzulpen automatikoko hainbat sistema, Euskal WordNet (BasWN) datu-base lexikala, morfologikoki etiketatutako Zientzia eta Teknologia Corpusa, sintaktikoki etiketatutako EPEC corpusa, etab.²).

Urte hauetan guztietan, batez ere hizkuntza estandarrean eta elebazarrez idatzitako testuen azterketa eta prozesamendua bideratzera mugatu garen arren, azken urteotan hasiak gara bai aldaera dialektalak erakusten dituzten testuekin eta baita testu eleaniztunekin ere lanean (Etxeberria, 2016; Etxeberria et al., 2016a; Etxeberria et al., 2016b; Etxeberria et al., 2015; Etxeberria et al., 2014; Uria eta Etxepare, 2012 eta 2011; Uria et al., 2011). Izan ere, teknologia berriek eta Internetek azken hamarkada hauetan gure gizartean izan duten eraginaren ondorioz, komunikazio-moduak etengabe aldatuz doaz, aldaketa horien ondorioz ezaugarri berriak dituzten testuak sortu direlarik: testu dialektalak, testu informalak eta testu eleaniztunak, besteak beste.

Bestalde, azken urteotan hizkuntza-ukipena eta eleaniztasunaren inguruko azterketek interes handia piztu dute hainbat ikerketa-eremutan: hizkuntzalaritza, soziolinguistika, neurolinguistika edota hizkuntzaren prozesamenduaren alorretan, besteak beste. Arlo bakoitzean ikuspuntu edota helburu desberdinekin aztertzen da kode-alternantzia, eta gaur egun, jada, (orain gutxi arte ez bezala) teknologia berriek eskaintzen dituzten laguntzak baliatzea da ohikoena horrelako analisiak bideratzeko garaian (batez ere azterketa kuantitatiboak direnean).

Hala, hainbat ikerketa egin dira gai honen inguruan (Nguyen et al., 2016), eta guk ere, lan honekin, ikerketa-lerro honi heldu nahi izan diogu kode-alternantzia aztertze baliabide informatiko lagungarriak garatuz. Izan ere, ezaugarri berriak dituzten testu horien azterketa eta prozesamendua bideratzeko teknologiak garatzeak gure hizkuntza-komunitatean ekarpen interesgarriak egin ditzakeela uste dugulako ekin diogu erronka berri honi.

Baliatuko ditugun metodoak hizkuntzarekiko independenteak izango dira, eta lizentzia librean eskuragarri jarri dira.

**IXA ikerketa-
taldeak hogeita
zortzi urteko
ibilbidea du
Hizkuntzaren
Prozesamen-
duaren (HP)
alorrean lanean.**

**Lan honekin,
ikerketa-lerro
honi heldu nahi
izan diogu kode-
alternantzia
aztertze baliabide
informatiko
lagungarriak
garatuz.**

**Kode-
alternantziak hitz
egiterakoan
nahiz
idazterakoan bi
hizkuntza edo
gehiago batera
erabiltzen
direnean
gertatzen da, hau
da, hiztun
elebidun edo
eleaniztunak
elkarrizketa
berean bi
hizkuntza,
hizkera nahiz
erregistro, edo
gehiago,
txandakatzen
dituenean.**

1.1 Kode-alternantzia. Zer da?

Kode-alternantzia komunikazio-ekintza gisa deskribatu ohi da: hitz egiterakoan nahiz idazterakoan bi hizkuntza edo gehiago batera erabiltzen direnean gertatzen da, hau da, hiztun elebidun edo eleaniztunak elkarrizketa berean bi hizkuntza, hizkera nahiz erregistro, edo gehiago, txandakatzen dituen. Eta hizkuntza bat baino gehiago kontaktuan daudenean maiz gertatu ohi den fenomeno da kode-alternantzia.

Normalean, hiztegi edo lexiko mailako aldaketak egiten hasten da prozesua, hau da, hitz solteak aldatzen, eta hizkuntzen arteko kontaktua indartu ahala, egitura morfologiko nahiz sintaktikoak ere aldatzera pasatzen gara.

Kode-alternantzia maila desberdinetan gerta daiteke:

- Esaldi arteko kode-alternantzia (*inter-sentential switching*) esaten zaio hiztun batek kodea esaldika aldatzen badu, hau da, esaldi bat hizkuntza batean esan eta hurrengo esaldia beste hizkuntza batean esaten badu.
- Esaldi barruko kode-alternantzia (*intra-sentential switching*) esaten zaio kodea esaldi beraren barruan aldatzeari, hau da, esaldi bera hizkuntza batean baino gehiagotan osatzeari.

80. hamarkadatik aurrera gai honen inguruko aditu gehienek hiztun elebidun nahiz eleaniztunen hizketaldietan gertatzen den fenomeno naturalizat hartu izan dute kode-alternantzia, eta esan izan dute ez dela hizkuntzaren gabeziari lotuta dagoen fenomeno; aitzitik, hiztun elebidunek edo eleaniztunek helburu komunikatibo zehatz batzuekin erabiltzen duten fenomeno dela diote, besteak beste, identitatearen markatzaile edo markatzaile sozial gisa edota baliabide diskurtsibo bezala.

Kode-alternantzia fenomeno zaharra da gure hizkuntza-komunitatean ere, Euskal Herrian. Ez da ohikoa euskaldun berri edo umeetan bakarrik, ama-hizkuntzak euskara eta gaztelania nahiz euskara eta frantsesa (Iparraldean) dituzten euskaldunen artean ere asko gertatzen den fenomeno da. Adibide gisa, euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa kode-alternantziei dagozkien adibide hauek ekarri ditugu hona³:

Daude..., daude cardiacos... eh? ...eta ziren una cuadrilla.

Zu zer moduz en la Uní? Eta zer moduz daude los de clase?

Marixuk izan zuen problema bat avec la clavicule Gaxinto ateratzen da au balcon de la mairie

Pagatzen zuen mila bortz ehun libera, quinze cents francs.

Kode-alternantzia duten adibideak izango dira, hain zuzen ere, gure corpusa osatuko dutenak. Izan ere, corpusa izango da kode-alternantzia aztertzeko oinarri eta abiapuntu nagusia.

1.2 Kode-alternantziaren inguruko ikerketak

Euskal komunitatean kode-alternantziaren inguruko hainbat azterketa burutu izan dira, besteak beste:

- Etxebarriak (1998, 2004), Muñoak (1997) eta Rotaetxek (1994) euskara-gaztelania alternantzia aztertu zuten pertsona heldu elebidunetan eta Barreña, Ezeizabarrena eta García (2008) eta Ezeizabarrena eta Manterolak (2004), berriz, umeetan ematen den euskara-gaztelania kode-alternantzia.
- 90. hamarkadan euskara-gaztelania alternantzia erakusten duten testu batzuk bildu zituzten Esnaolak (1999), Etxabek (1993), Fernándezek (1992) eta Sarrionandiak (1992), baina Esnaolarena izan ezik, gainontzekoak argitaratu gabe geratu ziren.
- Etxabek (2005) gazteen lagunarteko hizkeran egiten den kode-alternantzia aztertu zuen. Zehazki, Getariako ahozko hizkera jasotzen duen lagin bat osatu zuen kode-alternantziak zein funtzio betetzen dituen argitzeko, hau da, kode-alternantzia zergatik eta zertarako egiten duten jakiteko.
- Epelde eta Oyharçabalek (2009) Iparraldeko hizkeratan gertatzen den kode-alternantzia ikertu zuten eta ACOBA proiektua jarri zuten martxan. Euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa hitz egiten dituzten hiztun elebidunek kode-alternantzia perpaus barruan egiten dutenean nola moldatzen diren ulertzeko eta azaltzeko helburuarekin garatu zen proiektu hau. 2011 eta 2013 urte bitartean grabatu eta transkribatutako adibideekin corpus adierazgarri bat osatu zuten. 2.000 audio-grabazio biltzen ditu zehazki corpusak, audio bakoitza bere transkripzioarekin. Bildutako adibide guztiak bat-bateko elkarrizketa libreetatik hartuak dira, Euskal Herri guztiko 150 bat hiztunei egindako elkarrizketetatik.
- Etxabek (2010) kode-alternantziak Euskal Herriko bizpahiru herritako gazteengan duen eragina aztertu zuen, gaia hobeto ulertzeko oinarri teorikoak finkatuz, eta gazte horien lagunarteko ahozko nahiz idatzizko diskurtsoan dauden alternantzia-mailak, eraginpean dauden eremuak (lexikoa, sintaxia, morfologia...), maiztasuna eta abar deskribatuz, eta Zaldibia eta Ordizia herrien artean dauden aldeak aztertuz, bietan bizi den egoera soziolinguistikoa desberdina izanik.

**Kode-
alternantzia ez
da hizkuntzaren
gabeziari lotuta
dagoen
fenomenoa;
aitzitik, hiztun
elebidunek edo
eleaniztunek
helburu
komunikatibo
zehatz batzuekin
erabiltzen duten
fenomenoa dela
diote adituek.**

- Orreaga Ibarak (2013 eta 2011) gazteek esaldi atributiboetan egin ohi duten euskara-gaztelania alternantzia aztertu zuen.
- Igartabalek (2014) Gabiria bezalako arnasmune batean zer nolako kode-alternantzia dagoen aztertu zuen, bi belaunaldi ezberdinetako bina talde grabatuaz; zehazki, 18 lagun elkarrizketatu zituen fenomeno hau noiz, zertarako eta zergatik gertatzen den jakin aztertzeko beste urrats bat eman nahian.
- Lantok (2015) kode-alternantziak Bilboko hirigunean daukan rola aztertu zuen, euskara eta gaztelaniaren ezaugarri linguistikoak kontuan hartuz.
- Perez-Gaztelu (2017) eta Perez-Gaztelu eta Zulaika (2014) ere euskal gazte-nerabeek lagun artean nola idazten duten aztertzen ari dira. Oraingoan, txat generoko mezuetan (testu *mintzidatzietan*⁴) testu-mailako loturak nola egiten dituzten izan dute aztergai nagusi, hau da, testuen diskurtso-antolamendua.

Hauek dira, beraz, euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa alternantzien inguruan argitaratu diren lanetako batzuk.

Aipatu azterketak, baina, datu-multzo (*dataset*) txikiak baliatuz egin izan dira, ikertzaile bakoitzak bere azterketak burutzeko edota bere helburuak lortzeko osatutako datu-multzo zehatzekin, hain zuzen. Alegia, ez dira corpus handi edo masiboak baliatu, ez eta HPren alorreko baliabide konputazionalak ere datuen bilketak eta analisiak egiteko. Aitzitik, azterketa hauek burutzeko, datuak eskuz bildu izan dira, normalean elkarrizketak eginez.

Metodo tradizionaletan oinarritutako azterketek, ordea, desabantaila nagusi bat izan ohi dute: hiztun parte-hartzaileek beraien hizkuntza-erabilera egokitu egin dezakete datu-biltzailearen helburuetara, eta hain zuzen ere, ikerketa linguistiko nahiz soziolinguistikoen xedea izan ohi da hiztunek egoera naturalan, errealan, sistematikoki behatuak ez direnean, nola hitz egiten duten ikertzea. Oro har, soziolinguistikaren alorrean tradizionalki gehien erabili izan diren metodoak behaketa, inkestak eta elkarrizketak izan dira, alegia, aurrez ongi prestatutako metodoak. Horrek, ordea, lan handia eta neketsua suposatzen du, eta denbora asko eskatzen duen prestatketa. Grabaketen transkripzioa eta transkribatutako adibideen eskuzko etiketatzea ere lan astuna eta garestia izaten da.

Horiek horrela, bildutako datu-multzoak txikiak izan ohi dira Hizkuntzalaritza Konputazionalaren alorrean erabili ohi diren corpusekin al-

deratuta. Izan ere, egun, HPko tresnetan oinarrituta, gero eta corpus handiagoak nahiz baliabide teknologiko sofistikatuagoak daude eskura azterketa linguistikoak egiteko. Hain zuzen ere, Hizkuntzalaritza Konputazionala hizkuntza teknologiaren laguntzarekin aztertzean datza, eta egun, jada, Humanitate Digitalen alorrean hizkuntza teknologiaren bidez aztertze joera nagusitzen da. Izan ere, datuak biltzeko eta aztertze irizpideak eta metodoak aldatuz doaz teknologia berriei esker.

HPren alorrean, esaterako, aukera dago sare sozialak eta teknologiak konbinatuz corpus handiak modu bizkorrean biltzeko. Izan ere, Web 2.0ren etorrerak testuinguru sozialetan sortzen diren testuak modu erraz, libre eta azkarrean eskuratzeko aukera handiak ekarri ditu, hau da, sare sozialak adibideak biltzeko eta corpusak osatzeko bitarteko interesgarri bilakatu dira. Hain zuzen ere, Interneten erabilera hedatua duten eta populazio eleaniztunetan erabiltzen diren sare sozialek (Twitter, Instagram, Facebook, foroak, blogak, etab.) hizkuntza-erabileren analisi sakonak eta eskala handikoak egiteko aukerak eskaintzen dizkigute egun, eta elkarrekintza sozialetan gertatzen diren komunikazio-mota eleaniztunak analizatzeko datu-multzo ikaragarriak sortzeko aukera daukagu. Adibide horiek informazio-iturri aberatsak dira kode-alternantzia aztertze. Gainera, testuinguruari buruzko datuak ere bil daitezke, metadatuak (erabiltzaileari, garaiari, kokapenari, hizkuntzari, erregistroari, etab.) buruzko informazioa). Metadatuak biltzea ere garrantzitsua izan daiteke ikerketa sakon eta aberatsagoak egiteko aukera emango digutelako (datu horiek beharrezkoak dira, esaterako, azterketa soziolinguistikoak egin ahal izateko). Beraz, corpusarekin batera metadatuak ere biltzeko metodoak garatu ditugu guk lan honetan.

Metodo honek bere eragozpenak ere baditu, noski; batetik, teknologia hauek erabiltzen dituztenen unibertsoa mugatuagoa da (gazteen kasuan zabalkundea oso handia da), eta bestetik, horien alde publikoa bakarrik atzi daiteke. Horren ondorioz, sor daitekeen alborapen efektua (*bias*) kontuan hartzea garrantzitsua da.

Beraz, sare sozialetan *mintzidatzitako* mezuekin osatutako corpusak teknologiaren laguntzarekin bildu nahi ditugu guk, kode-alternantzia aztertze aukera emango diguten corpusak osatzeko. Ikerketa honen abiapuntu gisa egin dugun lanean, euskara-gaztelania alternantzia duten adibideak bildu ditugu. Hala ere, hizkuntzarekiko independenteak diren baliabideak garatu ditugu, edozein hizkuntza edota hizkeren arteko alternantzia erakusten duten adibideak bilatzeko eta aztertze aukera izan dezagun.

**Sare sozialetan
mintzidatzitako
mezuekin
osatutako
corpusak
teknologiaren
laguntzarekin
bildu nahi
ditugu, kode-
alternantzia
aztertze aukera
emango diguten
corpusak
osatzeko.**

**Kode-
alternantzia
aztertzeako
corpusak biltzea
da, beraz, lan
honen helburu
nagusia, eta xede
hori lortzeko
funtsezko
urratsak dira
iturrien bilaketa/
identifikazioa,
corpus gordinen
bilketa,
hizkuntzen edota
erregistroen
identifikazioa eta
corpusaren
biltegitzea.**

Artikuluari jarraipena emateko, bigarren atalean fenomeno hau aztertzeako baliatu edota garatu ditugun hizkuntza teknologiak aurkeztuko ditugu, eta hirugarren atalean, berriz, lan honekin egin ditugun ekarpenak. Laugarrenean, azkenik, ondorioak eta etorkizuneko lanak aipatuko ditugu.

2. KODE-ALTERNANTZIA ETA HIZKUNTZA TEKNOLOGIAK

I Hizkuntzaren Prozesamenduak azken urteotan kode-alternantziaren arloan egindako ekarpena aztertzea da atal honen helburua. Nguyen et al. (2016) artikuluan atal bat eskaintzen zaio “*Multilingualism and Social Interaction*” gaiari, non kode-alternantziaren azterketari heltzen zaion. Bertan erabiltzen diren metodo konputazionalak gain, Twitterrek eskaintzen dituen aukerak ere aipatzen dira; adibidez, aipatutako esaldi barruko eta esaldi arteko kode-alternantzia gain, erabiltzaileen arteko kode-alternantzia aztertzeako aukera, hau da, aipamenak eta birtxiokatzak egitean gertatzen diren alternantziak.

Kode-alternantzia aztertzeako corpusak biltzea da, beraz, lan honen helburu nagusia, eta xede hori lortzeko funtsezko urratsak dira iturrien bilaketa, corpus gordinen bilketa, hizkuntzen edota erregistroen identifikazioa eta corpusaren biltegitzea. Eta aipatu urrats horiek egiteko baliatu diren metodoak eta aurkitu diren mugak aurkeztuko ditugu jarraian.

2.1 Metodoak

Sare sozialetako APIak (Aplikazioak Programatzeko Interfazea, ingelesez *Application Programming Interface*) erabiliz hainbat tresna konputazional gauzatu dira, batez ere bi erronka hauekin: i) hizkuntzaren identifikazioa eta ii) erregistroaren identifikazioa. Horretan sakontzeko oso interesgarria da 2016an egin zen “*Computational Approaches to Code Switching*” workshopa. Bertan, Molina et al. (2016) aurkeztu zuten lanean deskribatzen dira arloko erronka nagusiak, eta horien artean aipatutako biak nagusitzen dira (batzuetan beste izen edo ikuspuntu batekin). Erronka horiei teknika laguntzaileak edo post-prozesuak gehitzen zaizkie (testu-normalizazioa, POS etiketatzea, itzulpen automatikoa edota analisi sintaktiko automatikoak).

Hizkuntzaren identifikazioari dagokionez, gaia sakon landu da eta eszenatoki arruntetan ebatzitako problematzat jotzen dira testu-zati luze samarrak, testu normalizatuak eta hizkuntza ezagunak izatea. Erronka

izaten jarraitzen dute, ordea, oso gertu dauden hizkuntzak/dialektoak bereizi beharrak, testu-zatia oso txikia izateak edota testua normalizatu ez egoteak (testu ez-normalizatuak ohikoak direlarik erregistro ez-formalean).

Aipatutako *workshopean* txapelketa moduko bat egin zen, kode-alternantzia gertatzen denean hizkuntzaren identifikazioa ebazteko teknikarik onenak zeintzuk diren identifikatzeko asmoz (Molina et al., 2016)⁵.

Gehien aipatzen den teknika ikasketa automatikoan oinarritutako CR-Fak (*Conditional Random Fields*) dira. Aipatu teknikaren azaleko definizioa emateko, Agirrezabal et al. (2017:51) lanean esaten dena ekarriko dugu hona:

CRFek aurreikuspena egiteko sekuentziako elementu bakoitzari buruzko informazioa jasotzen dute eta, informazio horren arabera, predikzio bat proposatuko dute. Predikzio hori, ordea, ez da beste proposamen guztiekiko independentea izango, Viterbi izeneko algoritmo bat erabilita irteerako sekuentzia optimoa proposatuko du ereduak.

CRFekin batera, gaur egun konputazioan gailentzen ari diren sare neuronalen teknikak ere agertzen dira, LSTM (*Long Short Term Memory*) motakoak.

Kontuan hartu behar da aipatutako bi konputazio-ereduak egokiak direla “sekuentzien etiketatzea” izeneko problemarako, eta testu batean hizkuntza desberdinetan dauden zatiak problema horren barruan sartzen dira. Argitaratutako emaitza onenetan %90 inguruko doitasuna lortzen da hizkuntza-mugak bereizten.

Azken artikulua horretan ere sare sozialetatik bildutako kode-alternantzia fenomenoaren erakusten duten hainbat corpus aipatzen dira hizkuntza/dialekto hauek barne hartzen dituztenak: gaztelania-ingelesa, arabieraren dialektoak eta alemana-turkiera.

2.2 Mugak

Baina lehen aipatu bezala, ez da ahaztu behar proposatutako bideak muga batzuk ere badituela:

- Sare sozialetako informazioa kasu askotan pribatua izaten denez, ezin izaten da bildu. Hori da helbururako interesgarriak liratekeen Whatsappen kasua edota Facebookeko atal nagusien kasua, eta baita SMS mezuena ere.

**Twitter sare
sozialera soilik
mugatu gara,
beste sare
sozialak kontuan
hartu gabe, eta
erregistro
formala eta ez-
formalaren
arteko bereizketa
automatikoa
bazterrean utzi
dugu momentuz.**

- Pribatua ez izan arren batzuetan ez da erraza informazio-iturria identifikatzea edota dagokion edukia eskuratzea. Horretarako funtsezkoa da sare sozialak API bat eskaintzea, datuak programa informatikoen bidez eskuratu ahal izateko.
- Aurreko guztia kontuan izanda, Twitter geratzen zaigu iturburu posible (ia) bakar gisa: mezuak publikoak dira eta API⁶ bat eskaintzen du.
- Twitterreko erabiltzaileen soziologiak esaten digu erabiltzaile gehiago daudela helduak direnak oso gazteak direnak baino. Gainera, ikusteko dago zein punturaino erabiltzaile euskaldunek erabiltzen duten erregistro informala Twitterren. Horren aurrean, Instagram ere erabiltzea izan daiteke irtenbide egokia, baina eskaintzen dituen APIak dauzkan mugak aztertu behar dira bideragarria den ala ez erabaki baino lehen.

Beraz, jarraitzen dugun metodoak berak hainbat muga uzten ditu agerian: batetik, Twitter sare sozialera soilik mugatu gara, beste sare sozialak kontuan hartu gabe, eta erregistro formala eta ez-formalaren arteko bereizketa automatikoa bazterrean utzi dugu momentuz (horretarako beste metodo matematiko batzuk erabili behar baitira). Aipatu erronka horiei ekitea izango da hurrengo urratsa.

3. GURE LANAREN EKARPENAK

I

Aurretik aipatutako oinarriekin euskara-gaztelania kode-alternantzia isla dezakeen corpus bat biltzen hastea erabaki genuen. Bagenekien lehenengo hurbilpen bat izango zela, diseinuan bertan hainbat muga aurreikusi genituelako.

3.1 Helburuak

Oro har, gure lanaren helburu nagusiak hauek izan dira:

- Euskara-gaztelania alternantzia erakusten duten corpus elebidunak biltzea Twitter sare sozialeko txioetatik, HPko metodo automatikoak baliatuz. Twitter sarea da iturburua eta behatutako kontu zehatzak eta traol (#hashtag) zehatzak erabili dira lehen bilketarako.
- Corpusak eskuz etiketatzea, eta ondoren ikasketa automatikoko teknikak erabili ahal izatea, kode-alternantzia non dagoen automatikoki detektatu ahal izateko.
- CRF bidez tresna automatiko bat eraikitzea eta lehenengo corpusa osatzea.

3.2 Jarraitutako urratsak

Testu elebidun/eleaniztunen nahiz kode-alternantziaren detekzioa, identifikazioa eta bilketa bideratu ahal izateko, urrats hauek jarraitu ditugu:

1. Corpusa biltegitatu, antolatu eta indexatu da eta datu-base bat osatu da, hainbat metadatu ere bilduz.
2. Euskara-gaztelania alternantzia erakusten duen corpus sendo bat osatu da metodo automatikoak baliatuz. Horretarako, Twitterreko APIa (aplikazioetarako interfazea) erabiltzea da usuena eta hori da gure helburua. Aurretik identifikatutako kontu batzuk eta traol batzuk erabili dira. Behin lehenengo bilduma osatuta, errazagoa izango da bilduma zabaltzea antzekotasun-irizpideak erabiliz.
3. Corpusa etiketatzeko irizpideak finkatu dira, Molina et al. (2016) lanean jarraitutako irizpideak kontuan hartuz.
4. Bigarren urratseko corpusa oinarri hartuta, kode-alternantziari dagozkion adibideak aukeratu eta etiketatu dira, eskuz, irizpideei jarraituz.
5. Corpusa modu automatikoan etiketatzeko sistema prestatu da. Horretarako, etiketatutako lagina eta ikasketa automatikoan oinarritutako CRF metodoa erabili dira.
6. Aurreko urratsean garatutako sistemak ebaluatu eta hainbat ondorio atera dira (Corral, 2017).
7. Tresna horren laguntzarekin corpusaren lehenengo bertsio bat sortu da.

Zehaztasun guztiak Corralen (2017) lanean kontsulta daitezke.

3.3 Lortutako emaitzak

Egindako lanetik lau emaitza lortu dira, etorkizuneko lanetarako eta bestelako ikerlarientzat interesgarriak izan daitezkeenak: anotaziorako eskuliburua (3.3.1. puntua), eskuz anotatutako corpusa (3.3.2. puntua), txioak biltzeko tresna (3.3.3. puntua) eta automatikoki bildutako corpusa (3.3.4. puntua).

3.3.1 Anotaziorako eskuliburua

Anotazio-prozesua osorik azaltzen duen eskuliburu bat osatu da. Anotatzaileak interfaze sinple baten bidez irakurtzen ditu etiketatu beharreko adibideak (1. irudia), eta hitz bakoitzari dagokion etiketa esleitzen dio. Guztira, lehen fase honetan, 8 etiketa definitu dira:

**Kode-
alternantzia
erakusten duten
adibideak
dituzten txioak
iragazketa
heuristiko bidez
eta manualki
eskuratu dira.**

- ES, gaztelaniazko hitza adierazteko.
- EUS, euskarazko hitza adierazteko.
- ID, Twitterreko erabiltzaile baten identifikatzailea adierazteko.
- URL, esteka bat adierazteko.
- IE, izen entitate bat adierazteko.
- NH, bi hizkuntzak token berdinean nahasita daudela adierazteko.
- ANB, testuinguruaren arabera hitza anbigua dela adierazteko.
- EG, etiketarik gabeko tokena adierazteko (hau da, aurreko etiketak jarri ezin diren kasuetarako).

1. irudia: Anotatzeko interfazea

Tokena	Etiketa
Ez	EUS
dut	EUS
ezebez	EUS
esango	EUS
"	EG
JARRERA	EUS
"	EG
batzuegandik	EUS
0	EG
Que	ES
cada	ES
uno	ES
saque	ES

3.3.2 Eskuz anotatuko corpusa

Kode-alternantzia fenomenoaz aztertzeako, corpusa bildu eta eskuz anotatu da.

Sortutako corpusa errealitateetik ahalik eta hurbilen egotea garrantzitsua da, kode-alternantziaren identifikazioa eta analisisa modu fidagarri eta eraginkor batean egin ahal izateko. Izan ere, gero eta corpus errepresentagarriagoa eskuratu, orduan eta emaitza hobeagoak lortuko dira.

Horregatik, kode-alternantzia erakusten duten adibideak dituzten txioak iragazketa heuristiko bidez eta manualki eskuratu dira.

Twitterren, normalean, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz idazten duten hainbat erabiltzaile bilatu dira. Izan ere, erabiltzaile bakoitzak bere estilo propioa dauka idazteko orduan eta horien idazteko modua patroiz ez bihurtzeko, aniztasuna ezinbestekoa da. Pertsonaia publikoen txioak, euskal telebistako saioei lotutako erabiltzaileen txioak eta momentuko euskarazko *trending topic* nagusiak analizatu dira, ahalik eta corpus errepresentagarri eta anitzena osatzeko.

Adibide egokiak bilatzeko, lagungarria izan zaigu *umap.eus* webgunea⁷. Webgune honek Twitterreko euskarazko jarduna monitorizatzen du eta rankingak bistaratzen ditu.

APIak murrizketak ditu zerbitzatu ditzakeen txio kopuruan. Ondorioz, erabilitako metodoarekin gehienez ere 3.200 txio eskura daitezke erabiltzaile batetik. Hala ere, kopuru hau nahikoa izan da gure proiekturako, erabiltzaileen aniztasuna lortu nahi izan baititugu. 1. taulak erakusten duen moduan, guztira 424 erabiltzaile desberdinen 1.765 txio bildu dira, eta adibide guzti horien artean 959 txiotan agertu da kode-alternantzia (kode-alternantziarik gabeko adibide batzuk ere, noski, ezinbestekoak izan dira ikasketa automatikoa modu egokian burutzeko).

1. taula: Eskuz anotatuko corpusaren ezaugarri orokorrak

Txioak guztira	1765
Gaztelanizko txioak	467
Euskarazko txioak	337
Code-switching txioak	959
Bestelako txioak	2
Erabiltzaileak guztira	424
Gaztelaniazko erabiltzaileak	249
Euskarazko erabiltzaileak	172
Code-switching erabiltzaileak	85

Eskuliburuan zehaztutako etiketekin anotatu da corpusa, eta 2. taulak laburbiltzen ditu etiketa bakoitzari dagozkion kopuruak.

***Ikasketa
automatikoko
beste metodoekin
egiten den
bezala, sortu den
tresna ebaluatu
egin da garatu
den tresnaren
kalitatea
zenbaterainokoa
den jakiteko.***

2. taula: Anotatzeko etiketa bakoitzari dagokion txio kopurua

Token kopurua	34771
ES token kopurua	13891
EUS token kopurua	7234
ID token kopurua	1399
URL token kopurua	740
EG token kopurua	7939
ANB token kopurua	112
NH token kopurua	82
IE token kopurua	3353

3.3.3 Txioak biltzeko tresna

Bildutako eta anotatutako corpora oinarri hartuta, aipatu CRF algoritmoa aplikatu da txio berriak sailkatzeko eta etiketatzeko tresna bat sortzeko asmoz. Tresna horretan oinarrituta, geroxeago azalduko den web-aplikazioa eraiki da txioak monitorizatzeko asmoarekin.

Ikasketa automatikoko beste metodoekin egiten den bezala, sortu den tresna ebaluatu egin da garatu den tresnaren kalitatea zenbaterainokoa den jakiteko. Bi ebaluazio egiten dira: lehena, ikasten ari den datuekin egiten da “ebaluazio gurutzatu” (*cross-validation*) teknikaren bidez eta bigarren bat, zorrotzagoa dena, apartatutako datuen (test datuak) gainean egiten dena. Ikasketa modu egokian egin bada, bi emaitzak antzekoak izan behar dira.

3. taulan ikus daitekeenez, ikasitako tresnak hitzen %93-94ren artean ondo egokitzen die ondo dagokien etiketa. Txio osoari begira (txio baten barruko etiketa guztiei begira), berriz, emaitzak dibergenteagoak dira bi ebaluazioetan, asmatze-tasa %41-47ren artean dago eta ebaluazio osoa (txioa zein hizkuntzatan dagoen edo alternantzia duen) %87-92ren artean. Azken neurri hori hobetu liteke horretarako propio sortutako sailkatzaile gehigarri bat garatuz, baina hori ere etorkizunerako utzi da.

3. taula: Tresnaren ebaluazioari dagokion emaitzak

	Etiketa asmatzea	Sekuentzia asmatzea	Hizkuntza asmatzea
Ebaluazio fasea	0.94142	0.47727	0.92045
Test fasea	0.93072	0.41477	0.86932


Egindako aurreko lanean oinarrituta, txioak biltzeko web-aplikazio bat garatu da, proiektuaren produktu eta helburu nagusia izan dena. Aplikazioaren betekizuna txioak denbora errealean atzitzea da eta hauetan kode-alternantzia fenomenoak detektatzea. Txioak denbora errealean lor-

tzeko Twitterreko APIaren *streaming* funtzioa erabili da. Funtzio honek txioak erabiltzaile konkretu baten arabera edo hitz konkretu baten arabera iragazteko aukera ematen du. Aplikazioa *Python* programazio lengoia erabiliz garatu da eta kodea GitHub bidez atzigarri dago⁸.

Aplikazio honen interfazeak ematen diogun fitxategia irakurtzen du eta txioak banan-banan erakusten ditu Twitterreko itxura bera jarraituz. Txio bakoitzari bi analisi mota egiten zaizkio. Batetik, tokenak analizatzen dira eta token bakoitzari dagokion etiketa esleitzen zaio, kolore desberdinez adierazita; esaterako, gorria, ES etiketa duen tokenarentzat; berdea, EUS etiketa duen tokenarentzat; horia, ID etiketa duenarentzat; urdin argia, URL etiketa duenarentzat, etab. Bestetik, txio bakoitzari kode-alternantziari dagokion etiketa orokor bat esleitzen zaio. Etiketa orokor horretan hiru kolore bereizten dira, gorria, berdea eta morea. Kolore gorriak adierazten du gaztelaniazko txioa dela, hau da, hitz guztiek gaztelaniazko etiketa dutela, token bereziak (identifikatzaileak, zenbakiak, estekak...) salbu; berdeak euskarazko txioa dela adierazten du, hau da, hitz guztiei euskarazko etiketa esleitu zaiela, token bereziak salbu; eta azkenik, moreak markatutako txioan kode-alternantzia dagoela adierazten du. Horretarako, algoritmo sinple bat aplikatzen da: txio batean euskarazko eta gaztelaniazko etiketak baldin badaude, kode-alternantzia dago, nahiz eta hitz bakarra egon (Corral, 2017).

Aplikazioak sarrerako fitxategia irakurtzen duenean, zenbait datu orokor ere ematen ditu; hala nola, irakurritako txio kopurua, euskarazko txio kopurua, gaztelaniazko txio kopurua eta kode-alternantzia duten txioen kopurua. 2. irudiak erakusten digu web-aplikazioaren interfazea.

2. irudia: Txioak biltzeko web-aplikazioaren interfazea



**Tresna hau
hobetzeko
beharra
aurreikusten
dugu, eta orain
egiteke utzi diren
atazak bukatzeko
eta integratzeko
beharra ere bai
(besteak beste,
txioen sailkapen
globala edota
mezu formal/ez-
formalen
bereizketa).**

**Hizkuntzaren
Prozesamen-
duaren alorretik
ekarpen
interesgarriak
egin ditzakegu
kode-
alternantziaren
analisi sakonetan
laguntzeko,
baliabide
informatikoak
garatuz.**

3.3.4 Automatikoki bildutako corpusa

Lehenengo fasean bildutako corpusak eskuz etiketatu dira eta ikasteko zein ebaluaziorako erabili dira. Behin lehenengo fase hori bukatuta, gai gara corpus berriak osatzen jarraitzeko. Ahalmen horren erakusgarri da 2017ko irailaren 26 eta 28 bitartean egindako bilketa berria. *umap.eu* guneko traolak kontsultatuta 12.535 txio bildu dira eta horietako 1.858ri esleitu zaie kode-alternantzia kategoria⁹.

Erabili diren traolak hauek izan dira: #KataluniarekinBat, #BaimenikEz, #Demokrazia, #GukEreMambo, #65SSIFF, #Zinemaldia, #30egun 30doinu, #lekaixoka, #kmk17, #alderdieguna, #Eraldaketa, #GudariEguna17, #Atsasu.

Eta hauexek dira kode-alternantzia kategoria duten hainbat txioren adibideak:

1. "Mila esker Kilometroak #lekaixoka Muchas gracias a toda la Peña! EGURRA#PresoakEtxera#ELKARTASUNTAUPADAK@MaukaMusik@..."
2. "Paz Vega,nerviosa e ilusionada con el Premio al Cine Latino que recibirá hoy en el #65SSIFF Zorionak!! <https://t.co/iM885lrVOc>"
3. "RT @NHEkhimena: Nabarra #KataluniarekinBat independentziaren alde! \nNabarra #ambCatalunya per la independència!..."

Kontuan hartu behar da modu automatikoan sailkatu diren txioak direla, eta beraz, gerta liteke txio batzuk ez izatea kode-alternantziaren adibide adierazgarriak. Bigarren txioan, esaterako, euskarazko hitz bakar bat dago (*Zorionak*) eta gure programaren arabera, hitzez hitz ondo sailkatu den arren, hobe litzateke alternantziatzat ez hartzea.

Azkenik, eta proiektu handiago bati begira, tresna hau hobetzeko beharra aurreikusten dugu, eta orain egiteke utzi diren atazak bukatzeko eta integratzeko beharra ere bai (besteak beste, txioen sailkapen globala edota mezu formal / ez-formalen bereizketa).

4. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN LANA

Azken urteotan sare sozialen erabileraren hedadura ikaragarria izan da eta ikusi dugu kode-alternantzia hizkuntza mintzatuan ez ezik, idatzian ere asko gertatzen den fenomeno delarik, arlo desberdinetako iker-tzaileon artean interesa piztu duen fenomeno delarik hauxe.

Hizkuntzaren Prozesamenduaren alorretik ekarpen interesgarriak egin ditzakegu kode-alternantziaren analisi sakonetan laguntzeko, baliabide

informatikoak garatuz. Eta proiektu honen helburua, hain zuzen ere, kode-alternantziaren analisia eta prozesamendua bideratzeko, errazteko edota azkartzeko baliabide informatikoak garatzea izan da, hau da, corpus elebidun nahiz eleaniztunetan hizkuntza/hizkera batetik bestera noiz aldatzen den detektatzeko gai diren sistemak garatzea.

Online inguruneetatik testu eleaniztunak eskuratzeko, testuak multzo txikitan eta epe laburretan hartu izan dira. Datu edo testu horien azterketa automatikoa zaila izan da hizkuntza gehienetan, kontuan izanik orain artean oso baliabide informatiko gutxi egon direla eskura helburu horretarako. Hizkuntzalaritza Konputazionalaren alorrean, interes handia piztu da, egun, testu elebidun edota eleaniztunen analisi automatikoan, baina horretarako beharrezkoak dira corpus elebidun/eleaniztunak detektatzeko, ulertzeko eta aztertze-ko gai diren HPko tresna bereziak.

Eta artikulu honen helburu nagusietako bat horixe izan da, hain zuzen ere. Hala, Twitterreko txioen bilketa bat egin eta eskuz etiketatu ondoren, txioak biltzeko tresna bat garatu da. Izan ere, gure ustea da corpus elebidunak/eleaniztunak bildu eta horiek prozesatzeko gai izateak aukera emango digula kode-alternantziaren fenomeno-
a ikerketa-lerro edota ikuspuntu desberdinetatik aztertze-ko, eta ekarpenak hainbat diziplinatan egiteko. Horregatik, ikerketa-lerro berri bat abiarazi nahi izan dugu lan honekin.

Hala ere, konturatzeko gara programak oraindik hainbat hobekuntza behar dituela, eta epe motzean hobekuntza horiek txertatzen saiatu nahi dugu. Hala, aurrera begira, egin beharreko lanen artean aurreikusten ditugu, jada, hainbat azterketa posible. Esaterako, Hizkuntzaren Prozesamenduaren ikuspuntutik, garatu dugun aplikazioa osatzea eta publiko jartzea da helburu nagusia, gai honetan interesa dutenek erabil dezaten. Hizkuntza desberdinak eta alternantzia identifikatzeaz gain, erregistroak (formala / ez-formala) ere bereiztea nahi dugu eta baita Twitter ez den beste sare sozial batzuetatik ere kode-alternantzia duten adibideak eskuratzeko (Instagram izango da aztertuko dugun aukera bat, APIa eskaintzen duelako).

Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, berriz, interesgarria izango da biltzen den corpusa gramatikalki aztertzea, hau da, hizkuntza matrizea eta hizkuntza txertatuak identifikatu eta kode-alternantziaren ezaugarri gramatikalak aztertzea, informazio lexikoaz gain morfosintaktikoari ere erreparatuz.

Azterketa honetan euskara-gaztelania alternantziara mugatu garen arren, erabili diren metodo guztiak hizkuntzarekiko independenteak dira, eta beraz, beste kode-alternantzia batzuk prozesatzeko gai dira.●

**Hizkuntzala-
ritzaren
ikuspuntutik,
berriz,
interesgarria
izango da biltzen
den corpusa
gramatikalki
aztertzea, hau da,
hizkuntza
matrizea eta
hizkuntza
txertatuak
identifikatu eta
kode-
alternantziaren
ezaugarri
gramatikalak
aztertzea,
informazio
lexikoaz gain
morfosintak-
tikoari ere
erreparatuz.**

OHARRAK

1. Hizkuntzaren Prozesamenduak (HP) eta Lengoia Naturalaren Prozesamenduak (LNP) ikerketa-alor berdinari egiten diote erreferentzia, sinonimoak dira.
2. <http://ixa.eus/Produktuak>
3. Euskara-gaztelania alternantzia erakusten duten adibideak Ibarra (2003) lanetik hartuak dira eta euskara-frantsesa alternantzia erakusten dutenak, berriz, ACOBA proiektutik (Epelde eta Oyharçabal, 2009).
4. Perez-Gazteluk *mintzidatzi* terminoa erabiltzen du, hain zuzen ere, sare sozialetan eta txat mezuetan hitz egiten dugun modu berean idazten diren mezuei erreferentzia egiteko. Mezu horiek ahozko hizketarik oso gertu daude eta ahozko hizkeran ohikoa da hizkera ez-formala. Adierazkortasuna, bat-batekotasuna, arrunckeriak esatea edota silabak jatea dira, besteak beste, hizkera informalaren ezaugarri batzuk. Gainera, dialektoen erabilera handia izan ohi da (gure kasuan, euskalkiena) eta kode-alternantzia ere askotan egiten da *mintzidatzietan*. Ezaugarri horiek betetzen dituzten mezuak izango dira gure azterketaren oinarria.
5. *Workshopean* erabiltako corpusak atzigarri daude helbide honetan: <http://care4lang1.seas.gwu.edu/cs2/call.html>
6. <https://dev.twitter.com/rest/public>
7. <https://umap.eus/>
8. <https://github.com/anderleich/CodeSwitchingDetection>
9. Bildutako txioak <https://github.com/anderleich/CodeSwitchingDetection> webgunean daude eskuragarri, *Results* izeneko karpetan.

ERREFERENTZIAK

- Agirrezabal M., Alegria I., Hulden M. (2017). "Poesiaren eskantsio automatikoa: bi hizkuntzen azterketa", in II. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Giza Zientziak eta Arteak. UEU. <http://www.ueu.eus/download/liburua/IKERGAZTE.2017.GIZAZIENTZIAKetaARTEA.pdf#48>
- Barreña A., Ezeizabarrena, M., García, I. (2008). "Entzundako hizkuntzaren eragina haur euskaldun txikien gramatika-garapenean", in *Gramatika jaietan*. Patxi Goenagaren omenez, Artiagoitia X. y Lakarra J. A. (eds.). "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak, LI, 107- 127, Donostia-Bilbao: Diputación Foral de Gipuzkoa & EHU/UPV.
- Corral, A. (2017). Twitter-eko txioen Code Switching detekzio automatikoa. Gradu Amaierako Proiektua (GAP). Informatika Fakultatea. (laster publikatzeko: <https://addi.ehu.eus>)
- Epelde, I. eta Oyharçabal, B. (2009). "Code Switching en las variedades orientales del vasco". IKER-UMR 5478, Basque Text and Language Study Center, Baiona.
- Esnaola, I. (1999). *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*. Bilbao: UEU.
- Etxabe Azkarate, K. (2010). "Kode-alternantzia lagunarteko gazte-hizkeran. Zaldibia eta Ordiziako kasuak", in HIZNET Hizkuntza Plan-

- gintza ikastaroa. http://hiznet.asmoz.org/ikerketa_lanak/images/stories/ikerketa_lanak/2010/Kode_alternantzia_lagun_arte_gazte_hizkeran.pdf
- Etxabe Aramendi, M.A. (1993). *Hizkuntza aukeraketa edo "code switching" a euskaldunen artean*. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (HABE liburutegia, Donostia. Argitaratu gabea).
- Etxabe Iribar, A. (2005). "Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran", in HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa. http://hiznet.asmoz.org/ikerketa_lanak/images/stories/ikerketa_lanak/AmetsEtxabe.pdf
- Etxebarria, M. (2004). "Bilingüismo y code-switching en el País Vasco", in *Las lenguas en la Europa Comunitaria II*, Amsterdam/Atlanta: Rodopi, 55-66.
- Etxeberria, I. (2016). *Aldaera linguistikoen normalizazioa inferentzia fonologikoa eta morfologikoa erabiliz*. Doktore-tesia. Informatika Fakultateko LSI saila. UPV/EHU. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/19492/TESIS_ETXEBERRIA_UZTARROZ_IZASKUN.pdf?sequence=1
- Etxeberria, I., Alegria, I., Uria, L. and Hulden, M. (2016a). "Evaluating the Noisy Channel Model for the Normalization of Historical Texts: Basque, Spanish and Slovene", in LREC 2016 conference. pp: 1064-1069.
- Etxeberria, I., Alegria, I., Uria, L. and Hulden, M. (2016b). "Combining Phonology and Morphology for the Normalization of Historical Texts", in Latech 2016: Workshop on Language Technology for Cultural Heritage, Social Sciences, and Humanities. At ACL 2016. ISBN 978-1-945626-09-8.
- Etxeberria I., Alegria I. & Uria L. (2015). "Induction of Phonology and Morphology for the Normalization of Historical Texts", in the 22nd International Conference on Historical Linguistics, Naples, 27-31 July 2015.
- Etxeberria I., Alegria I., Hulden M. & Uria L. (2014). "Learning to map variation-standard forms using a limited parallel corpus and the standard morphology", in the *Procesamiento del Lenguaje Natural*, revista num. 52, pp. 13-20 (ISSN edición impresa: 1135-5948) (ISSN edición digital: 1989- 7553).
- Ezeizabarrena, MJ. & Manterola, J., (2004). "La mezcla de códigos (euskera-castellano) en el habla infantil", in EUROSLA2004.
- Fernández Alcober I. (1992). "Kode aldaketa Durangoko gazteen hizkeran". Corpus inédito euskera/español.
- Ibarra Murillo, O. (2013). "El code switching vasco-castellano en oraciones atributivas de hablantes jóvenes (The Basque-Castilian code

- switching in attributive sentences by young speakers)", in Oihenart, 28 (ISSN: 1137-4454, eISSN: 2255-1050); pp. 115-130.
- Ibarra Murillo, O. (2011). "Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código", in Eusko Ikaskuntza Oihenart, Cuadernos de Lengua y Literatura nº 26; Terceras jornadas de Lingüística vasco-románica: teoría y análisis, pp. 277-298.
- Igartzabal Bidegain, I. (2014). "Kode-alternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belaunalditan", in Bat: Soziolinguistika aldizkaria, ISSN 1130-8435, Nº. 92-93, 2014 (Ejemplar dedicado a: VII. Hausnartu euskal soziolinguistika sariak), pp. 229-251.
- Lantto, H. (2015). *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of colloquial Basque*. Doctoral dissertation. University of Helsinki, Faculty of Arts, Department of Modern Languages. ISBN:978-951-51-1184-5.
- Molina, Giovanni, Nicolas Rey-Villamizar, Thamar Solorio, Fahad AlGhamdi, Mahmoud Ghoneim, Abdelati Hawwari, and Mona Diab. (2016). "Overview for the second shared task on language identification in code-switched data", in EMNLP 2016): 40.
- Muñoz I. (1997). "Pragmatic Functions of Code-Switching among Basque-Spanish Bilinguals", in Actas del I Simposio Internacional sobre Bilingüismo, Universidad de Vigo, 528-541.
- Nguyen, Dong, A. Seza Doğruöz, Carolyn P. Rosé, and Franciska de Jong. (2016). "Computational sociolinguistics: A survey", in *Computational Linguistics*.
- Perez-Gaztelu, E. (2017). "CS metaforikoen eginkizun pragmatiko-diskursiboak euskaldun "zahar" gazteen txat mintzidatzietan". Hizkuntzalari Euskaldunen III. Topaketa. UEU Baiona.
- Perez-Gaztelu, E. eta Zulaika, E. (2014). "Gzteak lgnrtn idztn: Mintzidatzien antolamendua". I. Aduriz & R. Urizar (ed.), *Euskal hizkuntzalaritzaren egungo zenbait ikerlerro*. Hizkuntzalari euskaldunen I. topaketa. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 111-133 or.
- Rotaetxe, K. (1994). "Alternance codique et langue minoritaire", in Martel P., J. Maurais (eds.), *Mélanges offerts à J.C Corbeil: Langues et Sociétés en Contact*, Tübingen, Max Niemeyer Verlag, 395-408.
- Sarrionandia, B. (1992). "Kode alternantzia edo 'Code-switching': hiztun euskaldunduen arteko komunikazio estrategien tipologia batetarrantz". Corpus inédito euskera/español.
- Uri, L. eta Etxepare, R. (2012). "Hizkeren arteko aldakortasun sintaktikoa aztertzeko metodologiaren nondik norakoak: BASYQUE aplikazioa", in Lapurdum, Euskal ikerketen aldizkaria, nº XVI, pp. 117-135 (ISSN elektronikoa 1965-0655).

- Uria, L., Hulden, M., Etxeberria, I. & Alegria, I. (2011). "Recursos y métodos de sustitución léxica en las variantes dialectales en euskera", in the Proceedings of the Workshop on Iberian Cross- Language Natural Language Processing Tasks (ICL 2011), pp. 70-76 (ISSN: 1135-5948). (Proceedings: <http://ceur-ws.org/Vol-824>).
- Uria, L. eta Etxepare, R. (2011). "BASYQUE: Aplicación para el estudio de la variación sintáctica", in Revista Linguamática (ISSN: 1647-0818), V.3, nº 1, 35-44.

uztaro

Giza eta Gizarte-zientzien Aldizkaria

2017 · 100

Uztaro aldizkaria jaso nahi dut.

Izena-abizenak:

Helbidea:

Kodea eta herria:

Telefonoak:

Helbide elektronikoa:

N.A./I.F.K.:

Ordainketa:

Banketxea:

Zenbakia (20 digitu):

Sinadura

2017. urterako harpidetza (4 zenbaki): 25,00

Jakinarazi nahi dizugu Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, zure datuak "Harpidetzak" izeneko fitxategian sartuko direla. Datu pertsonalak biltzearen xedea soil-soilik da UEUrekin duzun *harremana kudeatzea eta gure jardueren berri eman ahal izatea edozein bitarteko erabiliz, posta elektronikoa edo antzeko bideak barne*. Eskubidea daukazu datuok ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurka egiteko, honako helbide honetara idatziz: UEU, Erribera kalea 14, 1.D, 48005 Bilbo.

☐ Jakinarazpenik jaso nahi ez baduzu, laukitxoak markatu edo idatzi helbide elektroniko honetara: argitalpenak@ueu.eus



Harpidetza-txartela:

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Erribera 14, a. D 48005 Bilbo

Telefonoa: 946790546

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.eus

www.uztaro.eus

bat aldizkariaren 2017ko **dossierrak**

102. ZENBAKIA

IX. Hausnartu

Euskal Soziolinguistika Sariak

~

103. ZENBAKIA

**Euskaltzaleen Topaldia: Euskararen herria,
zubiak eta palankak**

~

104. ZENBAKIA

Hiztun berriak

~

105. ZENBAKIA

X. Hausnartu

Euskal Soziolinguistika Sariak

